



SINDIKALISMOA

Joselu Cereceda hil da

LAB sindikatuaren sortzailea izan zen, eta ezker abertzaleko militante historikoa. 21



MEDIKUNTZA

Nobela erresonantziari

Peter Mansfiel eta Paul Lauterbur, erresonantzia magnetikoari buruz eginko lanagatik sarituak. 28

KARIDADEKO BENTA

Titiriteroen banda

Bertsoa eta munduko musikak uztartu ditu lehenengo diskoan Karidadeko Bentak. 40

Israelen erasoak gaitzesteko eskaera berriro egin die Siriak Nazio Batuei

SEGURTASUN KONTSEILUA. Iheslari gune bati eginko erasoak kezka eragin du nazioartean, baina NBEren gaitzespena blokeatu dute AEBek

HUSSEIN AGHA
Bake prozesuaren historialaria

«Akordiorako oinarria finkatuta dago; ezartzea besterik ez da falta»

PAN. Gazan eta Zisjordanian larrialdi egoera ezarri du Jasser Arafatek, eta krisi gobernua ere eratu du, Ahmed Kureia buru duela / 2-3



PALESTINAR sendi bat, Gaza kostaldeko errepide nagusiaren ondoan, hareazko barrikada igarotzen. Israelek errepidea itxita dauka igandetik. KEVIN FRAYER/AP

UNIBERTSITATE LEGEA

Euskal Herri osoa aintzat hartuko duen unibertsitate legea eskatu dute EHUKo sindikatuek

● ELA, LAB eta EILAS sindikatuek zuzenketak egin dizkiote Jaurlaritzak landu duen egitasmoari

13. ORRIALDEA

GIZARTE SEGURANTZA

Mutualitateetako medikuek ere senda-agiria eman ahal izango dute

● Gizarte Segurantzak soilik dauka eskuduntza hori, baina PPK aldatu egin nahi du legea

18-19. ORRIALDEAK

940 milioi pertsona txaboletan bizi dira, pobrezia gorrian

● 30 urte barru munduko biztanleen herenak biziko dira auzo txiroetan, NBEk argitaratu duen txosten baten arabera

NBEren menpeko erakunde batek inoizko ikerketarik osoena egin du munduko txirotasunari buruz. Ia mila milioi pertsona auzo txiroetan bizi direla ondorioztatu du, eta etorkizunean egoera okertu egingo dela iragarri. 26-27. ORRIALDEAK



● Koloreak, giroa argitu eta alaitzeko

● Estiloak: iraganeko moda berpiztu da

● Maria Jesus Etxeberria: «Ile luzea eramango da»

ERDIKO ORRIALDEETAN

GAURBERRIAN

HEGOALDEAN BI MILA LANGABE GEHIAGO 20

SOMARRIBA, MUNDUKO TXAPELKETARAKO PREST 35

GAUR 56 ORRIALDE

HARIAN, 2. orria, IRITZIA, 4. orria, EUSKAL HERRIA, 8. orria, EKONOMIA, 18. orria, MUNDUA, 22. orria, GAIAK, 26. orria, KIROLA, 30. orria, KULTURA, 40. orria, AGENDA, 46. orria.

Siriak Israeliek egin eraso gaitzesteko eskaria berretsi du

Israelgo Armadak Damasko ondoko errefuxiatu gune palestinar bati eraso izanak nazioartean kezka eta gaitzespenak eragin arren, NBEko Segurtasun Kontseiluak ez du hura gaitzetsi

ERREDAKZIOA

Ekintzaile palestinar batek larunbatean Haifako jatetxe batean bere burua eta beste 19 pertsona hil eta ordu batzuetara, igandean jada, Israelgo Armadako airekoek Sirian eraso bat egin zuten. Hain juxtu, Damaskotik hurbil dagoen Ein Saheb errefuxiatu palestinarren gunea jo eta hainbat eraikin birrindu zituen. Tel Avivek argudiatu zuen gunean Jihad Islamikoak —Haifako erasotzailearen taldea— entrenamendu eremu bat zuela. Siriak hori ukatu eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren gaitzespena galdegin zuen. Haatik, Washingtonek aukera hori blokeatu zuen. Bitartean, Israeliek Gaza hirian eta Al Bureijeko errefuxiatu gunean hainbat eraikin suntsitu zituen.

Segurtasun Kontseiluak gaitzespenik onartu ez arren, Siriako Atzerri Ministerioak agiri bat kaleratu zuen atzo, Kontseiluko bost kide iraunkorrei —Ameriketako Estatu Batuak, Errusia,

Txina, Frantzia eta Erresuma Batua— berriz ere eskatuz Israeliek eginiko eraso gaitzes dezaten.

Damaskok «munduko herrialdeek Israel gaitzesteko beharra» berretsi zuen, «Tel Avivek antze-

ko ekintzak ez errepikatzen». Siriaren iritziz, halako erasoak egoera larriagotu eta «eskualdeko eta nazioarteko bake eta segurtasunerako mehatxu» bihurtu daitezke.

NBEko idazkari nagusi Kofi Annanek zein ere erakundeko hainbat herrialde kide Israeliek eginiko eraso gaitzetsi zuten, baita Liga Arabiarrek ere. Annanek larunbateko eraso suizida ere gaitzetsi zuen.

Bien bitartean, Hamasek atzo jakinarazi zuen 16 mortero jaurti zituela Gazako kokagune juduen aurka. Ez zen biktimarik izan.


Libano, alerta egoeran

Zenbait adituren iritziz, Israeliek Ein Saheb errefuxiatu guneari erasotzean oharkizuna bidali dio Damaskori, bake prozesuari berriz ekiteko eta palestinarrei laguntza eta Iranekiko elkarlana eteteko. Iduriz, eraso Washingtonekin aurretik hitz egin ondoren agindu zuen Tel Avivek.

Siriak ukatu du lurraldean

ERASOA SIRIAREN AURKA

Israeliek 1967. urtean okupatutako lurraldeak



HONDAKINAK JASOTZEN ageri da kamioi bat, atzo, Damaskotik hurbil dagoen Ein Saheb

errefuxiatuta dauden 400.000 palestinarren artean gerrillariak baseak dituztela. Jihad Islamikoak eta Hamasek segurtatu dute Damaskon zituzten bulegoak aspaldi itxi zituztela. Bestalde, FPLP-KG Palestina Askatzeko Herri Frontea-Komando Nagusiak onartu du duela urte batzuk trebatze gunea izan zuela Ein Saheben, baina Damaskoren presioak zirela-eta itxi zuela.

Israelen erasoak Yom Kippurreko edo Ramadango Gerra —arabiarrek hala deitzen diote— bukatzeko balio izan zuten eta Henry Kissinger AEBetako or-

dezkarria bitartekari izan zuten itunak urratu ditu. Gauza bera egin du Siriak eta Israeliek orduetik —1995eko maiatzean— sinatutako akordio bakarrarekin. Zera zioen akordioak: «Herrialde bakoitzak ez du bere segurtasuna bestearen kaltetan bilatuko. (...) Batak bestearen subiranotasuna eta lurralde osotasuna errespetatuko ditu».

Libanon errefuxiatu guneetan bizi diren palestinarrek alerta egoeran jarri dira Israelen balizko erasoen aurrean. Atzo mugako Kfar Kila herrira tiro egin zuten soldadu israeldarrek.

Analisia ① JOSE MARI PASTOR



«Zuek nahi baduzue, ez da ipuina»

Orker daude Israeliek larunbateko atentatuari emandako erantzunaren ondoren Ekialde Hurbileko gatazka hedatu edo internazionalizatzearen arriskuaz mintzatu direnak: gatazka internazionalizatuta dago Israelgo estatua Ekialde Hurbilean sortu zutenetik. Askoz lehenagotik: Theodor Herzlek 1897an Basilean Lehen Kongresu Sionista eratu eta bertan mundu osoko juduei Palestinara joateko eskatu zietenetik. Herzlek estatu juduaren ametsaz orduan esan zituen hitzek geroa iragarri zuten: «Wenn Ihr wollt, ist es kein Mär-

chen» («Zuek nahi baduzue, ez da ipuin bat»).

Gatazka, beraz, internazionalizaturik dago, hasiera-hasieratik, nahiz gehiengotan *barne arazo* moduan baino ez zaigun azaltzen: Israeliek palestinarren kontra bultzatutako etengabeko garbiketa etnikoan —*estatua izateko eskubidean*— edo palestinarrek emandako erantzun bortitza odoltsuan —*terrorismoan*—.

Israel estatu terrorismoa egiten ari baita zutenenetik. Estatu terrorismoa estatu juduaren mugen barruan egin izan du askotan, baina kanpoan ere bai,

herrialde independente gisa nazioartean onartuak diren estatuen kontra.

AEBen babesean eta AEBen ereduari segituz, Israeliek igandean Sirian egin dako eraso politikoa horren jarraipena baino ez da. Lehenago ere Irakeko zentral nuklear baten kontra egin zuen, Saddam Husseinek bertan arma nuklearrak egin nahi zituela argudiatuta. Orain, horretan jardutea egotzi dio Tel Avivek Irani.

Haifan ekintzaile palestinar batek larunbatean egindako sarraskiak, azkenaldiko odoltsuena izateaz gain, gutxien espero ziren ondorio politikoak eragin ditu: batetik, Israeliek ez du Arafat kanporatu; bai, ordea, Siria bonbardatu; bestetik, Palestinako presidentek larrialdiko gobernu osatu du. Ahmed Ku-reia lehen ministro izango da bertan, baina bere boterea hutsaren hurrena

izango da: *raisa* berritri ere garaile irten da krisialdian.

Siriaren kontrako eraso erantzun puntuala izan da eta efektu *terapeutikoa* izan du israeldarrentzat: palestinar iheslariak jo dituzte, eta —garrantzitsuenak— Siria AEBen begietan jarri dute, *Gaizkiaren ardatzean*, Washingtonen Damasko estu dezan. AEBen presioa Siriaren kontra ez litzateke zorioneko suntsipen handiko armen inguruan izango, palestinarren kontra egiteko baizik. Iran, Israelen beste arerioa eskualdean, presiopean dago jadanik ekoizpen nuklearra dela-eta. Egoera ezin hobea da bi herrialdeak presionatu eta Israeliek Ekialde Hurbilean potentzia bakarra izaten segitzeko. Indarkerian oinarrituta, ondorio guztiek. Sionisten ametsa ez da bukatu, ezta palestinarren amesgaiztoa ere. Hau ez baita ipuina.

Larrialdi egoera eta krisi gobernua ezarri ditu Arafatek

Gaza eta Zisjordanian larrialdi egoera ezartzeko dekretua izenpetu zuen atzo Palestina-ko Aginte Nazionaleko (PAN) presidente Jasser Arafatek. Honez gain, «palestinarraren ba-

tasuna sendotzeko», krisi kabinetea izendatzea erabaki zuen. Asteazkenean aurkezteko den gobernua bederatzi ministrok osatuko dute, eta Ahmed Kureia izango dute buru.

PANeko lehen ministroa jardunean den Kureia atzo esan zuenez, Israelekin aurki suten sinatzea espero du eta ez du talde armatu palestinarren kontra jotzeko asmorik.



errefuxiatu gune palestinarren. Israelek igandean eraso jo zuen bertan. HUSSEIN MALLA/AP

Barkamenik eza

YOM KIPPUR EDO RAMADANEKO GERRAK 30 URTE. Israelek okupaturako lurraldeak berreskuratzen saiatu ziren 1973ko urrian Egipto eta Siria

JUANMA SARASOLA

Yom Kippur (Barkamenaren Eguna) festa juduak eta Ramadan festa musulmanak denboran bat egin zuten 1973ko urrian. Hilak sei egun zituela, Egiptoko eta Siriako armadak Israeli eraso jo zioten aldi berean. Israelek bi herrialdeoi 1967an kendu lurraldeak —Sinai, Egiptori, eta Golango Gaina eta inguruak, Siriari— berreskuratzea zuten xede. Israelgo Armadak berehala egin zien aurre bi armadei eta 19 egunez luzatu zen gerra, arabiarren eta israelarren artean hirugarrena.

Siriako eta Egiptoko soldaduak Jerusalemgo ateetaraino iritsi ziren, baina Israelek kontraeraso jo eta haien posizioak atzeratzea lortu zuen. Borroka gehienak urriaren 22an bukatu ziren eta azaroaren 11n Kairok eta Tel Avivek su-eten historikoa sinatu zuten. 8.500 bat soldadu egiptoar eta siriarrak hil ziren, eta 6.000 israeldar inguru.

Arabiarrek «garaipen» iritzi zioten gerrari. Egiptok Sinai penintsula eta Siriak zenbait lur berreskuratu zituzten; ez, ordea, Golango Gaina. Israelek koloni-

zazio politikarekin segitu eta 1981ean unilateralki anexionatu zuen eskualde menditsua.

Herrialde arabiar askok soldaduak eta diru laguntza eskaini zieten Siriari eta Egiptori. Ekialde Hurbileko herrialde petrolio ekoizleek Mendebaldeari petrolio esportatzeari uko egin zioten, honek Israeli emandako babesagatik. Horrek krisi ekonomiko handia eragin zuen munduan.

Urtemugan Israelgo Armadako irrati operadore ohi Yitzhak Rubinsteinek ezagutarazi dituen grabazio batzuetatik ondoriozta daiteke 1973ko gerran jenerala zen Ariel Sharonek bere nagusien aginduak ez zituela bete.

Haifako eraso suizidak urtemuga belztu du eta Israelek, ohikoa duen *Begia begi truk* jokabide biblikoari jarraiki, barkamenaren zentzua kendu die *Kippur* hitzari eta festa erlijiosoari, igandean Siriari egin erasoarekin.

Alde batetik eta bestetik, okupatzaileen eta okupatuen motibazioak ezberdinak izaki ere, barkamena urria da Ekialde Hurbilean. Mendekua da gehien zintzen den hitza. Obusak, misilak, buldozerrak, bonbak eta balak haren adierazpide.

HUSSEIN AGHA ① EKIALDE HURBILEKO BAKE PROZESUAREN HISTORIALARIA

«Non okertu zen Errepide Mapa? Okerra zen, hasteko»

EDU LARTZANGUREN

Ekialde Hurbileko bake prozesuaren historialaria da Hussein Agha Erresuma Batuko Oxford Unibertsitateko irakaslea. Robert Malley Bill Clintonen aholkulari ohiarekin batera, proposamen bat egin du gatazka konpontzeko: nazioarteak bake ituna idaztea, eta akordioa israeldarrei zein palestinarrei erreferendumean bozkatzera ematea. Proposamenaren inguruko xehetasunez, besteak beste, mintzatu da Agha BERRIArekin.

Israelgo Armadak Siriari egin dio eraso asteburuan. Zergatik?

Israelek gero eta jomuga gutxiago ditu «terroristen kontrako» deritzoten kanpaina horretan. Ekialde Hurbil osoaren egoeraren hauskortasuna erakusten du erasoak: edozein aferak gairi ditzake zuzenean parte mugak. Ekialde Hurbilaren segurtasun egoeran elkarrekiko dependentzia da nagusi, eta Siriako gertaerak hori nabarmentzen du. Israeldarrek saiatzen ari dira une egokitzat jotzen dutenaz baliatzen —estatubatuarrak Iraken sartuta daudela, zein «terrorismoaren aurkako gerra»— Siriarrak umiliatzeko, eta beharbada, Damaskori Hezbola kontrola dezan ohartarazteko.

Duela gutxi, palestinarren eta israeldarren arteko gatazka «behingoz» konpontzeko proposamena egin zuten. Zerk bultzatu zintuzten halako proposamena aurkeztera?

Ekialde Hurbilera begiratuz gero, prozesu bera behin eta berriro gertatzen dela ikusi genuen. Ez da bake akordioa lortzen, eta lortzen bada, ez da betetzen. Hala izan da Oslotik saiatu diren aldaketa guztiek. Saiakera bakoitzarekin garestitu da porrotaren prezioa palestinarrentzat, batez ere, baina baita nazioartearentzat ere. Porrotan ondoren, gero eta gehiago eta gero eta sendago saiatzeko egiten dute dei. Beti da, ordea, saiakera bera: behin-behineko akordioak lortu konfiantza areagotzearen, eta bidea urratzeko behin betiko akordioentzat. Beti dago errua nori bota prozesua hausten denean: Abu Mazeni gutxi egiteagatik, Ariel Sharoni gehiegi egiteagatik, eta Jasser Arafati bidean egoteagatik. Hala izan da Errepide Maparekin ere. Bada garaia, ordea, prozesu be-

raren inguruan ondorioak ateratzeko: oztupoak, atzerapenak, bete gabeko betebeharrak, edo itunen bortxaketak eta bortxakeria orokorrean ez dira prozesuaren desbideraketak, egun dioten bezala, baizik eta berezko garapen saihetsezina. Non okertu zen Errepide Mapa? Okerra zen, hasteko. Ezin duzu pentsatu lehen huts egin duenak orain funtzionatuko duenik.

Beraz, zure ustez posible izango litzateke nazioarteak behin betiko akordio bat idaztea eta aldeei beteaztea?

Bake prozesuaren historiari begiratuta, ikusten da ituna egitea ahalbidetzen duen oinarria jarrita dutela jada bi aldeek. Europak, Estatu Batuek, Errusiak eta Palestinako zein Israelgo gehiengoek badakite zertan den oinarri hori, uki dezakete. Hura ezartzea baino ez da falta. Haatik, negoziatzen jarraitu behar dela esateak ez zaitu inora eramango, bihar bertan hasita ere. Negoziazioetan diferentziak nabarmentzen direlako, eta jada adosturik dagoena gutxiagotu.

Onartuko al lukete aldeek idatzita emandako akordioak?

Nola egiten den. Estatu Batuek zuzendaritzapean, Europa, Errusia, Txina eta herrialde arabiarrek bilduko litzuzkeen koalizioak idatzi eta aurkeztu behar luke, eta Nazio Batuen Erakundeak ebazpen bat emango luke itun hau ezurmamitzeko. Honez gain, lurralde okupatuak NBERen mandatupean jarri behar lirateke bolada batez, itunak dioena gauzatzeko. Estatu Batuek zuzenduta —Israel pozik izateko—, nazioarteko tropak zabalduko lirateke. Horrez gain, neurri multzo osoa erreferendum baten bidez emango litzateke bi herriei bozkatzeko. Halako egitasmo batek arrakasta izango luke, ez bailitzateke xehetasunetan galduko eta bi herrien gehiengoaren sostengua lukeelako.

KONPONBIDEA

«Akordioarako oinarria finkatuta dago jada. Hura ezartzea besterik ez da falta»

Oso ziurtzat duzu gehiengoaren sostengua. Haatik, israeldar gehienak, esaterako, Sharonen alde daude, eta Arafat «kentzea» ontzat dute.

*Intifadaren unerik beroenean ere, palestinarren eta israeldarren %70 izan dira iradokitzen ari naizen akordioaren bezalako baten aldekoak. Ez litzateke inposizioa, negoziazioen historiatik sorturiko oinarri akordioa baita, ez eta kanpoan asmaturiko ezer. Kanpaina egin behar litzateke, jakina. Baina denek onartuko lukete, denek nahi dutelako irtenbidea. Israeldarrek egungo politika sostengatzen dute, beste aukerarik ikusten ez dutelako. Azken inkestak ikusita ere, beti duzu emaitza bera: israeldarren %70-75 bi estatu osatzeko konponbidearen aldekoak dira. Kontraesana itxurazkoa da. **Bi aldetako muturrekoek ezingo lukete akordioa zapuztu?***

Gehiengoaren pisua nagusituko litzateke, hau da, orain arte ahotsik izan ez duen gehiengoarena. Ez dago beste biderik. Israeldarrek nazkatutako daude, ez dute irtenbiderik ikusten, Sharonek ez die eman aginduriko segurtasuna. Palestinarrak nazkatuta daude, ez soilik beren segurtasun ezagatik —israeldarrek baino arrisku handiagoa dute, hildako kopuruei begiratzen badiezu—, baita ere beren amets nazionala lortzeko modurik ikusten ez dutelako.

Zer nolako erreakzioak sortu ditu zure proposamenak?

Oraingoz ideia da, besterik gabe. Jendeak dio ez dela aterako, eta ni ados nago. Ateratzekotan, bihotz aldaketa izan behar luke AEBetan, gidaritza har dezaten. Plana NBetik badator, Israelek ez du onartuko, ezta Europatik badator ere. Gauzatzeko aukera bakarra AEBetatik etortzea da, eta Washington lanpetuegi dago egun Errepide Mapa bizirik mantentzen, zein datozkien bozekin. Aukerak ia zero dira, egitasmo hau bide bakarra den arren. Hau da bi estatuko konponbide baten azken itxaropena. Ez bada gauzatzen, urte pare berru proposatuko diren konponbideek estatu bakarra aurreikusiko dute. *Apartheid*-kin hasieran, baina estatu bakarra izango da azkenean. Palestinarrentzat hori ez da problema, bai ordea israeldarrentzat, estatu judua nahi duten heinean.

» hizpideak

Eskumen gehiago lan mutualitateei

Gizarte Segurantzako Institutuaren eskumen eskusiboa zena lan mutualitateei emateko asmoz dabil Espainiako Gobernua, eta konpainia pribatuei gaixo diren langileei senda-agiria emateko modua egingo liekeen egitasmoa prestatu du. Oraingo lege-dekretu zirriborroa da, baina Madrilén asmoak agerian daude. Gizarte Segurantzaren eskumen eskusiboak lan mutualitateekin partekatu nahi ditu, baina, azken finean, bigarren-geen esku geratuko lirake. Horrela, osasun sistema pribatizatze bidean jauzi handia egingo luke Madrilék, sindikatuek salatu duten bezala.



DAMASKOKO bi herritar, eguneko prentsa irakurtzen, atzo Siriako hiriburuko kiosko batean. ALI HAIDER / EPA

Nazioarteko zuzenbidea ez dago Israelek betetzeko

Israelgo Armadak igandean Siriako lurretan eginiko aire erasoak —Damaskotik 50 kilometro ingurura hurbildu ziren airekoak— nazioartekoaren gaitzespena baino ez dute merezi izan; ez da gaitzespen hitzetatik haratagoko adierazpenik egin, eta Ameriketako Estatu Batuek, gainera, «defenditzeko eskubide osoa» eman diote Tel Avivi, Washingtonek munduan egiten duena Sharonek Ekialde Hurbilean egiten baitu. Nazioarteko zuzenbidea bortxatu du Israelek; larria da egin duena, baina ez du zigorrik jasoko, mendebaldeak ez diolako ezarriko eta inguruko herriek ez dutelako Israelek adina indarririk.

Kremlinoko hautagaia nagusi Txetxenian

Akhmad Kadirovek bozen «zilegatasuna» jaso du, duela lau urte Moskuk emandako aginte makila igandean Txetxenian egin ziren hauteskundeetan berretsi eta gero. Egia da, ordea, kontrako hautagai asko ezin izan zutela parte hartu hauteskundeetan eta gerrillari independentistek boikota egin zieten hauteskunderi. Egia da, era berean, botoemaile andana joan zela bozkalekuetara, baina ez joateak ekarriko zituen ondorioen beldur zirelako. Hauteskundeetan aukeraturiko presidentea du orain Txetxenian, baina prozesu politikorik ireki gabe, gerrak berdin-berdin jarraituko du.

» montxo



» zorrotzarri

Gazteak eta kalimotxoa**XABIER BARANDIARAN**

Aurtengo Kilometroak jaia Lazkao-ko San Benito ikastolak antolatuta du. Gipuzkoako ikastolen eta euskararen aldeko festa hori euskaldunen gizarte giroaren nondik norakoaren ispilu interesgarria gerta daiteke. Duela hogeita bost urte jai horrek zuen gizarte ingurunea eta gaurkoa ezberdinak dira: giroak, handik eta hemendik lantzen diren mezuak eta agerian jartzen den estetika eraldaketan dihardute. Herritarrongan Euskal Herri euskaldunaren irudi bakarria etengabe-

ko aniztasunean sartzan ari da, eta harrija-sotzaileen ikuskizunari aterkiak saltzen ari den etorkinaren irudia erantsi dio denborak. Kilometro horiek pausoz pauso egiteko arrazoiak pluraltzen ari dira.

Aniztasun zoragarri horren koadroan hain eroso txertatzen ez direnak, geroz eta indar gehiagoz agertzen diren gaztetxoek kalimotxozko festa horiek dira. Edozein modutako ospakizun edo jaiak berekin du halamoduzko dibertimenduren bat. Eda-eta osagai hedatua eta onartua da gure artean festa egiteko orduan. Baina osagaia elementu zentrala bilakatzen baldin bada, orduan aitzakia Kilometroak da, eta ez Kalimotxoa. Duela urte batzuetatik hona, gaztetxo asko ikusten da plastikozko poltsetan litroak eta litroak hartuta. Litro horiek guztiak edateko direnez, arratsalde al-

dera zenbait animatua baino gehiago desanimatua ikusten da; begi txikiak, zutik baino etzanda hobe, nahi eta ezin. Ondoan beti izan ohi da badaezpada ere ogitartekoren bat jan duen lagunen bat, oraindik zutik dabilena eta elkartasuna adierazteko gai dena. Jende asko da egoera hori penaz ikusten duena, eta bada giro horretan pena hori gure herriaren etorkizun kaskarrarekin identifikatzen duenik ere.

Ez da nire asmoa ikasgairik irakastea gaztetxo horiei. Nahi izango banu ere, ez nintzateke gai horretarako; ez da gazteetara mugatu daitekeen arazoa ere. Baina nik uste nuen, modernaroko arrazionaltasunak itoginakerakusten dituen gizarte post-modernoago eta indibidualistago honetan, banakoak askatasun handiagoz burutuko zuela bere gizarte aukera; ez da

horrela. Artaldean goaz edatera, musika edo moda kontsumitzera. Menpekotasun hori da kezkatzen nauena. Merkatua zuzentzen dutenak badakite arrakasta, jokabidea mantendu behar duen hark, ez pentsatzean dagoela; artalde erreakzioak interesatzen zaizkie, eta beraiek nahi duten norabidean, gainera. Non da askatasuna eta kreatibitatea? Non hausturak eta berrikuntzak sortzeko gaitasuna? Non izaera kritikoa? Ez naiz gaztetxoek mozkorkeria euskal aberriaren aldeko lana ahultzearekin identifikatuz penaz nagoen horietako bat. Menpeko izateak kezkatzen nau; lotan eta bere burua hain erraz anestesiartzten duen gizarteak eta gazteriak kezkatzen nau. Gizarte aberats batek nor bere buruaren jabe diren pertsonak eta gazteak eskatzen ditu.

ARGITARATZAILEA: Euskal Editorea, SL
ZUZENDARIA: Martxelo Otamendi
ZUZENDARIORDEA: Xabier Lekuona
EDIZIO ARDURADUNA: Pilar Mendibil
PUBLIZITATEA: Irigarri, SL
LEGE GORDAILUA: SS-0662/03
BATZORDE PAREKIDEA: galdegite fasean

EGOITZA NAGUSIA: Martin Ugalde Kultur Parkea,
 Gudarien Etorbidea z/g. 20140 Andoain.
 Telefonoa: (0034) 943-304030 Faxa: 943-300943
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@iragarri.net
Harpidetza saila: 943 - 304345

ORDEZKARITZAK: Araba: Bizenta Mogel 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-150452. Erredakzioko faxa: 945-148307. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Fanderia 1.105-106 modulua. Posta kodea: 48901 Barakaldo. Telefonoa: 94-4180120. Erredakzioko faxa: 94-4385100. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. **Nafarroa:** Iratxe Monasterioa 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-366622. Erredakzioko faxa: 948-273757. Publizitatea: 948 366623. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. **Ipar Euskal Herria:** Pelletier 9. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: (0033) 676 714810. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info

» jira

Haur jolasak

MAIALEN LUJANBIO

Esker ona eta adar-jotzea erdi bana zeuzkan oparitxoak. Loreontzi eskas bat zen, eta plastikozko lore nabarmen batzuk, esponja berdezta gogor batean sartuta. Etxe atarian utzi genion lagunari, kalera irtetea aurkitu eta barre konplize bakarti bat sor zekion.

Gerora jakin genuen, bizilagunen batek hura ikusi eta Ertzaintzari deitu ziola, eta ordutan aritu zirela gure loreontzi narrasa miatzen.

Barre egin genuen...

Bilbon, domekan berdin. Lau kale itxita; jendea begira; kazetariak; Ertzaintzako artezilariak eta motxila bat, motxila susmagarri bat. Ireki bazuten ireki... hara! Patin pare! Umeren batek ahazturikoa.

Beldurgarria da psikosia. Maitasun aitorpentxoak eta haur jolasak susmo-pean. Beldurgarria da egoera.

Eta hala ere, munduan, patin gainean bizitza jolasean behar luketen haurrak, tankeen parean bizitza jokoan dutelarik; edo andreak, benetako loreak ureztatzeari utzi, eta kalera dinamitaz izarra irteten direlarik; geure honek, loreontzi eta patin-zorroen ingurutxoan dantzan gabiltzala, haur jolas inozo bat baino ez dirudi.

» bira

Zepoan


HARKAITZ CANO

Polizia espainiarrak (*fuerzas y cuerpos de seguridad*: nola itzuli euskara giltzarrapo opakoz betetako hirutasun santu hori?) estropezu egin, eta arma ezustean disparatu ondoren (zai, zoi, bele, laprast, tiro, tupust!) Ceutan hildako marokorak ez du prentsan hauts gehiegi harrotu.

Irratian entzun nuen Acebes ministroaren sikofonia kurioso bat. Bere azalpen tatxarrik gabeko horietako bat. Heriotza hitza aipatu ere ez zuen egiten, pentsa. «*El resultado que todos ustedes conocen*» hitz-zepoa erabiltzen zuen haren orde. Odoltsu, hiltzaile, terrorista. Berba horiek ze urrun geratzen diren orain, ezta? Bai sikofonikoa dela dena. Itzal bat pasatzen da, aingeru ilun bat bezala, gure gainetik.

El resultado. Heriotza hori kinielako emaitzen artean sartzerik balego bezala. *Que todos ustedes conocen*. Guri pasatzen digu pilota, erraztasun handiz, labainkor. Eta eskua hitzen zepoan harrapatuta sentitzen dugu guk, barruko patioan, marokor bat teilatutik behera nola amiltzen den entzuten dugun bitartean.

» martintxo



» hitzordua

Euskararen geroaz eztabaida egiteko unea

MIKEL IRASTORZA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EKO KIDEA

Inkesta Soziolinguistikoa datuen berri urriaren 25ean jaso dugu, atzerarenekin etorri badira ere. Egia esan, ez da zenbakien gainean ordutako saiorik egin behar gure hizkuntzak bizi duen egoera larria ikusteko. Ez da sorpresa ere izan, antzekorik espero baitzitekeen. Euskalgintzak eta beste hainbat sektore euskaltzalek euskarak bizi duen egoeraren gainean gure kezka aspaldi azaldua dugu. Beste egoera bat behar dugu herri honen euskalduntze osoa burutu ahal izateko. Baina instituzioetatik jasotzen dugun mezua positiboa izan ohi da: mantso, baina ongi goaz. Gaitzerdi.

Jendarteari zabaldu zaizkion datuak oso kezagarriak dira eta horrek iritzi eta eztabaida ugari sortu beharko luke, baina ez da halakorik gertatu, ez behintzat iritzi publikoan eta hedabideetan, Gasteizko Legebiltzarreko eztabaida politikoa hartu baitu garrantzi informatiboa. Inkesta plazaratzeko unea kasualitatea izan ote da? Ez dugu uste. Euskararen egoera ezkutatu nahi da, egungo egitura eta politiken porrota agerian geratzen delako. Dena den, inkestaren emaitzak eskuartearen izateak aukera paregabea eskaintzen zuen eztabaida horretara irakurketa politikoa eraman eta hizkuntza debate horren erdigunean kokatzeko, baina ez da hala gertatu.

Ikusten dugunez, ez da komeni euskara politikarekin lotu eta Euskal Herriak bizi duen jazarpen politikarekin azterketa egiteko. Baina ezinbestez lotura hori egin beharra dago, gure hizkuntzak eta euskaldu-

non komunitateak pairatu behar dugun egoera ez baita kasuala edo ezerezetik sortua. Mendeetan sufritu behar izan dugun zapalkuntza eta ordezkapen prozesua gogorra eta basatia izan da eta egun ere hala-koxea da, ezagutza eta erabilera datuak ez baitira herritarren borondate, gogo eta erosotasun kontuak. Datu horiek egungo inposaketa eta zapalkuntza ahalbidetu eta zazitzen gaituen markoaren ondorio zuzena dira.

Bistan da Euskal Herria zatituta dagoela eta horixe da hain zuzen euskara garatu, normaldu eta euskal komunitatea trinkotu eta kontzientziatzeko zauri larriena. Lege aldetik zatituta, euskarak egoera juridiko ezberdinak ditu, batzuetan herritarroi eskubide batzuk aitortuz, beste batzuetan hori ere ez. Baina funtsean inposaketa orokor bat bizi dugu: espainola eta frantsesa ezagutzea derrigorrezkoa da eta horiek erabiltzeko ez dago inongo arazorik edonon eta edozein mementotan; euskara berriz aukera bat da (ahal denean beti ere) eta berau erabiltzeko oztopo amaigabeak ditugu, edonon eta edozein mementotan. Eta hori zergatik gertatzen da? Bada, espainiar eta frantziar legeen pean gaudelako eta eurek dutelako hizkuntzen auzian erabakitze

ahalmena. Bi konstituzio ezartzen zaizkigu eta horiek dira herri honetan agintari. Horren azpian daude EAEko Euskararen Legea eta Nafarroa Garaiko «Vascuencearen Legea». Atera kontuak.

Egoera honek hizkuntza politika bakar bat ez izatea eragiten du. Horra hor beste gakoak. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian hizkuntza politika iruzurra bilakatu da, hoguei urte pasatxo ostean garbi ikusi baita emaitza: milaka haur eskolatik erdaldun eta D ereduek beheranzko joera hartu du, helduen euskalduntzearen beherakada, administrazio langile berriei euskara eskatu ez... Baina hala ere txalotzeko politika omen. Nafarroa Garaiko hizkuntza politika desagerpen eta gorroto politika bilakatu da neurri eta dekretuekin. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan berriz gauzak patxadaz egin behar dira, beste erritmo batean, mendealdeko hiru lurraldeetako politikaz «ikasiz». Azterketa zatikatuak, lege eta politika zatikatzaileak. Baina funtsean, gure herriaren euskaraz bizitzeko ezintasun osoa. Hori azterketa objektiboa da.

Miren Azkaratek ofizialtasunak laguntzen duela esan du, hori bai ahotsa gehiegi altxatu gabe. Behingoz arrazoi eman dio urteetan mugimendu euskaltzaleok egin dako aldarrikapenari. Baina zein motatako ofizialtasuna behar dugu? Argi dago euskararen afera ez dela argituko Euskal Herriaren afera argitzen ez den artean. Hau da, euskararen ofizialtasuna lurralde osoan eskuratzea ezin da eslogan hutsa izan. Horren atzean dagoena plazaratu eta eraiki beharra dago. Bakoitzak ikusmolde ezber-

Ofizialtasuna Euskal Herri osoan erdietsiko dugu lurralde osorako lege berri eta bakar bat egiten hasten garenean

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Uda iragan. Makila eskuan

JEAN PIERRE ERBIN, 'ETXEGOIHEN'
ENPRESABURU OHIA

Uda hasieran, Tourra gure lurretan sartzera zihoala, euskararen erabilpena auzitan. Hemen, hainbestetan, sukaldako lanen eginbeharra aipatzen da. Zoritxarrez, batek edo besteak, leihotik botatzen du mahai gainean egon behar lukeen osagai bat, edo beste. Oraingoan, gure hizkuntza, aitzaki, kanpotarrekin ezkutuko tratua egiteko! Ergelkeria izugarria. Umeak, eskatzean, argiagotzeko ziren. Espainolek euskaldunei dieten gorrotoa berriz azaldu zuten. Frantses jauntxoek zurikeria... Leblanc jaunaren atea zabalik edukitzeak, ondorio emankorragoei bidea zabaltzen zuen, gure nahiak entzunazteko, hizkuntza erabiltzeko, nortasuna eta... batasuna adierazteko. Eta hala, arerioen zitalkeria, garbi, garbi ikusiko zen.

Horrela nekez ulertuko gaituzte inguruak. Michel Rocarden esku-hartzea bitxia izan zen, bere ibilbide politikoa, antkolonialista, PSUtik hasita, ezaguna da. Jakinean Euskal Herriko egoera aztertzen egina halak egin dituela—Batasunako kongi dakite—ontzat ematen du, politikoki, bere ustez jarduera deitoragarria dela eta, batzuei, keinu tinko bat helaraztea... Frantziako kazetari eta idazle ospetsu batek erran zuen bezala (Françoise Giroud), ez da anbulantzia bati tiro egiten, eta gatazkaren amaiera bideratzeko, beste zereginik izan lezake Rocard jaunak. Europako erakundeetan, euskaldunentzako garrantzi handiko leku batean dago, kultura arloan. Bada beste bat anbulantzia agertzen denaldi oro, hazkarak ezin egonean jartzen duena. PPrekin bat egitean edo, Josu Jon Imaz dugu. Zer beharra zuen, aipatzea eta epaitzea, egin zuen moduan, espainolek azaleratu zitalkeriak. Alferrrikako dira, eledunaren mila hitz. Zuhur eta labor erraiteko, bere agerraldiak ez dira ez atsegin ez lagungarri. Ohartu behar du, nor bere gain hartu ahala, akatsak agerian daudela. Bere alderdia bera, ez dela aingerutegi bat. Jakin behar luke, PPSOEkoek, ez dutela bakean utziko, belaunika ikusi arte. Bera, bere gobernua, eta gure herria. Aitzina begira, ihardespren isilik dira, eraginkorrenak. Aitzina begira... Gehiegi eskatzea al da? Gure herriak soberan dugu aginte politiko buru batzuetatik, turrustatzen diren nahaste borrateak. Eta bereziki, gogaikarriak, Jaurlaritzatik heltzen direlarik. Azken adibidea: Ertzaintzarekin izandako tiroketa baten ondorioz, ustez ETAKoa

zen kide baten heriotzaren aipamen batzuk. Akatsak, akats, ikas dezagun gure joaerak zuzentzen, herria handitzearen alde. Deitoragarria ere, sinbolismo atzerakoiak batzuen gogoetetan hartzen duen lekua. Adierazten duena ez da lagungarri gaurko gizartea erakartzeko autodeterminazio kontzeptuetara. Eta burujabetza... Zertarako?... *Giltza* edo omen giltzatu zena, galdü genuen. *Giltzatu* zenbaitek alde egin zuten... Mota guztietako *blindajeak*... lehertu dira edo leherrazti dituzte, berdin da. Gogoan ditugu benetako giltzak eta blindajeak igurutzen dituztenak... *Masa kritika*... horren erranahiaz, AuBko aitzindari, fisikari jakintsu eta kementsu bati galdegin!... Eta orain, «burdinazko ukabila»... Eta burua, nolakoa? Gure arbasoek, ukabilaren erabileraz eta burdinaz zekitenek, asmatu zuten burdinaren lekua, makila ederraren barnean; isilik eta ezkutuan. Autodeterminazio bidean, ikur egokia. Eta, zarata handiek, ez litzukete estali behar gure hutsune eta axolagabekeriak.

Adibide argigarri bat: uztailan, Musée Basquen sartu nintzen. Sarreran, mutil bat eta hiru neska. Haidürü... Bezeroa: «Arratsalde on, sarrera bat, otoi»/ Neska bat: «*S'il vous plait?*».../B: «Sarrera bat nahi nuke, otoi».../ Ber neska, harroxko: «*Je ne comprends pas... Vous voulez visiter le musée?*»/B: «Asmatu duzu... *Vous avez deviné?*».../ Ber neska, gehi irriño zozo bat, bere lanari lotua... «*Voilà, Cinq euros*».../B: «Bost euro... Horra, eta gure hizkuntza, bost axola zaizu!»/ Mutil, gizontsua, beste neska bati mintzatzen: «*Toi, tu apprends le basque... tu vois, ça peut servir!*»/ Neska: ia pixka bat taldetik bazterturik, lotsaturik, isilik.../B, neskari: «Zorionak zuri... *ce sera pour votre bonheur*»... eta gizontsuari: «*pour le reste, pour servir, vous faites l'affaire... Pour le moment*». Kanporatzean, ene «Agur»-ari erantzunez, «Agur» (neska ikaslea), «Adiii», «Adiii», (besteak). Irailean itzuli naiz... Hiru gizontsu... Euskaldunik ez! Eta bai! Museo bat! Euskara bozgorailuetan, beti alai! edo belarrietan atsegin... Eman diguten, eta onartu dugun, irudi hilgarria, salgai. Gurea: «*tres vieille Europe!*». Horrelako zenbat... Eta ez bakarrik, Haritxelhar jaunak zuzendu duen eta Grenet jaunaren agindupean den erakunde batean... Berdin, Zuberoan, pastoral baten sarreran, edo, edo... Edo, zuk elkarrizketa euskaraz abiatu, euskaldun jakin batekin, eta bertan lerratu erdarara, zuzendu eta... erdarara, aspertu arte... Eta hori gertatzen da, abertzale giroari lotuak diren

zenbaitekin, batzuk erakundeetan ardurdun... Senide euskaldunen artean, nonahi. Horretaz ohartu behar dugu, euskaldun orok, ikastola eta gau ikastoletan egiten den lan eskergarriari, ingurugiro lagungarri bat sortu nahi bada. Ez Leblanc jaunaren begiruneak, ez, aldian aldiko minak sendatzeko, Haritxelhar eta Grenet jaunak uztartzeko, ez dute aterako lokaztitik euskara.

«Ez dezatela, ondorengoek, euskara, gugatik galdu zela esateko biderik izan...» (Jose Migel Barandiaran). «Egiazko euskaldunen» ardura da, gelditzen den altxorren babestea eta sendotzea. Behaztopak, nonahi. Heziketak, aspalditik, guztiz menperatzaileen eskuetan egonik, ezaugarriak oro galtzen goaz. Ezintasuna, Iparraldean bereziki, eta Nafarroan, gure gizarteari eskaintzen zaizkion egitura *demokratiko* eskas, edo, zitalek lotzen gaituztelako. Egoera mingarri hori estaltzeko, ahaleginak eta bat asmatzen dituzte egitura politiko inperialista iraunkor baten barruan... Baten batek uste al du, ikas-bi bezalako antolakuntzak gure hizkuntza berpizten lagunduko duenik... Egiazki? Inork ez. Lasaigarri bat da. Axolagabe ahanzor batzuen keinu berantiarrek ez dira sinesgarriak. Paristik heldu *missi-dominici*-ak, gutxiago. Argiki, lortu behar dugu, irakaskuntza eta hedabideetan, hizkuntza eta kultura arloak bereiztea Frantziako eta Espaniako eruedetatik. Adiskidetasunez ahal bezain. Gure adituek, askatu behar dute, erabakitze indarrak bildu, eta badute hezkuntza teorietan nahiko oinarri hori azkarki lortzeko. Argibide behar, begiratu frantsesen jokaera, globalizazio kulturalaren mehatxuak direla eta! Bitartean, zaurituak, ez gara ohartzen gure egoeraz. Hanka hor ditugu, besoak ere bai, errugian eta eskubaloian, edo futbolearen, adibidez, trebe. Burua ere bai, hor nonbait, euskaldun ustea erdi ustel. Hor, hein handi batean, lehen armadan bezala, galtzen du nortasuna euskaldun gazteriak. Hor badago benetako intsumisio alor bat lantzeko. Kirola eginez, baina burua erne. Zeren eta zepoan eroso gaudela ematen du, Euskal Herri osoan. Begirada bat eman, Barkoxetik, Bilboraino. Isilean, lotsa eta ahalkea, edo, bizitzaren gordintasunaz ohartzen diren gazteen kexua eta amorrua, oldartze biderantz lerratzen dena... «Borroka da bidea»... Eta gogoetak! Tarteka. Bitartean ere, sortzaile kementsu batzuek, ingurumen itogarri hori ihardesteko, emankizun ohargarriak eraiki dituzte, pastoral, antzerki eta beste, herritar gogoak berpiztuz. Lan miresgarriak batzuetan. Barko-

xetik hasita... Egileak: gehienak, herritar xumeak. Herri hezkuntzatik heldu diren lore berantiar batzuk... Ez hezkuntza antolatu mundutik helduak, salbuespenak salbuespen. Hilzorian dagoen Zuberoa aldera, eman begirada bat... Udan, bortiala, joan nintzen. Olha batean: senar-emazte adinekoak, ardi zain; gizon gazte bat oporretan, euskalduna, bere andre gaztearekin; hau sortez Basabürükoa, lehen ezagutu dudun baserri bateko alaba, mendi goian hezia, haurtzaroan. Frantses ez elestatzen dira. Euskaraz mintzatzen natzaie. Adinekoek euskaraz ihardesten dute. Gazteek, frantses ez. Ene harridura adierazten dut, ahalkea... Berdin da... frantsesera erortzen dira. Neska, frantses eskola batean irakasle da... Makila hartu eta aitzina jo. Laino pean... Heldu zait, baita ere, Mauleko apaizgaitetik, ikasle ohi bezala, bazkari batean parte hartzeko deia. Idatzia, frantses hutsean dago. Kanporatu ninduten itsuski, duela 50 eta zenbait urte... Ustekeria dut ez dituztela kumitatzen ikasle ohiak oro. Opus Deiren kontuak izango dira: ardi zuriak eta ardi beltzak. Zergatik zuritu naute?... Lehen bezala, ahalduen eskutik, zurikerian. Zuberoa gainbehera doan bezainbat, ospe handiko ikastetxe bihurtzen ari da, urtez urte, Frantziako hezkuntza pribatuaren lehiaketan.

Itzuli naiz, bortü ederretatik, oroitzapen txarrak alde batera utzirik. Ikusi behar, Baionan, *Batera* egiten dugunez, egiazki!... Bost mila lanpostuen kudeatzaiek zeregin handia emanen du... Harrigarria, hala ere, ondorio hori azalartzea, ikur bat balitz. Urdaila, burmuina baino erakargarriagoa dela... Sinetsi behar dugu, orain arte irabazi eta egin diren urratsak adimenaren eta irudimenaren eremutik heldu direla. Ez gaitzen erori sasidekratek erabiltzen dituzten zelai dohakabeetako joko arauetara. Ikusmolde eta jokaera txar jakin baten adierazgarri garbia dugu, bost milakoen kontaketa hori... Lehiaketa, nor kudeatuko du? Ohartzen ez bagara, ikas-bi bider ahantz-hiru lortuko dugu. Bost mila «*Adiii, adiii*»... Erantzuki egiten ez badugu oinezkoek, makila eskuan.

Eta zorionak Ibarretxe jaunari. Nahi edo ez, berak bakarrik asmatuko eta aurkituko ez zuen zelaitik dei egiten du, indarrak biltzeko. Euskaldunontzat, laino artean, itxaropenezko ikusmuga bat—bat—hor dago. Hordago! Bai eta era guztietako adimenak eta kemenak uztartuz irabazi behar dena. Gure bidezigorri jarraiki. Ametsak irauteko dira, eta mugak gainditzeko!

Euskararen geroaz ...

(Aurreko orritik dator)

dina izan dezake, baina aldarrikapen hutsetik haratago joan beharra dago. Eta gure ustez, ofizialtasuna Euskal Herri osoan erdietsiko dugu lurralde osorako lege berri eta bakar bat eraikitzen hasten garenean. Euskal herritarroji, inolako lurralde bereiz-

keriarik gabe hizkuntza eskubidea aitortu eta bermatuko digun legea hain zuzen ere; gure hizkuntzaren berreskurapen prozesua babestu eta bultzatu behar duena. Eta horri estuki loturik hizkuntza politika nazionala gehitu beharko zaio. Euskal Herri osoan eraginez, legeak aitortuko dituen eskubideak gauzatu eta euskara Euskal Herriko hizkuntza izateko neurriak aplikatu-

ko dituen, alegia. Urgentziazko beharrak direlarik, erabakitze ahalmena eskuratzera jo behar dugu, hots geure buruaren jabe izateko egoera lortzera: burujabetza. Proposamen zatikatuak ez dira baliagarriak euskararen normalizazioa erdiesteko, are gutxiago norbere interesetatik eta ez herria eta hizkuntzaren interesetatik egiten direnean. Mugimendu euskaltzale eta abertzale guztien bete beharra izan behar da egungo markoa gainditu eta euskara-

rentzat eta Euskal Herriarentzat egoera juridiko berri batera urratsa egiteko bideari ekitea.

Denbora aurrera doa, gure kontra gainera. Egin dezagun eztabaida eta bidea, baina ez gaitzen isildu eta gelditu. Indar euskaltzale guztiok ados jar gaitzen bide horretan eta har ditzagun konpromiso sendoak. Bakoitzak bere eremuan, baina guztion iparra berbera delarik: Euskal Herriaren euskalduntzea.

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzarekin idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide hauetara bidali behar dira, izena eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

'Zona no vascofona' eta ikastolak

Lan eskaintza: «Eremu ez-euskalduneko» ikastola batean lana eskaintzen da. Lanaldi osoa. Lan atsegina. Soldata: 0 euro hilean.

Horixe da Irunberri, Viana, Lodosa edo Tuterako ikastoletan uste baino lehenago zintzilikatu beharko dugun karteltxo. Izan ere, 2003. urtea bukatzeaz dago eta oraindik ez dugu jaso Hizkuntza Politikatik ezta euro bat ere berez jaso behar genuen diru laguntzatik.

Alegalak izan arren, zilegia da guztiz pasa den martxoan Nafarroako Parlamentuan onartutako gure diru laguntzen legea. Eta zer egin du Nafarroako Gobernuak? Bada, legea ezarri beharrean, Foru Agindu bat atera non informazio ulertezin piloa, bai kantitateagatik bai edukiengatik, eskatzen zaigun. Itundutako edozein zentrori eskatzen zaion baino askoz gehiago. Esate baterako: ikasleen eskola liburuetakoa 6 eta 7. orrialdeak, bizileku ziurtagiria, gastu guztien fakturak, zentroko planoak... eta dena konpultsua! Zertarako? Oso erraza. Dokumentu pila hori guztia aurkeztu arte diru laguntzarik ez dugula jaso-

ko diote eta, bitartean, ares-tian aipatutako lau ikastolok sosik jaso gabe jarraitzen dugu. Helburua garbi dago: eremu hauetan D eredua eta kalitatezko hezkuntza (zeren argi dago ikastolok kalitatezko ereduak izango ez bagina ez zirela hainbese kezkatuko) eskaintzen ditugun ikastetxe bakarrak poliki-poliki, pausoz pauso ekonomikoki itotzea, gure ateak ixtera behartu arte. Zein ikastetxe, publiko, pribatu edo kontzertatu da gauza irauteko dagozkion diru sarre-rak jaso gabe?

Dagoeneko denok dugu garbi nolako helburuak dituen Nafar Gobernuak euskararekiko. Behin eta berriz Sanz jaunak Nafarroaren aniztasuna aldarrikatzen du, euskararekiko bere jarrera egokia eta bidezkoa dela esanez, baina behin eta berriz alderantzizko iritziak jasotzen ditu alderdi zein erakunde guztietatik. Azken zaplaztekoa Europako Hizkuntza Gutxituen erakundeak eman dio, baina azkar erantzun du, erakunde hori ez dela ofiziala eta jasotzen duen informazioa alde batekoa eta, beraz, manipulatu dela esanez. Bistan da Nafar Gobernu honek itsuarena eta gorrarena egiten jarraitzen duela euskarari ematen dion tratamenduari buruzko kritikak jasotzen dituen.

Bistan dago, bada, zelako egoera larrian aurkitzen garen aipatutako lau ikastoletan.

500 ikasle eta 60 irakasle eta langileen etorkizuna kolokan. Horrela dago D ereduaren egoera *zona no vascofona* deitzen duten toki hauetan. Eta hau guztia gutxi balitz bezala, egunkarietan irakurri behar dugu nola Sanz jaunak bere buruari «aniztasunaren eta boluntarismoaren defendatzaile sutsua» deitzen dion. Esatea ere! Norbait izatekotan, gu gara hemen horren eredu.

Ikusteko dago, bada, Irunberri lur *novascófono*-ak nola eutsiko dion bertara bilduko den euskalzale pilari datorren urriaren 19an Nafarroa Oinez ospatzean. Erakuts dezagun gure nahia Irunberrira joanez.

Txusma Azkona Tuterako Ikastolako zuzendaria eta Lodosa, Viana eta Irunberriko ikastolen zuzendariak.
Tutera

Eta orain zer?

Unibertsoa bat ez, baizik eta unibertso asko badaukagu, azken ikerketek erakutsi dutenaren arabera. Gure unibertsoa beste batzuen inguruan mugitzen dela. Horrez gain, ezta ideiarik ere nondik gatozen.

Hori gutxi balitz bezala, galdera sortak datozkigu

burura, Elizak berak ezinean erantzunik gabe jarraitzen duen uanean: bekatua non, zerua non, purgatorioa non, infernua non, eta Jainkoa edo jainkosak? Askoren bizimodua?

Elizaren aldarrikapenean, goian zerua geneukan eta behean infernua. Ematen zuen denak bere lekua zeukala. Orain oro ez da berdin, astronomo izan barik ikus dezakegulako ziria sartu zigutela barru-barruraino, arima (?) dagoen lekuraino.

Asmakeria askorekin bizi behar izan dugu, eta orain inor gutxik pentsatu nahi du horri buruz, ea errealtate krudelarekin topo egiten dugun. Txiripaz, kasualitate hutsa, bizi garela, alegia. Eta are ankerragoa dena, geroaz ez dakigula ezer.

Bien bitartean pentsatze hutsak ikaritzen gaitu, gure txikitasunean harrokeriaz beteta lur emankor hau suntsitzen dugun bitartean, gure patu tristeza betetzera hurbiltzen ari garela ezinbestean, handikiek hala bultzaturik, lasterketa zoroan, botere eta diru goseagatik, bizitzaren esperimendua suntsitu arte, baldin eta bereheala neurriak hartzen ez baditugu.

Tomas Anjel Gonzalez
Zabalbeitia
Abanto

» larrepetit

Inbasioak



CASTILLO SUAREZ

Juan Jose Ibarretxeren planari buruzko eztabaidan gaude bete-betean, Euskal Herriko egitura instituzionalari buruzko hausnarketa aspaldi hasi bazen ere. Batzuei planak ematen die beldur; besteei, berriz, eztabaidak berak. Miguel Sanzek dio Ibarretxeren planak nafarro mehatxu egiten digula. Juan Cruz Allik, bestalde, bere ohiko derrapajeetako bat izan du, eta ez dela mehatxua adierazi du, nahiz eta gero CDNren jarrera ofiziala kontrakoa izan den erabat. Egia esan, Nafarroako presidentea berehala sutzen da, eta inbasioa heldu dela adierazten du kezkatu: «*vasquitoek*» inbadituko gaituzte arretaz ez bagabiltza. Ez zaigu komeni euskal kutsurik duen ezer.

Paranoia da bururatzen zaidan hitzik egokiena. Beldurra hitza ere ez da txarra. Beldurra eztabaidari. Elkarriketari.

Bi aste barru Nafarroa Oinez izanen dela aprobetxatuz, seguru egiten duela gisako adierazpenen bat: inbaditzen gaituzte. Bizkai-gipuzkoetatik heldu diren kotxeak zenbatzen aritzen dela ematen du. Agian Juan Cruz Alli Nafarroa Oinez agertuko da, bere boneta eta guzti, nahiz eta gero UPNrekin bat egiten duen CDNk nafar hizkuntza eskubideak zabaltzerakoan. Beste derrapaje bat. Hala ere, aitortu behar da Allik jarraitzaile (in)kondizionalak dituela beste alderdien artean ere.

» galde-eskeak



NIKOLAS SEGUOLA
ARTZAINA,
ARANTZAZUKO ARTZAIN
ESKOLAKO IRAKASLEA

Arantzazun egin den Nazioarteko Artzain Kongresutik zer ondorio nagusi atera dituzue?

Aimar Zurutuza

Begi bistakoa da ondorioetako bat: artzain mundua mundu osoan dagoela, ez Euskal Herrian bakarrik. Eta hemengo artzainek eta beste herrialdeetakoek antzeko arazoak ditugula. Guk otsoarekin duguna Kenyan lehoiekin daukate, eta Kalifornian, txakalekin. Beste ondorioetako bat izan da mundu osoko artzainek batu egin behar dugula: nazioarteko elkarte bat sortzeko premia ikusi dugu Arantzazuko jardunaldietan, batzen gaituzten gai asko ditugulako. Eta Arantzazun, artzain izatearen harrotasuna aldarrikatu dugu, bai bizimodu aldetik, bai kulturaren aldetik, eta baita gizarteari dakarkiogun onurarengatik ere.

Bidali zure galderak iritzia@berria.info helbide elektronikora.

» www.berria.info

Medemen filma lagungarria izango da Euskal Herriko egoera kanpoan hobeto ulertzeko?

BAI	%93
EZ	%7

Julioren filma objektiboa da. Ez du inoren alde edo kontra egiten; bakoitzaren iritziak soilik jasotzen ditu. Baina PPkoei horrek arduratzen die, beraiek ahotik botatzen duten gezur, zikin eta kiratsa jendeak ikusteak; hau da, errealtateak egiten die min, badakitelako gu zein idartsuak izan gaitzkeen. Espainiako jendea engainatuta bizi da, Aznarrek horrela irabazi du. **Ⓞ Mikel**

Oso pelikula ona delako; hemengook ere asko dugulako ikasteko eta konturatzeko hitz egin behar dugula; orain arte eraman dugun bideari buruz gogoeta egiteko aukera eskaintzen duelako... Euskal Herrikan kanpo ikusiko dutenek hemengo errealtatea argiago ulertzeko ezinbesteko tresna delakoan nago. **Ⓞ CBA**

» hitz beste

Franko

ANJEL LERTXUNDI

Frankismoan esnezalea zen gaueko ordu txikietan hainbat euskal etxetan txirrina jotzen zuena, Mattinek esana: «Xalbadorrek salatu du oraiko puntuan franko abila dela letxero kontuan». Diktadorearen dotoreziaz ari zen Villasante «zarpil eta ezurrutsean ere nabari da franko» idatzi zuenean. Mitxelena «frankoren bihotza arinago mugi dadin» esaterakoan, Frankok bihotza arina zuela aitortzeaz gainera, frankismoak hain prestu babesten zuen espiritu kritikoa zerabilen.

«Atzo bizi zen franko, bada hilik da egun» dio asto-laster batek, baina kasurik ez, kontu jakina baita asto-lasterrena oso genero baldarra dela: atzo bizi zen Franko, eta bizirik da egun ere, igandeko berripaper honek Franko Fundazioari buruz zioenak argi utzi zuen bezala.

Hargatik guztiagatik, hona neure ale-txoa Fundazioko artxiboan euskararentzat toki franko errebindikatze aldera.

Villar: «Gobernuak aginduz gero, kontsulta eragotzi egingo dut»

Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakariaren ustez, euskal gizartea izango da eztabaida oztopatzea eragotziko duen eragilea, eta gaineratu du ideien inguruko «eztabaida erreala» egiteko garaia iritsi dela

ERREDAKZIOA - GASTEIZ

Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Enrique Villarrek atzo adierazi zuen Ibarretxeren planak proposatzen duen herri-galdeketa eragotzi egingo duela, «Espainiako Gobernuak hala agintzen» badio. Donostian egin zituen adierazpenok Villarrek, Espainiako Poliziaren zaindariaren egunaren karietara egindako ekitaldian. Asmo sezesionistatik ez duela onartuko ohartarazi zuen, bai eta Espainiako Gobernuak aginduz gero «legez kanpoko edozein erreferendum» eragotziko lukeela ere.

Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuaren presidentearen hitzak erabiliz esan zuen Ibarretxeren planak aurrera ateratzeko dituen aukerak «hutsalak» direla. Era berean, Plan hori «sezesionista eta xenofoboa» dela eta espainiarren «printzipio demokratikoak» betiko hausten dituela kritikatu zuen. «Ibarretxek apartheid politikoa abiatu du bere ideologia independentistarekin bat egiten ez duen ororekin», gaineratu zuen.

Ideien gaineko eztabaida

Villarrek Ibarretxeren proposamenaren kontrako adierazpenak egin baino lehen, Ibarretxek



ENRIQUE VILLAR (eskuinean), Juan Antonio Focillasekin (ezkerrean) eta Gonzalo Quiroga PPko senatariarekin (erdian) atzo Donostian Espainiako Poliziaren eguna ospatzeko eginiko ekitaldian. JAVIER ETXEZARRETA / EFE

bere planaz luze eta zabal hitz egin zuen atzo Radio Euskadin. EAeko lehendakariaren ustetan, Plana bozkatu arte inork ez du eztabaida oztopatuko, gizarteak berak eragotziko duelako ideien eztabaida eragozte eta gelditzea: «Euskal gizarteak ez du onartzen geldiuneak eta irainak

egotea, guztien ideiak zilegi direla uste duelako, baldin eta ikuspuntu demokratiko batetik proposatzen badira».

Eusko Jaurlaritzaren izenean aurkeztutako proiektua hilaren 25ean zehaztuko duela eta hortik aurrera ideien gaineko «eztabaida erreala» egitea beharrez-

koa izango dela iritzi zion Ibarretxek. Bere ustetan, herri-galdeketa egitea aurreikusita dagoen datan ETAk jarduera armatuarekin segituko balu, euskal gizartearen borondateari muzin egiten diola erakutsiko luke. Bere bizikidetzat jada «traba ugari» gainditu dituela

ENRIQUE VILLAR

(Espainiako ordezkaria EAEn)

«Ibarretxek 'apartheid' politikoa abiatu du bere ideiekin bat egiten ez duenarekin»

JUAN JOSE IBARRETXE

(EAeko Lehendakaria)

«Euskal gizarteak ez du onartzen irainak egotea, guztien ideiak zilegi direla uste duelako»

iritzi zion Ibarretxek, besteak beste, «antidemokratikoa eta legez kanpoko» ez dela agerian geratu delako.

Bestalde, enpresaburuek ustetuz Planaren aurka duten jarretaren inguruan esan zuen enpresaburuen nahia dela alderdien artean akordioak lortzea eta indarkeriari amaiera ematea. «Euren eskaera gure artean hitz egitea da, lehendakariaren eta Aznarren artean elkarriketa egon dadin», gaineratu zuen.

Egonkortasuna eskatu dute Arabako enpresaburuek

Hain justu ere, SEAK, Arabako Enpresaburuen Sindikatuak, «egonkortasun instituzionala» eskatu zuen atzo enpresa munduaren jardura bermatze aldera. «Erakundeen arteko harremanek onak behar dute izan, politikaren eta erakundeen egonkortasuna lortzeko». Horretaz gainera, Sabino Iza sindikatuko presidentek ukatu egin zuen Mariano Raxoi beraiekin harremanetan jarri denik Ibarretxeren planaz mintzatzeko.

Bestalde, Arabako Aldundia «kezkatuta» agertu zen atzo Ibarretxeren planak Arabako eta EAeko autogobenua «arriskuan» jartzen dituelako. Estatu ereduaren uneko «zuelantzan» jartzea kezkatzekoa dela iritzi zion Javier Gebara diputatuak.

⊕ PSE-EE

Egigurenek dio abertzaleek ETAren amaierari etekin politikoa atera nahi diotela

PSE-EEko presidente Jesus Egigurenen aburuz, alderdi abertzaleek ikusten dute ETA amaitze dagoela. Abagune hori aprobetxatu eta egoerari etekin politikoa atera nahi diotela gaineratu zuen atzo Euskadi Irratian eginiko elkarrizketan. Halaber, alderdi abertzaleek Gernikako Estatutua ez dela bete esatea «gezur interesatua» da Egigurenen aburuz, itun horrekin betiko «apurtu» nahi

delako. Egigurenek iritzi zion EAJK, EAK eta EB-IUK ez dutela Estatutuaren erreformarik nahi, «beste Estatutu bat baizik».

Ibarretxeren planaren tramitazioari dagokionez, PSE-EEko presidentek kritikatu zuen lege proiektu horrek Eusko Legebiltzarrean eramango duen tramitea zein izango den oraindik ez jakitea. Sozialistek Ibarretxeren proposamena ez dutela

babestuko berretsi zuen, eta esan zuen lege proiektua eztabaidatzeko eratuko diren batzordeetan parte hartu arren, PSE-EEk ez dituela proposamenaren hainbat zati aldatuko, Ibarretxeren planarekiko dituzten desadostasunak «oso sakonak» direlako. Halaber, PSEK Ibarretxeren planaren aurka PPekin bat egiteko asmorik duenik ezeztatu egin zuen.

Bestalde, haren ustetan,

Zapaterok datorren martxoko hauteskunde orokorrak irabaziko balitu, «bestelako politika» bat abiaraziko luke EAEn. Erakundeen artean «elkarkidetzat» bultzatuko lukeela iritzi zion Egigurenek.

Odon Elorza Donostiako alkateak EAJri udal gobernuan sartzeko egindako proposamena ere hizpide izan zuen Egigurenek. Elorzak jeltzaleei egindako eskaintza PSE-EEren politikatik kanpo dagoela uste du Egigurenek. Hala ere, sortutako polemika Donostiako Udaleko «arazo zehatz bat» dela esan zuen.

Azkarateko zerrendari soilik eman dio arrazoia Auzitegi Gorenak

Atzera bota dituen beste hiru hautagai zerrendetatik bakarrak joko du orain Auzitegi Konstituzionalera

IRENE ARRIZURIETA - IRUÑEA

Espainiako Auzitegi Gorenaren Areto Bereziak, Iruñeko Hauteskunde Batzordeak baliogabeturiko zazpi hautagai zerrendetatik Azkarateko Taldeari bakarrik eman dio arrazoia. Ondorioz, aurkez daitezke urriaren 26ko bozetara.

Gorenako Areto Bereziak aho batez erabaki zuen herenegun Azkarateko Taldearen helegitea aintzat hartzea. Auzitegi Konstituzionalak iragan maiatzaren 8an kaleratu epaia hartu du aintzat Gorenak bere ebazpena argudiatzeko.

Aipatu epaiak esaten zuen, zerrendan alderdi ilegalizatuekin zerikusia izan duen hautagai bakarra egoteak ez duela hauteskundeetan parte hartu nahi dutenen zerrendako beste kideen eskubidea urratu behar. Alabaina, ez ditu aintzat hartu Etxarri Aranazko Batzarraren Aldeko Indarra, Bakaikuko Indarra eta Astizko Herri Taldearen helegiteak. Gorenak argudiatu du aipatu zerrendok «lotura nabarmena» dutela Auzitegi Gorenak joan den martxoaren 27an legez kanpo utzitako HB, EH eta Batasuna alderdiekin.

Astizko zerrenda Europaraino joateko prest

Gorenak baliogabetutako zerrendek Auzitegi Konstituzionalan aurkez dezakete helegitea. Helegitea aurkeztu eta hiru egun



ETXARRI-ARANAZKO udal hauteskundeetan erabakia hartzeko erabakitako eraikinaren irudia. J. RUIZ / ARGAZKI PRESS

ditu Konstituzionalak erabakia hartzeko.

Hala ere, Gorenan helegitea jarri duten hiru hautes zerrendetatik bakarrak aurkeztuko du gaur helegitea Espainiako Auzitegi Konstituzionalan; Astizko Herri Taldeak, hain zuzen ere. «Ez dugu inolako esperantzarik baina hala ere, jarriko dugu helegitea», esan zion atzo Jokin Elarre aipatu zerrendako abokatuak BERRIARI.

Elarrek bi argudio nagusi aurkeztuko ditu helegitean. Batetik,

abokatuak dio ez dela «bidezkoa zerrenda osoa baliogabetzea hautagai bakarrarengatik». Izan ere, Astizko zerrendako bakarra izan zen EHko zinegotzia. Bestetik, prozesuan «forma akatsa» egon dela azaldu zuen Elarrek. Izan ere, Elarren arabera, Guardia Zibilak irailaren 26ean egindako txostena aintzat hartuta eskatu dute zerrendaren baliogabetzea. Defentsak ez du txosten hori aurretik ikusteko aukerarik izan eta horregatik joko dute Konstituzionalera. Auzitegi ho-

rrek arrazoia emanen dionaren itxaropenik ez duenez, Estraburgoko Giza Eskubideen Epaitegirira joko duela iragarri du.

Etxarri-Aranazko eta Bakaikuko hautes zerrendek berriz, ez dute Konstituzionalan helegiterik aurkeztuko, izan ere, maiatzeko hauteskundeetan aurkeztu zituzten helegite prozesua abian dutelako.

Etxarri-Aranazko Batzarraren Aldeko Indarrak prentsa ohar baten bitartez adierazi duenez, Auzitegi Gorenak aurkeztu di-

JOKIN ELARRE

(Astizko plataformako abokatuak)

«Ez dugu inolako esperantzarik, baina Auzitegi Konstituzionalera joko dugu»

BATZARRAREN ALDEKO INDARRA

(Etxarri-Aranazko zerrenda baliogabetua)

«Justizia honek ez du inolako sinesgarritasunik, epaia aurretik emanda dagoelako»

tuzten helegiteak atzera bota izanak adierazten du Espainiako Justiziak «PPk hartu duen ildo politikoarekin erabateko menpekotasuna» duela. «Praktikan, hautes zerrendok osatzen ditugun pertsonok gure eskubideak murriztuak ditugula dirudi, nahiz eta teorian, behin eta beriz errepikatu ez dela horrela», diote komunikabideei igorri prentsa oharrean. Beraz, justiziak «ez du inolako sinesgarritasunik» taldeontzako, eta ondorioz, ez dute Konstituzionalera joko.

Orotara, urriaren 26ko bozetara aurkeztu ziren hautes zerrendetatik zazpi baliogabetu zituen Iruñeko Hauteskunde Batzordeak: Etxarri-Aranazko Batzarraren Aldeko Indarra; Bakaikuko Indarra; Arreko, Astizko eta Azkarateko kontzejuetako zerrenda bana; eta azkenik, Udabe-Beramenduko beste bi hautagaitza: Amezti eta Isisti taldeak.

IUN-NEB

IUK Nafarroako autogobernua sakontzeko proposamena egin du

Legebiltzarreko Araudi Foraleko batzordean eztabaidatzea iradoki du

IRENE ARRIZURIETA - IRUÑEA

Nafarroako autogobernua sakontzeko proposamen federalista egin zuen IUN-NEBk atzo Legebiltzarreko Araudi Foraleko batzordean. «Euskal nazionalismoaren eta Espainiako nazionalismoaren arteko hirugarren bidea» izan nahi duela esan zuen Felix Taberna IUN-NEBko koordinatzaileak.

IUN-NEBren irudiko autogobernuaren eta marko aldaketaren eztabaida «ez dago agortuta

eta ekin egin behar zaio». Tabernak Nafarroan eztabaida hori eragozteko gogoia dutenei, bereziki UPNri, gogoia egiteko gonbita egin zion. «Ez du zentzurik izan Nafarroako Legebiltzarrean Ibarretxeren planaz eztabaidatzeak gero gure autogobernuaz proposamenak egiteko gai ez bagara», azpimarratu zuen.

IUN-NEBko koordinatzailearen irudiko autogobernuaz ireki den eztabaidan «ekimena hartu» behar du Nafarroak. «Beldurrak eta esku-hartzeak saihesteko

modurik egokiena guk geuk gure autogobernuaz proposamenak egitea eta plazaratzea da». Tabernak esan zuen IUN-NEBren federalismoak eta foralitateak bat egiten dutela, Nafarroa eta Espainiaren arteko «hitzarmena» baitute helburu.

«Autogobernua ez dago agortuta»

Madrilgo Gobernuak kontrakoak diren arren, autogobernua areagotzeko aukera ez dagoela



Felix Taberna. LANDER E. ARROIABE

agortuta eta gehiago sakontu daitekeela uste du IUN-NEBk. «PPk Espainiako Gobernu eskuratu zuenetik, autonomia erkidegoek autonomia administratiboan aurrera egin dute, baina autonomia politikoan atzera egin dute», azaldu zuen atzo Felix Tabernarekin batera prentsaurrekoa eman zuen Miguel

Izu IUN-NEBko legebiltzarkideak.

IUN-NEBk onartzen du Foru Hobekuntzak autogobernua sakontzeko balio izan duela, baina «aukera gehiago» dituela dio.

Legebiltzarreko Araudi Foralaren Batzordean aurkeztu duten proposamenak Foru Hobekuntzak bildu dituen eskumen guztiak bereganatzea eskatzen du, eta, aldi berean, berriak eskuratu behar direla dio, «Madrilgo boterea mugatzeko». Besteak beste, Senatuaren erreforma, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian autonomia izatea, eta, Auzitegi Konstituzionalan nahiz Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan partehartzea proposatzen du. Proposamena beste alderdiek egiten dituztenekin eztabaidatu nahi du taldeak.

«Mehatxu eta presioen gaintetik» lanean jarraituko duela dio EITBk

«ETAk EITBri eta bertako profesionali egindako presioaren albisteari» erantzun dio zuzendaritzak

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

EITBk «mehatxu eta presioen gaintetik, informazio egiazkoa, anitza eta osoa» ematen jarraitzeko asmoa azaldu zuen atzo ohar baten bidez, ETak «EITBri eta bertako profesionali egindako presioaren» albisteari erantzunez. SER irriariaren eta hainbat berri agentziaren arabera, bertako zuzendari Andoni Ortuzarri eta etxe bereko hainbat erredaktoreri ETak bidalita gutunak iritsi zaizkie. Hauek, ETari buruzko albisteei emandako tratamendua kritikatzeko zen, iturri horien arabera.

EITBk ez zuen gaiaren inguruko xehetasunik eman, ez eta berri agentziek eta SER irriariak zabalduko informazioen inguruko aipamenik egin. Halaber, oharra kaleratu zuen, «ETak EITBri eta bertako profesionali egindako presioaren albistea zabaldu» zela eta. Horren aurrean, «informazio eskubidearekin eta adierazpen askatasunarekin konpromisoa —bai EITBrena eta bai bertako langileona—», esan zuen EITBren Zuzendaritzak.

Eginkizun nagusia, «informazioa ematea»

Oharrean, «EITBren oinarrizko eginkizuna euskal gizarteari informazioa ematea» dela azaldu zuen kateak; «Euskadin nahiz munduan gertatzen denaren informazio egiazkoa, anitza eta

EITB

«EITBren oinarrizko eginkizuna da euskal gizarteari informazioa ematea»

«Argi utzi nahi dugu gure konpromisoa informazio eskubide eta adierazpen askatasunarekin»

JUAN JOSE IBARRETXE

(EAEko Lehendakaria)

«ETaren eromenak ez du mugarik eta euskal gizartearen osotasuna dago mehatxaturik»

osoa ematea. Hori izango da aurrerantzean ere gure asmoa eta ahalegina, mehatxu edo presioen gaintetik, edonondik datoze-la», gaineratu zuen EITBk. Halaber, «komunikabideoi albistea ematea» gustatzen zaiela «eta ez albisteen protagonista izatea», adierazi zuen.

Ibarretxe EAEko lehendakariak «ETaren eromenak mugarik ez» duela eta «mehatxaturik dagoena euskal gizartearen osota-



EITBKO ZUZENDARI Andoni Ortuzar. LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

suna» dela esan zuen atzo. Era berean, «ETak mehatxaturiko kolektiboek elkartasuna» adierazi zuten eta «lehendakari bezala, pertsona bakar bat mehatxaturik dagoen bitartean» ez duela etsiko adierazi zuen.

EB-IUko legebiltzarkide Oskar Matutek EITBrekin gertaturikoa «demokrazia urratzen duen eta

informazio eta adierazpen askatasunen aurka doan faxismo totalitarioaren beste adibide onartezin bat» dela adierazi zuen.

PSE-EEko idazkari nagusi Patxi Lopezek gertaerak gaitzetsi eta EITBko langileak «ETaren eromena eta fanatismoa salatze-ko lanean jarraitzea» animatu zituen.

UDALBILTZA AUZIA

Casanovak eta Sanzberrok 30.000 euro ordaindu behar aske uzteko

Avilako espetxetik atzo irtetekoak ziren biak, bermea ordaindu ondoren

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Udalbiltzaren aurkako operazioan atxilotuak eta espetxeratuak izan ziren Eider Casanova eta Larraitz Sanzberroren askatasun eskaera onartu zuen atzo Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epaileak eta 30.000 euroko bermea eskatu zion bakoitzari aske uzteko. Avilako espetxetik aske irtetekoak ziren biak, lerro hauek idazteko orduan.

Iragan apirilaren 30ean Udalbiltzaren aurkako operazioaren

barruan atxilotu zituen Casanova eta Sanzberro Espainiako Poliziak. Beraiekin batera, Lander Etxebarria, Oskar Goñi, Txema Jurado, Miriam Campos eta Karnele Urbistondo ere atxilotu zituzten. Guztien espetxeratzea agindu eta Udalbiltza legez kanpo utzi zuen Garzon epaileak.

Maiatzaren 23an, berriz, euren kabuz Espainiako Auzitegi Nazionalan deklaratuera aurkeztutako Loren Arkotxa, Imanol Esnaola eta Miren Josu Aranbururen espetxeratzea agindu eta aurrez preso zeuden Xabier

Alegria eta Joseba Garmendia auzipetu zituen Garzonek.

Udalbiltza ETaren tresna izatea eta atxilotuei «ETA-Ekin konplexuko» kide izatea leporatzen die epaileak, eta baita iragan maiatzeko hauteskundeetarako «ETaren kontrolpean Batasunaren ordezkoko egitura sortu nahi izatea» ere. Espetxeratu guztiek ukatu egin zuten euren edo Udalbiltzak ETarekin inolako loturarik izatea eta defentsak herlegitea aurkeztu zuen orduan, baina epaileak atzera botatzea erabaki zuen. Irailaren 12an, be-

rriz, Udalbiltzako kide espetxeratu defentsa abokatuak, Jone Goirizelaiak, euren askatasun eskaera egin zuen eta bakoitzarekin helegitea aurkeztu zuen.

Hiru kide aske

Udalbiltzaren aurkako operazioa «neurri elektoralizat» jo zuen Goirizelaiak eta, «ihes egiteko arrisku eza» eta «ETako kide izatea leporatzeko legezko baldintzak ez betetzea» argudiatu zituen aske uzteko eskatzeko. Fiskaltzak, berriz, hartu zituen neurriak berrets zituela eskatu zion epaileari.

Askatasun eskaera hauetariko bat joan den irailaren 24an onartu zuen Garzon epaileak eta Leire Idoiaga 30.000 euroko bermepean aske uzteko agindu zuen. Beraz, Eider Casanova eta Larraitz Sanzberroekin hiru dira kalean dauden Udalbiltzako kideak.

EPAITEGIAK

Galindoren kontrako auziaren artxibatzea berretsi dute

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneral ohiak ustez narkotrafikoarekin eta kontrabandoarekin zuen lotura ikertzeko auziaren artxibatzea berretsi zuen atzo Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak. Kausa beragatik, Guardia Zibileko sarjentu ohi Enrique Dorado Villalobos zegoen auzipetuta.

Biek Donostiako Auzitegiaren deklaratu zuten iaz eta epaitegi horrek auzia artxibatze erabakia hartu zuen iazko uztailean, narkotrafiko eta kontrabando delituen «froga objektiborik» ez zegoela argudiatuta.

Guardia Zibil ohien aurka kereila jarri zuen Adore plataformak berak helegitea aurkeztu zuen orduan, artxibatze horren aurka. Herri akusazioaren ustez, ordu arte jakinak ez ziren hainbat datu berri agertu ziren. Adoreko abokatu Ander Mujikak orduan azaldu zuenez, «Galindo jaunak aitortu egin du bigarren nortasun bat duela, eta orain arte ezezaguna zen hori, ofizialki. Halaber, ez dira bere ondasunak ikertu».

Izan ere, Luis Roldanek Diru Berezien auzian deklaratu zuenaren arabera, Rafael Verak nortasun faltsua eman zion Galindori, ondasunak izen horien atzean ezkutatzeko. Galindok onartu egin zuen datu hori Donostiako epaitegiaren deklaratuera-koan, eta akusazioak ikerketa eskatu zuen orduan.

Atzo, berriz, iaz Donostiako Epaitegiak hartutako erabakia berretsi zuen Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak. Auzitegiaren arabera, 12 urteren ostean delituzko frogatzea lortu ez denez, ez dago ikerketarekin jarraitzeko arrazoirik. Galindo Intxaurrondoko polizi-etxeko arduradun nagusia zen garaian narkotrafikoarekin eta kontrabandoarekin zuen balizko loturari buruz, «soilik hipotesi, uste eta zurrumurruak» lortu direla adierazi zuen atzo Auzitegiak. Kaleratutako epaiaren aurrean ez dago helegiterik aurkezteko aukerarik.

Intxaurrondoko kuartela eta narkotrafikoaren arteko harremana 1991n hasi zen ikertzen epaitegiaren.

Lehen itzuliaren ondoren erabakiko du Arzalluzek hautagaitzari eutsi edo ez

Azaroaren 15a bitartean, EBBrako orain arteko lehendakariagai babesa eman edo berriak proposatu behar dituzte EAJko herrietako batzarrek

IMANOL MURUA URIA - DONOSTIA

EAJko Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria aukeratzeko prozesuaren lehen itzulia bukatu ondoren erabakiko du Xabier Arzalluzek hautagai izaten jarraitu edo ez.

EAJko herri batzarrek atzo hasi zuten hauteskunde prozesuaren lehen itzulia eta epe hau bukatzen denean —azaroaren 15ean— jakingo da EBBrako lehendakariatzako behin betiko hautagaiak zein diren. Bitarte horretan, orain arte aurkeztutako hautagaietako bati babesa eman edo hautagai berri bat proposatu du herri bakoitzeko batzarrek. Hiru herriren edo gehiagoren babesa lortzen duten hautagaiak pasako dira bigarren itzulira.

Berne eta Kontrol Batzordeak hamabost egun izango ditu hautagaitzek herrietan lortu dituzten babesak egiaztatzeko eta bateraezintasun posibleak aztertzeko. Abenduaren lehenean hasiko da bigarren itzulia, eta abenduaren 31n bukatu. Lehengo itzulia gainditu dituzten hautagaien artean botoa nori

eman erabakiko dute bigarren itzuli horretan herrietako batzarrek. Urtarrilaren lehen hamabostaldian herrialde batzarrek egingo dituzte, eta hilaren 17 eta 18ko Batzar Nagusian aukeratu dute EBBko lehendakaria.

Militanteen sinaduren bitartez Xabier Arzalluzen eta Joseba Egibarren izenean hautagaitzak aurkeztuak daude jada, eta Josu Jon Imazen hautagaitza atzo zabalduak bidetik udal batzaren sostenguen bidez aurkeztea espero da.


Arzalluzen zain

Xabier Arzalluzek joan den astean adierazi zuenez, hauteskunde prozesuan «une egokian» argituko du hautagai izango den edo ez, eta bera aurkeztea «benetan garrantzitsua» den ikusteko «gauza guztiak neurtu» behar zituela adierazi zuen. Lehengo itzulia pasatu arte behintzat ez du erabakirik hartuko, egunkari honek jakin ahal izan duenez.

Arzalluzek azkenean hautagai izatea erabakiko balu, ziurtzat jotzen da Egibarrek behintzat

utzi egingo liokeela hautagai izateari, baina ikusteko dago Imazen hautagaitzak aurrera egingo lukeen edo ez.

Orain arte aipatu diren hiru hautagai nagusiez gain, militanteen sinaduren bitartez EBBko lehendakariatzarako beste lau hautagaitza ere aurkeztu zituzten, Izaronews Internet-eko berri zerbitzuak jakinarazi zuenez: Elisabete Piñol eta Emilio Olabarria Eusko Legebiltzarreko parlamentarioak, Josu Erkoreka Espainiako Kongresuko diputatua eta Juan Jose Olabarria Bilboko Udaleko zinegotzi ohia. Hautagaiaren oniritzia beharrezkoa



Xabier Arzalluz, joan den Alderdi Egunean, Forondan. DAVID AGUILAR / EFE

da, ordea, aurrera egiteko eta, BERRIAK baieztatu duenez, Josu Erkorekak bederen ez aurkeztea erabaki du.

EBBko beste zortzi kideren, Berne eta Kontrol Batzordearen

eta alderdiko Justizia Auzitegiaren hautaketarako prozesuak ere bide bera egiten ari dira eta, beraz, atzo zabaldu zen organu hauetarako hautagaiei babesa emateko lehen itzulia ere.

TORTURA

NBEko ordezkaria Martxelo Otamendirekin bilduko da


Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko Torturari buruzko kontalaria da Theo Van Boven

ERREDAKZIOA - DONOSTIA


Tortura salaketen ikerketa egiteko Euskal Herrira egingo duen bisitaren barruan, Martxelo Otamendi Egunkaria-ko zuzendari zenarekin ere bilera egingo du Theo Van Boven Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalaria. Joan zen otsailean, Egunkaria-ren aurkako operazioan atxilotua izan ondoren, Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta izan zen bost egunetan jasandako torturen berri emango dio Otamendik Van Boveni, etzi Bilbon egingo duten bileran. BERRIA egunkariko zuzendaria da gaur egun Otamendi.

Van Bovenek hainbat elkarrizketa egingo ditu aste honetan Es-

painian eta Euskal Herrian. Bihar Eusko Legebiltzarreko alde parlamentarioetako ordezkariarekin hainbat bilera egingo ditu, eta Giza Eskubideen Batzordeko buru Iñigo Urkullurekin ere izango da. Etzi, berriz, Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuarekin eta Txema Urkijo Giza Eskubide-etarako zuzendariarekin batzartuko da. Enrique Villar Espainiako Gobernu ordezkariarekin, Estatuko Segurtasun Indarretako arduradunekin eta Ertzaintzako arduradunekin ere elkarrizketatu nahi du Van Bovenek. Espainiako Atzerri, Barne eta Justizia ministroei eta Estatuko beste hainbat agintariri ere hitzordua eskatu zien NBEko ordezkariak.



Begiradak ① JUANJO MARTINEZ LEUNDA



Prozeduraren ordua iritsi da

Urriaren 25ean, 1979an erreferendum bidez Gernikako Autonomia Estatutua onartu zeneko 24. urteurrenean, Eusko Jaurlaritzak orain dela urtebete hitz emandako testu artikulatua onartuko du, ondoren Eusko Legebiltzarrean egiteko dagozkion izapideak. Guztiok ohartu gara ziklo berri batean gaudela, egoera berriari, eta marko juridiko-politiko berri baterantz goazela, Autonomia Estatututik baterako subiranotasunerantz. Badakigu, halaber, bidea orain arte bezala egin behar dugula, bide baketsuetatik eta guztiz demokratikoetatik. Joan zen ostiralean Legebiltzarrean egindako eztabaidan ez zen horren aurka doan ezer izan.

Proiektu, eduki, diagnostiko eta euskal gatazka deiturikoaren inguruan aplika daitezkeen terapietarako dagokienez, ez dut uste arriskutsua denik guztia mahaiaren gainean dagoela baieztatzea, ezta kasu askotan horiek neurri handi batean partekatzen ditugula esatea ere. Hori hala bada, zer falta zaigu? Hain zuzen ere, aurrera egiteko prozedura edo prozedurak zein diren adostea. Zaila irudi dakigukeen arren, hurrengo hilabeteetan —hurrengo bi urteetan ere esaten ausartuko nintzateke— hiru prozedura-mota adostu beharko ditugu.

Lehenengo prozedura: Euskadiraiko estatus berriaren eduki juridikoa ezartzeko oinarri izango den testu normatiboaren izapideak Eusko Legebiltzarrean egiteko prozedura. Legelari jakin batzuek prozedura horren inguruan egindako balioespenak alde batera utzita, zalantzarik gabe uste dut Testu Artikulatua Eusko Jaurlaritzak onartzen duenean errekurtsioa jarriko dela Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioran. Alabaina, prozedurak bere bidea jarraituko du aurreikusitako araudi bidetik. Ganberan ordezkariak duten Legebiltzarreko talde guztiek erantzukizun handia izango dute edozein errekurtsoren aurrean erantzuterakoan eta horri jarraiki jokatzekoan.

Bigarren prozedura: Alderdi askotarikoa izateari dagokiona da, indar politiko, eragile sindikal eta sozial eta abarren arteko adostasun handia lortzera bideratutakoa, izan ere, horrek aukera eskainiko digu gehiengo sozial eta politikoa izateko eta, Euskal Herrian irekitako prozesuarekin bat, berorren alde egiteko, betiere pertsona, ideia eta proiektu guzti-guztiak defendatzea oinarri hartuta.

Hirugarren prozedura: Adostutakoa gauzatzeko prozedurari dagokiona da, eta kontsulta edo erreferendumaren deialdia ere barne hartuko duena, baliabide irregular, alegal eta demokraziaren kontrakoen bidez eragotzi nahi bada urratsak ematen jarraitzea, pixkanaka eta mailaka eta demokratikoki hartutako erabakien bidetik.

Inork ez du zalantzan jartzen Alderdi Popularraren Gobernua prozedura-mota ororen aurka agertuko dela. Izan ere, guztiaren kontra egin nahi du. Alabaina, oraindik Talde Sozialistak Eusko Legebiltzarrean izango duen jarrera ikusi behar dugu, baita sozialistek oro har Estatu osoan izango dutena ere. Hori kasuan kasu ikusiko dugu, baina nekez ahanzt daitezkeen aurretiko ideia dutela gogoan hartuta: «Plana baztertzea».

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak taldeari dagokionez, aipatutako prozeduren inguruko jarrera adierazterakoan ondorengo ideia gogoan izango dutela pentsatu nahi dut: artikulatutako testua ez da beraien proposamena, baina ez da beraien proposamenaren kontrakoa ere.

Amaitzeko, kontsulta irtenbidea eta euskal gatazka konpontzeko beharrezkoa den sintesiaren elementuetako bat dela baieztatzen denean, ondorengo baieztatzen delakoan nago: ezinbestekoa da aipatu berri dudana edo ditudan prozedurak adostea.

Lehendakariak berak baieztatzen duen Plana irtenbidearen zati dela, Legebiltzarrean oinarriaren garapena azaltzerakoan, eta besteek irtenbidearen beste zati bat edo batzuek eskaini behar dituztela, azkenean bizi dugun ziklo berriari ekiten edo horretan aurrera egiten lagunduko digun tresna izateko eskura.

Demokraziaren bidetik normalizatzeko eta bakea lortzeko prozesuak parte-hartzea eta gardentasuna ditu eskakizun, eta hori prozedurari baino ez dagokio. Dagokion Eusko Legebiltzarreko batzordean parte-hartzea bideratzea, Nafarroak hobekuntzaren edo bere erreformaren inguruan erabakitze eskubidea gauzatzeko modua eta, hala badagokio, baterako lankidetzarako organo batean parte hartzeko modua eta abar, aztertzeke ditugun alderdiak dira. Hausturarik gabe Baterak Iparraldean planteatutako mailakako posizioen (bertako departamendua, unibertsitatea, nekazaritzako ganbera eta euskara ofizialkide izatea eskatzean oinarritutako) alde agertzea ere Euskal Herria egiteko beste modu bat da. Hurrengo hilabete eta urteetan prozesuan ikusiko dugu elkar.



BARTZELONAN ATXILOTU zituzten kataluniarrak aske uztea eskatzeko atxilotetak gertatu zirenean eginiko protesta ekintza baten irudia. BERRIA

‘Bartzelona komandoaren’ kontrako epaiketa hasi da

Kataluniako atxilotuen askatzea eskatzeko kontzentrazioa egin zuten

ERREDAKZIOA

Bartzelona komandoaren aurka epaiketa hasi zen atzo, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Guztira, hamar pertsona izango dira epaituak; bosti ETako kide izatea egotzen die fiskalak, eta beste bosti ETari laguntza ematea. Epaietak iraun bitartean hainbat lagunek kontzentrazioa egin zuten Auzitegi Nazionalaren aurrean, Zigor Larredonda, Laura Riera eta Diego Sanchez preso katalanei babesa erakusteko.

Fernando Garciak, Iñaki Kruixagak, Lierni Armendarizek eta Diego Sanchezek deklaratu zuten atzokoan. Lehenengo hirurei

ETako kide izatea egotzen die fiskalak. Epaietan izan zirenek BERRIARI adierazi diotenez, Armendarizek salatu zuen espetxetik auzitegirako bidean Guardia Zibilak kolpatu egin zuela. Hala, kopetean zituen ubelduak begiratzeko eskatu zion Teresa de Palacios epaileari. Epaiak erantzun zion auzitegiko sendagileak ikusi zuela eta aurrera egingo zutela epaietan. Laura Rierak ere auzitegirako bidean kolpeak jasan zituela salatu zion abokatuari. Halaber, Garciak epaietan ukatu egin zituen Poliziaren aurrean eginiko deklarazioan esanikoak, «torturapean hartuak izan zirelako».

Bestalde, gaur eta bihar dekla-

ratuko dute gainerako akusatuak: Rierak, Larredondak, Purificación Rodenasek, Josep Tàmborek, Frances Barcenak eta Sergi Orgek. Aurreneko biak espetxean daude preso. Azken laurak, berriz, kalean daude.

Fiskalak 36 urteko espetxe zigorra eskatzen du Garciarentzat, Kruxagarentzat eta Armendarizentzat; Larredondarentzat eta Sanchezentzat, berriz, 12 urte; Rierarentzat, «komandoari laguntza ematea» egotzita, hamar urteko kartzela zigorra eskatzen du; eta zazpi urte Orge, Barcena, Rodenas eta Tàmborentzat. Horiei ustezko etakideei ostatu ematea egotzen die fiskalak.

EUSKAL PRESOK

Funtzionarioek Josu Lonbide jo dutela salatu du Askatasunak

Joan den irailaren 28an Zuerako espetxean (Zaragoza) preso dagoen Josu Lonbide euskal presoari ziega miatu ziotela eta gero kolpatu egin zutela salatu du Askatasunak. Hain zuzen, bi funtzionariok belarrarian eta aurpegian kolpatu zutela salatu du, eta «ziega barruan zituen gauza guztiak labana batekin txikitu» zizkiotela.

TORTURA

Balzak European aurkeztuko du tortura saihesteko protokoloa

Tortura Prebenitzeko Europako Batzordean (Estrasburgon) aurkeztuko du bihar Javier Balza EAeko Herri-zaingo sailburuak tortura saihesteko Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri zuen Pertsonen Laguntzarako Koordinazio Protokoloa. Inkomunikazio egoeran atxiloturik dauden pertsonen Ertzaintzak ezartzen dien protokolo hau aurkeztearekin batera, Deustuko polizia-etxean martxan jarri duten programa berezi baten berri ere emango du Balzak. Atxiloteta prozesuaren kalitatea bermatzeko programa da.

HIL BERRIAK

Mames Saratxaga hil da, EAJko parlamentari eta batzarkide ohia

Eusko Legebiltzarreko parlamentari ohi eta Arabako Biltzar Nagusietako biltzarkide ohi Mames Saratxaga hil zen atzo, gaixotasun luze baten ondorioz. Saratxagak 48 urte zituen, ezkondua zen eta hiru seme-alaba zituen. Parlamentari eta biltzarkide izateaz gainera, zinegotzi izan zen Amurrioko Udalean.

UNIBERTSITATEA


Legeak Euskal Herri guztia aintzat har dezala eskatu dute sindikatuek

ELA, EILAS eta LABek hainbat zuzenketa egin dizkiote Eusko Jaurlaritzaren lege proiektuari

ASIER ITURRIGAETXEBARRIA - LEIOA

EHU Euskal Herriko Unibertsitateko ELA, EILAS eta LAB sindikatuek hainbat zuzenketa egin dizkiote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak landu duen Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Legeari, eta, besteak beste, Euskal Herri guztia aintzat hartuko duen legea izatea gura dute. «Euskal unibertsitate sistema arautuko duen legeak Euskal Herriaren herri izaera eta lurraldetasuna aintzat har dezala eskatzen dugu», adierazi zuen Josetxo Aizpuruak LABeko ordezkariak. Horretarako, Unibertsitate Legearen barruan artikulazio zehatza garatzeko eskatzen dute sindikatuek, eta, adibide moduan, Kataluniako Joan Vives Unibertsitate sarea jarri zuten. «Hemen ere antzeko zerbait artikulatu behar dela uste dugu, euskaraz eta euskal munduan diharduten unibertsitateek elkarlanean jarduteko. Azken batean, gure kultura garatzeko tresna izango da beti Unibertsitatea», gaineratu zuen Aizpuruak.

Gura duten unibertsitate eredu eta unibertsitateko langileariaren eskubideei dagozkien hainbat zuzenketa lantzen hasi ziren ELA, EILAS eta LAB joan den otsailean. Teknikoki, sindikatuek ezin dute zuzenketarik eta ekarpenik egin; baina, ELAko Ricardo Saezek azaldu zuenez, eragile sozial moduan behartuta ikusi dute beren burua: «Gure ustez, legeak sensibilitate sozial handiagoa izan beharko luke». Hala, Unibertsitate sailburuordeari eta Eusko Legebiltzarreko talde parlamentario guztiei igorri diezkiote



IKASLEAK, azterketa bat egiteko prest. LANDER FERNANDEZ ARROIAE / ARGAKI PRESS

euren zuzenketak. «Talde parlamentarioei arduraz jokatzeko eskatzen diegu, dagoeneko legea berandu baitator. Gabonak baino lehen legea egotea nahi genuke, erabat gurea izan ez arren beharrezkoa dugulako LOUren erdiko lege bat», adierazi zuen Aizpuruak. Izan ere, sortuko den unibertsitate legea LOUren aginduen menpe izango

dela jakitun dira ELA, EILAS eta LAB sindikatuek.

EHUk autonomiarik ez duela galduko diote sindikatuek

Zuzenketak egin arren, Jaurlaritzak prestatutako lege aurreproiektuak alde onak badituela agertu zuten. Besteak beste, hizkuntza normalizazioa aintzat

JOSETXO AIZPURUA

(LABeko ordezkaria)

«Euskaraz eta euskal munduan diharduten unibertsitateei elkarlanerako aukera eman behar zaie»

hartzen duela eta kalitatearen agentzia eta kontratuko irakasleek funtzionarioen parean egin ahal izango duten karrera aipatu zituzten. Hala ere, hizkuntza normalizazioa Administrazioeko bestelako erakundeetako langileen parekoa izan behar dela dioite. «Guk ez dugu esaten unibertsitate autonomia ezabatu behar denik, baina Unibertsitate Administrazio publiko osorako ardatzetatik kanpo ezin dela geratu uste dugu. Unibertsitateak taxutu beharko ditu beharrezkoak diren normalizazio planak, baina agindua Jaurlaritzak eman beharko luke», azaldu zuen LABekoak. Horren harira, sindikatuek ez dute uste Unibertsitate Legeak EHUren autonomia kenduko dionik, Manuel Montero EHUko errektoreak adierazita koaren kontra.

Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen egoerari buruz, irakasle kontratatuen eta funtzionarioen arteko «benetako parekotasuna» bermatzeko eta egun behin behinean dauden langileen egonkortasuna ziurtatzeko eskatu zuten. Halaber, administrazio eta zerbitzuetako langileak EHU gutxi direla gogoratu zuten, eta Unibertsitate Legearen xedapen orokorretan plantilla handitzeko deialdia egoteko eskatu zuten.

EUSKARA

Lekeitioko udal agintariak Gorenera eramango dute UEMAren auzia

INIGO BILBAO - BILBO

Lekeitioko Udalak Espainiako Auzitegi Gorenean kasazioko errekurtsioa aurkeztea erabaki du, joan den astean EAeko Auzitegi Nagusiak UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izatea galarazteko hartu zuen erabakiaren kontra. BERRIAK jakin duenez, erabakia udal agintariak eurek hartu badute ere, helegitearen nondik norakoa aholkularitza juridikoa eskaintzen duen enpresa baten esku utzi dituzte.

Aurreko larunbatean jakin zen EAeko Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi duela Lekeitioko Udalak duela hiru urte UEMAren inguruan hartutako erabakia: hau da, elkarrekin euskaltzale horretako kide egitea, elkarrekin estatutuak aintzat hartzea eta haren egiturak osatu ahal izateko lau ordezkari izendatzea.

Ez da hau izan lehenengo aldia epaileek antzeko erabakia hartzen dutena. Aurrerago ere Munitibar, Abaltziska, Baliarrain, Aizarnazabal eta Lizartzako udalei ere EAeko Auzitegi Nagusiak UEMAren sartzea galarazi zieten eta.

UEMAk estatutuak berriro zituenetik lehena

Lekeitiokoak, baina, izan du garrantzirik, UEMAko teknikariak azaldukoaren arabera; honako hau izan delako mankomunitateak bere estatutuak berriro zituenetik EAeko Auzitegi Nagusiak elkarrekin den udalerrin baten kontra hartu duen lehenengo erabakia.

Kontuan hartu behar da, gainera, UEMAk urte honetan berriro behar izan dituela bere egituretako arduradunak, maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan izan ziren emaitzetara egokitzeko, eta orain Jose Maria Cazalis Eiguren Lekeitioko alkatea dela UEMA elkarteko lehendakaria.

BERRIA atzo Jose Maria Cazalis Lekeitioko alkatearekin berba egiten ahalegindu zen arren, ez zuen lortu, Lekeitioko alkatea UEMAk Aulestin daukan bulego nagusian elkarrekin horretako teknikariekin batzartuta zegoelako, gaiari buruz hitz egiteko.

Zuzenketak

ELA, EILAS eta LABek Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei igorri dizkiote Jaurlaritzak prestatutako Unibertsitate Legearen aurreproiektuari egindako zuzenketak. Unibertsitate izaerari eta langileen egoerari dagozkien zuzenketak dira.

UNIBERTSITATE IZAERA

Lurraldetasuna: Euskal Herria osoa hartzeko eskatu zuten, eta Kataluniako Joan Vives Unibertsitate sarea jarri zuten eredu moduan.

Hizkuntza normalizazioa:

Administrazio publikoko beste langileen parekoa izan dadila

eskatu zuten. EHUk bere planak gara ditzala, baina agindua Jaurlaritzaren esku egon dadila.

EHUren balioa: Unibertsitate guztiak sistema baten barruan sartzea «aurrerapausoa» dela uste dute, baina sistemaren barruan EHUk duen garrantzia berezia garatu behar duela esan zuten. Era berean, unibertsitate pribatuei diru laguntzak ematea egokia dela uste dute, «beti funtzio publikoa betetzen badute».

LANGILERIAREN EGOERA

Irakasle kontratatuak:

Sindikatuek jakitun dira sortuko den legea LOUren menpe

egongo dela, eta horrek irakasle funtzionarioei ematen diela boterea. Dena dela, irakasle kontratatuen eta funtzionarioen arteko «benetako parekotasuna» bermatzeko, haxe proposatu zuten: kontratatuen plazek finantzaketa berezia izatea eta funtzionarioak bide laboralera pasatzeko aukera argi egotea.

Egonkortasuna: Azaldu zuten, EHUko langileen erdiak behin-behineko egoeran daude, eta egonkortasuna bilatzeko legeak neurririk ez duela hartzen salatu zuten. Era berean, doktoreak ez diren irakasleei —700 dira EHU— irtenbiderik ez zaiela ematen agertu zuten. «Ez lan

ikuspegitik bakarrik. Irakasle horiek gabe EHUk ezin du irakaskuntza bermatu», aipatu zuten.

Osagarriak: Orain funtzionarioek jasotzen dituzten osagarriak irakasle kontratatu iraunkorrek ere jasoko dituztela dio legeak. Hala ere, sindikatuen ustez, hori ez da nahikoa, eta irakasle guztientzat «soldata duinak» eskatu zituzten.

Deialdi publikoa: Administrazio eta zerbitzuetako langileen taldea handitzeko deialdi publikoa egiteko eta plantilla gatzetzeko neurriak hartzeko eskatu zuten.

Milaka lagunena tanta, Lazkaoko ikastola ito ez dadin

Herenegun 70.000 bat lagunek bisitatu zuten zirkuitua garbitzen eta jasotzen aritu ziren atzo Lazkaon

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Garbiketa lanetan aritu ziren atzo Lazkaon. Urtebete eman dute bertan 300 bat lagunek Gipuzkoako ikastolen festa antolatzen eta herenegun zuten lan horren fruituak jasotzeko eguna. Zoritxarrez, eguraldiak ez zien asko lagundu. Joan den ostegunean haize erauntsiek eragindako kalteak konpontzen erlojuaren kontrako lana egin zuten

Lazkaoko San Benito ikastolakoek. Larunbata eta igandea bitarteko gauean, berriz, aurreikusitako ekitaldiak egin ahal izatea izan zuten helburu, eta baita lortu ere ekitaldi gehienetan.

Ikastolako oraingo eta lehenengo ikasleek moztu zuten zirkuituko zinta, iragarritako orduan. Miren Azkarate eta Anjeles Iztueta Jaurlaritzako sailburuak; Lazkaoko alkate Felix Urkola; Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia; Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakariak (Joxerra Zubizarreta eta Pedro Aranburu, hurrenez hurren); eta Aralar, EA, EAJ, IU-EB eta Sozialista Abertzaleak talde politikoetako ordezkariak zituzten inguruan.

Behin zirkuitua inauguratuta, bisitariak sartzen hasi ziren. An-



FESTAREN BIHARAMUNA garbiketa lanetan eman zuten San Benito ikastolako ikasleek. (MANOLOTEGI/ARGAZKI/PRESS)

tolatzaileek jakinarazi dutenez, 70.000 inguru izan ziren bederatzi kilometro pasatzeko zirkuitura hurreratu ziren bisitariak. 2.000 bat pertsona zeuden bisitarion nahiak betetzeko prest: zela edariak eta janariak zerbitzen, zela informazioa ematen, zela azpiegiturak egoki mantentzen.

Lazkaoko ikastolak aurten 40 urte betetzen dituzenez, omenal-

dia egin zitzaien igande eguerdian ikastolaren sortzaile Jaxinto Fernandez Setieni eta Aitor Muruamendiaraz zenari eta ikastolako andereñoak izandako Mari Ixabel Aldasorori eta Mari Karmen Eizagirreri. Herriko beneditarrei, Maizpide euskaltegiari eta Goierriko Euskal Eskola elkarteari ere omenaldia eskaini zieten. Erakunde publikoen laguntza eskatu zuten ekitaldi ho-

rretan festaren antolatzaileek. Herenegungo festaren helburua San Benito ikastolaren egoitza handitzeko dirua biltzea zen, eta, antolatzaileek nabarmendu dutenez, igandean Lazkaora joaterik izan ez zutenek «laguntza eman ahal izan dezaten» kontu korrante bi zabaldu dituzte: 21010381060011005253 Kutxan eta Euskadiko Kutxan 30350063890630047761.

INAXIO USARRALDE ① SAN BENITO IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

«Ondo erantzun diegu gure eskuetan zeuden faktoreei»

AGURTZANE SOLABERRIETA - DONOSTIA

Inaxio Usarralde hiru urte bete-ko ditu aurtengo abenduan San Benito Ikastolako lehendakari gisa. Tarte horretan erronka handi bati egin behar izan dio aurre: Kilometroak'03 festaren antolatetari. Eguraldiak igandean lagundu ez bazuen ere, pozik dago emaitzarekin; batez ere, Lazkaoko herriak igandean zein urte osoan egindako lana txapela kentzeko modukoa izan delako.

Atzoko eguna balorazio eguna izango zen. Zer azpimarratuko zenuke aurtengo edizioaz?

Balorazioa egiterakoan bi modu daude: datuen bidez egin ohi dena eta balorazio orokorra, alde onak eta txarrak azpimarratuz egin ohi dena. Datuen artean honakoak utzi dizkigu igandeko egunak: 70.000 lagun hurbildu ziren Lazkaora, 1.500 otordu zerbitzatu ziren —1.000 arrozpaella eta sagardotegiko 500 menu— eta 80.000 ogitarteko saldu ziren. Datu bikainak, beraz.

Bestalde, balorazioa alde onetik egin behar dugula garbi daukat. Guretzat inportantea urtea

izan da, eta erreferentzia hori ez dugu galdu behar. Igandeko eguna urte osoari errematea emateko eguna izaten da: erremate hori disdiratsua edo ilunxeagoa izan zitekeen, eta, guri, ilunxeagoa tokatu zaigu.

Eguraldi txarra ikusita, zer zebilenez zure buruan lehen ordu haietan?

Nik batez ere urte guztian lanean aritu den eta igandean lanera hurbildu zen giza talde zabal hori nuen buruan. Jende horrek guztiak garbi izan behar du urte osoan lan handia egin dela; lan hori, gainera, ondo, txukun eta bikain egin dela; gure aldetik urteari ondo erantzun diogula; eta, igandeko egunari ere, eguraldiak sortu zizkigun gora-behera guztiekin, ondo aurre egin diogula.

Eguraldia zure eskuetan ez dagoen faktore bat da. Horregatik, zure eskuetan ez dagoen neurrian ezin duzu ezer egin. Eta horri begira ez goaz inora. Gure eskuetan zeuden faktoreei ondo erantzun diegu.

Aurreko egunetan ere komeriak izango zenituzten eguraldiari aurre egiteko, ezta?

Gu euriaren beldur ginen batez ere, baina kalte handienak haizeak egin zizkigun. Aurreko astetik erdi prestatuta zeuden zenbait gunetan agertokiak, txoznak, toldoak eta abar bota zizkigun. Eta hor ere, nahiz eta egindako lana bota eta berriz ere jaso behar, jendea gogo izugarriarekin ikusi nuen. Argazki batekin laburtuko nuke aurreko egunetan Lazkaon bizi izan duguna: geldi, besoak gurutzatuta zegoenak gaizki ematen zuen. Jende guztia abesten eta lanean zegoen une oro eta halako argazkia herri honetan, tamalez, apenas ikusten da.

Igandeko egunari erreparatu, eguraldiak eragotzi al zuen ekitaldiren bat?

Haurrei begira antolatu ziren batzuk bertan behera gelditu ziren: puzgarriak, jolasak eta halakokak. Pena handia eman zigun. Perurenatarren harri-jasotze saioa ere bertan behera gelditu zen. Baina, bestela, azpimarratzekoa da bai antzerki, bertso-saio, musika edo dena delakoa, hots, gune guztietan programatuta zegoena egin, egin zela. Gaine-

ra, gune guztiak jendez gainezka zeuden eta hori izan zen festako azken argazkia.

Orio eta Zarauzko ikastolako ardura-dunek hartu dute datorren urterako Kilometroen lekukoa. Zer aholkatuko zenieke?

Aholkua den ez dakit, baina igandeko sarrera hitzaldian aipatu nuena, bene-benetan eta barrutik sentitzen dudana, esan-

KILOMETROAK

«Herri oso baten kohesioa lortzen duen festa garrantzitsua da Kilometroak»

HELBURUA

«Irakaskuntzak gaur dituen erronka berriei aurre egiteko bideratuko da lortu dugun dirua»

go nieke: hau ez da egun bateko lana. Gaur egun Kilometroak ez da egun bakarreko festa bat, urte guztian lan izugarria eskatzen duen ekimen edo mugimendu bat da. Herri edo bailara guztia mugimenduan jartzen duen festa da. Horregatik, bizi dezatela hasieratik Kilometroak eta saia daitezela beren artean giro ona sortzen. Izan ere, herri oso baten kohesioa sortzen duen ekimena baita.

Igandean lortu zen dirua zertan inbertituko da batez ere?

San Benito ikastola, orain 40 urte, haur batzuekin hasi zen. Ikastola txiki bat izatetik bailara-ko ikastola garrantzitsuenetako bat izatera pasa da. Memento honetan Oti 18 urte bitarteko 850 neska-mutiko dabilta. Eta horrek guztiak zenbait espazio arazo sortzen dizkigu. Obra bat abiatua dugu San Prudentzio eraikuntzan eta obra horretan 1.400 metro karratu irabaztea espero dugu. Obra hori finantzatzeko erabiliko da aurtengo diru etekina. Gaur egun irakaskuntza munduak zenbait erronka bizi ditu: teknologia berriak, psikomotritate gelak, eta abar. Eskaintza askoz ere dibertsifikatuagoa da, taldeak askoz ere txikiagoak dira, eta, orduan, gela gehiago behar dira. Haur etorkinen arazoa ere hor dugu. Haiek gure artean integratzea gure lana da. Horri guztiari erantzun nahi dio eraikin edo proiektu berriak.

Festa argazkietan

ARGAZKIAK. ON URBE / ARGAZKI PRESS



Hasiera. Hitzaldien ostean, Elisa Lasa eta Jesus Mari Bujanda Lazkaoko ikastolako ikasle ohiek moztu zuten ibilbidearen hasierako zinta.



Omenduak. Atzoko festa baliatu zuten, besteak beste, ikastolaren sortzaileak eta lehen irakasleak omentzeko. Ikastolak 40 urte bete ditu.



Agintariak. Lazkaon izan ziren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburuak eta Gipuzkoako diputatu nagusia.




Zeru beltza. Laino beltzak eta euria ohikoak izan ziren ibilbidean. Euriak ibilbidearen edertasuna apaldu zuen.



BERRIA. Euskaraz argitaratzen den egunkaria ere Lazkaon izan zen.



Ikasleak. San Benitoko ikasleek lan asko egin dute urte osoan.



Jendetza. Euria egin arren, 70.000 lagun inguru bildu ziren Lazkaon.



NORBEGA SAK, Coca-Colaren kontzesionarioak, parte hartu du **KILOMETROETAN.** Hala, berriro ere lagundu egin du euskara eta euskal kulturaren aldeko ekitaldietan.

ALFONSO ZENON ① ABOKATUA

«Ahal badugu, amaiera arte eramango dugu borroka»

Epaiketa euskara hutsean ezin zela egin ikusita, aretoa utzi zuen Zenonek. Salaketa jarri zion Fiskaltzak, baina irabazi egin du.

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA - BILBO

Bere bezero Gabi Basañezen aurkako epaiketa euskaraz egin ez zuten, urteak daramatza borrokan Alfonso Zenon abokatuak. Epaiketa euskaraz ezin zela egin ikusita, aretoa utzi zuen, bere bezeroak hori egiteko eskatu ziola. Horren ondorioz, desobediencia delitua egin omen zuelako, salaketa jarri zion kasuko epaileak. Bizkaiko Auzitegi Nagusiak ez zela erruduna esan zuen, baina Fiskaltza Nagusiak errekurritu egin zuen. Orain, bigarren ebazpena zabaldu du Nekane San Miguel epaileak, eta Zenonek deliturik ez zuela egin esan zuen. Epailak esandakoa-ekin gustura dago Zenon, baina bere arazoak eta Basañezen epaiketak hor jarraitzen duela gogoratu du.

Beste bideren bat har dezakete zure aurka?

Bai, aldi berean espediente bat

zabaldu zidatelako Bizkaiko Abokatuen Bazkunean. Zigor Epaitetikiko prozedura bat zabalik zegoenez, nire aurkako diziplina espedienterik ezin zuela zabaldu esan zuen Bazkunak garai hartan. Kasu hau artxibatzen badute, Bazkunak izango du nire aurka egiteko aukera.

Eta zer gerta daiteke hor?

Diziplina espediente da. Abokatuen Bazkunak ikusten badu faltaren bat egin dudala, zigorra ipiniko didate. Horrek ez du esan nahi Bazkunik botako nautekik. Isun bat izango dela uste dut. **Epaien inguruan zer irakurketa egiten duzu?**

Nahiko positiboa da. Lehenengo, nik egin nuena ez dela delitua ez ezer esaten du; abokatuok bezeroaren nahien aurka defentsarik ezin dugula egin dio. Ez da gure bezeroak ilargia gura duela, legezkoa den zer edo zer ari da eskatzen. Gainera, epaiketa euskaraz egiteko eskubidea geneukala



ALFONSO ZENON abokatuak, ezkerrean, eta Gabi Basañez bere bezeroa, eskuinean. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

argudiatzeko, Hizkuntza Gutxituen Europako Itunak eskubide hori ematen digula esan genuen. Bada, epaileak horixe bera aipatzen du bere epaian. Bere garaian, Espainiako Auzitegi Gorenak adierazi zuen itzultzaileekin egin zitezkeela epaiketak. Baina orduan Espainiak ez zeukan onartua eta sinatua Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna, eta horrek argi eta garbi esaten du hizkuntza gutxituetan egin behar direla epaiketak akusatua hala nahi badu, eta euskara hizkuntza gutxituen zerrendan dago.

Hau gertatu zen, eta berriro egin zen beste epaiketa bat, eta nik berriro alde egin nuen. Berriro gauza bera gertatu zen: Guardia Epaitetikiko bidaliko ninduela... Guardiako Epaitetikiko ez dide deitu, eta desobediencia delitua egiteagatik ez naute deklaratza deitu. Baina epaitegiak zabaldu zuen nire aurkako beste auto bat, eta ni defentsatik kentzen nindutela esan zuen. Hori errekurrituta daukat.

Zure bezeroak ez duela etsiko ematen du. Ez du konponbide erraza...

Epaitegiak nirekin zer egiten duen itxaron behar dugu, ni kasutik kentzeko asmoa daukalako. Baina benetako arazoa ez da hori. Azkenean, gaia Bizkaiko Auzitegi Probintzialaren esku geratuko da, eta ikusi beharko dugu zer esaten duen: ea epaiketa euskaraz egiteko eskubidea daukagun edo ez, nik defentsari uko egin diodan edo ez...

Eta, zure ustez, zer gertatuko da?

Batek daki. Auzia ze sekzioaren esku geratzen den ikusi beharko da. Hori bai, ahal badugu borroka amaiera arte eramango dugula oso argi daukagu. Espainiako Auzitegi Gorenaren sententzia batzuk badaude esaten itzultzaileekin egindako epaiketetan ez dela akusatua hizkuntza eskubiderik urratzen, baina hori Europako Hizkuntza Gutxituen Ituna onartu baino lehenagokoa da. Hori kontuan hartuta, ikusiko dugu zer gertatzen den.

Basañezen moduko kasu gehiago ezagutzen dituzu? Izan ere, asko izanez gero, Justizia administrazioa erabat blokeatuta gera daiteke.

Kasu hau oso bitxia da, 1996koa delako eta oraindik epaiketarik ez delako egin. Hemen, Bilbon, eduki nuen beste epaiketa bat, baina hori falta epaiketa zen. Gauza bera planteatu genuen, eta nik alde egin nuen, bezeroarekin batera. Baina falta epaiketa batean ez da derrigorrezkoa abokatu hori egotea. Orduan, egin zuten epaiketa, kondenatu zuten, eta hor geratu zen. Baina hemen, kontua da ni barik eta akusatatu barik ezin dutela epaiketarik egin, eta hor jokoan kanpo harapatzen ditugu.

Oker ez banago, Zigor Epaitetikiko epaile euskaldun bakarra dago, eta euskaraz dakiten fiskalak eta idazkariak ez dira asko izango.

Lehen Angel Gil zegoen, euskalduna, baina orain ez dago, Auzitegi Probintzialera igo zutelako. Zigor eta instrukzio alorretan

behintzat euskaraz dakien epaile bat bera ez dago. Gero, Bizkaian euskaraz dakiten fiskal bi daude. Idazkari batzuk euskara ikasten ari direla badakit, baina nik ez dut bat bera topatu.

Hor badago justizia euskalduntzeko egitasmo bat...

Hori gezur bat da. Herritarrak pozik egoteko esaten den gauza bat da, baina praktikan ez da betetzen. Guk lehenengo epaiketan plantetatu genion epaileari euskaraz egin zitezkeela. Idazkari euskaldunak ez badago, epaiketa grabatzen da, eta gero itzultzaileak emango dio testua idazkariari, horrek akta jaso dezan. Horretarako, fiskal euskalduna ipintzea nahikoa zen. Historian euskara hutsean egindako lehenengo epaiketa izango zen hori, baina Fiskaltzak ez zuen nahi izan, eta ez du nahi. Legeak esaten du kasu jakin batzuetan berak aukeratutako fiskala jarri dezakeela, baina ez du egiten.

Beraz, bestelako interesak daudela uste duzu?

Bai, argi dago. Gainera, gai hau mugitzen izan nintzen ni Bizkaiko Abokatuen Bazkunean, hor badagoelako euskara batzorde bat. Abokatuen Bazkuneko zuzendaritzan egon ginen euskararen gaia eztabaidatzen, eta nik badakit dekanordeak izan zuela batzarra hemengo fiskal nagusiarekin, Angela Montese-kin. Eta horrek esan zion ezetz; fiskal euskaldunei buruz ez zuela ezer jakin nahi. Hor ikusten da erabaki politikoa dela.

EUROPAKO ITUNA

«Nahi bada epaiketak euskaraz egin behar direla dio Europako Hizkuntzen Itunak, eta hori legea da»

EUSKALDUNTZE PLANA

«Justizia euskalduntzeko plana gezur bat da, praktikara eramaten ez delako»

FISKAL EUSKALDUNAK

«Fiskal euskaldunei buruz ez dute ezer jakin nahi; hor ikusten da erabaki politikoa dela»

HARPIDEDUNEN

Kioskoa

ATXASPI HOTELEAN BI LAGUNENTZAKO GAUA ETA GOSARIA IRABAZI NAHI BADITUZU

jo harpidedunen kioskora:

943 30 43 47
www.berria.info/kioskoa

BESTE ESKAINTZA BATZUK ERE IZANGO DITUZU: botika naturalak egiteko ikastaroa, lau egunerako autokarabana, kilometroetako jantziak, pilota partidetarako sarrerak, zinemarako sarrerak, Zientziaren Kutxagunerako sarrerak, Nafarroa Oinez-eko produktuak eta Las Islas del Tiempo antzerkirako sarrerak.

Euskaldunok behar dugun **berria**

PPk Euskara Kontseilua bilduko du Gasteizen, bi hilabeteko atzerapenez

Oposizioko udal taldeek salatu dute metodologia aurrez erabakita egingo duela

LUIS KARLOS GARCIA - GASTEIZ

Gasteizko Udalak lehen aldiz bilduko du Euskara Kontseilua, hilaren 30ean; agindu zuen baino bi hilabete geroago, hain zuzen. Gainera, PPk aurrez zehaztutako lan metodologiari segituko diola iragarri du Lehendakariak zinegotzi ordezkari Idoia Garmendiak.

Garmendiak jakinarazi zuen batzordea hiru hilean behin bilduko dela eta Udala harremantant jarriko dela Eusko Jaurlaritzarekin eta Kontseiluarekin, bileraren berri elkarte guztiei eman nahian.

EAJ, EA eta PSE-EE kritiko samar agertu ziren PPko zinegotziaren azalpenak zirela eta. «Ez duzu bete hitza», aurpegiatu

zior EAJko Unai Grajalesek. Jeltzaleak salatu zuen jan egin duela Euskara Kontseilua irailean biltzeko hartutako konpromisoa, ia azaroan elkartuko baitu. Grajalesek «utzikeria» sumatu du PPre jarreran.

Eako Antxon Belakortuk, berriz, talde euskaltzaleek «hasiera-hasieratik» esku hartzeko eskatu zuen, «bide dezente egingo baita batzordea biltzen denerako». Halaber, zinegotzi abertzaleak «beldurrez» hartu zuen, Euskara Kontseilua elkarteak onartzeko izan dezakeen «galbaha» dela kausa.

Juan Carlos Alonso sozialisten bozeramaileak ere «garrantzitsutzat» jo zuen «pausorik ez ematea» batzordea eratu baino lehen. «Kontseilu parte-hartzailea eratzea erabaki bagenuen, halaxe izan dadila benetan», erantsi zuen.

PP, oposizioa lasaitu nahian

Garmendiak erantzun zuen oposizioak arrazoirik gabeko kezkek zituela: «Metodologiako do-

ANTXON BELAKORTU

(Eako zinegotzia)

«Elkarteak hasieratik behar dira.

Bestela, bide dezente egingo da kontseilua eratzen denerako»

kumentua ez da itxia izango, eta lan egiteko abiapuntua besterik ez da izango, iradokizunak ez baititugu inolaz ere baztertuko».

PPko zinegotziak ukatu egin zuen batzordearen bileraren atzerapena «utzikeriak» eragin zuela. Aldiz, denbora gehiago hartzeak «ganorazko lana» egin eta bilerara «zerbaitekin» joateko asmoa islatzen duela esan zuen.

Gasteizko Udalak Euskararen Erabilera Planaren barruko plangintza eta Euskara Kontseilua eratu beharra onartu zuen iragan apirilean. Uztailean, berriz, PPk hitzeman zuen udako oportunitate etorri eta batzordea bildu eta kanpoko plana aurkezteko.

Euskara Kontseilua erabakiak hartzeko gaitasuna izatea aldarrikatu zuen atzoko bileran EAK. Izan ere, arautegiak dio «kontsulta eta irizpen organo gisa» eratuko dela, «beren jardueraren xedetzat euskara defenditu eta sustatzea duten herritarren eta taldeen proposamenak jaso eta partaidetza bideratzeko». Hilaren 30ean osatuko da, baina hamar egun lehenago PPk esango du udal batzordean zernola jokatu beharko duen.

ITOIKO URTEGIA

Iratiren alde 2.500 lagun inguruk bat egin zuten Agoitzen

Artozki eta Muniain eraitsi izana salatu zuten 2.500 lagun inguruk herenegun, Agoitzen egindako elkarretaratzean. Irati eta herriak bizirik nahi dituztela azpimarratu zuten. Ibarreko hainbat bizilagunek eraman zuten *Herriak bizirik* leloa idatzita zeukan pankarta. *Solidarioek* ere parte hartu zuten. Guardia Zibilak gertutik zaindu zuen manifestazioa ibilbide osoan.

ERREPIDEAK

Emakume bat hil da Leintz Gatzagan errepede istripuan

Istripua atzo 16:45ean gertatu zen, GI-627 errepedean, Leintz Gatzagan. Opel Frontera batek eta Volkswagen Golf batek elkar jo zuten, eta kolpearen ondorioz bi ibilgailuetako bateko bidaiari bat autoan harrapatuta geratu zen. Suhiltzaileek handik ateratzea lortu zuten arren, hilda zegoen ordurako. Bestalde, Getxoko emakume bat larri zauritu zen atzo Zuian, istripu batean.

INGURUMENA

Harrabotsaren aurkako plana aurkeztu dute

Roselyne Bachelot Frantziako Ingurumen ministroak harrabotsaren aurkako plan bat aurkeztu zuen atzo. Aireportuei zerga berri bat ezarri nahi die, sortzen dituzten eragozpenen ordainez. Neurriaren xedea da 70 dezibelio baino gehiago pairatzen dituzten etxeei egokitze laguntza ematea zerga berri horri esker. 3.000 puntu beltz zerrendatu dituzte Frantzian.

BERRIaren aldeko deialdiak

Herri batzordeen deialdien eta ekitaldien berri emateko: 943 30 40 30 telefono zenbakia eta gizartea@berria.info

GAUR, URRIAK 7

Bilbo: Zazpikaleetako herri batzordearen bilera irekia 20:00etan, Kalderapeko Elkarte-Lizardi euskaltegiko 3. solairuan, hemendik aurrera egitekoak finkatzeko.

Lekeitio: Herri batzordearen batzarra, kultur etxean, 19:00etan.

Lezo: Herri batzordearen bilera, 19:00etan, Alondigan. *Oarsoaldeko Hitza*-ri buruz ere hitz egingo da.

OSTIRALA, URRIAK 10

Arrasate: BERRIaren elastikoak saltzeko mahaia jarriko dute herriko kaleetan.

BERRIaren aldeko mozioa onartu dute Arbuciesen

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Arbuciesen (Girona), Udalak BERRIaren aldeko mozioa onartu zuen irailaren 25ean. Mozioan jaso dutenez, besteak beste, euskarazko egunkaria argitaratzen duen EKTSA enpresako akzio bat erosiko du Arbuciesko Udalak, «oinarri herrikoia, zabala, euskalduna eta konprometitua duen proiektu batean parte hartzeko».

EUSKARA IKASTAROKAK

800 gurasok eman dute izena; alkateak, berriz, utzi egin du

Gasteizko gurasoek erantzun txukuna eman diote Udalak antolatutako euskara ikastaroen eskaintzari. Idoia Garmendia zinegotziaren datuen arabera, ia 800 gurasok eman dute izena aurten euskara ikasteko (58 talde egingo dira). 2000. urtetik hona, %23ko hazkundera izan da. 1989ko zenbakien aldean ere gorakada nabarmena gertatu da: orduan 10 talde baino ez

ziren eratu, eta 2003-2004ko ikasturtean, berriz, halako sei.

Gasteizko alkate Alfonso Alonsok, ordea, utzi egin zituen euskara ikastaroak, alkate izendatu eta gutxira. Joan zen astean, Gasteizko egoerari buruzko bilkuran, Alfonso Alonsok euskara sustatzeko jarraituko duen politika adierazteko sei lerro baino ez zituen idatzi 36 orriko hitzaldian.

Eskoriatzako Udala

IRAGARKIA

Inizpide, helburu eta planeamenduen konponbide orokorrak zeintzuk diren adierazteko moduan bukatuta daude (D30/1) MAZMELAKO NEKAZAL GUNERAKO PLAN BEREZIAREN AURREDOKUMENTUA egiteko lanak. Hemendik aurrera jendea jakineren gainean jartzeko epea hasiko da. Epea, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertzen den egunetik hasi eta hogeita hamar eguneko izango da. Denbora horretan korporazio, elkarte eta partikularrek iradokizunak edo planeamenduen beste aukera batzuk aurkeztu ahal izango dituzte.

Dokumentua jendeaurrean jarri den tokia: Udaletxeko Hirigintza, Bulegoan herritarrentzako ordelegi barruan. Dokumentuaren kopia ateratzeko: ATAI (Industrialdea - 20550-Aretxabaleta) Telefonoa: 79.81.66. Dokumentuari buruzko informazio zabalagoa nahi dutenek arurrez zita eskatu beharko dute.

Eskoriatza, 2003ko irailaren 25ean. ALKATEA

Debako Udala

IRAGARKIA

Udal honetako Alkategoak 2003ko irailaren 30an hartutako erabakiz, Maquinaria CME S.A.L- k aurkeztutako Zehazte Ikerketa Udalerri honetako Udal Arau Subsidiarioetako 38 esparruko N2-b lursailen hasieran onartzea erabaki zuen Felipe Mendibil Crespo Arkitekto jaunak eginiko dokumentuaren arabera. Aurreko guzti horretan oinarrituz, espedientea jendearen esku aurkitzen dira Udal honetako Bulego teknikoan, iragarki hau derrigorrez argitaratu beharreko azken Aldizkari Ofizialetan kaleratzen denetik kontatzen hasi eta hamabost egunetako epean.

Deba, 2003ko urriak 1an. Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia. Alkateak.



Debako Udala

IRAGARKIA

Udal honetako Udaltzazk 2003ko irailaren 25an eginiko bileran, Udalerri honetako Arau Subsidiarioen 9 gunearen aldaketa puntualaren dokumentua, Aldazabal-Murgi etxearen babes maila aldatzekoarena hasieraz onartzea erabaki zuen Antxon Maestre Alcazar arkitektoak eginiko proiektuaren arabera Hirigintza Planeamendu arauak 120 atalean xedatutakoari jarraiki, lizentzia ematea etentzen da, gaurko arautegi oinarrituak eta planeamendu berriaren edukinak gordetzen dituztenaren kalerik gabe. Aurreko guzti horretan oinarrituz, aipatutako erabakia eta bakoitzari dagozkion dokumentuak jendearen esku aurkitzen dira Udal honetako Hiritar Arreta Bulegoan, Hirigintza Planeamenduzko Araudian agindu bezala, iragarki hau derrigorrez argitaratu beharreko den azkeneko Aldizkari Ofizialetan kaleratzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

Deba, 2003ko urriak 1an. Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia. Alkateak.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

IRAGARKIA

2003ko urriaren 8an etxebizitza-lesleipendunak hautatzeko zozketa egingo da ondoko sustapenetan:

- Lekeitio. 24 etxebizitza sozial.
- Lekeitio. Babes ofizialeko 104 etxebizitza.

2003ko urriaren 8an, asteazkena, 10:00etan Lekeitioko Santi Brouard Udal Frontoian.



MUTUALITATEEK orain Gizarte Segurantzarena den ahalmen bat eskura dezaketa. AN DONI CAPELLADA / ARGAZKI PRESS

Senda-agiriak ematea erraztu nahi die Madrilek mutuei

Soilik hiru egun izango lituzke osasun publikoak eskaerari ezetz esateko; sindikatuen ustez, praktikan bete ezineko epea da

IVAN SANTAMARIA - GASTEIZ

Espainiako Lan Ministerioak berri ere lan mutualitateen eskuduntzak gehitzeko asmoari heldu dio. Ministerioak esku artean duen lege-dekretu zirriborroaren arabera, gaixotasun arruntetan, mutualitateek senda-agiriak eskatzeko aukera izango dute aurrerantzean, gaur egun Gizarte Segurantzako Espainiako Institutuak soilik duen ahalmena bereganatuko baitute.

Senda-agiri eskaera Medikuko Ikuskaritzara edo osasun publikoko medikuari igorri ondotik, azken honek soilik hiru eguneko epea izango du eskaerarekin ados dagoen edo ez jakinarazteko. Hiru egun horiek igarota, isiltasun administratiboa jazo dela ondorioztatu, eta gaixo egoteagatik langileak jasotzen zuen diru-ekarpena galduko du.

Ados dagoen edo ez jakinarazteaz gain, horrek efektu juridikoak izan ditzan hainbat ezauzgarri bete beharko ditu, betiere

Eduardo Zaplanak zuzentzen duen ministerioaren lege-dekretu zirriborroan zehazten denez. «Arrazoitua izan beharko du, eta gaixotasunaren diagnostikoa azaldu, beharginari eragiten dizkion mugak, aurreikusitako tratamendua eta iraupena».

Ez da PPK antzeko erreforma bat aurrera eramateko egin duen aurreneko saioa. 2000. urtean onartutako beste lege-dekretu batean, gaixo-agiriak eta senda-agiriak ematea onartu zieten mutualitateei. Haatik, indarrean sartzeko araudia egitea falta zitzaien, eta Espainiako Gobernuak ez zuen aurrera jo, neurri batean sindikatuen presioagatik.

Sindikatuak gogor gaitzetsi dute Espainiako Lan Ministerioaren lege-dekretu zirriborroa. Funtsean, bat datoz Hego Euskal Herriko lau sindikatu nagusiak (ELA, CCOO, LAB eta UGT) neurriaren atzetik finantza helburuak daudela salatzerakoan, eta osasun sistema pribatizatzeke joera argia ikusten dute.

Azken hitza osasun publikoaren esku?

Espainiako Gizarte Segurantzaren Institutuak, aldiz, ukatu egin du zirriborroak langileen osasuna arriskuan jarriko duela edo osasun zerbitzuaren pribatizazioan sakonduko duela. «Azken hitza beti osasun zerbitzu publikoak izango du, senda-agiri haiei eskatzen zaie, eta, aurka badaude, eskabideak ez du eraginik izango».

Sindikatuak, berriz, aurreikusi den hiru eguneko epea praktikan ez dela nahikoa izango uste dute, beharginari ezin izango baitiote azterketa egin. Beraz, mutualitateen eskaerak ia beti beteko direla susmatzen dute.

ELAko Lan Osasun arloko Iñigo Sagarnak espero zuen halako zerbait. «Gizarte Segurantzak dirua aurreztu nahi du, eta horretarako erabiltzen ari diren tresna lan mutualitateak dira». Mutualitateek denbora daramate esku-bide hori aldarrikatzen, azken fi-

nean, eurek ordaintzen dituztelako gaixotasun arruntak. Bide hori «oso arriskutsua» dela ziurtatu du Sagarnak, «eskuduntza gehiago jasotzen duten neurrian, pribatizaziora jotzen baitugu». ELAkoaren aburuz, langileentzat ondorio kaltegarriak datoz. «Osasun publikoa ahula izango da, haurrentzat eta adineko jendearentzat, eta pertsona aktibotentzat, berriz, osasun pribatizatu izango da. Horren xedea lehenbailehen langileak merkatutratzea izango da, arretari behar beste erreparatu gabe».

CCOOk Jesus Uzkudun, berriz, neurri horri enpresetan aurre egiteko aukeraz mintzo da. «Nahiz eta gobernua ez geldiarazi, enpresetako lan itunetan baliogabetzeko aukera dago. Enpresaburuak ez badu nahi kudeaketa hori mutualitatearekin egin, ez dute inolako eskuduntzarik», azaldu du. Gaur egun, langileen %60k dute gaixotasun arruntetan kudeaketa mutualitate bidez, CCOOren datuen arabera.

Enpresa askotan lortu da behargina gaixotzearen dagoenean soldataren %80 edo %90 kobratzea. Alta, CEOEk eta CEPYMEk hori ere kendu nahi dutela ohartarazi du Uzkudunek. Ez bakarrik hori, gaixo dauden langileen alorrean ere mutuek eskuduntza gehiago izatea ez du baztertzeko. «Senda-agiriak emateko gaitasuna badute, zergatik ez gaixo-agiriak?».

Iruzurra datuek ez dutela frogatzen dio CCOOk

Gaixorik dauden beharginak «susmopean» jartzen ditu Espainiako Gobernuak, sindikatuen irudiko. Haatik, iruzurra egotea datuekin ezeztatzen ahalegindu da CCOO. «1995 eta 2002 artean, Gizarte Segurantzako afiliazioa %35,5 igo zen, eta osasun kosteak soilik %14,1. Iruzurra dela esaten badute, argitu dezate zela zein sektoretan eta zein lurraldetan den».

Juan Luis Rodriguez LABeko Lan Osasuneko arduradunaren ikuspuntutik, lan mutualitateek, enpresarien elkartean diren neurrian, ezin dute esku hartu Osakidetza edo Osasunbideako medikuek kontrolatzen dituzten gaixotasun arruntetan kasuetan. Ildo horretan, kexu da halako neurriak PPren, CEOren, CCOOren eta UGTren arteko «bilera sekretuetan» aztertzen direlako.

LABen aburuz, sindikatu guztiek «kontsekuentek» izan behar dute lan osasuna ez dela saltzen diogen leloarekin. «Espero dugu erantzukizuneko jokatu dutela eta ez direla saiaturik mutualitateen zuzendaritza organoetan

esanak

IÑIGO SAGARNA

(ELA)

«Osasun publiko ahula izango da haur eta adinekoentzat, eta pribatizatu langileentzat»

JESUS UZKUDUN

(CCOO)

«Iruzurra dagoela esaten badute, argitu dezate zela zein sektoretan eta zein lurraldetan»

JUANJO RODRIGUEZ

(LAB)

«Mutualitateek dituzten baliabideak administrazio publikoan integratzea da konponbidea»

JAVIER BERMEJO

(UGT)

«Mutualitateek, agian, sekretuak diren diagnostikoak eta datuak emango dizkiete enpresei»

parte-hartze faltsu bat izaten. Poltsikoak beteko dituzte, baina ez dute aldaraziko enpresaren alde egiten duten kudeaketa». Irtenbidea ere argi du Jesus Rodriguezek. «Mutualitateek dituzten giza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak administrazio publikoetan integratzea da konponbide bakarra».

UGTko Javier Bermejoren ustez, berriz, medikuei erantzuteko uzten zaien epeari «txikiak» da. «Dagoen gaixotasun kopuruarekin ezin dira aritu mutualitateei bakarrik erantzuten». Enpresek ere arduratuta behar dutela uste du. «Sasoi egokia ez duten langileak izango dituzte, eta ez da batere ona eurentzat».

Medikuak susmopean jartzeko az gain, intimitate-eskubidea eta osasun datuen sekretua ez direla bermatuko ohartarazi du Bermejok: «Mutualitateetako medikuek historia klinikoak izango dituzte, eta baliteke diagnostikoak eta konfidentzialak diren datuak enpresei ematea».

Saio antzua egin zuen Espainiako Gobernuak 2000n

Espainiako Gobernuak, PPK gidatuta, lehen ere egin du ahalegina lan mutualitateek gaitasun arruntetan dituzten eskuduntzak gehitzeko. Duela hiru urte, antzeko neurri bat martxan jartzen saiatu zen Lan Ministe-

ria. Horretarako 6/2000 lege-dekretua erabili zuen, hain zuzen ere, *Ogasun eta Zerbitzuen Merkatuetan Lehiakortasuna Areagotzeko Premiazko Neurriak* izenburua zuena. Gobernuaren erabakiak eta formak oso hase-

re jarri zituzten sindikatuak, eta osasun publikoko medikuen elkarteak ere aurka jarri ziren. Dekretuaren edukia martxan jartzeko araudia ez zuten egin, eta, ondorioz, ez da inoiz indarrean jarri.

JUAN LUIS URIA ① OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO ELKARTEA

«Osasuna diruaren menpe jarriko da»

I.S. - GASTEIZ

Osasun Publikoaren Aldeko Elkartearen oso kritiko dira Espainiako Lan Ministerioa prestatzen ari den aldaketarekin. Osasun sistema publikoa arriskuan jartzen ari dela uste du Juan Luis Uriak, eta, gainera, gaixoaren konfidentzialtasuna ez dela bermatzen ohartarazi du.

Zer eragin izan dezake Espainiako Lan Ministerioaren proiektuak aurrera eginez gero?

Beste pauso bat da. Lan mutualitateek senda-agiri ekonomikoak eman ahal izatea oso arriskutsua da, erakunde horiek finantza irizpideak izan ditzaketelako, osasun irizpideen gainetik. Osasun etxeek, familiako medikuek eta mediku ikuskariak laneko gaixo-agiriak kudeatzeko ardura galtzen badugu, lan eta osasun irizpideak diruaren menpe jarriko dira.

Mutualitateek lan kostuak murrizteko xedea izatea langileen osasunaren kalterako izango dela uste duzu? Mutualitateetan lan egiten duten profesionalak gustuko izan edo ez, osasun irizpideak eta irizpide ekonomikoak nahastuko dira, eta honetan badugu esperientzia: irizpide ekonomikoak beti daude besteen gainetik.

Espainiako Gizarte Segurantzako Institutuak dio azken hitza osasun publikoko medikuek izango dutela.

Hiru eguneko epeak ez du ezertarako balio. Osasun etxeetan eta ikuskaritza medikuaren dagoen lanarekin, ia ezinezkoa da erantzuna garaiz ematea. Gaitasun arruntan kudeaketa burokratizatuko da, nabarmen. Medikuen datuen konfidentzialtasuna galduko da, datu horiek mutualitateetako medikuek, osasun etxeek eta Gizarte Segurantzak behar izango dituztelako.

Sindikatu batzuek diote intimitate eskubidea arriskuan dagoela.

Pertsona baten historia klinikoa zatikatzen denean, konfidentzialitate arazoak, informazioaren etikari dagozkionak, oso garrantzitsuak dira, eta ministerioak badaki, baina neurri ekonomizisten alde jotzen du. Lehen arazoa etika arazoa da, bigarrena informazioaren zatikatzea da, hirugarrena burokratizazioa, eta, azkenean, dena epaitegietan bukatuko da. Azken hitza osasun publikoak edo ikuskaritza medikuak duela esaten badute ere, giza arloko epaitegiak erabaki beharko du irizpide aldeak daudenean.

Osasun publikoaren aldeko elkarte modura, pribatizazioarako joera ikusten duzue?

Arreta sistemak zatikatzen ari dira, eta hori oso kezagarria da.

Alde batetik, mutualitateak; bestetik, gainerakoak. Horrek eskatzen du dirua mutualitateentzat, dirua Gizarte Segurantzako Espainiako Insititutuko langileen-

tzat eta abar. Arreta sistema publikoaren kalitatea eta eragin-kortasuna hobetu ordez, prozesu guztiak zatikatzen dira. Azkenean, badakigu merkatuak

kudeatuko dituela gaixo-agiriak, eta ez da planifikazio egokia izango, sektore publikoan gaixiak ezagutzen ditugulako, euren osasun datuak eta historia klinikoak osorik dakizkigu. Joera da gero eta jende aktibo gehiago izatea mutualitateen osasun eta ekonomi kudeaketaren azpian, eta gero eta erabaki ahalmen murriztagoa Osakidetzako eta Osasunbideko medikuentzat.



Formación ■ Prestakuntza ■

APRENDA EN UNAS HORAS A LLEVAR EL DÍA A DÍA DE SU EMPRESA

CURSOS PARA MICROEMPRESAS

Inicio de los cursos: 6 de Octubre de 2003

Seminario de utilidades prácticas de Internet

- Banca electrónica: Movimientos de cuentas traspasos y transferencias en Internet (2 horas)
- Banca electrónica: Domiciliación de recibos, pagos y cobros en internet (2 horas)
- Comuníquese con proveedores y clientes mediante el correo electrónico (2 horas)
- Busque productos, precios y proveedores en internet (2 horas)
- Realice las funciones de fax por ordenador (2 horas)
- Internet Básico para Pymes (10 horas)

IKASI ERANTZUTEN ZURE ENPRESAREN EGUNEROKO GORABEHEREI ORDU BATZUTAN

MIKROENPRESENTZAKO IKASTAROK

Ikastaroen hasiera: 2003ko urriaren 6an

Internet modu praktikoan erabiltzeko mintegia

- Banca elektronikoa: kontuen mugimenduak, initsuldaketak eta transferentziak Interneten (2 ordu)
- Banca elektronikoa: ordainagrien helbideratzea, ordainketak eta kobrantzak Interneten (2 ordu)
- Komunikatu hornitzaile eta Bezeroekin posta elektronikoen bidez (2 ordu)
- Bilatu produktu, prezio eta hornitzaileak Interneten (2 ordu)
- Bete faxaren funtzioak ordenagailuan (2 ordu)
- Oinarrizko Internet ETE-entzat (10 ordu)

La asistencia a los cursos es GRATUITA ■ Ikastaroak DOHAINEKOAK dira

Inscripciones **902 25 25 95** Izen-emateak

www.spri.net www.enpresadigitala.net

■ Imparticiones en Centros KZ Gunea en: ■ Ikastaroak herri hauetako KZ Guneetan emango dira:

Agurain-Salvatierra, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragón, Bergara, Derio, Eibar, Elgoibar, Ermua, Galdakao, Igorre, Llodio, Oñartzun, Tolosa, Zumarraga




Irailean 1.939 langabe gehiago zenbatu ditu INEMek Hegoaldean

Nafarroan ezik, langabeziak gora egin du beste herrialdeetan, bereziki Bizkaian %4,18 igo baita

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

INEM Espainiako enplegu bulegoko langabeziaren estatistikek gora egin ohi dute urtero irailean eta aurtengoa ez da salbuespena izan. Hego Euskal Herrian 1.939 langabe gehiago zenbatu ziren INEMeko bulegoetan irailean eta hilabete bukaeran langabezi tasa %7,17ra igo zen. Beste datu aipagarri bat islatu zuten estatistikek: urtebetean, INEMen izen ematen duten langabeen kopurua 143 lagunetan igo da.

Lau herrialdeetan ez zen joera bera izan. Nafarroa izan zen salbuespena, Foru Erkidegoan 118 lagun gutxiago baitzeuden lanik gabe irailean, eta ia zko datuekin alderatuta ere, 458 langabe gutxiago zuten izen emana enplegu bulegoetan. Alderantziz, Bizkaian nabarmen gora egin zuen langabeziak aurreko hilabeteetan: 1.682 gehiago. Herrialde horrek du, gainera, langabezia tasarik handiena, %8,09koa. Araban eta Gipuzkoan ere 152 eta 223 langabetu gehiago zeuden INEMen errolatuta.

Errealitate «desitxuratua»

Balorazioa egiterakoan LABek azaldu zuen enplegu bila dabil-tzan guztiak ez dutela INEMera jotzen, eta hortaz, datuok errealitatea «desitxuratzeko» dutela deitoratu zuen sindikatu abertzaleak. «Kontuan hartu behar da langabetuen artean talde

LANGABEZIA INEM-EN ARABERA

Hego Euskal Herrian

Abuztua-iraila

Langabetu kopurua




89.572

Langabetu gehiago

1.939 (%2,21)

Langabezi tasa: 7,17

89.572 langabete



Espainian

Abuztua-iraila

Langabetu kopurua



1.607.847

Langabetu gutxiago

-38.633 (-%2,46)

handi bat ez dela erregistratzen INEMen itzaropenik ez duelako lanik topatzeko eta funtzionamenduan institutu horrek dituen huts larriengatik», kritikatu zuen.

Ez ikasleak ez lanaldi erdiko enpleguaren bila dabil-tzanak ez direla langabetzat jotzen gaineratu zuen. Azkenik, sindikatu abertzaleak motelaldi ekonomikoaren «ondorio larrienak» langileriak pairatzen dituela azpimarratu nahi izan zuen.

CCOO-Euskadik EAEko datuak aztertu zituen eta «baikortasunerako zantzurik ez dagoela

ondorioztatu zuen. Egun izenpetzen diren ehun kontratatutik mugagabeak 7,5 baino ez direla nabarmendu zuen. Sindikatuen arabera, datuok erakusten dute egoera ekonomikoa «geldituta» dagoela eta ez dela enplegu berririk sortzen ari.

Azkenik, Espainian 38.633 lagun gehiago zeuden lanik gabe irailean. Eduardo Zaplana Espainiako Gobernuako Enplegu ministroak oraingoan ia zko datuei erreparatu zien eta «maila berean» jarraitzen dutela nabarmendu zuen (17.583 langabe gehiago, hain zuen).

IPAR EUSKAL HERRIA

Iparraldean ere langabezia gorantz

Baionako Merkataritza eta Industria Ganberaren datuen arabera, Ipar Euskal Herrian lanaldi osoko enplegu bila 8.080 lagun zebiltzan ekainean, iaz baino %1,4 gehiago. LABek atzo nabarmendu zuenez, datuok osoak ez izan arren, azken hamabi hilabeteetan Iparraldean langabeziak erakutsi duen joera txarra erakusteko balio du. 1997tik langabeziak hartu zuen beheranzko joera iaz eten zen, beraz. Ganberaren arabera, Lapurdi eta Nafarroa Behereko langabezia tasa %9,4koa zen. Orain urtebete, ordea, %9an zegoen. Langabezia tasa Frantziakoaren maila berean dago.

Datua

%7,17

Langabezia tasa: Hego Euskal Herrian langabezia tasa %7,17an amaitu zuen iraila. Abuztuaren %7,01ean zegoen eta iaz epe berean, %7,33an.

Elkarkidetzak bere bi pentsio sistemak bateratu ditu

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

EAEko administrazio publiko langileen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateak, Elkarkidetzak, orain arte izan dituen bi pentsio sistemak bateratu egingo ditu. Elkarkidetzako presidente Jon Zabaliak atzo Bilbon azaldu zuen neurri hori iragan ostiralean onartu zela batzar orokorrean eta aurreikusita dagoela erakundearen estrategia planetan.

Entitateak bi pentsio sistema izan ditu orain arte: batean, aurretik zehazten da etorkizunean jaso beharreko pentsioa eta horren arabera, kuota aldakor bat ordaintzen du bazkideak; bestean, ordaindu beharreko aportazioa zehaztuta dago eta kotizatzaila bakoitzari dagokion pentsioaren zenbatekoa kotizazio urteek, ordaindutakoak eta funtsaren errentagarritasunak zehazten du.

Elkarkidetzak lehen sistema ezabatu eta bigarrena zabaltzea erabaki du, azkenik. Gainera, sortutako soberakinak kotizatzailen artean banatzea ere erabaki zuen batzarrak. Zabaliaren arabera, akordioari esker orain Elkarkidetzak sistema bakarra du eta bazkide guztientzako «berme handiagoa du». Aurreratu zuen, gainera, egun dituen pentsio planak (420tik gora) bateratzeko asmoa duela. Egun 20.000 bazkide ditu, toki eta foru administrazioetako langileen %80-90.

HOBETUZ

Enpresa barruko trebakuntza ikastaroak onartu dituzte

Patronalak, CCOOk eta UGTk ez dute onartu ereduaren defentsaren aldeko deialdia, baina bai, ordea, Eusko Jaurlaritzak

IKER ARANBURU - DONOSTIA

Hobetuz patronatuak urtebetez luzatu ditu enpresen barruan langileei prestakuntza emateko 2002. urteko deialdiak. Horren ondorioz, ia 3.000 enpresatako 60.000 langilek trebakuntza ikastaroak izango dituzte datozen hilabeteotan. Gainera, aurtengo urtarrilaren 1etik indarrean dauden planek laguntzak jaso ahal izango dituzte orain.

Lantegitik kanpoko trebakuntzari buruzko akordioak ez zuten lortu Hobetuz-eko kideek. Confesbaskek, eta UGT eta CCOO sindikatuek ia zko deial-

dia beste urtebetez luzatu nahi zuten, baina ELAk eta LABek ezezkota eman zuten, beren iritziz, deialdi horiek hobetzeko asko dutelako. Josu Bilbao LABeko ordezkariak BERRIARI azaldu zionez, enpresek eta beste sindikatuek etekin handiak ateratzen dituzte —2,5 milioi euro inguru 2002an—, trebakuntza ikastaro horiek kudeatzen baituzte sortu dituzten akademien bitartez.

UGTko Felipe Garciak, berriz, «langileen eskubideei jaramonik ez egitea» leporatu zien sindikatu abertzaleei. «Lantegi txikieta-ko langile asko prestakuntza

etengabetik at geratuko dira», gaineratu zuen. Hilaren 17an beste bilera bat egingo du Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak, baina ez da espero akordioa lortzea.

Ereduez akordioak ez

Adostasunik ez dute lortu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan indarrean dagoen lanbide arteko akordioaren aldeko deklarazioaren inguruan. ELAk eta LABek proposatu zuten, eredu arriskuan baitago Espainiako Gobernuak langileen trebakuntza eredu aldatu ondotik. Izan ere,

Madrilgo gobernuak erabaki du datorren urtetik aurrera langileen trebakuntzarako laguntzak Gizarte Segurantzarako kotizazio murrizketa bidez ordaintzea. Espainiako patronalak —CEOE— eta hango CCOOk eta UGTk, begi onez ikusi dute erabakia, nahiz eta beraien EAEko adarrek esan Hobetuz-en ereduaren alde daudela.

Eusko Jaurlaritzak bat egin zuen ELAren eta LABen deklarazioarekin; ez, ordea, patronalak eta beste sindikatuek. Juan Cruz Lopez ELAko ordezkariak BERRIARI esandakoaren arabera, Confesbaskek argudiatu zuen

«barne organoetan» eztabaidatu behar zuela deklarazioa. Lopezek, ordea, iritzi dio patronalak ez duela konpromisorik nahi.

Jaurlaritzaren erabakia gogor kritikatu zuen UGTk, baina begi onez hartu dute ELAk eta LABek. Sindikatu abertzaleek «onartutakoa betetzeko» exijitu diote Jaurlaritzari, «Madrilen gertatzen denari erreparatu gabe». Deklarazioaren arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako langileek eta enpresek hilero ordaintzen dituzten prestakuntza kuota hiru lurretan gastatu behar dira, Hobetuz-ek kudeatzen dituen planen bitartez.

Ekonomia


BURTSA ① J. B. ANDUEZA

Europa, ojaleetan

Europako hazkunde ekonomiko ojaleetan dago; hastapentetan, alegia, larrugorrian. Lehenaz gain, Nigeriako greba mehatxak eta Ekialde Hurbileko arazoek petrolioaren prezioa upeleko 29 dolarrez gandi bultzatu dute, joan den astean %6 igo ondoren. *Tumatxa*. Espainiako langabeziak ere gora egin du, eta Euroguneko makalaldia Aznarrenera ere iritsi dela berretsi. Bestalde, Duisenbergeko dolarrarenahitaz ahuldu beharko dela

esateak euroa bultzatu zuen, esportazioen kaltean. Hala bada, inbertsiogileak tentu handiz mugitu ziren, eta salerosketa bolumenak igarri zion: 1.163 milioi eurorenak eskualdatu ziren. Terra eta Endesak %1 na pasa galdu zuten; bi banku handiek %0,75 inguru. Izan zen, noski, irabazirik izan zuenik ere: komunikabideen talde PRISA (+%2,4), Union Fenosa (+%1,78) argindar enpresa eta bioteknologia arloko Zeltia (+%1,4), esaterako.

BALIO MERKATUAK



● **GAMESA** (-%0,86) Polonia-ko lehen parke eoliko izango dena eraikitzekotan dabil. 800 milioi euroren inbertsioarekin, Europako ikatz ekoizle nagusia den herrialdean energia berriztagarriak sartuko litzuke.

● **HYPOVEREISBANKEK**, Alemaniako bigarren bankuak, higiezin alorra (hipotekadun maileguena) banandu egin du gainerako jardueratik. Jakina da Alemaniako bankuek arazoak dituztela.

Cereceda LABeko historikoa hil da

Azken hamarkadak LABen eman baditu ere, EHAS eta HASIren sortzaile eta HBko legebiltzarkide ere izan da. Sindikatu abertzaleak gaur egingo dizkio omenaldiak, Bilbon, goizean eta arratsaldean

AITZIBER LASKIBAR - BILBO

Joselu Cereceda sindikalista eta abertzale historikoa atzo goizeko zortzi eta erdiak aldera hil zen, Basurtuko ospitalean, gaixotasun luze baten ondorioz. LAB sindikatu sortu eta berehala hasi zen Cereceda sindikatu abertzaleko zuzendaritzan lanean, eta zuen gaixotasun larriak eragotzi dion arte bertan ibili da. Horrez gain, EHAS eta HASIren sortzaile eta zuzendaritzako kide ere izan zen, bi erakunde haiek indarrean egon ziren bitartean. Herri Batasuneko militante gisa ere hainbat urte egin zituen. Hala, alderdi abertzaleko ordezkari izan zen EAEko Legebiltzarrean, 1980-1984ko legegintzaldian eta 1985-86. urteetan. 1940an jaio zen, Laudion, eta ekonomista zen.

«Bere printzipioekin oso konprometitua izan da beti; bizitza osoa eman du abertzaletasunaren eta ezkerzaletasunaren alde; militante eredugarria izan da». Hala deskribatu dio BERRIARI Txutxi Ariznabarreta LABeko Komunikazio arduradunak lankide izan duenaren ibilbidea. Jon Idigorasek, Cerecedarekin LABeko lehen urteak egin zituenak, «militantzian zuen dedikazio erabatekoa eta zuen tinkotasuna» azpimarratu ditu.

LABen egintza urteei dagokionez, sindikatu sortu eta berehala hasi zen zuzendaritza lanetan. 80ko hamarkadan, «oso egiteko garrantzitsua bete zuen LABen zuzendaritzan; orduan egindako ekarpenak oso garrantzitsuak izan dira, bai sindikatuaren arlo ideologikoan, bai ekonomia eta sozioekonomia arloan», gogoratu du Ariznabarretak. Sindikatuen bigarren kongresuko garaia ziren haiek.

Espetxean birritan eduki zu-



JOSELU CERECEDA LABeko militante historikoa, sindikatu abertzaleak antolatutako ekitaldi batean parte hartzen. GARA

OMENALDIK

Bi omenaldi antolatu ditu LABek gaurko: 11:30ean beilategian, eta 19:00etan Kasilla plazan, biak Bilbon

ten: 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren bukaeran. Azken espetxealdiaren ondoren, 90eko hamarkadan, «LABeko zuzendaritza esparruetan oso loturik jarraitu du», Ariznabarretak adierazi duenez. Hala,

EREDUGARRIA

Militantzian sutsua eta lagunekin goxoa; pertsona eredugarria izan da, lankide izan dituenen esanetan

Iparra-Hegoa Fundazioa abiarazteko «lan handia egin zuen»; LABeko bulego sozioekonomikoko kide izan zen azken egun arte, eta Elkargo Ekonomiko eta Sozialean sindikatu abertzalearen ordezkaria ere izan zen.

«LABen historia osoan, sorreratik gaurdaino, oso egiteko garrantzitsua bete du, eta sindikatuarentzat garai garrantzitsuak izan direnean, haren ekarpen eta planteamentuak funtsezkoak izan dira». Hala laburbildu du Ariznabarretak Cerecedaren lana.

Euskararekiko konpromisoa indartu zuen azken urteetan. Cereceda ez zen euskalduna, eta azken urteetan ikasi zuen euskara, bai eta «izugarriko maila hartu ere». Militantzian zuen «erradikaltasuna» da horren arrazoia, Jon Idigorasen hitzetan: «Horretan ere erradikala zen, eta euskara ikasten hasi zenetik ez diot hitz bakar bat entzun erdaraz», gogoratu du.

Idigoras eta Cerecedaren lagunarteko eztabaidak

Cerecedaren izaerari dagokionez, «militante sutsu eta zorrotza» izan den arren, «harreman pertsonaletan bazekien izugarriko goxotasuna erabiltzen; oso pertsona maitagarria zen», Ariznabarretaren ustez. «Lagun goxo eta hurbila» zela baieztatu du Idigorasek ere, eta «lanerako zuen gaitasuna» azpimarratu. haxe gogoratu du Idigorasek: «Duela urtebete, Zornotzara etorri eta lagunarteko hizketaldian geundela, aspalditik izaten genituen eztabaidekin jarraitzen zuen; asko eztabaidatzen genuen, nahiz biok proiektu bera genuen». Alde horretatik, elkarri asko erakutsi ziotela azaldu zuen Idigorasek: «Nik harengandik asko ikasi dut; hark nigandik zerbait ikasi zuela uste dut».

LABek bi omenaldi prestatu ditu gaurko, Bilbon: 11:30ean Funeraria Bilbainan lehena, eta arratsaldeko 19:00etan bigarrena, Kasillan.

Maria Cristinako langileei oldartzea kritikatu du ELA-Ertzaintzak

Joan den astean Ertzaintza Donostiako Maria Cristina hoteleko grebalariei oldartzea «lekuz kanpoko» izan zela esan du polizia horretako ELAK. Sindikatuaren arabera, «ez da beharrezkoa» erztzainak une oro hotelaren kanpoaldean egotea. «Ertzainek jasotako bidegabeko aginduek susmo txarrak sortzen dituzte, eta gainerako langileengandik bereizten gaituzte», kexatu da.

Euskal familiek gutxiago aurreztu ahal dute

2003ko bigarren hiru hilekoan gutxitu egin dira hilabete amaieran dirua aurrez deza-keten Hego Euskal Herriko familiak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %8,3 jaitsi zen kopurua, eta %3,5 handitu zen Nafarroan. Batez beste, 2.000 eurotik gora gastatzen ditu Hego Euskal Herriko biztanle bakoitzak hiru hilean behin.

Iberdrolak lau parke eoliko erosi dizkio Gamesari

Iberdrolak 31,7 milioi euroren truke erosi dizkio lau parke eoliko Gamesari. Iaz lortutako akordio baten arabera, Gamesak 30 parke eoliko salduko dizkio Iberdrolari. Horietatik 25 inguru eskuratuak ditu.

Bruselak uste du Frantziak ez duela nahikoa egin defizita murrizteko

Gerassimos Thomas Europako Batzordeko Ekonomia Gaietarako bozeramaileak atzo esan zuenez, Frantziak «ez du nahikoa egin» defizit publikoa murrizteko. Bihar eztabaidatuko du gaia Bruselak.

Txetxenia «errusiarreko» lehen presidentea izango da Kadirov

Moskuren arabera, botoen %81 lortu zituen igandeko hauteskundeetan, %83,6ko parte-hartzearekin



MIAKETA TSENTOROI. Iragan igandean presidentetzarako hauteskundeetan boza ematera joan zen emakume txetxeniarra miatzen ari da emakumezko polizia bat Tsentoroi herrian. SERGEI GRITS/AP

KRISTINA BERASAIN

Espero zen bezala, Kremlinek babesten zuen hautagai Akhmad Kadirovek irabazi zituen iragan igandean Txetxeniaren egindako presidentetzarako hauteskundeak —Errusiako presidente Vladimir Putinek 2000. urtean herrialdean ezarritako administrazioaren behin-behineko buru izendatu zuen—. Moskuk emandako datuen arabera, Kadirovek bozen %81,1 eskuratu zituen. Gainontzeko sei hautagaiek, berriz, botoen %12,6 lortu zituzten —Kadiroven bi aurkari nagusiak erretiratu egin ziren, Kremlinen presioz—. «Nire lehentasunak Errepublikako herriak sendotzea, herritarren segurtasuna bermatzea eta terrorista zein wahabiekin amaitzea izango dira», esan zuen atzo bozen ondorengo aurreneko prentsa agerraldian.

Hauteskundeetako parte-hartzea %83,6koa izan zela adierazi zuen Moskuk. Errusiako presidente Vladimir Putinek, kopurua aintzat hartuta, bere politikak herritarren babesa duela nabarmendu zuen. «Herritarrek

helarazi duten mezua da beren bizitzan eta Errepublikan aldatzeko nahi dituztela», adierazi zuen atzo, «Txetxeniaren egiten ari garen egonkortasun politikoren beste etapa baten hasiera da hau».

Alta, nazioarteko hainbat erakundek zalantzan jarri dute hauteskundearen zilegitasuna. Europako Batzordeak bozak «askeak eta demokratikoak izatea zaila» dela ohartarazi dio Errusiako Gobernuari eta bere legitimitate politikoren inguruan hausnarketa egitea proposatu dio. «Txetxeniaren guztiak ez dute bozkatzeko aukera izan eta Europako Kooperazio eta Segurtasunerako Erakundeak ez du ikuskatzaileak bidaltzeko aukerarik izan», gogorarazi zuen

AKHMAD KADIROV

(Errusiaren aldeko presidentea)

«Nire lehentasunak segurtasuna bermatzea eta terroristekin amaitzea dira»

EBko Atzerri komisario Chris Pattenek. Gerrillari independentistek ere hauteskundeak salatu dituzte.

Joan zen martxoan erreferendumean onartutako Konstituzioaren ondoren, aurreneko hauteskundeak izan dira. Orduan zehaztu zen hauteskundeak egiteko epea eta, ildo horretan, geroztik Txetxeniak izango duen aurreneko presidentea izango da Akhmad Kadirov.

Alta, aurretik hiru presidente independentista izan ditu Txetxeniako Errepublikak. Gaur egun, Aslan Maskhadov da gobernu independentistako burua. Maskhadov 1997. urteko hauteskundeetan garaile atera zen eta Moskuk zein nazioartekoak oniritzia eman zioten.

CHRIS PATTEN

(EBko Atzerri komisarioa)

«Txetxeniaren guztiak ez dute bozkatzeko aukera izan eta ezin izan dira bidali ikuskatzaileak»

Kadirovek zera ohartarazi zuen atzo: «Maskhadoventzatez dago lekurik Txetxeniaren. Bere tokia kartzelan edo haratago dagoen munduan dago, Satanasen erreinuan».

«Ez dago estatus berezi baten beharrik»

Ildo horretan, Errepublikaren independentzia aldarrikapenei uko egin eta «Txetxenia errusiar Konstituzioaren esparruan» mantenduko dela adierazi zuen Kadirovek. «Ez dago estatus berezi baten beharrik», gaineratu zuen.

Presidente berriak atzerrian bizi diren txetxeniarrak herrialdera itzultzeko laguntza eskaintzeko eta azken urteotan izan diren hilketak ikertzeko borondatea erakutsi zuen. Halaber, gerrillariaren amnistia epea luzatzea beharrezkotzat jo zuen. Alta, Legebiltzarrerako hauteskundeak ospatzeko beharra «berrehalako ez dela» esan zuen atzo, Putinek heldu den martxoan egiteko asmoa erakutsi badu ere —orduan egingo dira Errusiako hauteskundeak—.

◉ Soslai

AKHMAD KADIROV

(Errusiaren aldeko presidentea)



Damututako independentista

Txetxeniako aurreneko gerran, 1994 eta 1996. urteen bitartean, Errusiari gerra saildua deklaratu arren, Kremlinen ordezkaria da orain Akhmad Kadirov, bigarren gerra abiatzear zegoenean, 1999. urtean, Errusiaren alde jarri ondoren.

Exilioan jaioa, Kazakhstanen, duela 52 urte, apaiz musulmanen semea eta iloba da, eta bera ere *mufti* (apaiz musulmana) izandakoa da. Uzbekistanen eta Jordaniaren ikasi zuen Korana eta Ipar Kaukasoko aurreneko Institutu Islamiarra sortu zuen.

Kadirov kartzelan sartu zuen 200.000 dolar legez kanpo bereganatzea leporatu ondoren. Txetxeniako presidentea Jokhar Dudaievek atera zuen presondegitik eta, gero, lagun minak egin ziren. 1994. urtean Errusiak Txetxenia indarrez hartu zuenean armak hartu zituen. Alta, berehala orduko lider Aslan Maskhadovekin harremanak hautsi eta Errusiaren alde jarri zen, «independentistek muturrera eramandako aldarrikapenak etsituta».

Kadirovek bere gerrilla propioa osatu —egun 5.000 gerrillari ditu— eta Errusiako presidente Vladimir Putinek Txetxeniako administrazioaren behin-behineko buru izendatu zuen 2000. urteko ekainean.

EUROPAKO BATASUNA

Funtsak botere banaketarekin ez nahasteko esan du Batzordeak

Europako Batzordeko eledun batek argi utzi du botere banaketak ez duela zerikusirik funtsen partekatzeo finkatutako arauekin

ERREDAKZIOA

Europako Batzordeak argi utzi zuen atzo Gobernu Arteko Konferentzian Europako Batasunaren Konstituzioaz asteburuan hasi ziren negoziatioetan agertutako ezadostasunak zerikusirik ez dutela EBko kideen artean egitekoa den diru funtsen banaketarekin. Reijko Kemppinen eledunak adierazi zuenez, «Gobernu Arteko Konferentzian Konstituzioaren moldatzeaz hitz egin behar da eta kito». Zera gai-

neratu zuen: «Ez da lotura egite-rik auzi honen eta EBko beste edozein aferen artean, hala nola diru laguntza banaketan kontua».

Europako Batzordeko bozeramailearen hitz horiekin, argi geratu zen EBko Konstituzioaren inguruko auzian estatu batzuek ez daukatela inola ere zilegi eztabaidatzen hasia den testuaren atal zenbaitekin ados ez dauden herrialdeei presiorik egitea. Horrela jokatzeko asmoa antzeman zen Jacques Chirac Frantziako presidenteari eta Gerhard Schroeder Alemaniako kantzilerari egindako adierazpenetan. Biek lotura egin zuten Konbentzioak moldatutako testuaren atal bati buruz; zehazki, botere banaketa Kontseiluaren baitan, Espainiak eta Poloniak azaldutako nahikariaren eta Europako funtsen banaketari buruz hastear dauden negoziatioen artean.



ITALIAKO lehen ministro Berlusconi eta Alemaniako kantziler Schroeder, Erroman, larunbatean. CLAUDIO ONORATI / EFE

Madrialek eta Varsoviak ezadostasuna azaldu dute 2000. urteko Nizako Itunean finkatutako arauen aldatzeari buruz, eta Parisen eta Berlinek, berriz, nabarmendu dute Valery Giscard d'Estaing Frantziako presidente ohiaren zuzendaritzapean Europako Konstituzio batentzako Konbentzioak moldatutako testutik ahal bezainbat hurbil geratu nahi dutela. EBko diru laguntzen kontuari dagokionez, kon-

tuan hartzeko da, aldiz, Espainiak duela gaur egun funts haie-tatik kopuru handiena eskuratz-zen eta datorren maiatzaren 1etik harat —EBko kide bilakatu-ko den unetik— Poloniak duela diru mordo honetatik zati handiena jasoko.

Barnierren oharrak

Kohesio funtsei dagokionez, hain zuzen, Michel Barnier EBko

Eskualde Politikako komisarioak 2004an Europako Batasunean sartzekoak diren 10 estatuei eskatu zien atzo barne egokitza-pen handiagoak egiteko Europa-ko funtsak eskuratzeko xedean.

Herrialde haie-tako agintariei ohartarazi zien merkatu publiko-koen arautan azkartu behar dituztela barne erreformak, funtsek laguntzeko egitasmo andana planteatu eta haiei jarraikit-zeko sistemak paratu.

BOLIVIA

Nekazariak eta langileak, protestak gogortzeko prest

La Pazek AEBetara gas naturalik ez esportatzea eta ALCA merkataritza elkargoan ez sartzea dituzte eskari

AGENTZIAK - LA PAZ

Boliviako Langile Nekazarien Sindikatuen Konfederazioa (CSUTCB) eta Boliviako Langile Zentralea (COB) azken garaioan bultzatutako protesta ekintzak gogortzeko prest azaldu dira, eta aste honetatik hasi nahi dute, bideak tratatuz. Laborariek eskatzen dute baserriaren garatzeko plan bat bideratu dadin eta etorkizunean ere koka landarearen ekoizteko eskubidea izan dezaten. Langileen sindikatuak, aldiz, Gonzalo Sanchez de Lozada presidenteari dimisioa eman dezan eskatzen du, Boliviak azken bost urteotan pairatzen duen ekonomia gaitzaldi larriaren konponbiderako lehen urrats gisa.

Nekazariak eta langileak bat egiten dute, berriz, bi eskaera egiteko: Boliviak bere gas naturala Ameriketako Estatu Batuetara bidal ez dezan eta La Pazeko gobernuak ALCA Merkataritza Askeko Esparru baten sortzeko

negotziatioetatik irtetea erabaki dezan. Jaime Solares COBeko burukideak zera adierazi zuen: «Joan den ostiralean mobilizazio egutegi bat finkatu dugu, gure herriko ondasun naturalen zaintzeko, haiek multinazionalen eskuetan baitira gaur egun, eta etorkizunean herritarren onurarako baliatuta izan daitezten».

Felipe Quispe CSUTSBko buruzagiak, berriz, jakinarazi zuen Titicaca aintziraren inguruan laborantzako langileek hasitako bide oztopatzeak herriaren beste eskualdeetara zabaltzeko asmoa daukatela, La Pazeko gobernuak orain arte entzungor egin baitie euren eskaerei. «Gure protesta ekintzak areagotzeko ahalak baditugu, bide gehiago tratatuz eta, hala beharrez, gose grebari ekinez», adierazi zuen Quispek.

Gobernuak zehaztu zuen ordena atxikitzeo neurriak oro hartzeko asmoa daukala, baina ez duela estualdi egoeraren agintzeko asmorik.



Sopelana -ko Udala

IRAGARKIA

Sopelana-ko udalbatzarak, 2.003.eko irailaren 25ean egindako bilan, 2.004ko urtarrilaren 1etik hasita indarrean egongo diren zergeak eta tasak arautzeko ordenantzen aldaketak eta beraien onarpena behin behineko onartzea erabaki zuen.

Dagozkien espedienteak jendaurrian ipintzen dira, hogeiita hamar (30) eguneko epean bizkaiko aldirik ofizialen eta iragarki-taulan iragarki hau argitaratzen denetik kontatuta, doakienek aztertzea ahal ditzaten eta erreklamazioak aurkeztu. Epealdi hori bukatun, erreklamazioak aurkeztu ez bada, aldaketa eta onarpena behin behineko onartutaz emongo da, udalbatzararen erabaki zehatzez eta toki ogasunen 89/5 foru araupidearen 16.3 atala beteta.

Jendaurrian ipintzen diren espedienteak honako hauek dira:

- 1.- o.h.z. ordenantza fiskalaren aldaketa
- 2.- e.i.z. ordenantza fiskalaren aldaketa
- 3.- i.m.i.z. ordenantza fiskalaren aldaketa
- 4.- e.i.o.z. ordenantza fiskalaren aldaketa
- 5.- h.b.g.z. ordenantza fiskalaren aldaketa
- 6.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 1. Epigrafa: hiri-hondakin solidoak bildu, tratatu eta ezabatzea.
- 7.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 2. Epigrafa: udal hilerriak, gorpuk eramatea eta udal-izeerako beste hilerri-zerbitzu batzuk.
- 8.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 4. Epigrafa: administrazioek edo udal-erakundeek, norbait eskatuta, egiten dituzten agiriak.
- 9.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 5. Epigrafa: establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea.
- 10.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 7. Epigrafa: ur, gas, elektrizitate eta beste hornidura publikoaren banaketa, barne direla lineal lortzeko eskubideak eta kontagailuak eta antzeko instalazioak jarri eta erabiltzekoak.
- 11.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 8. Epigrafa: bainuek, dukak, igerilekuak, kirol-instalazioak eta antzeko zerbiztuak.
- 12.- zerbiztu publikoak eskaini eta iharduera administratiiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa: 9. Irakasuntza bereziak udalerriko ikastetxeetan.
- 13.- udal jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza arautzailearen aldaketa: 1. Epigrafa: hornidura zerbiztuak ustiatzen diren enpresen aldeko udal bide publikoan lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziak.
- 14.- udal jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza arautzailearen aldaketa: 2. Epigrafa: zernak, eraikintzako materialak, obra-hondakinak, hesiak, zurkatzak, astotoak, aldamiak eta antzeko beste instalazio batzuk.
- 15.- udal jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza arautzailearen aldaketa: 3. Epigrafa: espazioak ibilgailuen sarbiderako erabiltzea, eta bide publikoak aparkaleku eskubiderako, ibilgailuen garalduerako, nolabanahiko merkaturagaien zabalenerako gordetzea.
- 16.- udal jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza arautzailearen aldaketa: 4. Epigrafa: mahaiak, aulkak, harmalak, oholzak eta antzeko beste elementu batzuk irabazi-asmoarekin jartzea.
- 17.- udal jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza arautzailearen aldaketa: 5. Epigrafa: trakzio mekanikoko ibilgailuek udalerriko bideetan aparkatzea horretarako zehaztutako aldeen barruan eta ezartzen diren mugekin.
- 18.- udal jabetza publikoaren erabilera pribatibo edo probetzaizmen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza arautzailearen aldaketa: 6. Epigrafa.- Udal-hilerriko emakidak.

Sopelana, 2.003.eko irailaren 26an. Alkatea

ANUNCIO

El pleno del ayuntamiento de Sopelana, en sesión celebrada el día 25 de septiembre de 2.003, acordó, con carácter provisional, aprobar la modificación de las ordenanzas fiscales reguladoras de los impuestos y tasas, así como las que han de regir a partir del día 1 de enero de 2.004.

Los expedientes correspondientes quedan expuestos al público, por período de treinta (30) días, contados a partir de la publicación de este anuncio en el boletín oficial de bizkaia y tablón de anuncios, a fin de que los interesados puedan examinarlo y presentar las reclamaciones que estimen oportunas. Si transcurrido dicho plazo no se interpusiera reclamación alguna se entenderá aprobada definitivamente la modificación y aprobación de las mismas, por acuerdo expreso del pleno de la corporación y en cumplimiento del artículo 16.3 de la norma foral 5/89 de haciendas locales.

Los expedientes que se exponen al público son los siguientes:

- 1.- modificación de la ordenanza fiscal del i.b.i.
- 2.- modificación de la ordenanza fiscal del i.a.e.
- 3.- modificación de la ordenanza fiscal del i.v.t.m.
- 4.- modificación de la ordenanza fiscal del i.c.i.o.
- 5.- modificación de la ordenanza fiscal del i.v.t.n.u.
- 6.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 1: recogida de residuos sólidos urbanos, tratamiento y eliminación de los mismos.
- 7.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 2: cementerios locales, conducción de cadáveres y otros servicios funerarios de carácter local.
- 8.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 4: documentos que expidan o que extiendan las administraciones o entidades locales, a instancia de parte.
- 9.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 5: otorgamiento de las licencias de apertura de establecimientos.
- 10.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 7: distribución de agua, y abastecimientos públicos.
- 11.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 8: casas de baños, duchas, piscinas, instalaciones deportivas y otros servicios análogos.
- 12.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epigrafe 9: enseñanzas especiales en establecimientos docentes de los municipios.
- 13.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal. Epigrafe 1: aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro.
- 14.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal. Epigrafe 2: mercancías, materiales de construcción, escombros, valladas, puentes, aspillas, andamios y otras instalaciones análogas.
- 15.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal. Epigrafe 3: entrada de vehículos a través de las aceras y reservas de vía pública para aparcamiento exclusivo, parada de vehículos, carga y descarga de mercancías de cualquier clase.
- 16.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal. Epigrafe 4: mesas, sillas, tribunas, tablados y otros elementos análogos, con finalidad lucrativa.
- 17.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal. Epigrafe 5: estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en las vías del municipio dentro de las zonas que se determinan y con las limitaciones que se establecen.
- 18.- modificación de la ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal. Epigrafe 6: concesiones en cementerios municipales.

Sopelana, a 26 de septiembre de 2.003. El alcalde

IRAN

Egitasmo nuklearraren datuak kalean

Ezkutuan inportaturiko osagaien inguruko informazioa ematen hasi zaie Teherango gobernuak ikuskatzaileei

ERREDAKZIOA

Egitasmo nuklearraren inguruko lehen informazioak ematen hasi zen atzo Irango Gobernuak, Nazioarteko Indar Atomikoaren Agentziako behatzaileekin lan egiten duen Teherango ordezkariak iragarri zuenez.

Nazio Batuen Erakundeak hilaren bukaera arteko epea eman dio Irani, bere egitasmo nuklea-

rraren bidez armak garatzeko asmotan ez dabilela frogatzen.

«Artekarien bidez erositako osagaien zerrenda eman dugu jada, eta zerrenda bukatzeko prozesuan gaude», esan zuen Ali Akbar Salehi Iranek IAEAren lanean duen ordezkariak. Zerrenda emateaz gain, Teheranek osagaiok non izan ziren gordeta argituko die nazioarteko behatzaileei, Salehiren arabera.

Irango lantegiak iragarpenik gabe ikuskatzeko ahalmena lortu nahi dute IAEAko behatzaileek. Teheranek ez du, ordea, horretarako baimenik ematen.

Aurreneko bisitaldietan uranio aberastuaren zantzuak aurkitu zituzten kontrolatzaileek, eta Iran lehergailu atomikoak egiteko lanean ari den susmoa zabaldu zen. Teheranek, haatik, kutsadura zantzuak atzerritik

heldutako osagaiak utzitakoak direla argudiatu du. Joan zen saitean bildu ziren, lehen aldiz, IAEA eta Irango agintariak.

«Helburu baketsuak»

Iranek indar atomikoa «helburu baketsuekin» eta bere garapenerako behar duela esan zuen atzo Ali Khamenei buruzagi nagusiak. «Iranen etsaia haren esku-

bideak ukatzen saiatzen dira», gaineratu zuen buruzagi erlijioso eta politikoak. Estatu Batuak estu hartzen ari dira nazioarteko erakundeak Iran behar dezaten Arma Nuklearrak ez Ugaritzeko Itunaren protokolo gehigarria izenpetzera. Harremanak hautsi zituzten bi herrialdeok 1979an, iraultza islamikoak Mendebaldearen aldekoa zen monarkia kanporatu ostean.

IRAK

Soldaduak bidaltzea onartu du Turkiako Gobernuak

Bushek eta Blairrek errealitatea desitxuratu bai, baina ez zutela gezurrik esan dio Blixek

ERREDAKZIOA

Irakera soldaduak bidaltzeko erabakia hartu zuen atzo goizean Turkiako Gobernuak eta arratsaldean proposamena Legebiltzarrerara eraman zuen, bertan neurriari oniritzia eman diezaioten —Konstituzioak horrela eskatzen du—. Gaur aztertuko du proposamena Legebiltzarrak, hain zuzen ere. «Baimena ematen badu, horrek ez du esan nahi soldaduak bihar bertan Irakera joango direnik. AEB Ameriketako Estatu Batuekin negoziatzen jarraituko dugu», esan zuen atzo Gobernuaren bozeramaile eta Justizia ministro Cemil Cicek.

Orotara zenbat soldadu bida-

liko dituen ez zuen argitu, ordea. Dena den, hainbat informazio iturrik aditzera eman dute-nez, Turkiak 10.000 soldadu bidaltzeko asmoa du.

AEB Ameriketako Estatu Batuei laguntza eskaintzeko asmoak tira birak sortu ditu Turkiaren baitan. Ildo horretan, Legebiltzarrak ukatu egin zuen eraso hasi aurretik AEBetako soldaduak Turkian egotea. Oposizioa aurka egon arren, oraingoan Legebiltzarraren babesa jasotzea espero du Gobernuak. «Ministro guztiak sinatu dute proposamena», zehaztu zuen.

Aferak AEB eta Turkiaren arteko harremanak izan ditu ardatz ere. Turkiak PKK Kurdistango Langileen Alderdiko ekin-



PAUL BREMER AEBek Iraken duten administratzaileak neskato eskola bat bisitatu zuen atzo Bagdad. DAVID GUTTENFELDER/AP

tzaileei aurre egitea proposatu zuten AEBei, trukean laguntza emateko. Finean, Washingtonek erakunde terroristen zerrendan sartu zuen alderdia.

AEBen ebazpena aztergai

NBE Nazio Batuen Erakundeak atzo zen eztabaidatzeko AEBek aurkeztu bigarren ebazpenaren zirriborroa. Aurretik jakina denez Frantzia, Errusia eta Alemaniak gogor kritikatu zuten proposamena eta NBEko idazkari Kofi Annan ebazpenaren edukaren kontra agertu zen ere.

Bien bitartean, NBEko arma ikuskatzaileen buru Hans Blixek AEBetako presidente George Bush eta Erresuma Batuko lehen

ministro Tony Blairrek errealitatea desitxuratu baina gezurrik ez zutela esan adierazi zuen *Le Monde* egunkarian. «Gezurak kontzientzia eskatzen du eta Bush eta Blairrek ez zekiten dena», zehaztu zuen. Dena den, bere ustetan Irak ez zen mehatxua bi agintariak esan zuten moduan.

Bestetik, eraso hasi eta bi aste lehenago Tony Blairrek Iraken suntsipen handiko armarik ez zegoela «pribatuan» onartu zuela jakinarazi zuen igandean Erresuma Batuko Atzerri ministro Robin Cookek.

AEBetako ikuskatzaileen buru David Kay, berriz, NBEko ikerlariak Irakera joateko aukera gaitzetsi zuen atzo.

AFGANISTAN

Tropak hiriburutik kanpo hedatzeko ituna egin dute NATOko kideek

AGENTZIAK

Afganistanen diren NATOko tropen operazioak Kabul hiriburutik landa abiatzeko akordioa lortu zuten atzo aliantza militarra osatzen duten herrialdeek. NATOk 5.500 soldadu ditu Afganistanen, eta egun arte, hiriburura mugatu dituzte beren operazioak, talibanen eta gerraren jaienen kontrolpean diren herrialdearen guneetan sartu gabe. Halere, zabalpenean Afganistan osoa hartuko ez zutela, eta soilik hainbat hiritan arituko zirela argitu zuen atzo nazioarteko misioak. Hiritotan, bertako «berreikuntza taldeen» laguntzan aritzekoak dira tropak.

Afganistanen berreraikuntzan aurrerapausoak motelak direla eta Etxe Zuriak jasotako kritiken aurrean, eta talibanen ekintzak areagotzen ari direla ikusita, estrategia aldatzea erabaki du Washingtongo gobernuak. Berreraikuntza taldeen lana gertuagotik jarraituko duela iragarri zuen atzo George Bush Estatu Batuetako presidentek.

AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE
ERANDIO
ELIZATEKO UDALA

IRAGARKIA

Udalbiltza Osoak, 2003ko irailaren 25ean izandako batzaraldian, zenbait Ordenantza Fiskal aldarazteko behin-behineko erabakia hartu zuen.

Erabakia buruzko iragarkia argitaratu du udalak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta egun horretatik aurrera 30 eguneko epea izango da zabalik interesatuek egokituz jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko Udaletxeko Ogasun Sailean.

Horrela, ondorengo lege-arauean xedatutakoak betetzen da: Tokiko Ogasunak arautzen dituen 5/89 Foru Arauaren 16.1 artikulua eta apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. Artikulua.

Erandioko Elizatean, 2003ko irailaren 29an. ALKATE-UDALBURUA

ANUNCIO

Por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 25 de septiembre de 2003, se acordó modificar provisionalmente determinadas Ordenanzas Fiscales.

Una vez publicado el presente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, los interesados legítimos podrán examinar dichos expedientes en el Área de Hacienda y presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas durante el plazo de 30 días a partir de la fecha de publicación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/89, reguladora de las Haciendas Locales, así como en el artículo 49 de la Ley 7/85 de 2 de abril.

En la Antelglesia de Erandio, a 29 de septiembre de 2003. EL ALCALDE-PRESIDENTE

Sopelana -ko Udala

IRAGARKIA

Osoko Udalbatzarrak 2003ko Irailaren 25.ean ospatutako agizko bileran, hasierako onartzen du Aurrekontuaren Bilkura Aldiko Seigarren Aldaketa, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera Iragarkia igortzea, hamabost laneguneko epean interesadunek aztertu ahal dezaten eta zuzenketa-eskariak aurkeztu, behin betikoz onartutaz emanez aipatu epealdian zuzenketa-eskariak aurkeztuko ez balitz.

Sopelana, 2003ko Irailaren 26. ALKATEAK

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 25 de Septiembre de 2003, aprobó inicialmente la Sexta Modificación Presupuestaria, y la remisión de Anuncio al Boletín Oficial de Bizkaia, para que en el plazo de quince días hábiles, los interesados puedan examinarla y presentar reclamaciones, considerándose definitivamente aprobada si durante el citado plazo no se presentaren reclamaciones.

Sopelana, 26 de Septiembre de 2003 EL ALCALDE

Beasaingo Udala

IRAGARKIA

2003ko urriaren 3ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, 4 HAKo 4.1 UEko Xehetasun Azterlanari hasierako onespina eman zaio, egun indarrean dagoen hirigintza araudian 4. eta 5. Lursailtarako xedatutako lerrokadurei doitzeko baldintzarekin.

Beasainen 2003ko urriaren 6an. Alkatea. Patxi Plazaola Muguruza.

Haurrentzako


ipuin bilduma



- 1 Nemesioren itzala
Pako Aristi
Jokin Larrea
- 2 Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria
Bernardo Atxaga
Mikel Valverde
- 3 Zazpigarrena eta azkena
Patxi Zubizarreta
Jokin Mitxelena
- 4 Amona basoan galdu zenekoa
Arantxa Iturbe
Elena Odriozola
- 5 Ni ez noa berriz Lourdesera
Joxemari Iturralde
Iñaki Martiarena, "Mattin"
- 6 Marina
Mariasun Landa
Asun Balzola
- 7 Graak!
Anjel Lertxundi
Antton Olariaga
- 8 Mixi marrau
Jesus Mari Olaizola, "Txiliku"
Jon Zabaleta
- 9 Omar dendaria
Harkaitz Cano
Antton Olariaga
- 10 Txori kantariak poeta hegalariaik
Hainbat poetaren testuak
Elena Odriozolaren poema grafikoa

**Urriaren 7tik aurrera
asteburu oro ipuin bat**

Ipuin guztiak gordetzeko,
ZUMETAk ilustratutako
kutxa hau opari



3€

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA: Bilduma osorik eta %20 merkeago eskuratzeko deitu 943 30 43 45 telefonora edo eskatu webgunean

LAGUNTZAILEAK



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentua

ERAGILEA



Euskaldunok behar dugun **berria**

2030ean munduko biztanleen herenak txaboletan biziko dira

Egun, 940 milioi lagun bizi dira etxoletan, baina, pobrezia kontrako neurriak hartu ezean eta nekazaritza lurretatik herrietarako migrazioak zaindu ezean, kopurua nabarmen haziko dela ohartarazi du NBEk



ADINGABE bi Pakistanen. Herritarren %32 muturreko pobrezian bizi dira bertan. SHABBIR HUSSAIN IMAN / EPA

AINARA ARGOITIA - DONOSTIA

Munduko hirietako bizi baldintzen inguruan inoiz egin den azterketa sakonenaren arabera, 940 milioi lagun auzo txiroetan bizi dira egun, «edateko ur barik, eta osasun baldintza kaskarretan asko». Beste modu batera esanda: munduko biztanleen seiren bat «babes bako lekuetan» bizi dira. Hala zioen Nazio Batuen Erakundearen menpeko Giza Kokalekuearako Zentroak atzo Habitataren Nazioarteko Egunaren karietara aurkeztu zuen txostenak.

Ikerketa horren arabera, bazter utzitako auzoetan bizi diren kopurua bikoiztu egin da zazpi urteko denbora tartean, eta txostenaren egileen arabera, kopuru hori gainera hazten ari da egunetik egunera. Uste guztien kontra, gainera, auzo pobrehorietako asko herrialde garatuetako hiri nagusietan daude, Nazio Batuen Erakundeak jakinarazi duenez. Hala, herrialde garatuetan biztanleriaren %6 bazter utzitako auzoetan bizi da. Garatzeko bidean diren herrialdeetako egoera, berriz, askoz okerragoa da. Txostenaren arabera, herrialde horietan biztanleen %43 inguru bizi dira hiri handien inguruan eraikitako auzo kaskarretan.

Datu kezkarriak azaleratu ditu txostenak, eta iragarpenak ere ez dira hobeak. Hala, Nazio Batuen Erakundeak ohartarazi

du munduan hiru lagunetik bat txaboletan biziko dela 2030. urtean, gobernuek muturreko pobrezia kontrako neurriak hartu ezean.

Saharaz hegoaldeko Afrikak du muturreko pobrezian bizi diren kopuru altuena eta Ozeaniak txikiena. Saharaz hegoaldeko Afrikan biztanleen %71 pasatxo txaboletan bizi dira eta egoera bera bizi dute Ozeanian biztanleen %24,1ek. Latinoamerikan eta Kariben, ostera, biztanleen %28 bizi dira auzo txiroetan. Asian hiru eremu bereizten ditu Giza Kokalekuearako Zentroak egindako txostenak: hego-ekialdea, erdialdea eta ekialdea. Hiruretan ere altua da muturreko pobrezian bizi diren kopurua, baina batetik bestera badago aldea. Asia erdialdekoan ematen dituzte datu kezkarrienak, biztanleen erdiak txaboletan bizi baitira — %58—. Ekialdean, berriz, biztanleen %36 bizi dira baldintza horietan, eta %28 Asiako hego-ekialdean.

Milurteko Deklarazioa gogoan

Datuok gogoan, munduko herrialde askotako agintariek Milurteko Deklarazioan jasotako helburuak ekarri zituen gogora atzo Kofi Annan Nazio Batuen Erakunde idazkari nagusiak. Muturreko pobrezian eta bizi baldintza eskasetan bizi diren egoera hobetzeko lan egitea hitzartu zuten orduan agintariek. Helburu nagusizat, 2020. urterako gutxienez auzo txiroetan bizi direnetatik 100 milioiren bizi baldintzak hobetzea hitzartu zuten. Horren harira, Annanek esan zuen: «Auzo txiroek pobrezia eta herritarren arteko desberdintasunen alde txarrena islatzen dute nahiz munduak baduen Milurteko Deklarazioan jasotako helburuak betetzeko nahikoa baliabide eta ahalmen».

Bestalde, Giza Kokalekuearako Zentroak — gobernuei bizi-garritasun baldintzak hobetzen eta hirigintza politikak garatzen laguntzeko sortutako agen-

Datua

%31,6

Munduan: Nazio Batuen Erakundearen arabera, munduko biztanleen %31,6 auzo pobreetan bizi dira, bizi baldintza kaskarretan.

Europen: Herritarren %6,2 hiri handien inguruan eraikitako auzo txiroetan bizi dira.

Saharaz hegoaldeko Afrika: Muturreko pobrezian bizi diren kopurua ikaragarria da: biztanleriaren %71,9.

Pobrezia herrialde garatuetan

Gezurra badirudi ere, herrialde garatuetan biztanleen %6 muturreko pobrezian bizi dira. Garatzeko bidean diren herrialdeetan, berriz, biztanleen %43 bizi dira egoera horretan.



Nairobiko auzo pobreak

Nairobin, biztanleen %60 auzo pobreetan bizi dira, txaboletan. Auzo horiek, gainera, Nairobiko lurren %5 baino ez dute hartzen, Nazio Batuen Erakundearen arabera.

POBREZIAREN GUNE NAGUSIAK

Kairo (EGIPTO)


Txabola gehienak desertuan daude. Horietako asko zaborteziak ziren duela urte batzuk.

Mumbai (INDIA)

Milaka lagun bizi dira garai batean fabriketako langileentzat eraikitako txaboletan.

Colonbo (SRI LANKA)

Hiriaren alde zaharrean eraikitako txaboletan milaka pertsona bizi dira.



Rio de Janeiro (BRASIL)

700 'favela' gunetan milioi bat lagun inguru bizi dira osasun egoera txarrean.

Nairobi (KENYA)

600.000 lagun inguru bizi dira Kiberan, munduko txabola multzorik handienetarikoa.

Phnom Penh (KANPUTXEA)

230.000 pertsona bizi dira egoera txarrean dauden txabola auzoetan.

tziak— ohartarazi du agintarien betebeharrak eta helburu nagusia nekazal lurretatik hirietarako migrazioa gelditzea izan behar duela. «Herrialde gutxi onartzen badute ere», —dio txostenak— fenomeno hori «ikaragarri» hazi da eta «egoera kritikoa» da. Txostenaren arabera, hiriek ezin diote nekazaritza lurretatik datorren jende oldeari erantzun. Adibide batzuk ere aipatzen ditu Nazio Batuen Giza Kokalekuetarako Zentroak. Afrikako herri askotan, esaterako, bikoiztu egin da populazioa azken bi hamarkadetan. Nairobiko kasua nabarmen du txostenak besteen gaitetik. Nairobin, biztanleen %60 auzo pobreetan bizi dira, txaboletan. Auzo horiek, gainera, Nairobiko lurren %5 baino ez dute hartzen.

Auzo pobre batetik bestera ere alde dagoela dio, baina, idatziz. Oro har, auzo horietan bizi den jendeak bizimodua aurrera ateratzeko nahikoa lan izaten duela dio txostenak eta gehiene-

tan inork nahi ez dituen lanak egiteki ateratzen dutela aurrera egiteko beharrezko dutena. Hala ere, munduko zenbait herrialdeetako auzo txiroetan goi mailako ikasketak dituen jendea ere bizi dela dio idatziz. Punen (India) eta Ibadanen (Nigeria), esaterako, Gobernu funtzionarioak, unibertsitateko ikasleak eta sektore pribatuko beharginak ere bizi dira hiriaren kanpoaldeko txaboletan.

Bitxia da, era berean, auzo horietako batetik bestera dituzten zerbitzu eskaintzak. Edateko urik eta argindarrik barik bizi dira horietako askotan, beste batzuetan, aldiz, azken belaunaldiko etxeko tresnak ere badituzte. Horren adibide dira Bangkokeko auzo txiroak. Etxe gehietan koloretako telebista dute, eta hirutik bitan garbigailu automatikoa ere bai. Hozgailua ere etxe gehienetan dute, eta pertsonako 1,5 sakelako telefono dituzte, Nazio Batuen Erakundearen arabera.

☉ Latinoamerika eta Karibe

130 milioi lagunek ez dute edateko urik etxean

Osasunaren Erakunde Panamerikarraren arabera, Latinoamerikan eta Kariben auzo pobreetan bizi direnetatik 130 milioi lagunek ez dute edateko urik etxean, eta 86 milioi lagunek bakarrik dute saneamendusarera konexioa.

Saneamendu ezaren eta muturreko pobrezia ondoz, hamar segundotik behin haur bat hiltzen da herrialde horietan,

Osasunaren Erakunde horrek ohartarazi duenez. Era berean dio bai Ameriketara eta baita munduko beste herrialdeetan ere edateko urik barik bizi diren kopurua handiagoa dela nekazaritza lurretan hiriguneetatik gertuko auzoetan baino, bost handiz handiagoa, hain zuzen ere. Herritarren %75ek deshidratazio arazoak dituzte herrialde horietan.

ASIA

Asia erdialdean herritarren erdiak baino gehiago, %58, bizi dira hirietatik gertuko txaboletan

BANGKOK

Auzo txiroetako etxe gehienetan telebista dute eta hiru etxetik bitan garbigailu automatikoa ere bai

ALDEAK

Punen (India) eta Ibadanen (Nigeria) goi mailako ikasketadunak ere bizi dira txaboletan



MANILAKO haur bat zaborra biltzen. EFE

www.maxcenter.com

Max
CENTER

MODA

DIBERTSIOA

Erresonantzia magnetikoaren inguruko lanak lortu du Nobela

Peter Mansfield eta Paul Lauterbur izan dira sarituak, haien lana «gizadiarentzat onuragarria izan delako»

EDURNE SORALUZE

Paul Lauterbur Erresuma Batuko zientzialariak eta Peter Mansfield estatubatuarrek aurten Medikuntzako Nobel saria lortu dute. Bi aditu horiek erresonantzia magnetikoaren garapenean egindako lana saritu nahi izan du horren bidez Karolinskako Institutuak.


Lauterburrek eta Mansfieldek Stockholmeko erakunde horrek urtero ematen duen 1,3 milio dolarreko saria banatuko dute. Abenduaren 10ean emango dituzte sariak, Alfred Nobel hil

zen egunean. Karolinskako Institutuak adierazi duenez, bi zientzialarien lanak «gizadiari onura ikaragarriak ekarri dizkiolako» hartu du erabaki hori.

Erresonantzia magnetikoak berebiziko garrantzia izan du medikuntzako diagnosietan. Horren erabileraren bidez, esquizofrenia eta alzheimerra sintomak agertu baino lehen atzeman daitezke. Halere, erresonantzia magnetikoen erabilera hainbat esparrutara zabalduta da. Esate baterako, minbiziaren diagnosia egiteko ezinbesteko lanabesa da. Gainera, erresonantzietan gaixoak ez ditu jasaten X izpiak edo eskanerretan beharrezko diren erradiazioak.

Metodo horrekin giza gorputzaren xehetasun guztiak ikus daitezke, bereziki bihotza eta garuna. Erresonantziak zenbait ebakuntza saihesteko ere erabiltzen dira.

2003ko Medikuntza Nobel saridunak



PAUL LAUTERBUR

Kimika katedraduna

Sariz beteriko ibilbidea

Paul Lauterbur AEB Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen, 1929an. Kimikako katedraduna da Ilinoisiko Unibertsitatean, bere jaioterrian, alegia. Lauterbur AEBetako Zientziako eta Teknologiako Akademia Nazionalako kidea ere bada. Nobela ez da, baina, gizon horrek lortu duen lehen saria. 1994an, Teknologia Aurreratuen Kyoto saria lortu zuen, eta 1999an, Radiologiako Europako Kongresuko urrezko domina lortu zuen. Hori guztia gutxi balitz bezala, 2001ean, AEBetan, «gizarteari ekarritako onurengatik», Zientziarako Akademia Nazionalako saria eskuratu zuen. Aurten, Europako sari garrantzitsuenetarikoa lortu du, Alemaniako Edward Rheina alegia.



PETER MANSFIELD

Fisika katedraduna

Lan gogorraren ordaina

Erresuma Batuan, Londresen hain zuzen ere, jaio zen Peter Mansfield, 1933an. Nottinghamgo Unibertsitateko Fisika katedraduna da, eta denbora luzea aritu da bertan lanean. Honek ere, Lauterburren antzera, hainbat sari jaso ditu bere lanaren ordainetan. Erresonantzia Magnetikoaren Europako saria jaso zuen Mansfieldek, baita Radiologiako Europako Kongresuko urrezko domina ere, bere lagun Lauterburren modura. Azken saria 1995ean jaso zuen, Radiologiako Europako Erakundearen eskutik, hain zuzen ere. Aurten, Paul Lauterburrekin banatuko du Medikuntzako Nobel saria. Horrekin, gizarteari egindako onura eskertuko diete.



www.kilometroak.com

**Mila esker

[Euskaraz 22i nuy ot] *

*Euskaraz bizi nahi dut. Kilometroak 03 / Lazkao



Gaiak

ESKUBIDEAK

Afganistango emakumeak oraindik arriskuan bizi direla dio AIK

Anmesty International (AI) erakundeak Afganistango emakumeak oraindik arriskuan bizi direla ohartarazi zuen atzo. Talibanen erregimena erori zenetik zenbait emakumek eskubide batzuk berreskuratu badituzte ere, gehienek egoera «larria» pairatzen dutela dio AIK. Bortxatutako izateko arrisku handia dute eta adingabeak ezkontzera behartzen dituzte, AI-ren arabera.

ESPAZIOA

Txinak satellite bat bidaliko du Ilargira hiru urte barru

Wan Shuquan Txinako Defentsa ministroak atzo adierazi zuenez, Txinak hiru urte barru satellite bat bidaliko du Ilargira. Satellite txinatarrak urtebete igaroko du Ilargiaren gorabeherak aztertzen. Geologiaren, lur azalaren, eguratsaren eta baliabide naturalen inguruko informazioa biltzea da proiektuaren helburua. Bestalde, Txinak gizakia espaziora bidaltzeko asmoa ere baduela zehaztu zuen Shuquan Defentsa ministroak.

OSASUNA

Hotzeriarekin eta gripearekin batera pneumonia atipikoa ager daiteke berriz

Osasunerako Mundu Erakundeak ohartarazi duenez, pneumonia atipikoa berriz ager daiteke. Hala ere, urte sasoi honetan hotzeria eta gripe kasu ugari egoten direnez, nahasketak ere egon daitezkeela gaineratu dute. Hala ere, John MacKenzie adituak adierazi duenez, une honetan pneumonia lehen hiru egunetan atzeman daiteke. Lehen, ordea, zazpi egun behar ziren horretarako.

EKOLOGIA

Australiako iparraldeko suteek 40 hektarea suntsitzen dituzte

Australiako iparraldean pizten diren suteek 30 eta 40 hektarea inguru suntsitzen dituzte urtero, ikerketa baten arabera. Suteen erdiak nahi gabe edo istripuz gertatzen dira, baina beste guztiak nahita piztutako suteak dira. Sute handiek nahiz txikiak bioaniztasunari kalte nabarmena egiten diotela diote zientzialariek.

Gizonentzako antisorgailua sortu dute

Esperma produkzioa eteten du, eta egindako probetan «primerako» emaitzak eman ditu

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Anzac Ikerketa Zentroko zientzialariek gizonentzako antisorgailu bat sortu dute Cambernan, Australiako hiriburuan. David Handlesman ikertzaile taldeko buruaren arabera, esperma-produkzioa eteten duen lehen antisorgailua da hori. 55 gizonetzkoekin probatu

dute orain arte antisorgailua. Eta emaitzak oso onak izan dira, zientzialarien esanetan; %100eko fidagarritasunekoak. Ikerketan parte hartu duten bikoteek ez dute beste antisorgailurik erabili.

Zientzialariek hormona tratamendu baten bitartez lortu dute helburua. Lau hilabetetik behin testosterona —gizonezkoen

hormona bat— txertatzen diete. Hiru hilabetetik behin, berriz, progestina —emakumezkoek haurdun ez geratzeko hartu ohi dituzten piluletan dagoen hormona— daukan beste txerto bat. Hala ere, zientzialarien arabera, hilabete batzuk itxaron beharko dira oraindik tratamendua merkaturatzeko.

Antisorgailu berriak gizona-

ren esperma produkzioa eteten du. Ikertzaileen esanetan, baina, tratamendua utzi eta hilabete batzuetara gorputza esperma sortzen hasten da berriz ere. Aldi berean, ordea, testosterona produkzioa ere eten egiten da. Ondorioz, gizonak hormonak hartu behar ditu sexu harremanak normal edukitzeko.

KUTXA BIZITZA-ASEGURUA

Zu bizi ondoren ere bizia dagoelako.

Une batez besterik ez bada ere, gogoratu izateko biziaren biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela.

Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela.



Zoak zeure bulegora eta bertan jasoko dituzte Kutxa Bizitza-Aseguruaren bitartez. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela. Biziaren ondoren ere bizi dagoela.

**kutxa**

zure diruaren balio erantsia

www.kutxa.net

ORBAIZ



PABLO ORBAIZ, lan saio batean, Sabino Padilla, Jon Aspiazu eta Ernesto Valverderekin. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

sentsazio bila

BELAUNEO LESIO LARRI BAT TARTEKO BEDERATZI HILABETE DEIALDITIK AT EGON OSTEAN, VALVERDEK GIMNASTICAREN AURKAKO PARTIDARAKO DEITU DU ORBAIZ. HALA ERE, JOKATZEKO AUKERA GUTXI DU

HARITZ GALLASTEGI - BILBO

Pablo Orbaiz hasi da futbolariaren sentsazioak berreskuratzen. Joan den urtarrilaren 4tik, Racing Santanderkoaren aurka belauneko lesio larria izan zuenetik, aukeratuen zerrendatik kanpo egon da erdilari nafarra —ezker belauneko aurreko lotailu gurutzatua hautsi zuen—. Pixkanaka, gurutzebidea amaitzen ari da, ordea. Izan ere, makina bat buruko min izan ostean, Espainiako Kopako lehenengo kanporaketa jokatzeko zerrendan sartu du Valverde.

Gutzira, hamazazpi jokalarik eraman dituzte Torrelavegara,

Gimnasticari aurre egiteko. Kopan gehienez hamasei jokalarik deitu daitezkeenez, aukeratuetako batek harmailatik ikusi behar du neurketa. Orbaiz da, hain zuzen ere, kanpoan gertatzeko arrisku handiena duena. Hala ere, horrenbeste denbora igaro ostean taldearekin joan izana esanguratsua da.

Onerako eta, batez ere, txarrrako, Orbaizek ez du berehala ahaztuko 2002-2003. denboraldia. Athleticen hirugarren urtea zuen euskarriak. Rojoren zein Heynckesen konfiantza izan arren, ahal zuen baino maila apalagoa eman zuen aurreneko sasoi bietan. Alkizaren eta Urru-

tiaren azkena gertu zegoen, eta San Mameseko zaleek ez zuten fin ikusten bi veteranoen oinordekoa. Iazko denboraldi-aurreak jokolariaren gainean zeuden zalantza guztiak uxatu zituen. Zelai erdiko ardura bereganatu eta maila bikaina eman zuen Liga hasi aurreko partidetan —Espainiako hautatzaile Iñaki Saez ere ohartu zen eta lagunarteko bat jokatzeko deitu zuen—.

Ez zegoen gehiago eskatzerik. Liga hasi bezain laster okertu ziren gauzak, ordea. Lehenengo jardunaldian, Anoetan, orkatila okertu zuen. Hilabete bi behar izan zituen taldera bueltatzeko. Hutsetik hasi behar. Inor gutxi-

uste zuen okerreña etortzeko zegoela, baina etorri zen. Orkatilako lesioa gainditu ostean, lehenengo partida zuen hasierako hamaikakoan. Athletic Sardineron jokatzeko ari zen eta bigarren zatiko hirugarren minutuan... ezker belauna txikitu zuen, bakarrik gainera. Pikutara ezin hobeto hasi zen sasoi.

Liga bukatutzat eman eta lehenbailehen osatzeko beharrez hasi zen Orbaiz. Lesioa larria zen, baina jokalaria ez zuen umore ona galdu. Min hartu aurreko asteetan jakin zuten Gurpegiren positiboaren berri. Taldeko veterano eta erreferentzia gisa, Orbaiz izan zen Andosillakoari babesa emateko arduraduna, komunikabideen aurrean zein aldagelan. Lesio larria izan zuenean, Gurpegi izan zen Orbaiz laguntzeko arduraduna. Gaztetan lesio bera izan zuen Gurpegik eta inork baino hobeto ulertzen zituen Orbaizen egoera eta sentsazioak.

«Beti zurekin»

Gurpegi, gainontzeko taldekide eta entrenatzaileen babesa ez eze, zaleen animoak ere izan zituen gurutzebide luzean. Behin, ezusteko ederra eman zioten jokalaria izena daraman Laudioko peñako kideek, Lezaman osatzeko egin beharreko arietak egiten ari zela. Lan saio amaieran, aldagarako bidea hartu aurretik, Athleticeko zale zein teknikariek elastiko bana jantzi zuten, Pablo Orbaiz, beti zurekin leloarekin. Aspaldiko partez irribarretsu ikusi genuen.

Taldekideak oporretan zeuden bitartean Orbaizek lanean jarraitu behar izan zuen. Horrela, denboraldi-aurrearen zatirik handiena gainontzeko jokalariekin egiteko aukera izan zuen —belaunak laga zion erritmoan, betiere—. Hobetuz joan den arren, zalantza ere sortu dira. Belauneko lesioak eragindako arazoak tarteko, sarritan alde aurretik utzi behar izan ditu lan saioak eta lagunartekoak. Tunelaren amaiera ez dela sekula ailegatuko ere pentsa daiteke, horren astiro osatzen ari da. Hala ere, jokalaria lasai dago, eta sortzen diren arazoak normalak dira errepikatzen du behin eta berriz. Hobe horrela bada, Orbaiz erreferentzia delako talde zuri-gorrian. Aldagelan pisu gehien dutenen artean dago —beste batzuekin batera zuzendaritzarekin primak negoziatzeko aukeratu dute taldekidek—, eta orain zelai barruan duena erakustea falta zaio. Athleticek sasoi betearen behar du.

Sasoiz kanpoko aurkaria izango du Athleticek aurrean

ERREDAKZIOA - BILBO

Espainiako Kopako final-hogeita hamabirenetako kanporaketa jokatu dute gaur Torrelavegako Gimnasticak eta Athleticek, 21:30ean, Malecon futbol zelaian. Talde zurigorria da aurrera egiteko faborito nagusia, Gimnastica Bigarren B Mailako taldea delako. Hori gutxi balitz bezala, Gimnastica ez dago inondik inora sasoiaren. Lehen multzoko azkena da, emaitza eskasekin: garaipen bat, bi berdinketa eta lau porrot; hiru gol alde eta sei kontra. Datu horiek, hala ere, ez dute garrantzi handirik Kopan lehia bakarreko kanporaketan, eta etxean ezustek gerta daitezkeelako.

Ernesto Valverde Athleticeko entrenatzaileak argi hitz egin zuen atzo. «Gimnasticaren aurkako partida final bat bezalakoa da. Edo jarraitzen dugu edo ez dugu jarraitzen. Bai edo bai behar du. Ezin da egun txarrik izan, hutsa ezin baita gero konpondu», aitortu zuen Valverde.

Aldaketak hamaikakoan

Gaur zelairatuko duen taldearen inguruan, Valverde ez zuen argibiderik eman, eta «aldaketa batzuk» egingo zituela esan zuen bakarrik. Talde zuri-gorriak azpimarratu zuenez, «ohorea da Athleticen hasieratik jokatzeko, eta ohorezko postu horretan egotea egunero defenditu beharreko zerbait da».

Valverde partida «gogorra eta zaila» espero du gaur. «Gure hutsak baliatu nahiko dituzte eta balo oso luzeekin jokatuko. Oso garrantzitsua izango da taldeak aurkariari errespetua izatea, baina betiere goragoko maila batean dagoela erakutsiz. Gakoa guk dugu, partidari ekiteko moduaren arabera, izango da dena», gaineratu zuen Valverde.

GIMNASTICA-ATHLETIC

Gimnastica: Guillermo, Endika, Uribarri, Loza, Ateca; Javi Delgado, David, Mora, David Sanz; Nando eta Javi.

Athletic: Lafuente; Cesar, Prieto, Karanka, Felipe; Iraola, Gurpegi, Tiko, Yeste; Etxeberria eta Urzaiz.


Epaila: Undiano Mallenco.

Ordua: 21.30ean.

Lekua: Malecon (10.000 ikusle).

Reala B-ko lau jokalariek Espainiako Kopako deialdian

Gaizka Saizar, Iban Zubiaurre, Xabi Prieto eta Jabi Garrido Real B taldeko jokalariek sartu dituzte deialdian Raynald Denoueixek bihar talde txuri-urdinak Oviedoren aurka jokatu behar duen Espainiako Kopako kanporaketarako. Real B taldeko lau jokala-



riez gain, Realaren lehen taldeko hamabi jokalariek sartu dituzte deialdian entrenatzaile frantziarrak: Alberto, Gurrutxaga, Jauregi, Boris, Potillon, Mikel Alonso, Aranburu, Gabilondo, De Pedro, Lee Chun Soo, De Paula eta Barkero.

Iraganaren kontra

LEHENGO TALDEA AURKARI. Real Unionen aurka jokatu zuen lehen aldiz Ibon Larrazabalek Osasunaren lehen taldearekin, iaz; Osasunaren aurka ariko da bihar, Real Unionekin

ASIER LEGARDA-EREÑO - IRUÑEA

Biharkoa inorentzat partida berezia bada, Ibon Larrazabalentzat da. Aurreko denboraldian, Espainiako Kopan jokatu zuen estreinu aldiz Osasunaren lehen taldearekin 23 urteko mungiar honek. Final-zortzirenak ziren, bi partidetar Jokatzan zen aurreneko kanporaketa, eta Irungo Real Union zen aurkaria. Gorka Briten bi goli, Paquiren kórner zuzen bati eta Gancedoren beste gol bati esker, 0-4 nagusitu zen Osasuna joanekoan, Stadium Galen. 66. minutuan, Patxi Puñal ordezkatu zuen, zelai erdian, Ibon Larrazabalek. Lehen taldearekin jokatu zuen lehen minutuak ziren Osasunaren bigarren taldeko kapitainarentzat. Kanporaketa erabakita zegoenez, itzulikoan hasieratik jokatzeko aukera ere izan zuen. Taldeak ez zuen partida onik egin eta, galtzeko zorian izan arren, 1-1 egin zuen azkenean. Osasunak aurrea egin zuen, eta Larrazabalek bere maila erakutsi ahal izan zuen bi lehietan jokatuak minutuetan.

Bigarren taldeko kapitaina izateaz gain, Alfonso Gogorzana entrenatzailearen jokalarikutunenerakoa zen Larrazabal. Ia partida guztietan aritu zen Osasuna B taldean, joko antolatzaile lanetan, euskarri postutik. 23 urterekin, lehen taldera jauzi egiteko garaia ere bazuen. Baina, bigarren taldean entrenatzailea zuenak Bigarren B Maila txiki geratzen ari zitzaizola uste arren, Lehen Mailako taldean tokirik ez zuela esan zioten Osasunako arduradunek. Athleticen harrobian aritu ostean, Nekazaritzako Ingeniaritza ikasketak egiteko aukera baliatu zuen Osasunaren eskaintza onartu eta Iruñera joateko. 2000. urteko uda zen. Hiru denboraldian Osasunaren bigarren taldean joko maila polita erakustez gain, ikasketak burutu zituen (ikasketak amaierako proiektua aurkez-

tea soilik falta zaio). Osasun gora egiteko aukerarik ez, eta beste norabait alde egin beharra egokitu zitzaion, ordea.

«Etxetik gertu, talde on batean eta ezagutzen ninduen entrenatzaile batekin; ez nuen zalantzarik izan Real Unionen eskaintza onartzeko orduan», aitortu zion atzo BERRIARI Larrazabalek. Azken hiru denboraldietan bere taldea izandakoaren aurka ariko da bihar Larrazabal, beraz. Partida berezia izango duela esan dugu, baina bera ez da hain argi mintzatu: «Berezia bai, baina ez» esanez erantzun zigun Larrazabalek biharko norgehiagokaren inguruan galdetuta. «Bai, azken denboraldiak Iruñean egin ditut, baina ez da berezia iaz Real Unionen kontra Osasunaren lehen taldearekin aritu nintzelako, Osasunaren zenbait lagun ditudalako baizik. Jusue, Josetxo, Elia eta Izquierdorekin aritu izan naiz bigarren taldean, eta horrek egingo du berezi lehia hau, baina ez nuen harreman handirik izan Osasunaren lehen taldearekin», dio.

Aparteko ikusminik ez Irunen

Bere taldekide gehienak bezala —aurreko denboralditik bospa-

IBON LARRAZABAL

(Real Unioneko jokalaria)

«Osasunaren zenbait lagun ditudalako izango da berezia, ez iaz lehen taldearekin aritu nintzelako»

«Osasunaren bigarren taldearen aurka bezain gaizki jokatu zergo, argi dago faboritua nor den»



IBON LARRAZABAL, iaz, Osasunarekin, Real Unionen aurka Sadarren jokatuak partidaren. LANDER F. ARROIA/ARGAZKI PIRESS

sei jokalariek besterik ez da geratzen Real Unionen—, berria da Larrazabal Irunen. Dagoeneko bertara egokituta dagoela dio mungiarrek, halere. Osasunaren bigarren taldearekin kapitaina zen, eta bazuen pisua taldean. Irunen garrantzi gutxiago ote duen galdetuta, Real Unionen jokalariek denek «antzeko garrantzia» dutela dio. Horren adibidez, jo beharko genuke, larunbatean Osasuna B taldearen aurka partida kapitain gisa amaitu izana Larrazabalek. Partida txarra egin zuten larunbatean irundarrek, eta 1-0 galdu zuten, Taxoaren. «Bigarren taldearen aurka bezala jokatzan badugu, argi dago Kopako kanporaketa gaitzeko faboritua nor den, baina hobeto jokatzan eta irabazten saiatuko gara», dio, ordea, Larrazabalek. Azken finean, mungiarrek badaki partida batean erabakitzen den kanporaketa edozer gerta daitekeela. Azken denboraldietan erakutsi du Real Unionekin Lehen Mailako taldeei gailentzen badakiela. Horrengatik, Osasuna kanporatzea ez dute baztertzen. Hori bai, bihar partidari begira Miguel Solak «aparteko ezer ez» diela prestatu aitortu zigun Larrazabalek. Ligako ibilbidea sendotzea da Solaren eta bere mutilen kezka nagusia (aurreko denboraldian es-

kura izan zuten Bigarren A Mailara igotzea, igoera faseko azken partidaren azken minutua arte, eta igoera da aurten ere helburua). Bihar Stadium Gal ez

dela beteko uste du, gainera, Ibon Larrazabalek. «Aparteko ikusminik ez dut nabaritu», dio. Berak behintzat zerbait erakutsi nahiko du, seguru.



REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, S.A.D.

REAL SOCIEDAD - F. C. BARCELONA

KLUBA LAGUNTZEKO EGUN ERDIA denez,
Abonudunek **GEHIGARRIA** ordaintzeko prozedura hurrengo izango da:

1.- BANKUAN HELBIDERATUA DUTEN ABONUDUNEK

GEHIGARRIA bere kontu korrantean kargatuko zaie **ASTEAZKENEAN, 2003. URRIAREN 8AN.**

URRIAREN 22AN -ASTEAZKENA- kontuan gehigarria kargatua ez badute, Real Sociedad klubarekin harremanetan jartzea, **URRIAREN 27a -ASTELEHENA- BAINO LEHEN**, eskatzen zaie, **943 46 28 33** edo **943 45 11 09** telefonoetara deituz 10etatik 13etara edo 17etatik 20etara.

2.- BANKUAN HELBIDERATUA EZ DUTEN ABONUDUNEK


ORDAINKETA ABISU BARRA-KODEDUNA postaz **ASTEAZKENEAN, 2003. URRIAREN 8AN**, igorriko zaie.

URRIAREN 22an -ASTEAZKENA- aipatutako ordainketa abisua jaso ez badute, harremanetan jarri beharko dira **URRIAREN 27a -ASTELEHENA- BAINO LEHEN**, **943 46 28 33** edo **943 45 11 09** telefonoetara deituz 10etatik 13etara edo 17etatik 20etara.

Astelehenean, urriak 27a, amaituko da gehigarria ordaindu eta Real Sociedad - F. C. Barcelona partidura joan ahal izateko epea. Egun horretatik aurrera Abonudunek ordaindu ez dituzten txartelak salgai jarriko dira jendeaurrean **urriaren 29tik aurrera (asteazkena).**

Harmailetatik begira

① ENEKOITZ ESNAOLA



De Pedroren pisua

◆ **IRAGARRITA.** Lehengo astean egunkari batean telebista programazioan iragarpen bitxia zetorren: laburmetraia laburra 19:24an hasiko zela eta 19:15ean bukatu. Horixe motza! Ez zen ona izango. De Pedrorekin ere antzekoa gertatzen da: Denoueixek orain titular jartzen badu, De Pedroren partida, hasi aurretik, nolabait bukatuta dago. Eta arrazoia sinplea da: ez dago sasoiaren, ez dago fisikoki ondo, ez du ondo jokatzeko, nahiz eta gaizki egonda ere pase eder bat sartzeko gauza izan. Igandean Anoetan ez zuen ezer egin. Gero eta pisu txikiagoa du taldean.

◆ **TXISTEAZ.** Kalean txiste bidez esaten ari di-

renez, antza omen dute langostinoek eta Javier De Pedrok, burua ez beste dena aprobetxatzen zaielako. Ez dute arrazoirik, De Pedrok orain daukan onena burua delako. Azkeneko udatik, ez Munduko Txapelketatik. Hau da, udan Ingalaterrako talde bat jokalaria fitxatzera etorri zenean, dirutza eskainiz, berak ez zuen iskanbilarik muntatu, bere garaian Karpinek Valentziara joan aurretik muntatu zuen bezala, adibidez. Jendeak erraz ahanzten ditu Karpinen bezalakoak, eta gero De Pedro omen da burua galtzen duena! Orain ere, Denoueixek askotan utzi duenean jokatu gabe, De Pedro ez da batere kexatu; begiratu, aldiz, nola dabilen Kovace-

vic marmarka entrenatzaileak kentzen duen bakoitzean.

◆ **KILOAK.** Azalpen luze samarra eman zuen Denoueixek lehengo astean De Pedroren pisuaz, kiloez. Zergatik zabaldu den 79 kilo pisatzen duela, hori ez dela horrela, jokalarien pisuaren berri egunero duela, beti bere garaian pisatzen dituela eta abar. Horrenbeste ko misterioa al du jokalarien pisuak?

◆ **GALDERA BAT.** Realak bana Sevillaren kontra. Osasunak bana Mallorcaren kontra. Athleticak bana Betisen aurka. Partida bakoitzean hiru puntu daude jokoan. Orduan, guren partida horietan zeinentzat izan da beste puntua?

◆ **HITZEN ONDOEZA (III).** Joseba Sarrionandiaren Hitzen ondoeza liburuan irakurria: «Esanahitsua Jean Geneten burubidea: 'Delituak bihurtu ninduen izatea erabaki nuen'». Lehengoan Espainiako telebista kate bateko kazetariak, seguru-seguru: «Jokalaridefentsiboa da Aranburu». Halakorik! Gauza bat: Aranburuk baloi ugari moztu du zelai erdian, baina baita gero zentzuz baloia atera ere, eta hori, eraso oso modu onean hastera da. Galdetu Cruyffi zer zen Guardiola. Beraz, Aranburuk berak ez dezala erabaki bestee diotena izatea. Beste gauza bat: une hauetan Realean euskarran, Aranburu eta beste bat; Xabi Alonso oraintxe gehiago ari da nabarmentzen buruz egindako erremateetan jokoa sortzen baino.

◆ **KORNERRAK (III).** Azkeneko jardunaldian pare bat gol baino ez dira egon kornerraren ondorioz. Eta horietako bat, bigarren zutoinean jokalaria bat defenditzen ez egoteagatik; Malagaren lehen golean. Balego, bigarren zutoin ondora iritsi zen baloi hura aldentzeko aukera handia zukeen. Aurreko astean Txapeldunen Ligan izan zen horrelako golik; Morientesek (Monako) sartutakoa, esaterako. Betikoa: entrenatzaileek ez dute futbola buruan 24 orduetan. Gezurra diote. Gainera, zergatik izan behar dute? Baina...



BORROKA KORNERRAAN. Bodipo Racingeko aurrelaria ezkerrean eta Julio Cesar Valladolidideko atzelaria eskuinean, igandean kornerr jaurtiketa batean elkarren artean borrokan. (NACHO GALLEGU/ EFE)

Saikapenak

LEHEN MAILA

6. Jardunaldia

Valladolid	0-4	Racing
Malaga	2-1	Celta
Real Madrid	2-0	Espanyol
Bartzelona	0-1	Valentzia
Deportivo	5-1	At. Madril
Mallorca	1-1	Osasuna
Murtzia	1-0	Albacete
Reala	1-1	Sevilla
Betis	1-1	Athletic
Vila-real	1-1	Zaragoza

	Puntuak	J	I	B	G
1. Valentzia	16	6	5	1	0
2. Deportivo	15	6	5	0	1
3. Real Madrid	13	6	4	1	1
4. Osasuna	11	6	3	2	1
5. Vila-real	10	6	2	4	0
6. Reala	9	6	2	3	1
7. Betis	9	6	2	3	1
8. Sevilla	9	6	2	3	1
9. Bartzelona	9	6	2	3	1
10. Athletic	8	6	2	2	2
11. Racing	8	6	2	2	2
12. Malaga	7	6	2	1	3
13. Valladolid	7	6	2	1	3
14. Celta	6	6	1	3	2
15. Murtzia	6	6	1	3	2
16. Mallorca	5	6	1	2	3
17. Zaragoza	4	6	1	1	4
18. At. Madril	4	6	1	1	4
19. Albacete	3	6	1	0	5
20. Espanyol	2	6	0	2	4

● Txapeldunen Ligara ● UEFAra
● Bigarren A Mailara

7. Jardunaldia (azaroak 19)

Albacete	-	Reala
Osasuna	-	Murtzia
At. Madril	-	Mallorca
Bartzelona	-	Deportivo
Celta	-	Real Madrid
Racing	-	Malaga
Zaragoza	-	Valladolid
Athletic	-	Vila-real
Sevilla	-	Betis
Valentzia	-	Espanyol

BIGARREN MAILA

6. Jardunaldia

Ejido	1-3	Numancia
Terrassa	0-1	Leganes
Rayo	1-2	Elx
Alaves	2-0	Cadiz
Algeciras	3-0	Getafe
Recreativo	0-0	Malaga
Kordoba	0-1	Almeria
Salamanca	0-2	Sporting
Las Palmas	1-1	Tenerife
Levante	1-0	Eibar
Xerez	2-1	Murtzia Hiria

	Puntuak	J	I	B	G
1. Levante	12	6	3	3	0
2. Cadiz	12	6	4	0	2
3. Almeria	12	6	3	3	0
4. Tenerife	10	6	2	4	0
5. Alaves	10	6	3	1	2
6. Numancia	10	6	3	1	2
7. Getafe	9	6	2	3	1
8. Xerez	8	6	1	5	0
9. Leganes	8	6	1	5	0
10. Elx	8	6	2	2	2
11. Sporting	8	6	2	2	2
12. Eibar	8	6	2	2	2
13. Murtzia H.	7	6	1	4	1
14. Recreativo	7	6	1	4	1
15. Rayo	7	6	2	1	3
16. Algeciras	6	6	1	3	2
17. Las Palmas	6	6	1	3	2
18. Salamanca	6	6	1	3	2
19. Kordoba	4	6	0	4	2
20. Terrassa	4	6	1	1	4
21. Ejido	4	6	1	1	4
22. Malaga B	3	6	0	3	3

● Lehen Mailara ● Bigarren B Mailara

Notak

BIKAIN



Vila-real. Valentziarekin batera partida bakar bat galdu ez duen talde bakarra da. Espero bezala, ondo ari da. Hurrengo aurkaria Athletic izango du.

OSO ONGI

Webo. Entrenatzaileak denboraldi-aurrean kontuan hartzen ez dituen jokalariek ere balio dezaketela erakusten ari da. Gol polita sartu zuen igandean. Aguirre poztu da.

ONGI

Alaves. Pixkanaka saikapenaren burura gerturatzen ari da.

NAHIKOA

Kovacevic. Aurkari izan dituen talde guztien artean Sevilla zen gola sartzeko falta zuen bakarra. Herenegun lortu zuen Sevillaren atea zulatzea. Ez zuen garaipena lortzeko balio izan, baina datua hortxe dago.

ESKAS

Reala. Gaur bi urte betetzen dira harrobiko jokalaria batek azken debuta egin zuenetik. Gari Uranga izan zen, eta orain Getafen dago. Beste batzuek ere antzeko bidea jarraitu dute: Alberto Alejandro, Juan Ugarte... Lehene taldearen arrakastak ezin ditu beste gauza batzuk itzalean utzi. Reala orain dagoen lekuan badago, harrobiko jokalarien balioagatik eta fitxaketekin asmatu delako da. Atzerritarrekin, ordea, zaila da beti asmatzea. Espainiako Koparako bigarren taldeko lau gazte deitu ditu Denoueixek. Debuta egitea, ordea, ez da nahikoa. Lana du hor Realak.

JON ORDOÑEZ

Esaldia



RAYNALD DENOUEIX

(Realeko entrenatzailea)

«Taldeak orain arte egindakoarekin pozik nago. Orain ez du garrantzirik hiru gora-behera edukitzeak»

Multzorik parekatuena

Australia-Argentinarekin hasiko da V. Munduko Kopa, eta erabakigarria gerta daiteke sailkatzeko

KOLDO ALDUNTZIN - DONOSTIA

Munduko Kopak hasiera ikusgarria ukanen du, ostiralean, Sydneyko Estadio Olinpikoan, Telstra Estadioan alegia (12:30). izan ere, etxekotaldeak, Australiak jokatu du Argentinaren kontra. A Multzoko partida izango da, eta jardunaldiko bakarra. Neurketa horrek gauza dezente argi litzake.

❁ **AUSTRALIA:** Birritan irabazi du Munduko Kopa, eta ustez, berriro hautagaia izan behar luke. Dena dela, Ingalaterrak mendean hartu zuen Test-partidan, eta Hiru Nazioetako Torneoan, Zeelanda Berriak bi partidak irabazi zizkion. Egia da, kolpatu batzuk ere ukan dituela. Latham, esatebaterako sei hilabetez egon da jokatu ezinda, baina jokatze moduan da, Roff bezalaxe. Garrantzi handia izango du Gregan uztartze erdiaren jokoak.

❁ **IRLANDA:** Sei Nazioetako Torneoan 2. postua erdietsi zuen, soilik Ingalaterraren kontra galduta, eta horrek onenen parean aritzeko aukera eman dio. Prestaketako azken fasea Euskal herrian egin zuen, eta final-laurdenetara sartzeko helburu tinkoa du. Hori zer den badakite irlandarrek, hirutan aritu baitira kanporaketa horretan. Wood kapitaina berriz jokatze moduan izateak eta O'Driscoll joko apartak zerikusia ukanen du.

❁ **ARGENTINA:** Oso indartsu agertu da Munduko Koparen atarikoan, batez ere, Frantzia menderatu zuelako Test-partidan. Jokalari dezente ditu Ingalaterra eta Frantziako taldeetan, eta baita Australian ere. Hala ere, lehen partida gogorra suertatu zaio, eta Australiaren aurka behin irabazi du soilik. Corletto, Pichot, Hasan eta Reggiardo ditu jokalaririk aipagarri.

❁ **ERRUMANIA:** Sei jokalaririk garrantzitsuen hutsunea ukanen du, eta bere xedea da kontrarioari beldurra galtzea. Lehen partidaren Irlandaren aurka jokatu du, larunbatean. Irlandarrei ahalik eta arazo gehien sortzen ahaleginduko dira errumaniarrak, baina txartelik jaso gabe.

❁ **NAMIBIA:** Multzoko talderik ahulena da. Dave Waterson da entrenatzailea, eta argi utzi du zer lortu nahi duten: «Plazerrez jokatu dugu, ikusleari gozara zi, eta gure zalearen errespetua atxiki. Partidaren bat irabazten badugu, ongi etorria.

A MULTZOA

Egutegia

Urriak 10	Australia-Argentina	Sydney
Urriak 11	Irlanda-Errumania	Gosford
Urriak 14	Argentina-Namibia	Gosford
Urriak 18	Australia-Errumania	Brisbane
Urriak 19	Irlanda-Namibia	Sydney

Urriak 22	Argentina-Errumania	Sydney
Urriak 25	Australia-Namibia	Adelaide
Urriak 26	Argentina-Irlanda	Adelaide
Urriak 30	Namibia-Errumania	Launceston
Azaroak 1	Australia-Irlanda	Melbourne



Australia

Hiriburua: Camberra.

Azalera: 7.741.000 km².

Biztanleak: 18.000.000

Hizkuntza: Ingelesa.

Lehen klubaren sortze urtea:

1860 Dublin Wanderers eta Trinity College.

Federazioaren sortze urtea:

1949 ARU.

Nazioarteko lehen partida: 1903an Australia-Zeelanda Berria.

Klub kopurua: 752.

Lizentzi kopurua: 140.000 (135.482 giz. eta 4.518 em.).

ERREKORRAK

Selekzio gehien: David Campese (101).

Tanto gehien: Michael Linagh (911).

Entsegu gehien: David Campese (64)



George Gregan

PALMARESA

1987 Final-laurdenak.
1991 Txapelduna.
1995 Finalerdiak.
1999 Txapelduna.

Irlanda

Hiriburua: Dublin / Belfast.

Azalera: 84.382 km².

Biztanleak: 3.000.000

Hizkuntza: Ingelesa.

Lehen klubaren sortze urtea:

1860 Dublin Wanderers eta Trinity College.

Federazioaren sortze urtea:

1874.

Nazioarteko lehen partida: 1.875ean, Londresen, Ingalaterraren aurka.

Klub kopurua: 135.

Lizentzi kopurua: 53.000 (48.500 giz. eta 4.500 em.).

ERREKORRAK

Selekzio gehien: Mike Gibson (69).

Tanto gehien: David Humphreys (470).

Entsegu gehien: Brian O'Driscoll (18)



Keith Wood

PALMARESA

1987 Final-laurdenak.
1991 Final-laurdenak.
1995 Final-laurdenak.
1999 Final-laurdenetarako kanporaketa baztertua

Argentina

Hiriburua: Buenos Aires.

Azalera: 2.791.810 km².

Biztanleak: 37.000.000

Hizkuntza: Gaztelera.

Lehen klubaren sortze urtea:

1886 Rosario Athletic Club eta Buenos Aires Football.

Federazioaren sortze urtea:

1951.

Nazioarteko lehen partida: 1910ean River Plate Rugby-Erres. Batua.

Klub kopurua: 135.

Lizentzi kopurua: 57.000 (56.820 giz. eta 180 em.).

ERREKORRAK

Selekzio gehien: Lisandro Arbizu (85).

Tanto gehien: Hugo Porta (529).

Entsegu gehien: Diego Cuesta Silva (28)



Lisandro Arbizu

PALMARESA

1987 Sailkapen fasea.
1991 Sailkapen fasea.
1995 Sailkapen fasean kanporatua.
1999 Final-laurdenetara.

Errumania

Hiriburua: Bucarest.

Azalera: 238.391 km².

Biztanleak: 22.000.000

Hizkuntza: Errumaniera.

Lehen klubaren sortze urtea:

1915ean, Stadiul Roman.

Federazioaren sortze urtea:

1914.

Nazioarteko lehen partida: 1924an Frantziaren kontra.

Klub kopurua: 60.

Lizentzi kopurua: 5.355 (5.301 giz. eta 54 em.).

ERREKORRAK

Selekzio gehien: Adrian Lungu (74).

Tanto gehien: Petre Mitu (248).

Entsegu gehien: Gabriel Brezoiaru (16).



Romeo Gontineac

PALMARESA

1987 Ez zuen jokatu.
1991 Sailkapen fasea.
1995 Sailkapen fasea.
1999 Sailkapen fasean kanporatua.

Namibia

Hiriburua: Windhoek.

Azalera: 823.000 km².

Biztanleak: 1.000.000

Hizkuntzak: Ingelesa, Khoiera...

Lehen klubaren sortze urtea:

1916an, Windhoek High School.

Federazioaren sortze urtea:

1990.

Nazioarteko lehen partida: 1990an, Galesen aurka.

Klub kopurua: 19.


Lizentzi kopurua: 11.675 (11.500 giz. eta 175 em.).

ERREKORRAK

Selekzio gehien: Quinn Hough (118).

Tanto gehien: J. Coetzee (168).

Entsegu gehien: Gerhard Mans (12).



Sean Furter

PALMARESA

1987 Ez zuen jokatu.
1991 Ez zuen jokatu.
1995 Ez zuen jokatu.
1999 Sailkapen fasean kanporatua.

Miarritzek Perpinyaren kontra jokatu ditu Sud Radio Challengeko final-laurdenak

K.A. - DONOSTIA

Sud Radio Challengeko azken jardunaldian Beziarsen kontra 25-0 irabazi izanak larunbatean, eta hiru entsegu eginda, final-laurdenetako kanporaketa etxean jokatzera eragin zion Miarritzeri. Igande arratsaldean bertan egin zuten kanporaketa zozketa, eta miarritzarrei Perpinya (Katalunia) egokitu zitzaion. Partida bakarrera jokatu dute, eta azaroaren lein.

Beste hiru kanporaketak: Brive-Montferrand, Bourgoin-Colomiers eta Tolosa-Castres. Finalerdiak azaroaren 8an jokatu dira, eta finala, 2004ko maiatzaren 11n. Miarritzek final-laurdenetako kanporaketa gaituz gero, Tolosa edo Castresen aurka jokatu luke finalerdia.

Nolanahi ere, Miarritzeren helburu nagusia Top 16 Liga Xapelgoa irabaztea da, eta heldu den larunbatean (19:30) hasiko du ibilbidea, Beziarsen kontra. Beziarsek ez zituen bere jokalaririk esanguratsuenak zelairatu larunbatean, baina hori bere arazoa izango da. Miarritzarrei ongi egin zien partida irabaztea, eta challengeko bi partidak kontuan hartuta, argi geratu da Miarritze gehiago dela. Gainera, hiru entsegu egin zituen.

Jokalariei dagokienez, soilik Etxeberriak ukan zuen zaintiratu, baina Beziarsen jokatzera espero da.

Baionak hobetu egin du jokoan, eta 5. postuan da

Etxetik at irabaztea lortu ez duen arren, etxean hirugarren garaipena erdietsi zuen, Aurillac mendean hartuta (37-20). Ondorioz, sailkapeneko bosgarren postuan da 11 punturekin. Sailkapeneko burua, berriz, Lyon da 16 punturekin.

Lapurtarrek mugimenduzko jokia egin zuten larunbatean, eta prestakuntza fisiko egokia agertu zuten; batez ere, lehen zatian. Jokaldi ugari kateatu zuten, eta talde-lanean ukan zuten garaienaren gakoak. «Jokatzeko gogo gehiago erakutsi genuen, eta ongi erabili genuen baloia», adierazi du Yannick Lamourrek. Hurrengo partida Mont-de-Marsanen jokatuko dute (urriak 25).

Urrea eta ortzadarra Kanadan

Joane Somarriba, Igor Astarloa eta Igor Gonzalez Galdeano dira dominaren bat lortzeko aukera gehien duten euskaldunak

A. U.

Hostoak adarretatik erortzen ari direnean, eguzkia indarra galitzen ari denean, gaua eguna jaten ari denean, urrea eta distira bilatzeko ametsari ekingo dio nazioarteko tropelak gaur, non eta txirrindularitzak tradizio askorik ez duen urruneko gune batean, Hamiltonen, Kanadako ipar-ekialdean. Eguraldi hezeak eta hotzak —10-12 gradu dituzte— egin diete harrera Atlantiar Itsasoaren beste aldera joandako txirrindulariei.

Gaur bertan hasiko da Munduko Txapelketa. Bi erlojupeko jokatu dira. Kanadan goiza edo eguerdia dela hasiko dira probak. Europan baino sei ordu gutxiago dira han, eta ikusleen gehiengoa Europakoa dela aintzat hartuta, ohikoa ez zaien ordutegira moldatu beharko dute txirrindulariek.

Profesionalen probak bihar hasiko dira. Emakumezkoen erlojupekoa jokatu da asteazkenean, eta proba horretan lor dezake lehen domina euskal txirrindulari batek, Joane Somarribak. Sopelakoa da Hamiltonen ariko diren sei euskal txirrindularietako bat. Igor Gonzalez Galdeano gasteiztarra eta Igor Astarloa ermuarra dira dominaren bat lortzeko borrokan egon daitezkeenak. Galdeano, etziko erlojupekoan, eta Astarloa, igan-



ERIK ZABEL, Alessandro Petacchi eskuak aurpegian dituela, Stuart O'Grady eta Paolo Bettini (Zabelen atzean), Paris-Tours klasikoko esprintean, herenegun. Horietako guztiak Hamiltonen izango dira. FRANCK PREVEL/AP

deko errepideko proban, Munduko Txapelketako proba erakargarrienean. Larunbatean jokatu da emakumeen errepidekoa, eta Somarriba eta Eneritz Iturriagaetxebarria ariko dira.

Beste bi euskal txirrindularik ere ordezkatu dute Espainiako selekzioa Hamiltonen: Gorka

Gonzalez zarauztarrak eta Aitor Osa itziartarrak. Hauek Freire, Valverde eta Astarloarentzat morroi lana egin beharko dute.

Denak Bettiniri begira

Munduko Txapelketako proba nagusiko faboritoez hitz egitea arriskutsua da oso, egun baka-

rreko probetan gauzak asko eta azkar aldatzen direlako, baina Bettiniren sasoiari erreparatuta, oso litekeena da italiarrak egiten duenaren zain egotea denak. Zabelek ere denboraldia biribildu nahiko du, baina zirkuitua gogorregia da berarentzat. Bi aldats gogor daude 12,4 kilometroko zirkuitu bihurrian.

Euskal txirrindulariak

Emakumeak

- Joane Somarriba
- Eneritz Iturriagaetxebarria

Gizonak

- Igor Gonzalez Galdeano
- Igor Astarloa
- Gorka Gonzalez
- Aitor Osa

Egitaraua

Gaur

17:00 Emakumeak, gazteak, erlojupekoa. 15,4 km.

18:20 Gizonak, 23 urtez azpikoak, erlojupekoa. 30,8 km.

Bihar

17:30 Gizonak, gazteak, erlojupekoan. 20,8 km.

20:10 Emakumeak, profes., erlojupeko. 20,8 km.

Etzi (urriak 9)

18:30 Gizonak, profesionalak, erlojupekoa. 41,6 km.

Urriak 10 (ostirala)

15:00 Emakumeak, gazteak, errepidekoa. 74,4 km.

18:00 Gizonak, 23 urtez azpikoak, errepidekoa. 173,6 km.

Urriak 11 (larunbata)

15:00 Gizonak, gazteak, errepidekoa. 124 km.

18:45 Emakumeak, profes., errepidekoa. 124 km.

Urriak 12 (igandea)

15:00 Gizonak, profesionalak, errepidekoa. 260,4 km.

'Kilkerrak' kir-kir

MUNDUKO KOPA. Bettinik irabazi du, bigarren; San Remon, Donostian eta Hanburgon nagusitu da; Paris-Toursen ere onenetakoa izan zen

A. U.

Paolo Bettinik Munduko Kopa irabaziko zuela jakina zen. Mirari bat behar zuten Van Petegemek eta Boogerdek Bettini bere lehen postutik kentzeko, eta ez zen miraririk gertatu. Erregularitasuna saritzen du Munduko Kopak, eta erregularrena Bettini bera izan da. Baina klasiko sonatueta irabazita, eta ez probaz proba sailkapen onak egin eta puntuak pilatuta. Bettinik lau probatan bakarrik lortu ditu puntuak, baina mamitsuak oso. 100 puntu irabazi zituen Milan-San Remoko, Donostiako eta Hanburgoko klasiakoak irabazita, eta beste 50 Zuricheko Sari Nagusian, hirugarren postuan helmugaratuta.

Bettini txirrindulari beroa da. Lehiakorra da oso, ausarta, eta parte hartzen duen proba ia denetan bilatzen du garaipena. Paris-Toursen ere zail zuen garaipena, ibilbide lauegiak ez baitzion mesede egiten, baina Tours hiri atarian zeuden bi aldapa txikitik ederki berotu zuen askoren bihotza, berarengan ohikoa den erritmo aldaketa ikusgarria eginda. Lehenengoan kale egin zuen, harrapatu egin zuten, baina bigarren aldiz saiatu zen tropela txikitzen. Plater handia sartu eta dagoen aldapa egonda ere, egurra eman. Bettini sasoiaren dela, haren gurgilari eutsiko dionik ez dago egun tropelean. Bettinik metro batzuk hartu eta Fassa Bortolok haren bila jo zuen, Petacchi han bai-

tzuen, hura ere garaipen gose. Azkenean, harrapatu zuten iheslaria. Esprintean, baina, Zabel Nagusitu zen.

Lombardiako Giroa izango da (urriaren 19a) Munduko Kopako azkena. Bettinik irabazita du Munduko Kopa, baina proba hori korrituko du, eta irabazten saiatuko da, ibilbidea egokia baita berarentzat.

Kilkerra goitizena du Bettinik. Txikia delako (1,70), baina baita ere soinu handia egiten duelako bere garaipenekin. Bere grina ezagututa, izango du guztiz kontent ez egoteko motiboren bat. Bere proba kutunena irabazi ezinik geratu zen, apirilean: Lieja-Bastogne-Lieja (2001 eta 2002an irabazi zuen). Hirugarrenez irabaztea izango du erronka.



PAOLO BETTINI, Paris-Tourseko podiumean. Alde ikusgarria lortuta irabazi du, bigarren, Munduko Kopa txirrindulari txikiak. FREDERIC S./EFE

JOANE SOMARRIBA ① ESPAINIAKO SELEKZIOKO TXIRRINDULARIA

«Ez nago bete-betea, baina motibazioa sasoi baina erabakigarriagoa izan liteke mundialean»

ANDONI URBISTONDO - DONOSTIA

Ramontxu Gonzalez Arrieta senarrak hartu du BERRIAK egindako telefono deia. Alboan dauka Joane Somarriba emaztea. Navacerradan egon dira (Espainia), Munduko Txapelketa prestatzen. Patxadaz mintzatzen da Sopelakoa, ahots baxuarekin, nekatuta balego bezala. Baxu, baina zintzo, eroso, bizkaiera txukunean.

Zer moduz egin duzu Navacerradako prestakuntza?

Ondo. Hiruzpalau urte daramatzat hona etortzen Munduko Txapelketa prestatzeko. Badakizue denok etxean eta etxekoekin egotea oso gustuko dudala, baina tira, Ramontxu ere hemen dago eta ondo gaude. Bi aste egin ditugu, 2.000 metrora gaude eta entrenamendu exijenteak egiten ari naiz egunero. Mendate asko eta gogorak daude mendialde honetan. Hamiltongo (Kanada) proba ere gogorra da eta ea hemengo egonaldia emankorra den.

Zer moduz ikusi duzu zure burua saioz?

Tourraren ostean, txarto egon nintzen. Asko lasaitu nintzen, gehiegi. Han sufritu nuena ahaztu beharra neukan derrigor eta gorputzak gustura hartu zuen atsedendehori. Presio handia jasan nuen eta barrenhustuta iritsi nintzen etxera, bai sasoi, bai motibazioz. Bistan da, Tourreko sasoi ona zeharo galdu nuen. Irail hasieran errepedera irten, bi orduz ibili eta ezinean bueltatzen nintzen etxera, etsita zeharo. Buruari egurreman nion orduan, Hamiltongo Munduko Txapelketa ez zela hain gogorra eta horrelakoekin konbentzitzen saiatzen. Kanadan egoera fisiko onean korritu behar nuela agindu nion neure buruari eta horretan nabil.

Eta lortu al duzu temati bilatzen ari zaren sasoi fisiko on hori?

Ezin dut datu fidagarririk eman. Zazpi-zortzi aste daramatzat konpetizioan korritu gabe eta ez dakit ziur ondo edo erdipurdi nagoen. Zalantza asko ditut, baina txirrindulari zaildua naiz jada. Eskarmentua badut eta nire gorputza nahiko ondo ezagutzen dudala esan dezaket. Horren arabera, ez nago bete-betea. Orain bi urte, lehenengo Tourra irabazi nuenean, hemen egon nintzen, Navacerradan. Orduan orain baino indartsuago nengo. Hori erreferentzi ona izan liteke.

Eta motibazioz, zer moduz? Gogotsu al zoaz Munduko Txapelketa, edo nekatuta arlo horretan ere?

Ez, ez, motibazioz nahiko ondo. Aurtengoa ez, baina heldu den

Txirrindularitzaz ahaztu egin zen Tourra bukatuta, eta Navacerradan (Espainia) egon da motibazioa berreskuratu nahian; lortu duela uste du eta urrea irabazi nahi du; biharko erlojupekoan du lehen aukera



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS

EGOERA FISIKOA

«Zazpi-zortzi aste dira konpetizioan korritu gabe; ez dakit ondo edo erdipurdi nagoen»

urtekoa izango da nire azken Munduko Txapelketa eta jakin badakit dauzkadan aukera apurrak baliatu behar ditudala dominaren bat zintzilikatzeko. Nahitaez, gustura aritzen zara azkenean.

Sasoi bete-betea ez, baina motibazioz ondo. Nahikoa al da hori emaitza on bat lortzeko?

Baietz esango nuke. Egun bakarreko probak dira Munduko Txapelketak, eta ez bi asteak, Giroa eta Tourra bezala. Bi proba horietan funtsezkoa da erregulartasuna, fisikoki bete-betea egotea. Munduko Txapelketan ere garrantzitsua da indartsu egotea, noski, baina motibazioa sasoi baina erabakigarriagoa izan liteke Munduko Txapelketa batean.

Eta motibazio hori aintzat hartuta, zein da Joane Somarribaren helburua Hamiltonen?

Urrezko domina, noski. Behin ha-

HELBURUA

«Urrea da helburua; exijentziarik gabe, hala ere; lortzen ez badut, lasai geratuko naiz»

raino joan ondoren, urrea edo ezer ez. Brontzeko domina bat badut, urrea lortu nahi dut, baina lortzen ez badut ez naiz larrituko. Nire esku zegoen guztia egin dut, gogor entrenatu dut. Entrenamendu horrek saria ematen badit, ederki. Ematen ez badit ere, lasai geratuko naiz.

Erlojupekoan edo errepedeetan?

Erlojupekoan aukera gehiago ditudala esango nuke. Zu eta zure indarrak erabakitzen du podiuma, eta ez talde lanak edo lasterketako bilakaera jakinak. Errepedea askoz proba irekiagoa izango da.

Ibilbidea gogorra da oso, errepedeetan batez ere.

Espainiako selekzioko hautatzailer Antequerarekin hitz egin nuen eta oso gogorra zela esan zidan. Interneten ere ikusi ditut mapak, baina han egon eta zirkuitua ikuskatu arte ez naiz lasai geratuko.

ERLOJUPEKOA-ERREPIDEA

«Ez dut uste errepedeetan distira gehiago duenik; bateko edo beste domina, berdin dit»

Antequerak lehen aldapa plater handiarekin igo daitekeela esan digu. Lisboako Munduko txapelketan ere zirkuitua gogorregia ez zela esan zigun eta gero, hara joan, eta oso gogorra zela ikusi ahal izan genuen. Dena den, nahiago dut gogorra izatea. Zolderren, iaz, aspertu egin nintzen. Ordeka besterik ez. Zenbat eta gogorragoa, aproposagoa niretzat. 20,8 kilometro ditu erlojupekoak, eta bi aldapa ditu, bigarrena nahiko gogorra, mapan ikusita beti ere. Errepedeetan gogorragoa da, 124 kilometro dituelako eta itzuli bakoitzean bi mendate txiki igo behar direlako. Itzuliz itzuli atzeratzen joango dira txirrindulariak. Kanporaketaren antzekoa izango da.

Zein izango dira zure aurkariak barkarkako diziplina horretan?

Iazko munduko txapeladuna, Zabirowa errusiarra, batez ere. Ju-

dith Arndt alemaniarra, Edita Pucinskaita lituaniarra eta Susanne Ljunkskog suediarra ere ondo ari tuko dira. Ustekaberen bat ere egongo da.

Zorte pixka bat aldeko izatea ere ez litzateke txarra, ezta?

Ea hala den. Hiru ehunekogatik sailkatu nintzen iaz laugarren eta 98 ehunekogatik egin zidan ihes zilarrak. Pedalkada bat, bihurgune batean arrisku gehiago hartzea. Erorketak saihestea ere funtsezkoa izango da.

Urrezko domina, urrezko domina da, baina errepedeetan proba dominak ez al dira erlojupekoetan baino distiratsuenak?

Errepedeetan zailagoa da. Distira gehiago duen, ez dakit. Nikerlojupekoan zein errepedeetan urrea lortzen badut pozez zorutzen egongo naizela dakit. Ez nago proba batean edo bestean irabazi nahi dudana hautatzeko moduan, eta bietako batean lortzea sekulako arrakasta dela uste dut.

Joane Somarriba da Espainiako selekzioko txirrindulari onena, baina zu zeu al zara taldeburua? Alegia, zuretzat egingo al dute lana selekzioko beste kideek. Jakina da itzuli handietan txirrindulari onena zarela, baina ez zarela karrerista garailea.

Dori Ruanok ere oso lan txukuna egin dezake, ez zuelako Tourrean parte hartu, eta ez duelako proba asko korritu. Eneritz Iturriagaetxebarriari ere asko gustatzen zaizkio klasikoak, egun bateko probak, eta haiek ni baino indartsuago badaude, haiek izango dira taldeburuak. Azken itzulietan denok batera bagoaz, eta indartsuena ni banaiz izango naiz selekzioko taldeburua. Eta bai, egia da, ez naizela txirrindulari garailea. Esprintean ez naiz iaiegia eta hori gabezia garrantzitsua da Munduko Txapelketa batean. Aukera edukiz gero, bakarrik, edo talde txiki batean iritsi beharko nuke azken kilometrora. Lauzpa-bost txirrindulariren artean erabakiko dira dominak, ziurrenik.

Erlojupekoan zure aurkariak zein diren esan diguzu. Errepedeetan zabalagoa da faboritoen zerrenda. Zein da zure hautagaia, baldin badaukazu?

Niretzat Nicole Cooke australiarra da faborito nagusia. Iaz nirekin egon zen Deia taldean. Maila handia dauka eta berarekin hitz egin eta sasoi oso indartsu dagoela esan dit. Bira irabazi zuen Miriam Merckels holandarra ere indartsu dago. Proba gogorra izango da, dominez gain Atenasko Olinpiar Jokoetan parte hartzeko sailkapen txartelak egongo direlako jokoan. Horrek are gehiago zailduko du proba.

AIZKORA

Kanporaketa azkarrenetakoa

Nazabalek ondu egin du bost urteotako denbora, eta Mindegia sailkatu da Olasagastiren orde

KOLDO ALDUNTZIN - ETXARRI-ARANATZ

Euskadiko Maila Nagusiko finala urriaren 26an jokatu da, Donezteben (Nafarroa), eta Floren Nazabal, Donato Larretxea, Joxemiel Peñagarikano, Miel Mindegia, Iñaki Azurmendi eta Joxejuan Barberena ariko dira lehia horretan. Beraz, iazko kanporaketa kontuan hartuta, Mindegia sailkatu da Olasagastiren orde. Jakina da, bestetik, Olasagastik ez zuela finala jokatzetik

izan eta Mugertza aritu zela. Bestalde, Mindegia II. Mailan aritu zen iaz.



Oro har, oso denbora onak egin zituzten herenegun Etxarri-Aranazko kanporaketan. Iaz Larretxeak egin zuen denborarik onena, eta igandean, Nazabalek. Gainera, etxarriarrak 40 segundoan ondu zuen Larretxearen denbora. Bistan da Nazabal txapelari eusteko moduan dela, ez soilik egin zuen denboragatik, baita lan biribila egin zuela-

Sailkapena

Aizkolaria	d.b	d.b
1. Nazabal	7'28"	16'16"
2. Larretxea	7'51"	17'21"
3. Peñagarikano	8'19"	18'08"
4. Mindegia	8'16"	18'46"
5. Azurmendi	8'30"	19'22"
6. Barberena	9'10"	19'37"
Olasagasti	8'52"	20'17"
8. Mugertza	9'36"	21'46"
9. Txapartegi	9'17"	21'59"
10. Lopez	9'26"	22'03"
11. Jaunarena	10'40"	23'21"

ko ere. Bestetik, Larretxeak, Olasagastik eta Jaunarenak izan ezik, gainerakoek ondu egin zituzten iazko denborak.

Jaunarena II. Mailan ariko da heldu den urtean. Bigarren txandan lehiatu zen, bere neurrian ari zitezkeenekin batera; hots, Azurmendi, Txapartegi eta Lopezekin, eta behetik gora egin zuen saioan, baina Zubietakoa ez dago sasoirik onenean. Hala ere, «okerrik ez bada» II. Mailan jarraituko duela adierazi zuen.



MUGERTZA ETA LOPEZ igandeko kanporaketan aritu ziren eta, finalean ez sartu arren, heldu den urtean horretan ariko dira. KOLDO ALDUNTZIN - JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

LASTO-JAURTITZEA

Bustintzak bigarrenez irabazi du Euskadiko Lasto-jaurtitze Txapelketa

KOLDO ALDUNTZIN - URRUÑA

Bigarren urtez jokatu da Euskal Herriko Lasto-jaurtitze edo botatze Txapelketa eta, iaz bezala, Joxemartin Bustintza Dimakoak jantzi du txapela, 13 kiloko lasto fardoa 6 metro gora jaurtita. Ondorioz, iazko marka 30 zentimetrotan ondu du bizkaitarrak. Gainera, iazko podium berbera osatu dute.

Urruñako Oleta auzoan jokatu zen txapelketa (Lapurdi), herenegun gauean. Guztira zazpi lasto-jaurtitzailek hartu zuten esku lehian. Benetako lehia langaxka edo listoia 3 metro eta 75 zentimetrora zegoela hasi zen. Kirolari bakoitzak hiru aukera ukan zituen neurri bakoitzean ezarritako langaxka gainditzeko, eta, azkenean, Bustintza bakkarik geratu zen. Lapazaran menderatuta, Dimakoa 6 metro eta 20 zentimetrora jaurtitzen saiatu zen, baina ezin izan zuen.

Sailkapena

1. J. M. Bustintza (Bi)	6 m.
2. J. Lapazaran (Bi)	5,90 m.
3. A. Arbenoitz (La.)	5,50 m.
4. J.C. L. de Anroita (Ar.)	4,60 m.
5. J.M. Atutxa (Bi)	4,40 m.
6. A.L. de Gereñu (Ar.)	4,20 m.
7. I. Biñaspre (Ar.)	4 m.

HARRI-JASOTZEA

Izeta II.a izan da onena harri kubikoarekin Ugarteko saioan

K.A. - DONOSTIA

Espero bezala, lehia entretenigarria eta estua izan zuten Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.*-ak, Juanjoxe Unanue *Goenatxo*-k eta Joxeantonio Gisasola *Zelai*-k herenegun, Ugarten (Gipuzkoa). Lehenik 150eko kubikoarekin aritu ziren 2 minutuan. Zelaik 10 jasoaldi egin zituen, Goenatxok 11 eta Izeta II.ak ere 11. Ondoren, 125ekoari ekin zioten, eta Izeta izan zen onena, 12 jasoaldi eginda. Goenatxok 11 egin zituen eta Zelaik 10.

Bestetik, Ostolaza Italiako RAI telebistan aritzeko da gaur, 100eko bolarekin 20 lepo-bira egiteko asmoz.

K.A. - ETXARRI-ARANATZ

Egoera bereziko aizkolariak

USADIORIK EZ. Mutrikun eta Lezaunen zaletasunik ez izan arren, Mugertza eta Lopez Maila Nagusian dira

Ezin uka daiteke aizkorak usadio edo tradizio handirik ez duen herri eta eskualdeetan Maila Nagusiko aizkolariak izateak meritu handia duela. Lezaunen (Nafarroa), esate baterako, Juan Jose Lopezek dihardu, eta igandeko kanporaketan, finalera sartu ez bazen ere, mailari eustea lortu zuen. 1992an hasi zen plazetara agertzen, eta II. Mailako txapela jantzi zuen.

«Herriko jaietan beti aritzen ginen aizkoran. Ni ezjakina nintzen, baina irabazi egiten nien. Horregatik, Santiago Ros Iturgoiengoak animatu egin ninduen. Orduan, gainera, Mendizabalek eta Arriak apustuak jokatzen zituzten, eta gustatu egiten zitzaidan», nabarmendu du Lopezek.

Aizkolari onak izan dira eta badira Doneztebe aldean, Leitza aldean, Sakana aldean, Larraun aldean, baina Iruñetik behera zail da aizkolari onak sortzea. «Egia esanda, ez dut ikusten inguru hauetan beste aizkolariarik sortzeko aukera handirik. Izan ere, aizkorarako berezko gogo behar da, eta oraingo gazteek ez dute sufritu nahi. Gainera, plazagizona ere izan behar da, eta aita edo osaba bat aizkolaria ez baldin bada edo men-

dian lan egiten ez badu, zail ikusten dut. Erdozia izan daiteke adibide bat, aitak asko laguntzen baitu».

Lopezek aipatu du «Nazabal» izan duela laguntzailerik onena. «Hala ere, batzuetan joan egiten zait gogo, eta inguruko animorik eta laguntzarik ez balitz...», aitortu du Lezaungoak.

Fausto Mugertza ere antzera dago, Gipuzkoan dela. Mutrikuarra da, eta aspaldi dihardu

kirol horretan. «Txurruka aizkolari handia nire auzokoa zen, eta, jakina, horrek garrantzia izan zuen. Bestalde, auzoko jaietan ere hasi ginen bata bestearen kontra 20 urte genituela. Gero, 25 urterekin Australiara joateko hautaketa proba egin genuen, eta hirugarren geratu nintzen, Olasagasti eta Larretxearekin. Beraz, pixkanaka sartu nintzen aizkora munduan».

Nolanahi ere, aitortu du Mutrikun «zaila» dela zaletasuna sortzea, berez inguru berezia delako. «Gainera, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko mugan egon arren, jende askok Bizkaia dela ere esango luke. Gu mendian bizi gara, baserrian, eta handik dator ohitura». Hogei urte egin ditu aizkoran, eta bi seme gazte ditu aitaren segida ziurtatuko dutenak, eta «poztuko» litzatekeela dio.

Kirola

MOTOZIKLISMOA

Txapeldun izan arte, Rossik ez dio jakinaraziko Hondari kontratua berrituko duenetz

JON ORDOÑEZ - DONOSTIA

Asko ari da tenkatzen soka Valentino Rossi. Hondak joan den larunbata arteko epea eman zion kontratua berrituko duen erabakitzeke (denboraldi honetan amaitzen zaio), baina italiarrak planto egin zion. Lehendik ere bazegoen susmoa txapeldun izan arte ez zuela erabakirik hartuko, baina orain, Pazifikoko Sari Nagusiaren ondoren, garbi dago hala izango dela.

Max Biaggik irabazi zuen herenegun, Motegiko zirkuituan (Japonia), eta une honetan Rossik 58 puntuko aldea du sailkapen nagusian. Igan-de goizaldean, Malaysiako Sari Nagusian, Gibernau katalanari 50 puntuko aldea ateratzen jarraitzen badu, munduko txapeldun izango da Rossi, bosgarren aldiz. Ondoren beste bi proba bakarrik geratuko dira korritzeko: Australiakoa (urriak 10) eta Valentziakoa (azaroak 2).

Ducatik Rossiri egin dion eskaintza ia baztertuta dago, baina Yamaharenak indar handia hartu du. Horrek Max Biaggi bihurtuko luke datorren denboraldiko Hondako lider, Rossiren arerio nagusietako bat. Horregatik, Rossik, txapeldun izan arte, ez dio jakinarazi nahi Hondari zein erabaki hartuko duen.

Pazifikoko irabazleak

125 cc

1. H. Barbera (Apr.) 41:54,483

250 cc

1. T. Elias (Apr.) 43:47,125

MotoGP

1. M. Biaggi (Hon.) 43:47,590

Munduko Txapelketa

MotoGP

1. V. Rossi (Hon.) 282 p.

2. S. Gibernau (Hon.) 224 p.

3. M. Biaggi (Hon.) 199 p.

250 cc

1. M. Poggiali (Apr.) 206 p.

2. R. Rolfo (Hon.) 188 p.

3. T. Elias (Apr.) 176 p.

125 cc

1. Dani Pedrosa (Hon.) 198 p.

2. S. Perugini (Apr.) 159 p.

3. A. De Angelis (Apr.) 147 p.

ANDER VILARIÑO ① WORLD SERIES TXAPELKETAKO GIDARIA

BIXENTE MERINO - DONOSTIA

1 Formularen aritzeko aukera gehiago ikusten du Montmelotik bueltan. Bere talde osoaren lana goraiatu du, eta 1 Formulako zenbait etxerekin hitz egiten hasi direla aurreratu, gidari probatzaile moduan aritzeko.

Bigarren lasterketan helmuga lehen postuan zeharkatzerakoan zer sentitu zenuen?

Super Toyota Formularen zein 3 Formularen lasterketa mordoxka irabazi nituen, baina, egia esan, Munduko Serie hauetan garaipena lortzea zailagoa da. Mundu mailako txapelketa da, eta 1 Formularen egon diren edo dauden gidariak parte hartzen dute. Irabaztea zailagoa da, gidariak esperientzia gehiago dutelako, taldeak hobeak dira, gidariak nik baino kilometro gehiago eginak dituzte, baina tira, iaz garaipen bat lortzeko zorian izan nintzen, eta aurrean, Bartzelonako garaipena ezin zen une hobean etorri. Zoragarria izan zen. Azken bi itzulietan nire aita, familia eta laguntzen nauen jende guztia izan nuen gogoan.

Podiumeko mailarik gorenean zer ikusten da?

Talde guztia oso pozik ikusi nuen. Nire managerra, mekanikoak, ingeniariak... denak oso pozik zeuden, eta niri ilusio handia egin zidan. Donostiako bi lagun etorri ziren lasterketa ikustera, eta ikurrina bat eraman zezatela eskatu nien, asteburu honetarako sentsazio onak nituelako. Zoritxarrez, ahaztu egin zitzaizkion, baina ohorezko itzulia ematen ari nintzela, gazte bat ikusi nuen, segurtasun neurri guztiak pasatu eta eskutan ikurrina bat zuela, niregana iritsi zen. Autoa geratu, ikurrina hartu eta ilusio handia egin zidan podiumera ikurrinarekin igotzeak.

Irabaztera ohituta zaude, baina beharrezkoa al zenuen horrelako garaipen bat?

Iaz, nahiz eta garaipenik ez lortu, oso denboraldi ona egin nuen. Fernando Alonsok 3.000 Formularen pole bat eta bi podium egin zituen lehenengo urtean, eta nik ere iaz pole bat eta bi podium egin nituen. Iazko denboraldia oso ona izan zen niretzat. Aurrean oso ondo hasi nintzen, Jaraman bigarren postua lortuta, baina Belgikan eta Frantziaren zortzigarren egin nuen, eta Italian bederatzigarren. Motorraren arazoak izan ditut, eta oso une latzak pasatu ditugu. Baina ingeniari berri bat dugu orain, eta pixkanaka gorantz egin dugu. Alemanian bosgarrenak izan ginen, eta Austrian hirugarrenak. Asteburuko garaipena egindako lanaren emaitza da.

Zer ekarpen egin ditu Stephane Trefox ingeniari berriak?

«1 Formulako talde batzuekin hizketan hasi gara»

Asteburu dotorea egin du Montmelon. Garaipen bat, bigarren postu bat, 'polea'... Bere betiko ametsarako bidean urrats handiak



DANI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Aurreko urteetan nirekin lanean aritutako ingeniaria da. Segurtasuna ematen dit, Espainiako 3 Formulako txapelketa irabazi nuen berarekin, eta bere lan egiteko era asko gustatzen zait.

Asteburu biribila izan da: entrenamenduetan denbora onena egin, lehenengo lasterketan bigarren iritsi, bigarren lasterketan irabazi...

Horrelako txapelketetan denok dugu auto berdina, baina behar bezalako prestakuntza izatea ezinbestekoa da. Autoa ondo dotorean, zu ona bazara, erraza da aurreko postuetan ibiltzea, baina autoa ez badabil ondo, oso ona izan arren, zaila izaten da aurrean ibiltzea. Txapelketa honetan, talde bateko gidari bat ondo badabil, bere taldekidea ere ondo dabil. Asteburu honetan gauzak ondo irten zaizkigu, eta poz handia eman zidan irteeran lehena izateak, baina politen lasterketa irabaztea eta talde osoa pozik ikustea izan zen.

Lehenengo lasterketan, denboraldi osoan bezala, Montagny nagusi.

Lehenengo lasterketan pneumatiko berriak jarri zituen frantzia-

rrak, eta nik bigarren lasterketarako gorde nituen. Pneumatiko berriekin irteera asko nabaritzen da. Bigarren lasterketan Karthikeyanek, Ravierek, Bernoldik, nik eta beste gidari pare batek jarri genituen pneumatiko berriak, eta berak guri ateratako denbora atera genion guk gero. Hala ere, lehenengo lasterketan lortutako bigarren postuarekin oso pozik bukatu nuen, pneumatiko zaharrak zituzten gidarien artean azkarrena izan nintzelako.

Bigarren lasterketan ondo hasi zinen, eta Karthikeyanek bakarrik jarraitu zion zure erritmoari.

Oso urduri nindoan. Alboko ispi-letatik begira denbora guztian. Ez nuen pistatik irten nahi, eta bihurtune bakoitzean akats bat egiteko beldurrez nentzen. Irabazi nahi nuen, baina tentsio handia nuen. Pneumatikoak aldatu ondoren, tarte txiki bat egitea lortu nuen, eta, azkenean, garaipena lortzeko ez nuen arazorik izan.

Pneumatikoak aldatzen ari zirela Karthikeyanek aurrea hartzeko beldurra izan zenuen?

Beldur pixka bat izan nuen, bai. Baina boxetara sartu aurreko itzulian oso gogor ekin nion, pneumatikoak oso bizkor aldatu genituen, eta horri esker, boxetatik lehen postuan irteera lortu nuen.

Helmuga lehen postuan zeharkatu zenuenean eta boxetara iritsi zenean nolako izan zen harrera?

Taldeak guztiarekin ospatzen duzu: mekanikari, ingeniari, taldeko burua, manager... Ama eta arreba ere Bartzelonan zeuden, baina, batez ere, nire aitarekin gogoratzen nintzen. Amaitu baino bi itzuli lehenago, berarekin gogoratzen nintzen.

Valentziako eta Jaramako lasterketak geratzen dira. Beste garaipen bat lortzeko aukerarik izango al duzu?

Austriatik bueltatu ginenean, Espainian geratzen ziren hiru lasterketetan podiuma edo garaipena lortzeko aukera izango nuela esan nuen. Garaipena lehenengo lasterketan iritsi da, eta Valentziaren bide berean jarraitzea espero dut. Hala ere, zaila izango da, autoaren prestakuntzan akats txikiak garesti ordaintzen da eta.

Datorren urtean 1 Formularen izateko aukerarik izango duzu?

Epsilon Euskadi taldeak duen proiektua kontuan hartuta, eta atzean Mondragon Unibertsitatea izanda, gidari probatzaile moduan sartzeko aukera izan dezaket. Lasterketako gidari bezala sartzeko ezinezkoa izango da. Zenbait taldeekin hitz egiten hasi gara, eta ez da egia Jordan taldearekin zerbait egin dugunik.



ANDOINGO UDALA

IRAGARKIA

HORNIKETEN KONTRATAZIOA

Kontratuaren xedea: Eskola kalean ibilgailuen sarrera kontrolatzeko sistema duten zedarrak azpiragarriak jartzeko hornidura eta instalazio kontratua. **Lizitazio mota:** Lizitazioak eskainiko dutena euren proposamenetan, eskaintako prezioa 40.000 eurotako baina txikiagoa izan beharko delarik. **Behin-behineko bermea:** 800 euro.

Behin-betiko bermea: esleipen prezioaren %4a. **Espedienteak non azter daitekeen eta Klausula Administratibo Partikularren Plegua non eskura daitekeen:** Andoingo Udaletxeko Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko lantzaileko bulegoetan ikusgai egongo dira, goizeko 9etatik eguerdiko 13:30era.

Proposamenak aurkezteko epea eta tokia: Andoingo Udaletxeko Udaletxeko Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko lantzaileko bulegoetan, (9etatik 13:30era), 2003.10.20a azkeneko eguna.

Andoain, 2003ko urriaren 6an - ALKATEA

Hiru koadrotik lau t'erdian

Gorabeheraz betetako partida bitxia irabazi zion atzo Gonzalezek Xalari, Tolosako Beotibarren

GONZALEZ 22
XALA 14

Iraupena: 50 minutu.
Saketik: Ives Salaberri Xala-k bi. Sebastien Gonzalezek beste bi.
Pasak: Xalak bi. Gonzalezek beste bi.
Markagailua: 1-1, 2-2, 5-2, 7-3, 7-4, 11-4, 12-5, 14-5, 14-7, 15-8, 16-11, 17-12, 20-12, 20-14, 21-14, 22-14.
Bestelakoak: Tolosako Beotibar frontoiko denboraldiko lehen partida zen atzokoa eta nahiko ongi erantzun zuen jendeak. Iparraldetik ere mordoxka etorri zen. Mikel Goñik jokatu zuen jaialdiko bigarrena, eta nabaritu zen hori sarreran.


E. TELLERIA - TOLOSA

Kosta zitzaien neurria hartzea. Galduta bezala hasi ziren biak. Lau t'erdian neurrik hartu ez zinda, kontrarioari ere ez, eta norberaren indarrei ere ez. Kas-karra egin zuten hasiera, baina pieza bitxi bezain ederrak oparitu zizkiguten gero. Xalak eta Gonzalezek ez zuten aparteko partida horietakoa jokatu atzo Tolosan, baina ikusi genituen gantxoak, bi paretak eta boleak ikusteagatik merezi izan zuen Beotibarrera hurbiltzea.

Ez Xalarena ez Gonzalezena ez da inondik ere joko arrunta. Egin ditzakete hutsik nabarmenak, baina beste inor egiteko gai ez den zerbait eskaintzen dizute hurrena. Ezkertiak dira biak, Iparraldeko trinkete eta plaza-librean zaildutakoak biak; atzo, uneka, sarea eta teilatutxoak bakarrik falta zitzairen Beotibarren orde Modernen geundela konturatzeko.

Hobeto hasi zen Gonzalez

EPEL-EN LAU TERDIKO TXAPELKETA PROFESIONALA



Xala baino. Pilota zabaldu zuen, kontrarioa mugitu, eskuin eskua bilatu, eta topatu. Ezinean Xala lehen tantoetan. Indarrak neurri ezinda, kaiolaren neurria galduta. Atzetik 11-4 zegoela hasi zen erreazionatzen.

Oso bestelako itxura hartu zuen orduan partidak. Orduan hasi zelako Xala pilotari benetan ematen. Zitzuan erabili zuen. Zabaldu kontrakantxara behin eta berriro Gonzalezen esku txakala behartu nahian. Gutxitan lortu zuen. Ez gaizki aritu zelako, Gonzalezek defentsan lan eskerge egin zuelako baizik. Airez

sartu zen askotan, zortea ere alde izan zuen dezentetan, baina kontrarioa baino lasaiago aritzeko aukera baliatu zuen eta markagailuan zeukan errentarekin ere jokatu.

15-7 eta 15-8koak izan ziren partida osoko tantorik ikusgarrienak. Bi pilotariak hiru koadroan planto eginda, aurrera begira beharrean aldamenekoari begira, traba eginez behin baino gehiagotan, pilotari lurrera erori gabe ematea helburu bakartzat hartuta... Boleak, dejadak, bi paretakoak. Hiru koadrotik lau t'erdian. Bitxi eta eder.

Ez du jendeak horrelakoetan Gonzalezengan konfiantza handia izaten. Gora eta behera ibili ohi da askotan, baina goian dabil aspaldian behera egin gabe, eta beste heldutasun eta patxada batekin jokatu zuen atzo. Estu hartu zuen Xalak (16-11 eta 17-12), baina Lekuinekoak berak eman zion arnasa kale handi samarrak eginda.

Luze eta indartsu jokatu zuen Gonzalezek, eta pilotari emenez eta gehiago arriskatuz zergatik ez ote zen hasi bere buruari galdezka Xalak. Lau t'erdian aritzeko dohainak badauzka, baina Gonzalezek arituko da hurrengo jardunaldian, Belokirekin, merezimendu osoz.

Capellan eta Galarza VI.a irabazle estelarren

Polita irten zen atzoko jaialdiko bigarren partida. Mikel Goñik erakarritu hurbildu ziren gehienak —autografoak sinatzen jarraitzen du aldageletan; bere idoloaren elastikoa jantzita eta aitonari eskutik helduta sartu zen mutikoak, bizkarrean Goñiren zirimarra zeramala irten zenean zeukan aurpegia ikustekoa zen—, baina Capellan izan zen partidako protagonista. Ongi aritu ziren laurak, baita Goñi bera ere, baina Herviaskoak hobeto asmatu zuen aurreko koadroetan (22-18). Nabarmenekoak da Xabier Galarza Galarza VI.a-ren lan txukuna ere. Asegarce enpresatik Aspera aldatu zenetik estelar bat edo beste jokatu du eta inoren inbidiarik gabe aritu da.

ESKU-HUSKA

Koka eta Beloki txapeldunak Atarrabian arituko dira gaur

Eskuz Binakako egungo txapeldunak, Juanxo Koka eta Ruben Beloki, Atarrabian (Nafarroa) arituko dira gaur elkarrekin. Mikel Unanue eta Iñigo Pascual izan dituzte kontrario jaialdiko partida nagusian. Gotik behera aldatu du Asegarce estelarra azken orduan. Esain-Ruiz eta Unanue-Beloki zirelako hasiera batean jokatzekoak.

ZESTA-PUNTA

Goikoetxeak ez zuen atzo irabazterik izan

Buruz buruko txapela jantzi osteko lehen partida atzo bertan jokatu zuen Gernikan Goikoetxeak, baina ez zuen irabazterik izan. Goitiarekin aritu zen bera, eta Arriaga-Felixen kontra galdu (30-22).

ERREMONTA

Eizagirre txapelduna, Zeberioekin, Hernanin

Galarreta bihurtu da orain Euskalen faltan astearteroko hitzordu, eta goi mailako estelarra atondu dute gaurko. Eizagirre txapelduna arituko da, Zeberio II. arekin, Altuna II.a-Lizasoren kontra.

Jaialdiak

IGANDEKO EMAITZAK

Gernika (17:00): Lau t'erdia (bi partida): Armendariz 22; Leiza 17. Berasaluze VIII.a 22; Zearra 9. Arbizu-Bengoetxea 18; Azpiroz-Albizuri 10.
Galarreta: Matxin V.a-Lander 33; Matxin IV.a-Gaztelu 35. Bereziartua-Aizpuru 38; Bitoria-J. Etxeberria 40. Sarasua-Urrutia 40; Matxin III.a-Urko 31. Uterga-Badiola 30; Larrea-Olazar 14.

ATZOKO EMAITZAK

Tolosa: Lau t'erdia: Gonzalez 22; Xala 14. Capellan-Galarza VI.a 22; Goñi II.a-Apeztegia 18. Atxa-Laskurain 22; Del Rey-Bernal 8.
Gernika: Konpa-Iriondo 25; Goixerri-Alberdi III.a 24. Gaubeka-Garrido 36; Unda I.a-Juan Pablo 45. A. Arriaga-Felix 30; Goikoetxea-Goitia 22.

GAURKO PARTIDAK

Atarrabia (19:30): Arbizu-Begino / Mendizabal-Medina. Unanue-Pascual / Koka-Beloki.
Galarreta (16:00): Matxin IV.a-Ion / Matxin V.a-Agirrezabala. Zeberio II.a-Eizagirre / Altuna II.a-Lizaso. Elizalde-J. Etxeberria / Agirresarobe-Auzmendi. Iribarren-Lander / Iturralde-Badiola.

Txapaginetik txapapera

ENEKOITZ TELLERIA

BIKAIN



Iñaki Osa 'Goikoetxea'.

Euskadiko Txapelketa hirugarren aldiz irabazi du jarraian, eta buruz buruko jokoa bere nagusitasuna berretsi. Sekretua? Julen Bereikua kontrarioak berak nabarmendu zuena: atzelari

onenaren pareko gorputza (indarra) eta aurrelari onenaren pareko jokoa (abilezia). 23 urte besterik ez dauka, eta urte askotarako txapelduna daukagula dirudi.

OSO ONGI.

Sebastien Gonzalez. Onena eta txarrena aldi berean ez baina elkarrengandik oso hurbil egiteko gai izan da beti, baina onetik ari da hurbilago aspaldian. Xalari ongi irabazi zion atzo, eta Belokiren kontra sartuko da benetako txapelketan.

ONGI

Pablo Berasaluze. Lau t'erdia neurri proposa da erasorako berak adinako sena duen pilotariarentzat. Zearraren

kontra erakutsi zuen, eta hurrena Capellanen kontra erakustea falta da orain.

Xabier Bitoria. Arraro samarra izan da asteburua erremontean, frontoi bakarrean jokatu den lehenengoa izan delako Euskal itxi zutenetik. Larunbata eta igandea kontuan hartuta, Xabier Bitoria lana nabarmendu behar da Galarretan, bi egun horietan jokaturako partidak irabazi baititu, oso maila ona emanda.

NAHIKOA

Iñigo Leiza. Galdu egin zuen Lemoakoak lau t'erdiko bere lehen partida, baina distantzia horretan zeresana eman dezakeela erakutsita. Armendarizen patxadak eta

eskarmentuak bakarrik eragotzi zion aurrera egitea.

ESKAS

Iñigo Pascual, Imanol Agirre, Oier Zearra. Badute izena eta maila erakutsi duten jokoa eta egin dituztenak baino tanto gehiago egiteko. Iñigo Pascualek 6 baino ez zizkion egin Oinatz Bengoetxeari, eta itxura kaskarra emanda. Imanol Agirre bere mailaz oso azpitik aritu zen Enrike Galarzarekin eta 5 tanto baino ez zituen lortu. Oier Zearrak Pablo Berasaluze kontrarioaren partida txukuna izan dezake aitzakia, baina ez da horrela baditu-eta dohainak 9 tanto baino gehiago egiteko.

Oiartzabalen hogeigarrena

Mendizale gasteiztarrak bigarren aldiz igo zuen Cho Oyu (8.201) herenegun, eta Ang Ritaren marka ondu du

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Zortzimilako gehien igo dituen mendizalea da Juanito Oiartzabal. Himalayista gasteiztarrak Cho Oyu (8.201 metro) igo zuen herenegun, bere hogeigarrena, eta Ang Rita sherpa nepaldarraren marka ondu du. «Lehen naiz orain, hoge zortzimilakorekin. Oso pozik nago», aitortu zuen bigarren kanpamendura iritsi zenean. Oiartzabalek azpimarratu zuenez, «Cho Oyura egindako bigarren igoera —duela hamabi egun ere igo zuen— oso gogorra izan da, hotz handia egin baitu, hoge gradu zero azpitik.

Haizeak ere min handia egin digu, lehorra izateaz gain, indartsu jo baitu. Oso gogorra izan da. Cho Oyu mendi erraza dela esaten da, baina ez da horrela. Tontakeriak alde batean utzi behar dira, eta baikor pentsatu. Zortzimilako bat da, eta horrelako mendi bat igotzea beti da oso zaila eta oso gogorra. Inoiz egin dudana igoera gogorrenetako bat izan da».

Madariagak ere gaina egin du

Oiartzabal ez da izan Cho Oyu igo duen euskal mendizale bakarria, Juan Ramon Madariaga bilbotarra ere

gungo eta inoizko mendizale onenak omenaldian izatea espero dute antolatzaileek. «Oso pozik hartu dut omenaldiaren ideia, Ibañezen eskuetatik jasoko dudalako, batez ere. Hari eskaini nahi diot gain hau, inork baino gehiago merezi duela».

Atzokoarekin hoge aldiz igo du zortzimilakoren bat Oiartzabalek: Everest (bitan), K-2, Kanchenjunga, Lhotse, Makalu, Cho-Oyu (hirutan), Dhaulagiri, Manaslu, Nanga Parbat, Annapurna, Gasherbrum I (bitan) eta II, Hidden Peak (bitan) eta Shisha Pagma.

Gasteiztarrak merezitako saria jasoko du, Gasteizko Mendi Elkar-teak omenaldia egingo baitio urte amaieran. Urteetan haren ondoan egon diren parte-hartzeaz gain,

Ⓢ Izen propioak



ARVYDAS MACIJAUŠKAS

Tau Baskoniako jokalaritua baskoniako bi-kain ekin dio ACB Ligari: herenegun, 36 puntu egin zizkion Auna Gran Canariari. Macijauskasek 38 minutu jokatu zituen, eta estatistika bikainak lortu: 13tik 11 jaurtiketa libreetan, 11tik 8 biko jaurtiketetan, 7tik hiru hiruko jaurtiketetan; zazpi errebotere hartu zituen eta lau baloi lapurtu. Bere lana erabakigarria izan zen Gasteizko taldeak Gran Canariari 79-82 irabazteko. Lituaniararen lanak merezitako saria jaso du, eta jardunaldiko jokalaritua onena izendatu dute.

ESKUBALOIA

Barakaldok egurra jaso zuen Kantabrian

Barakaldok astindu ederra jaso zuen herenegun Santanderran, eta Kantabriak 35-22 irabazi zion Asobal Ligako bosgarren jardunaldian. Kantabria partida hasieratik jarri zen aurretik markagailuan, eta inolako arazorik gabe irabazi zuen. Arkaitz Vargas izan zen onena bizkaitarren artean: albokoak zazpi gol egin zituen.

BELAR-HOCKEYA

Atletico San Sebastianek eta Realak irabazi egin dute estreinakoan

Atletico San Sebastianek eta Realak ondo hasi dute Liga, eta lehen jardunaldiko partidak irabazi egin dituzte. Atletico 4-3 irabazi zion Club de Campori, eta Realak 1-4 Ourenseri.

ERRUGBIA

Bera Berak eta Getxok galdu egin dute, eta Ordiziak irabazi

Espainiako Ohorezko Mailako hirugarren jardunaldia ez zen ona izan Bera Bera eta Getxoren artean; El Salvador eta Alcobendasen aurka galdu zuten, 50-19 eta 20-19. Ohorezko B Mailan, berriz, Ordiziak garaipen bikaina lortu zuen Barzelonan, 27-37.

NBA

Gasol 2005a arte Memphisen eta Mutomben New Yorkera edo Filadelfiara

Pau Gasol katalanak 2005. urte arte jokatu du Memphisen. Dikembe Mutombok, berriz, New Yorken edo Filadelfian jokatu du datorren denboraldian.



Alemania eta Suedia Munduko Txapelketako finalean

Alemaniko eta Suediako selekzioek jokatu dute AEBetako Munduko Futbol Txapelketako finala, igande honetan. Alemaniak etxeko taldea

kanporatu zuen finalerdietan, egungo txapelduna eta txapelketa irabazteko faborito nagusia. Alemaniarek 0-3 irabazi zuten. Suediak, berriz,

Kanada utzi zuen finaletik kanpo. Kanadak hartu zuen aurrea markagailuan, baina Suediak partidari buelta eman zion: 1-2. TOM TREICK/EFE

Peugeot 206 autoa nagusi

Hego Euskal Herriko Rallyak zaleen bultzada eta antolatzaileen lan ona izan du

JON ORDOÑEZ - DONOSTIA

Hego Euskal Herriko Rallya garai batean izan zuen distira lortzeko bidean dela dirudi. Larunbatean lasterketa oso polita ikusi ahal izan zen, eta gidarien trebeziak, zaleen babesak eta antolatzaileen lan onak rally oso txukuna utzi zuten Gipuzkoa eta Nafarroako errepideetan.

Lehen zatian 90 autok hartu zuten irteera, eta horietatik 56k amaitu zuten rallya. Enrique Garcia Ojeda gidariak eta Raquel Fernandez gidari ondokoak irabazi zuten lasterketa, Peugeot 206 batekin. Auto hori izan zen rallyan nagusi; izan ere, Joan Vinyes bigarren sail-

katuak —8,7 segundora— auto berdina gidatu zuen.

Lehen bi sailkatuek lehia estua izan zuten egun guztian euren artean, eta Daniel Sordok ere estu hartu zituen (Mitsubishi Lancer). Gaintzan, lehen zatian, Vinyes izan zen azkarrena, eta bigarrenengan, Zerainen, Sordo. Ibilbide horietan, hirugarren eta laugarren zatietan, Alberto Heviak irabazi zuen.

Lehia arratsaldean erabaki zen. Garcia Ojeda ez zen fin aritu goizean, baina arratsaldean karrera irabazi zuen. Genben eta Girgillaon ez zuen euririk egin, eta errepidea lehortu ere egin zen, baina Lekunberrin azken zatian busti egin zen

berriz ere. Genben irabaziz hasi zuen arratsaldea Garcia Ojedak. Seigarren zatian, Vinyesekin berdindu zuen, eta zazpigarrenean, Sordok irabazi zuen. Azken hiru zatietan Garcia Ojedak (Genben eta Girgillaon) eta Sordok irabazi zuten (Lekunberrin).

Sordo azkenean sailkapenetik kanporatu zuten, katalizadorean irregulartasun bat sumatu ziotelako, eta Sergio Vallejo amaitu zuen hirugarren. Vallejo irabazi ez zuenez, ordea, Espainiako Txapelketa Miguel Angel Fusterren eskuetara joan da, larunbatean Hego Euskal Herriko Rallyan parte hartu ez zuen arren.

MARIA SHARAPOVA

Errusiako tenislari gazteak bere kirol ibilbideko lehen torneo irabazi zuen atzo. Sharapovak 2-6, 6-2 eta 7-6 (7-5) irabazi zion Aniko Kapros hungariarari, Tokioko Irekiko finalean. 16 urteko tenislariaren balentria ez da banakako titulua irabazte mugatu, eta herenegun, bikotekako finala ere irabazi zuen, Tamarine Tanasugarn thailandiarrekin. Anna Kournikovaren oinordekotzat jotzen dute askok Sharapova. Ondo hasi da, behintzat, Kournikovak ez bezala, lehen torneo irabazi baitu.

KARIDADEKO BENTA. Azken bi urteotan zuzeneko emanaldi biziak egin ondoren, Zumaia taldeak lehenengo diskoa argitaratu berri du.



KARIDADEKO BENTAK Bilboko kaleetan bertan aurkeztu zituen bere kantuak joan den astean. MARISOL RAMÍREZ/JARGAZKI PRESS

TITIRITEROEN BANDA

BERTSOA ETA MUNDUKO HAINBAT TXOKOTATIK GURERA EKARRITAKO DOINUAK UZTARTU DITU KARIDADEKO BENTAK LEHENENGO DISKOAN

MIKEL LIZARRALDE - ZUMAIA

Talde ez ohikoa da Karidadeko Benta, inondik ere. Ez ohikoa taldekideen artean bertsolari bat, aktore bat eta arte plastikoe-tan aritzen diren bi lagun daudelako; eta ez ohikoa, flamenkotik, Marokoko eta Iraneko doinueta-tik edo *cha-cha-cha*-tik edaten duelako euskal tradizioarekin lotura zuzena duen proiektu bat gauzatzeko.

Munduko musikak aipatu izan dira Karidadeko Bentaren proposamenaren nondik norakoak azaltzeko, baina hitz hori gero eta gutxiago gustatzen zaiela aitortu dute Jon Maia eta Inazio Tolosa taldekideek, Zumaia kafetegi batean eginiko hitzorduan: «Ematen du horretara propio joan garela, baina oso modu naturalean sartu dira doinu horiek». Hain zuzen ere, Karidadeko Benta aukerarik badu, garai bateko herri orkestratan eta jazbanetan aurkituko dugula dio Maiak: «Herri txiki-tako erromerietan aritzen ziren jazbanen bertso eguneratua proposatzen dugu. Gelatxok, Kaxianok eta halakoek tangoa jotzen zuten, baina ez zen beren

asmoa Buenos Airesko portueta-ko tangoak egitea. Musika kontzeptu bat hartu eta beren forma ematen zioten. Eta guk espiritu berarekin egiten dugu, nahiz eta haiek baino kontzeptu zabalago eta eguneratuagoa dugun».

Jon Manzidorrek sortu du abesti gehienek musika, eta taldearen sonoritatea, neurri handi batean, bere errua dela uste dute Tolosak eta Maiak. «Balkanetako musika edota arabiarra gustatzen zaizkio eta hori islatzen da melodietan eta konponketetan. Baina, egia esan, guk geuk ez genuen Goran Bregovicen lana ezagutzen orain gutxira arte». Bregovicen izena, nolahi ere, ez dago soberan Karidadeko Bentaz hitz egiterakoan, hark film batzuentzat eginiko lanetatik oso gertu baitaude zumaia-rrak: «Asto batek tiratzen duen gurdia zahar batekin Europan biraka eta leku bakoitzetik zerbait jaso eta bere erara moldatzen duen taldea da Karidadeko Benta». Espiritu «titiritero eta ijito» horrek lotura zuzenak erakusten ditu zenbaitetan —*Paulino Uz-kudun* abestian adibidez— Paolo Conte edota Tom Waitsek landutako abesti batzuekin, baina

baita ahuntzarekin kalera ateratzen diren talde xumeekin ere: «Ahuntzarekin ibiltzen diren familien musika gure erreferentzietako bat da zalantzarik gabe», dio Maiak.

Bertsoak egiten du *Karidadeko benta* (Gaztelupéko Hotsak) osatzen duten kantuen arteko lotura, eta Tolosaren ustez «proiektuaren sustraia bertsoan dago». Hain zuzen ere, bertsoaren eta musikaren arteko lotura espero baino errazagoa egin zaiela dio: «Ematen du bertsoa, musika aldetik, bide estu batean egon dela beti, eta gu saiatu gara bide hori zabaltzen. Adibidez, Mantxi azaltzen zen esaten zortziko txikirako doinu bat zuela eta musika arabiar bat zen. Ohartu gara munduko beste musika batzuek ere bertsoen neurria dutela. Gaur egun bertsoari oso lotuta daudela iruditzen zaizkigun doinuak garai batean ez ziren bertso doinuak. Irratian entzuten ziren, herrikoiak bihurtu eta gero bertsoak hartu eta bereak egin ditu».

Diskoa ixten duen kantua, *Partiada tristea Ternuarat* epopeia gogorra, izan liteke bertsoaren eta ez-ohiko doi-



JON MAIA

(Karidadeko Bentako kidea)

«Gurdi zahar batekin Europan biraka eta leku bakoitzetik zerbait jasotzen duen taldea gara»

nuen arteko harremanen isla garbiena, duela hiru mende egindako koplak zaharrak iranian kantu herrikoien baten doinuekin jantzi baititu taldeak: «Mantxi etorri zen melodiarekin eta perfektu egokitzen zen».

Bertsoarekiko lotura hori bere abesteko moduak indartzen duela deritzaio Maiak, ez baitu bere burua kantari ikusten: «Nik ez dut abeslari izan nahi, nahia-



go dut bertsolari nortasun horretan mantendu. Garetik zerbaiten bila ihes egin gabe, garen horretatik gure salda prestatzen saiatzen gara».

Pello Errotaren bertsoa

Pello Errotaren bertso ezagun bat eta bertsolariak han aipatzen zuten Karidadeko benta mitikoa daude Zumaia taldearen oinarrian. Maiak dioenez, «garai batean esaten zen inoiz botatako bat-bateko bertso onena zela, sei izen sartzen zituelako hamarrek txiki batean». Baina bertsoaren lehenengo erriman azaltzen den Karidadeko bentaren misterioak piztu zuen Maiaren interesa: «Benta hartan sei bertsolari egotea eta hango gauetan batuko zen bertso, ardo eta festa giroa oso iradokitzailea egiten zitzaidan. Taldearen oinarrian ere ardo eta festa giro hori dago».

Villabona eta Zizurkil artean zegoen benta zaharrean ez bada ere, Jon Maiak, Aran Santamariak, Inazio Tolosak, Jon Manzidorrek eta Imanol Manterolak ideien eta musiken benta txiki bat osatu dute: «Sortzaile bat baino gehiago elkartzen denean ez da buru argi bat egoten eta erabakiak kolektiboak hartzen ditu. Guk, behintzat, asko hitz egiten dugu, bakoitzak bere ideiak dituelako».

Diskoa joan den astean aurkeztu zuten Bilbon, modu bixian aurkeztu ere. Taldearen jazban espirituari leial, Kale Nagusian jotzen hasi ziren eta hiru kantu bakarrik abestu bazituzten ere, hamahiru euro jaso zituzten. Gainera, eta horrek pozten du Maia, ikusle batzuek ekialdeko Europatik etorritako talde bat zela pentsatu zuten: «Entzun genien esaten zein azkar ikasi dugun euskaraz abesten».

Europarako jauzia egingo du Gure Arteak

Euba, Amondarain eta Salazar saridunen lanak Berlinen erakutsiko dituzte otsailean

IVAN SANTAMARIA - GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak bi urtean behin antolatzen du Gure Arteak, arte plastikoak lantzen dituzten Euskal Herriko artistei zuzendutako deialdia. Iragan urtean hiru sortzaile saritzea erabaki zuen epaimahaiak: Jon Mikel Euba, Jose Ramon Amondarain eta Pepo Salazar. Ia urtebete igaro ondoren, hiruren lanik berrienak ikusteko aukera dago Artium museoko Ipar aretoan, datorren urtarrilaren 18a arte.

Beritasunik badu Gure Arteako planteamenduak. Izan ere, hemendik aurrera sarietako behin betiko egoitza izango da Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoa. Datozen urteetan sortzen diren erakustaldiak estreinako aldiz paratzeaz gain, saritutako lanen gordailua izango da Gasteizko museoa.

Gainera, ahalegin berezia egin nahi izan dute Gure Arteak sariko sustatzaileek. Orain arte erakusketak soilik Euskal Herrian eta Espainiako pare bat hiritan egin ahal izan dira. Datorren otsailean eta martxoan, ordea, Berlingo Kunstlerhaus Bethanien aretoak erakutsiko du Eubaren, Amondarainen eta Salazarren lana.

Artiumek zabaldu berri duen erakusketak ia 900 metro koadro betetzen ditu. Ibilbide bat osaturik dagoen arren, artista bakoitzak badu espazio propio bat. Javier Gonzalez de Durana

Artiumeko zuzendariaren iritziz, gaur egungo Euskal Herriko artearen nahiz nazioartekoaren joerak zeintzuk diren ezagutzeko «erradiografia fidela» da hiru saridunen lana.

Finkaturik dauden hiru artisten erakusleioa

Erakusketako komisarioa Iñigo Cabo izan da. Ia zortzi hilabetez harremanetan izan da Jon Mikel Euba, Jose Ramon Amondarain eta Pepo Salazarrekin. Haren aburuz, aurtengo saridunek badute lotzen dituen zerbait, «ibilbide oso finkatuak» dituztela, hain zuzen. Horrek Gure Arteko erakusketak garrantzi gehiago hartzea eragin du, Caboren iritziz.

Denbora dezente behar izan dute erakusketa osatzeko, Jon Mikel Eubak zehaztu duenez. Izan ere, hiru saridunek konpromiso ugari zituzten euren lanak erakusteko, eta ondorioz, kalitatezko eskaintza egin ahal izateko ahalegin berezia egin behar izan dute.

Artiumek aurkeztu duen erakusketa Jose Ramon Amondarainen marrazkiekin abiatzen da. Formatu txikiko obrak dira, eta artistak margolariaren eta margoaren inguruan gogoeta egiten du. Ikusleari ezaguna egiten zaion kokapena eta antolakuntza da, eta izkinan beste alderaparaturik dauden sei margolan handiren ataria da.



JOSE RAMON AMONDARAIN eta Jon Mikel Euba, Pepo Salazarren irudiaren atzean. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Amondarainek planteatzen dituen jokoen arten, bada olioarekin eginiko eskultura bat, eta, haren aurrean, obra irudikatzen duen olio erraldoia, eskulturaren eta pinturaren arteko harremanaren isla. Beste koadro handi batean Artiumeko zaintzaileek erabiltzen dituzten aulkitxo bat pintura handi bateko objektu bihurtu du.

Pepo Salazarren ohiko erreferentziak

Erakusketan aurrera eginez gero, Pepo Salazarrek eginiko argi-kartel handia dator. Heavy musikako Iron Maiden taldearen izena hartuta, hizkiak banatu eta beste bi mezu sorrarazi ditu, arteak izan ditzakeen irakurketa ezberdinak agerian jartzeko asmoz. Jarraian, bideo eta soinu instalazio bat dator, Salazarrek Artiumen bertan ekoiztu duena. Pertsonaia gazteak aurkezten ditu artistak, bortxazko jarrerak eta sormen keinuak nahasten dituzten irudietan.

Jon Mikel Eubak, berriz, formatu handiko marrazki handi batzuk sortu ditu Gure Artearako. *Gatika doble final* izeneko obra bideografikoari buruzko *story-board* antzeko bat osatzen dute marrazki erraldoiek, komikitik gertu dagoen irudi eta hizki nahasketagatik. Mezuak, beti testuingurutik aterata, amaiera biolentoa izan dezaketek ekintzak iradokitzen dituzte askotan. Halaber, bi bideoekin osatzen da Eubaren presentzia.

Berlingo txangoarekin bat eginenez, 2004ko otsailean, hiru artistei eta erakusketari buruzko katalogoa kaleratuko da.

Enegarren postala

Jabier Muguruza seigarren diskoa datorren astean salgai


Resistencia, world music-eko disketearen eskutik



Behin behineko aurkezpen kontzertuen zerrenda

03-10-09: Iruñea
 03-10-10: Terrassa
 03-10-11: Mataro
 03-10-23: Bilbo
 03-11-06: Baiona
 03-11-07: Tolosa
 03-11-08: Gasteiz
 03-11-14: Basauri
 03-11-15: Zornotza
 03-11-19: Madril
 03-11-20: Sevilla
 03-11-21: Cadiz
 03-11-22: Granada
 03-11-29: Hostalets de Balanya
 03-11-30: Bartzelona
 03-12-04: Zaragoza
 03-12-05: Sabadell
 03-12-06: Girona
 04-01-02: Laudio
 04-01-31: Irun

www.jabiermuguruza.com



ARTIUMEK hiru saridunen lan berrienak biltzen ditu. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Krisi hotsak Galizian

GALIZIERAZKO LIBURUGINTZA LARRIALDIAN. Salmentak neurri kezagarrietaraino jaitsi ondoren, bizi duten egoera larriaren inguruko debatea zabaldu dute galizierazko idazleek eta argitaratzaileek

JUAN LUIS ZABALA

Larrialdi egoera adierazten duen argi gorria piztu dute Galiziako idazleek eta editoreek: galizierazko liburuaren salmentak oso neurri kezagarrietaraino jaitsi dira, eta arazoari heltzeko debate baten premia dagoela planteatu dute. Irtenbideak bilatzeko proposamenik ere egin da, baina, batzuen ustez behintzat, PPK Galiziako Xuntan agintzen jarraitzen duen bitartean ezinezkoa izango da arazoari benetan aurre egitea.

«Azken urteetako krisirik larrienean gaude, unerik txarrean», dio debatearen bultzatzaile nagusiak, Miguel Anxo Fernan Vello idazle eta Espiral Maior argitaletxeko zuzendariak. «Liburugintzako sektore osoak aitoritzen du krisia. Beharakada handia izan dute liburu denden bidezko salmentek. Galizierazko irakurleen kopuruak behera egin duela erakusten du horrek».

«Ez da bat-bateko ezer gertatu, baina apurka-apurka galizierazko liburugintza behea jotzeko gertu egotera iritsi da», Suso de Toro idazlearen ustez. «Eta ez bakarrik liburugintza. Galiziera bera dago behea jotzean».

«Azken hamarkadan %30eko beharakada izan du ikastetxetako ikasleen kopuruak, eta irakaskuntzaren gailegizazioak ez du merkatuaren berritze baterako beharko litzatekeen irakurle belaunaldi bat ekarri», azaldu du Fernan Vellok, krisia eragin duten motiboen erantzutean. «Horretaz gain, liburutegien sare publikoak ez du funtzionatzen, Galizian argitaratutako liburuak ez baitira liburutegietara arazoizko epe baten barruan iristen, urteroko aldizkotasunez baizik, eta liburutegi guztietara iritsi gabe gainera».

Liburu denden alorrean ere bada hutsunerik, Fernan Velloren ustez: «Galizierazko liburuaren inguruko sentiberatasun handiagoa izan dadin saiatu arren, ez da horrelakorik lortu. Liburu dendena oso alor garrantzitsua da kulturaren normaliza-

ziorako, Administrazioak arduraz zaindu eta modernizatu beharrekoa. Salbuespenak badiren arren, horrelakorik ez da ikusten Galizian».

«Aisialdiaren erabileraren aldaketa orokorra» ere kontuan hartu behar dela dio Fernan Vellok, motiboen zerrenda egitean. «Ikus-entzunezko moduak nagusitzen ari dira, eta gazte ugari irakurketaz kanpoko aukeretara bultzatzen du horrek». Krisi ekonomikoa ere ez da inondik ere laungarri, «are gutxiago *Prestige efektua*-k krisi hori larritu egin duela aintzat hartzen badugu».

Hedabideetan «ikusiezinak»

Horri guztiari «Galiziako argitalpen alorraren ahultasuna» gaineratu behar zaio Xerais argitaletxeko arduradun Manuel Bragadoren ustez. «Hala gure komertzializazio egituretan nola hedabideetan dugun agerpenari dagokionean, oso ahulak gara. Ikusiezinak gara hala liburu dendetan nola hedabideetan, baita hedabide publikoetan ere». Galiziako Telebistak ez du literatura-ri eskaintako saiorik ematen.

Bere burua ezagutzera emateko, duela 15 urte baino egoera zailagoa du egun galizieraz idazten duenak, Suso De Tororen ustez: «Idazle batzuk publiko bat aurkitu dugu Espainian, Espainiako sisteman, gaztelaniaren aduana pasatuz, baina egun duela 15 urte baino zailago da aduana hori zeharkatzea: batetik, Espainiako mundua, soziologiki nahiz politikoki, asko itxi delako; bestetik, galizieraz idazten duenak ez duelako hedabideetan agertzeko ia batera aukerarik».

PPren Administrazioak egindako lanaren ondorio da egungo egoera, De Tororen ustez, «hizkuntzaren aldeko politika aktibo bat ez garatu izanaren ondorio. Gaztelaniari galiziera zapaltzen jarrai dezan utzi zaio. Egiten den guztia ekimen pribatutik egiten da. Eta kulturatik kanpo ere, arlo guztietan, nekazaritzan eta arrantzan adibidez, guztian, Galiziako gizartea itotzen ari da PP,



IKASLE KOPURUAREN jaitsierak eragin oso kaltegarria izan du. FALCO VILABARROS

eta liburugintzan gertatzen dena ikuspegi zabal horren barruan kokatzen da. Kulturarik gabeko jende beldurtiz osatutako gizartea nahi du PPK».

«Xuntak aldarrikatutako elebitasun harmonikoaren doktrina galizieraren desagertzea bultzatzen du», Xose Luis Mendez Ferrin idazlearen ustez, «ez baitio alderdi ahulari, galizierari, laguntzarik ematen. *Laissez faire, laissez passer* hutsa da PPrene politika, eta hori indartsuenaren aldeko jokabidea da, gaztelaniaren aldekoa».

Proposamen batzuk plazan

Egoeraren larriaz ohartuta, «mahai gainean kolpea» eman du Fernan Vellok, «debatea zabaldu nahian». Galizierazko liburuak liburutegietara arinago —«hiru hilabetetik behin, esaterako»— eta modu egokiagoan —«diburu-

tegi guztietara iritsiz»— zabalteko sistema bat abian jartzea da, Fernan Velloren ustez, epelaburrean egin beharreko lan bat. Horretaz gain, «liburuaren eta irakurketaren aldeko itun baten beharra» ikusten du, «Administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko sinergiak batzeko».

«Argitalpenaren alorra funtsezkoa da kultur normalizaziorako», Fernan Velloren ustez. «Horregatik, Galiziako Liburuaren Lege bat beharko litzatekeela uste dut ekinbide hori alor ekonomikoko estrategikoko gisa hartua izan dadin». Horrekin batera, irakaskuntzan irakurzaletasuna bultzatzeko bideak landu beharra dagoela ere uste du.

«Galizieraren erabileran, kontzientziarioz eta bultzadaz gain, kontrola ere beharko litzateke», Xose Maria Alvarez Caccamo idazlearen ustez. «Xuntak galiziera erabiltzera behartzen di-

EKIMEN BERRIA

Batzorde bat abian Kulturaren Kontseiluan

Carlos Casares idazle eta Galiziako Kulturaren Kontseiluko lehendakari zenak sortu eta, haren heriotzaren ondoren, Victor Freixanasek bideratutako ekimena da Kulturaren Kontseiluaren barruan liburugintzaren industriaren inguruan lan egiten hastar den batzordea.

Batzordeko kideetako bat izango da Miguel Anxo Fernan Vello. «Liburuaren egoeraren behatoki moduko bat izango da», aurreratu du Fernan Vellok. Galizierazko liburugintzak egun bizi duen egoera larriaren aurrean, «irtenbide positiboak aztertu, debatitu eta kontsentsuatzeko ahalegina» egingo du batzordeak.

Nahiz eta Gobernutik independentea izan, Galizieraren Akademia bezala, Galiziako Kulturaren Kontseilua entitate ofiziala da, maila eta ospe gorenekoa, eta bertako batzorde baten lanak indarra eta benetako eragina izan dezakeelakoan dago Fernan Vello, eta horretan saiatuko dela agindu du.

tu ikastetxeak, baina gero ez dago erabilera horren kontrolik. Eta erakunde publikoetan ere beharko litzateke kontrola, ez baitute galiziera erabiltzen».

«Galizierazko irakurketak kausa nazionala izan beharko luke, Manuel Bragadoren ustez. «Galizierazko irakurketaren plan nagusi bat» proposatzen du horrenbestez. Irakurzaletasuna sustatzeko ekimenez gain, alorra indartu behar dela dio Bragadok. Ez du erraza ikusten hala ere konponbidea: «Egoera politikoak blokeatua dauka Galizia. Oso elkarriketa gutxi dago Administrazioaren eta oposizioaren artean, eta, oro har, gizarte zibilean, eta areago hizkuntz normalizazioaren alde dagoen gizarte zatian».

Suso de Torok bide bakarra ikusten du aurrera egiteko: «PPk Xuntako Gobernuaz uztea da ezinbesteko urratsa».

M.A. FERNAN VELLO (Idazlea eta editorea) «Azken urteetako krisirik larrienean gaude, unerik txarrean»	MANUEL BRAGADO (Editorea) «Komertzializazioan nahiz hedabideetako agerpenetan, oso ahula da gure alorra»	SUSO DE TORO (Idazlea) «Kulturarik gabeko jende beldurtiz osatutako gizartea nahi du PPK»	X.M. ALVAREZ CACCAMO (Idazlea) «Kontzientziarioz gain, galizieraren erabileran kontrola ere behar da»	X.L. MENDEZ FERRIN (Idazlea) «Xuntak aldarrikatu duen elebitasun harmonikoak kalte egiten dio galizierari»
--	---	--	--	---

Alfonso Irigoienek ondare bibliografikoa eratu dute

Euskaltzain osoa izandakoaren ikerlanak jaso ditu Bertsozale Elkarteak

IRUNE BERRO - BILBO

Alfonso Irigoienek (1929-1996) sortutakoa ezin ahantz dezake euskal kulturak. Euskal hizkuntzaren, bertsoaritzaren eta literaturaren alde lan egiteko ehun urtez biziko zela esaten zuen. Ez zen hala gertatu. Baina ehun urteak bizitzera iritsi ez bazen ere, lan izugarri handia egin zuen bere ibilbide oparoan. Eta lan hori guztiari bildu du Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, Foru Aldundiaren laguntzarekin; Alfonso Irigoienek bilduma bibliografikoa eratu dute. Eta Irigoienek omenez atunduriko jardunaldien barruan erakutsiko dute, urriaren 8tik 10era bitartean, Irigoienek sortzerian, Aulestin. Horren ondoren, Bilbon jasoko dute bilduma, Foru Artxibategian. Halaber, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen web orrian aztertzeko parada izango da: www.bertsozale.com helbide elektronikoan, hain zuzen. Bertsozale Elkarteak prestatzen dabilen *Bizkaiko Bertsoaritzaren III* liburua sortzeko abiaburua izango da Irigoienek senitartekoek lagatako dokumentuekin osatutako funtsa.

Euskaltzaina izanik egin zituen dokumentu guztiak jaso ditu bildumak, eta Eusko Ikaskuntzarekin eta Foru Aldundiarekin gauzatutako hainbat proiektu ere bai. Literaturaren alorrean erdietsi zituen bekak eta sariak ere bildu ditu Bertsozale Elkarteak. Halaber, Deustuko Unibertsitatean irakasle gisa eginiko lana ikusi daiteke ondare bibliografikoan. Bertsoaritzaren eremuan, Bizkaian zein Euskal Herriko gainerako herrialdeetan bultzaturiko proiektuak ere jarriko ditu herritarren eskura bilduma osatu berriak; bertsoaritzari buruzko 1.700 agiri, orotara. Irigoienek sortutako hainbat idazlan, hitzaldi eta ikerketa lan. Horiez gainera, 3.677 liburu eta argitalpen batu dituzte.

Irigoienek ondare bibliografikoa eratu dute

Irigoienek funts bibliografikoa osatzearen kariatara, haren ondare bibliografikoa eratu dute. Irigoienek funts bibliografikoa osorik ikusi ahal da Aulestiko udaletxean, Irigoienek berak sortutako margoekin eta eskulturrekin, asteazkenetik hasi eta



ALFONSO IRIGOIEN euskaltzain osoa izandakoak bertso txapelketak sustatu zituen 1958. urtetik aurrera. **BERRIA**

EDUKIA

Bertsolaritzaren inguruko 1.700 agiri eta 3.600 liburu eta argitalpen batu dituzte, besteak beste

JARDUNALDIAK

Irigoienek sortutakoari buruzko hitzaldi bana emango dute Abel Muniategik eta Adolfo Arejitak

ostirala arte. Urriaren 8an, asteazkenean, Irigoienek Bizkaiko bertsoaritzari eginiko ekarpenari buruz mintzatuko da Abel Muniategi; *Alfonso Irigoien, Bizkaiko Bertsoaritzaren eragile* goiburua du 19:00etatik aurrera Aulestiko udaletxean eskainiko duen hitzaldiak. Urriaren 9an, Adolfo Arejita ariko da Irigoienek filologo alderdiari buruz

Aulestiko udaletxera batzen diren ezagutza handituz guran. *Alfonso Irigoien euskaltzale eta filologoa* izenburuko mintzaldia eskainiko du, 19:00ean hasita. Irigoienek bertsoaritzarekin izandako lotura sakona azpimarratuko du jardunaldien bukaera ekitaldi legez antolaturiko bertso saioak; Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Enbeita, Arkaitz Estiballes, Iratxe Ibarra eta Gorka Ostolaza ariko dira bertsoan, ostiralean, 20:00etatik aurrera.

Euskaltzale amorratua

Euskararen eta Euskal Herriko usadioen gainean makina bat ikerlan egin zituen Irigoienek. Deustuko Unibertsitatean eskolak eman zituen; Euskarazko Katedra eskuratu zuen.

Garrantzi eta interes handiko lanak egin zituen toponimiari, antropologiari eta euskararen historiari buruz. Patrom, Patronymica Romanica izeneko Europako erakundeko partaide izan zen.

Leihatila ① IÑIGO ARANBARRI (Idazlea)



Der Preis

Pozarren entzungo loike Franz Kafkak funtzionarioari: «Beste gauzabatzukalda daitezke Euskadi sarien oinarri-arauetan, baina hori ez». «Hori» idazle edo itzultzailearen sinadura da, non honetaz, borkaz, deialdiko oinarri-arauei onarpena eman behar dien.

«Nik ez dut neure burua sari horretara aurkeztu barren!»

Pozarren entzungo loike biktimari, Austria-Hungariako Inperioaren burokrazia matazan horren kasu bitxirik ezagutu ez zuen *Prozesua* eta *Gaztelua*-ren egileak.

Fikzio onetan bezala, huskeria dirudi, baina ematen duen baino gehiago dago jokoan. Sarira bere burua aurkeztu ez duen idazlea sinatzeri behartzen da. Ikusi egiten du Izagirre, etxean lasai, eta bat-batean deia: «Finalisten artean zaude, baina sinatu beharra daukazu aurrera jarraitzeko». Ez da halako zozketa batean apartamentua tokatu zaizula Torreviejana eta saria eskuratzeko hiriko hotelik aseptikoenera deitzen zaituen enpresa iruzurgile bat. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa da horrela jokatzeko ari dena.

Egoera absurduak badu, bere horretan, logika bat. Teknikaria izan arren politiko baten moduan mintzo den Arturo Garcia Fieles berak argitzen digu protokoloaren zergatia: «Horrela jokatu ezean, gerta zitekeen saridun aukeraturako finalista ez agertzea saria emateko saioan, eta saria eman gabe geratzea».

Hori da orduan...

Zurtu egin nau funtzionarioaren zintzotasunak. Eskertzen diot ahoan legarrik gabe hitz egin izana. Orain badakigu Euskadi sariak zer diren, «han egotea», halako lorontzi eder bat lehendakariaren edergarri, idazlearen lanari emandako sari baino. Ez zitekeen garbiago mintza. Berdin da idazleak zer iritzi duen, zein den honen egoera, lotsatia den edo ez dituen ekitaldi publikoak maite. Esku burdinak jarrita daramate saria jasotzera. Hala agertuko da argazkian, Euskal Erdiko lehendakariaren ondoren, irribarretsu. Eta lotuta. Sariak ezkutatu dizkio eskumuturrak.

Memoriaren garban araka eman dut arrastia. Zinema munduko adibideak datozkit errazen, Oscarra eman arren ekitaldira joan ez zirenak. Marlon Brandok emakume apatxe bat bidali zuen bere ordean, Oliver Stonenahiago izan zuen Chiapasera egin, Woody Allenen klarineta jo... Badakit izan zela Nobel sariari uko egin zion idazle bat... Jean Paul Sartre izan zen, 1958an. Eta jaso ez bazuen ere, nobeldun da. Saria berarena da. Ez jasotzeko hautua bezalaxe. Euskadi sarian, berriaz, epaimahaiak gauza bat erabaki arren, kanpoan zara administrazioaren esanetara makurtu ezean. Aktan zaude baina ez agiri ofizialean. Bestalde, Izagirre ez da Sartre, ez diu uko egin sari lortzeko aukerari, sinatzeari baino. Zer sinatzeari ordea?

Sari bat jasotzeko dokumentu bat sinatze behartzeaz zentsura politikoa deitzen zaio. Larderia absurdua. Literaturatik kanpo, eta sari emate batean baino ekitaldi serioagoetan aritzeko, ez dira euskal politikoko inposaketaz mintzo, garai batean Movimiento Nacionalaren legeen antzera Konstituzioa zin egitera behartzen dituztenean? ETaren jarduna arbuatzen duela sinatu behar du Osakidetza erizain laguntzaileak? Helduko da, gauzak dauden bezala, balizko Navarra saria jasotzeko Ibarretxeren planaren kontra zaudela dioen agiria sinatu behar izatea bezalaxe.

Iazko sariak datozkit akordura, eta finalista bat. Irribarre gaiztoa atara zait, nahi gabe. Lortu zuen administrazioak erakunde publiko horrentzat ere lege-hausle ageriko, eta beraz ikusi orduko atxilotu beharreko gaizkilea den Joseba Sarriandiarren sinadura? Eta irabazi izan bala, hitz egin zuten nola ekarriko zuten Gaztelura, barkatu, Jauregira? Pentsatzeko da antolatzaileentzat, logika ikusita, ordezkioa agertuko balitz asko galduko zuela argazkiak, noski.

Hau baita gure Euskadi saria, oso modako hitza, argazki bat.

Beharrezkoa izan da Koldo Izagirreraren plantoa, sariari distira askatasun bahiketarik ematen diola ikusteko. Litekeena da inor ez ohar-tzea orain arte honetaz? Litekeena da?

Sinetsi nahi dut Izagirreraren duintasun aldarria arte ez dutelako ikusi adostu dutela administrazioarekin Euskal Idazleen Elkarteak, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak eta Ipar Atea elkar-teak araudi makur hau. Sinetsi nahi dut nahi dela zantarkeria hau konpondu, nahi dela idazlearen eta itzultzailearen askatasuna defenditu, sari duin bat eman lana saritzeko eta obra hedatzen laguntzeko. Zertarako ditugu elkarteak ez badute sindikatu lana egiten?

Irudi klasiko bat da: makinaren hozkak gizabanakoa zanpatzen ari, Miraz nago funtzionarioaren zintzotasun tolesgabeari adi.

«Ez logikak bakarrik; legeak ere horrela agintzen du. Beti izango da ados ez dagoen jendea».

Esadazue, nork defendituko du Kidazlea administrazioaren harrokeriatik? Autonomia bat gara, baina artritisak jotako inperio baten gaitz guztiak ditugu.

Adineko buhame gazte batenak


'Un tal Eusebi' dokumentala egin du Iban del Campok, Bartzelonan; Danimarkan, AEBetan eta Iranen erakusteko proposamena jaso du Donostiako Zinemaldian industriakoei erakutsi ostean

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA

Bartzelonako Grazia auzo bizi eta zaharreko bizilagun baten historia kontatu nahi zuen Iban del Campok (Arrasate, 1971), Eusebirena. Txirrina jotzen zion Eusebik, posta jasotzeko, eta handik etorri zen dokumentala egiteko ideia: «Gazte buhame baten bizitza dauka Eusebik, jendeari margoak egin eta saltzen, olerkiak idazten, kantuak abesten... ibiltzen da tabernarik taberna, kalerik kale», adierazi du zinema zuzendariak protagonistaz. «Harreman berezia du jende gaztearekin, jende nagusiarekin apenas komunikatzen den, eta gazteekin, oster, bai». Izaera, mundu eta harreman «berezi» hori azaldu du *Un tal Eusebi* dokumentalean.

Eusebiren auzoan, Grazian, aurkeztu baino lehenago —datorren ostiralean estreinatuko dute, hango Verdi zinemetan— Iranen, Chicagoko Zinema Lati-noko jaialdian eta Danimarkan aurkezteko proposamena jaso du Del Campok, Donostiako Zinemaldiko *Sales Office* industria-ko jendeari zuzenduriko bulego-etan dokumentala erakutsi ondoren. «Iranen, esaterako, kaleetako poeta asko omen da, eta Eusebik haien antza duelako eraman nahi dute». Zuzendariaren arabera, ez dago ezer loturik, baina harremanetan ari dira. Euskal Herrian ere saiaturiko da dokumentala erakusten: «Norbaitek hor [hemen] proposamen bat egiten badit, ni prest nago erakusteko», azaldu dio BERRIAI.

Eusebiren historia «kontatu



UN TAL EUSEBI dokumentaleko protagonista Bartzelonako Gracia auzoko adineko bizilagun bat da. BERRIA

beharragatik» egin du Del Campok dokumentala: «Behin konturatu nintzen Eusebi bere bizitzaren aktorea zela; ezagutzean sentitu nuen bere historia kontatzeko nahia eta beharra, mundu berezia zeukan. Ez nintzen historia baten bila ibili, nire etxera sartu zitzaidan dokumentaleko ideia: Eusebi». 27 minututan, gaztelaniaz eta katalanez kontatu du, Gracia auzoko gainerako bizilagunekin. Lehen aldiz, zuzendaritza eta gidioa bere arduraz izan dira.

Iranen, AEBetan eta Danimarkan erakusteko proposamen jaso

duen dokumentala egiteko ez du inolako erakunde ez produktoratarara jo zuzendariak: «Lagunen denbora, gogo eta ilusioarekin egin dugu dokumentala», azaldu du. «Nahiko gauza dotorea egiteko moduko kamerak geneuzkan; muntaia egiteko ordenagailuak, musikari eta diseinatzailak... denak lagunak eta lagun artekoak izan dira, Eusebiren izpiritua- ren eta magiaren inguruan bildu garenak». Dokumental horren aurrekontua lagunak egindako lanorduak dira. «Orain hasiko gara aurrera joateko diru bilketan», adierazi du.

Proiektu berriarekin lanean

Aurrera begira, ordea, *Un tal Eusebi* erakusteaz gain, beste proiektu bat zuzentzeko ardura izango du Del Campok. Iragan otsailean Livornon eginiko Me-

morie *Periferiche* jardunaldietan sustraitutako dokumentala pres-tatzen ari da arrasatearra. *Con la bombona a cuestras* izenburupean, familia pakistandar baten ingurukoak eraman zituen Del Campok Livornora, eta esperientzia horren bigarren jardunaldietan —datorren urtean izango dira, Bilbon— erakutsiko du handik sortutako emaitza.

Dokumentalen esparruan «eroso» dabil Del Campo. «Dokumentalaren eta zinema ikusleen arteko harremanak aldatzen» ari direla uste du. «Orain lau urte ia ezinezkoa izango zatekeen nik egin dudana hau zinema areto batean estreinatzea; orain gaintzen ari da ikusleek eta areto arduradunek dokumentalarekin zuten erreparoa». Ekoizpen aldetik «askoz libreagoa» da dokumentalgintza, zuzendariaren iritziz.

ZINEMA

46.700 lagunek ikusi dute Julio Medemen 'La pelota vasca' filma

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren, iragan asteburuan aurkeztu eta zabaldu da Euskal Herrian, Katalunian eta Espainian Julio Medemen *La pelota vasca. La piel contra la piedra* (Euskal pilota. Larrua harriaren kontra) filma, eta dagoeneko 46.700 lagunek ikusi dute.

32 kopia banatu dira, eta bakoitzak 1.460 ikusleko batez bestekoa izan du. Gurean film dokumental batek lehen asteburuan izan duen ikusle kopuru handiena jaso du Medemenak.

Alice Produce ekoiztetxeak eskertu egin du «emanaldietan jasotako babes», eta baita hainbatetan erakustaldien ondoren jasotako «txalo zaparradak» ere. Ekoiztetxearentzat «oso pozgarria da Espainiako Estatuan gehien ikusiriko hamar filmen artean egotea *La pelota vasca*».

LITERATURA

Oliver, Anneda, Maldonado, Rivas, Marzal, Atxaga eta Elorriaga Bilboko poesiaren astean

EFE - BILBO

Jose Oliver Alemanian bizi den idazleak, Antonella Anneda italiarrak eta Fatjma Maldonadok Europako korronteak ekarriko dituzte datorren astelehenean hasi eta urriaren 21a arte Bilbon izango den IV. Poesia astean. Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga, Manuel Rivas eta Carlos Marzal ere bertan izango dira (Espainiako Sari Nazionala irabazi dute guztiek), eta Kirmen Uribe, Miren Agur Meabe eta Tere Irastortza idazleak ere bai.

Udalak 10.000tik gora lagunengana eraman nahi du poesia, Areetako karpan eta Bidebarrieta liburutegian egingo diren ekitaldiekin. Politika, kultura eta kirol munduko jende ezagunaren erre-zitaldiak, Txinako poesiaren irakurraldiak, nahiz musika emanaldiak eskainiko dituzte. Tartean, *Zaharregia, txiki-gia agian* ikustaldia eta Pablo Milanesen kontzertua egingo dira.

KMI
10

kulturunea
Urdaneta 9, 20006-Donostia

ARETO NAGUSIA
Urriak 7, asteartea, 19:30

MARGUERITE YOURCENAR
oroituz
(1903-1987)

Bideo emanaldia

"Marguerite Yourcenarekin solasean"

Aurkezpena: Maite González Esnal

www.gipuzkoa.net/kultura



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Berehalakoan

JAKIN 137

Gai nagusia
Euskalduntzea krisian?

Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003)

Itzuli biketa: Hurbilketa soziolinguistikoa

• D. AMUNDARAIN • X. ISASI • P. JAUREGI • I. LASA

• I. MARTINEZ DE LUNA • J. M. ODRIOZOLA • E. OSA • M. ZALBIDE

Itzuli biketa: Sektoreko kideei galdezka

• J. AZKUE • A. CAMACHO • J. OLANO • J. L. OTAÑO • I. YOLDI

Egunen gurpilean

JOSEBA BALELDI • LAURA MINTEGI • ISAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

Literatura aktiboa aldarrikatzeko eskola

Urritik ekainera bitartean, ikastaro dinamiko eta bizia antolatu dute Bihotz Bakartien Klubekoek

ERREDAKZIOA - BILBO

Gida eta eredueta kanpoko literaturari leihoa zabaltzea. Aztertzea zer idatzi zen, nork idatzi duen eta zergatik, nork erabakitzen duen zer den benetan literatura, zer esan dion euskal literatura munduko literaturari...

Hori du helburu Bihotz Bakartien Klubak antolatu duen literatura eskolak, urriaren 18an Larrabetzun abiatuko denak. Hilean larunbat batez, «literatura establezitutik haratago» gogoe-ta egiteko parada izango da ber-

tan, dena esku-hartze zuzena aldarrikatuz: «parte-hartze aktibo barik literatura agoniara kondanatu dagoela uste dugu».

Iñigo Aranbarriaren ardurapean, abangoardiak, aldizkariak, idazleak, antzerkia eta kazetaritza aztertuko dute, zenbaitetan gonbidatuekin gainera. Lehen ekitaldia urriaren 18an izango da, *Pizkundera*, *Aitzol modernitatearen kontra* izeneko hitzaldia-
ren bidez. Literaturak herri zapalduen pizkundera duen egin-beharraren inguruko eztabaida piztea da asmoa.

Azaroaren 15ean izango da hurrengo txanda, abangoardiaren inguruan. Vladimir Maiakovski eta Aime Cesaireren erdua aintzat hartuta, abangoardia kontzeptua bera argitzen ahaleginduko dira partaideak. Horretarako Jose Luis Otamendi idazlea izango da Larrabetzun.

Aldizkariak eta kazetaritza

Abenduaren 13an, literatur aldizkariak aztertzeko eguna izango da, *Euzko Gogoia* argitalpenetik gure egunetara —Mikel Elor-

tza izango da gonbidatua—; urtarrilaren 17an, berriz, lekukotasun historikoak eta bidaia kronikak jorratuko dira. Alberto Barandiaran kazetaria izango da gonbidatua.

Otsailaren 14an Gabriel Aresti azalduko dute Koldo Izagirrearen laguntzaz, eta martxoaren 13an, berriz, Joseba Sarrionandia. Apirilean antzerkia izango da gaia, eta maiatzean, Pernando Amezketa eta *Metxa*. Azken ekitaldia ekainaren 12an izango da. Kirmen Uribe izango da gonbidatua, eta heriotza tragikoa izan zuten hiru poeten kasua aztertuko du bertan.

ARTEA

Lehen urteko bisitari kopurura iritxi da Txillida-Leku museoa

Oso balorazio «positiboa» egin du Txillida-Leku museo-ko zuzendari Luis Txillidak, bertara 2002-03 ikasturtean joandako lagunak kopuruari begiratu. 95.300 bisitari izan dira Eduardo Txillidaren artelanak ikusten Hernaniko museoan. Ireki zuten urtean 95.528 ikusle izan zituzten eta iaz, berriz, 87.103.

ZINEMA

Ignacio F. Iquino omendu dute, Kataluniako industria sustatzeagatik

SGAEk Ignacio F. Iquino (Valls, 1910- Bartzelona, 1994) zinemagilea omendu du «Kataluniako industria kulturalen gizon eraginkorra» izateagatik. 51 urte egin zituen zuzendari eta ekoizle lanetan, eta 150 film ingurutan hartu zuen parte. Angel Comasek *Ignacio F. Iquino. Hombre de cine* liburua aurkeztu zuen.

Denis Quilley aktorea hil da, Londresen

Denis Quilley zinema eta antzerki aktorea joan den igandean hil zen, 75 urte zituela, Londresen, azken urteetan izan duen gibekeko minbizia-
ren ondorioz. Agatha Christie-
iek idatzitako hainbat nobelaren egokitzapenetan aritu zen aktore lanetan, *Murder on the Orient Express* eta *Evil under the Sun*-en, esaterako.

ARTEA

Hamaika erakusketa antolatu dute Daliren Urtea ospatzeko

Daliren Urtea deitutako ekitaldi multzoa atzo jarri zen abian, Gironako Figueres herrian (Katalunia): artistaren hamaika erakusketa antolatzearez gain, bere idazlan guztien bilduma argitaratuko da, eta bere margolanen katalogo arrazoituaren argitalpenaren hasiera aurkeztu.

KULTURAK

Txinaren Urtea Frantzian

Txinako kultura hurbilduko die Frantziako bizilagunei. Atzo, Parisen, aurkeztu zuten Txinaren Urtea Frantzian ekitaldi multzoak. Eta 2004ko urriaren Frantziaren Urtea Txinan izeneko ekitaldi multzoa jarriko da abian Pekinen.

LITERATURA

Gaur egingo da Frankfurteko azokaren inaugurazio ofiziala

Bihar goizean irekiko ditu atek Frankfurteko Nazioarteko Liburu Azokak, gaur gauean inaugurazio ofiziala egin ondoren. Aurtengoan Errusia izango da herrialde gonbidatua. Berri-kuntzen artean, literatura eta zinemaren arteko harremana jorratuko duten emanaldiak izango dira. Eztabaida eta mahai-inguruak ere egongo dira literatur lanen gaineko egokitzapen zinematografikoak ikusi ondoren. Azokako egunik garantzitsuena igandea izango da, Alemaniako liburutegiek Bakearen Saria Susan Stangi ematean. Euskal argitaletxeen mahaia ere izango da bertan.

FRANKMAY/EFE



KRITIKA ① MUSIKA

Energia leherketa

ELBICHO

Lekua: Bilboko Kafe Antzokia. **Eguna:** Urriaren 3a. **Jende kopurua:** 400 lagun. **Iraupena:** Ordubeta eta 45 minutu.

Hasi baino lehen Madrilgo taldearen musikari batek gau horretan, beharbada, leher-tuko zirela esan zidan: areto ederra, giro egokia, entzule ugari eta, batez ere, bandaren gogoak ziren helburu horren laguntzai-leak. Eta hori gertatu zen, hain zuzen: zazpi musikariak jo ta ke —horietatik lau kamisetarik gabe— aritu ziren flamenko sasiko eta mestizoan hainbat musikarekin nahastuz: rock progresibo andaluziarra, jazz, kopia espainiarra, afrikar erritmoak, Magrebeko

perkutsioak... Hortxe zegoen abiapuntua, baina energia hori guztia bideratzeko lider bat behar zen eta horretan datza Miguel Campello kantariaren lanak, Victor Iniestaren gitarraren eta Carlos Tatoren bost soka-ko baxuaren laguntzaz. Beste lau musikagileak (pare bat danborretan eta beste biak flautan eta tronpetan) ere kontuan hartze-koak dira.

Disko bakar bat kaleratu dute madrildarrek (beno, bost lagun Alacantekoak dira) eta emakumezko entzule askok taldearekin batera kantatu zuten: *De colores*, *Buleria del dia*, *Entiendo*, *Y es la noche*, *Tanguillo nuevo*...

Baina onenak azken atalean agertu ziren,

gehienok dantzan geundela: *De los malos*, *Letras*, *Locura* eta orain modan dagoen *La bien pagá*. Izugarriko energia zegoen agertokian eta noizean behin kantu lasaiak edo instrumento hutsezkoak tartekatuta behar izan zituzten arnasa hartzarren.

Hiru aldiz bueltatu ziren musikariak, azkenean zer jo ez zekitela, zoriontasunak jota. Esan bezala kantaria izan zen taldea piztu zuena: nahi duen moduan kantatzen du, ozenki edo ahopean; koreografia berezia erakutsi zigun (Magrebeko moduan, saltoka, gerria astinduz eta une batean bost arrisku-salto kateatu zituen... sorbaldaz, bero-bero zegoela adieraziz). Kontzertu ederra eta, batez ere, indartsua gozatu genuen. Azkenean lehertu ziren, bi kantu adierazgarri kateatuz: Los Chichosen *Dame veneno* eta Rocky filmaren kantu ezaguna. Hitz gehiagorik ez da behar. ● **Joseba Martin**

musika

ANDOAIN. Andoaingo Udal musika eskolako irakasleen kontzertua. Gaur, 20:00etatik aurrera, Bastero kulturgunean.

BAIONA. L. Smith, P. Gaubert & P. Milanta Trio. Gaur, 21:00etan, Antzokian.

DONOSTIA. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gaur, 20:00etan, Kursaal.

DONOSTIA. Alaia abesbatza. Gaur, 20:30ean hasita, Lugaritz kultur etxean.

DONOSTIA. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gaur, 20:00etan, Kursaal.

DONOSTIA. Donostiako Orfeoieren kontzertua. Ostegunean eta ostiralean, Kursaal Auditorioan.

IRUÑEA. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Eldar Nebolsin pianoan eta Gilbert Vargak zuzenduta.

Ostegunean, 20:00etan, Gayarre Antzokian.

OIARTZUN. Jauko-Barik. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Arragua auzoan.

URNIETA. Arandi Anaiekin dantzaldia. Gaur, 23:00etan.

antzerkia

GASTEIZ. *Las bicicletas son para el verano.* Gaur eta bihar, 20:30ean, Printzipal Antzokian.

MIARRITZE. *Madame Butterfly* opera. Bihar, 20:30ean, Gare du Midin.

ZALDIBIA. *Kutsidazu bidea Ixabel.* Gorringo taldearen antzezlan. Gaur, 22:30ean.

bertsolaritza

AULESTI. Berto saioa, Alfonso Irigoien omenez. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Enbeita, Arkaitz Estiballes, Iratxe Ibarra eta Gorka Ostolaza. Ostiralean, 20:00etan, udaletxeko aretoan. Gai-jartzaile eta aurkezlea, Josu Goikoetxea.

BASAURI. Anjel Mari Peñagarikano eta Amets Arzallusekin bertso afaria. Ostiralean, 22:00etan, Politena jatetxean.

BERGARA. Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Jokin Uranga, Mikel Arrillaga, Oskar Alberdi, Beñat Lizaso, Gorka Ojanguren, Ainhoa Agirreazaldegia, Leire Ostolaza eta Enaitz Alustiza. Ostiralean, 22:00etan, Nobedades ar etoan.

bestelakoak

EIBAR. Gaur, 19:00etan, Portalean.



Juan San Martín bere liburuaren aurkezpenaren izango da. JUAN CARLOS RUIZ

'Zirikadak' eta 'Eztenkadak' liburuak berriro kalean

Juan San Martín idazlearen *Zirikadak* eta *Eztenkadak* liburuak aurkeztuko dituzte gaur, Eibarko Portalean. Orain dela 40 urte kaleratu zituen lehen aldiz; Eibarko Udalak berriz atera ditu. Juan San Martinek, Kike Amunarriz umoristak, Julen Zabaleta marrazkilariak eta Jesus Egia *Abadiño*-k parte hartuko dute.

LEGORRETA. Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Iñaki Apalategi, Uxue Fernandez, Gorka Azkarate, Amaia Agirre, Antton Fernandez eta Ekaitz Goikoetxea. Ostiralean, 22:00etan, herri zineman. Aurkezlea: Irati Goikoetxea.

OIARTZUN. Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Agin Rezola, Aitor Albistur, Estitxu Eizagirre, Jon Martin, Jose Anjel Aranburu eta Jon Ansa. Ostiralean, 22:00etan, kultur etxean. Aurkezlea, Saroi Jauregi.

ORIO. Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Andoni Otamendi, Unai Muñoa, Zigor Iriondo, Xabier Sukia, Egoitz Eizagirre eta Imanol Lizarazu. Ostiralean, 22:00etan, kultur etxean. Aurkezlea: Gorka Tolosa.

dantza

LEIOA. Sokabat, Ya eta Crag y Desiderata. Bihar, 12:00etan, Euskal Herriko Unibertsitatean.

hitzaldiak

ANOETA. *Abiadura handiaz nora?* hitzaldia. Bihar, 19:30ean, udaletxean. Hizlaria: Iñaki Barcena, Euskal Herriko

hilberriak**Jose Luis Cereceda Garaio**

(Isabel Elgoibar Barandikaren alarguna)

Bilbon hil zen, 2003 urriaren 6an, 62 urte zituela

Ama: Isabel Garaio Bikandi; anaia-arrebak: Isabel, Maria Jesus, Pili eta Patxo; suin-errainak: Juan Antonio Sierra eta Miguel Angel Goienetxea; ilobak; lehengusu-lehengusinak eta beste sendia. IRAGARTZEN dute gorpua GAUR erraustuko dela, asteartea, hilak 7, eguerdiko HAMABI ETA ERDIETAN, Galdakaoko Andra Mariaren hilerrian.

Bilbon, 2003ko urriaren 7an

Consejero del CES Vasco
Euskadiko EGABeko Kontseilaria
Joselu Cereceda Garaio



Con mucho pesar y en agradecimiento a la labor que has desempeñado para este Consejo

Atsekabe handiz, Kontseiluan egin duzun lana eskertuz

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**Mames Saratxaga Berganza**

Eusko Legebiltzarkide-ohia

Eusko Legebiltzarrak bere dolumina adierazten du eta bat egiten du familiarekin saminaldian.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriak 7

Joselu Cereceda Garaio

*Lurretik zabaltzen da
zuzter sakon indartsua,
herriaren goldea,
bihotzetan oroimina*

Ez adiorik

11:30ean Funeraria Bilbainako beilatokian (Gas plazan)
19:00etan Ekitaldia Kasilla plazan

**Julian Etxebeste Mitxelena**

Urriaren 4an hil zen, 84 urte zituela.

*"Lurrean aitzur-kolpez landareak bezala landu
gaituzu gu ere bizitzarako"*

Emaztea: Juana; seme-alabak: Arantxa eta Pedro, Nikolas eta Ixiar, Maite eta Higinio, Manu eta Junkal, Karmele eta Juan Luis, Josu eta Bibi, Mikel; arreba eta ezkon anaia-arrebak: Joxepa eta Manuel, Anttoni, Maritxu, Mañu, Eugeni; bilobak: Harkaitz eta Silvia, Nagore eta Jon, Iraia, Irati, Haitzol eta Eider, Eneritz, Egoitz, Elala, Eluska, Eñaut, Amañur, Beinat, Onintza, Julen; ilobak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko gure ondoan izan zareten guztioi.

Oiartzunen, 2003ko urriaren 7an

ESKELAK

Gaueko 21:00ak arte hartzen dira

(0034)943304030

hitzaldiak

DONOSTIA. Gaur, 19:30ean, Txoko Internazionalistan.

El Salvadorko egoera, FMLNko kide baten hitzetan

LEIRE ARAMENDI DONOSTIA

El Salvadorren gaur egun dagoen egoera aztertu dute gaur, Donostiako Txoko Internazionalistan, FMLNko Violeta Hernandezekin. 2004ko martxoan egingo diren hauteskundeak ere izango dituzte hizpide, Hirugarren Mundua ta Bakea gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako hitzaldian.

Violeta Hernandez FMLN alderdi politikoko kidea da. FMLN 1992an bihurtu zen alderdi politiko, gerrillak garai hartako gobernuarekin bakea sinatu zuenean. Hamaika urte igaro ondoren, gaur egun El Salvador nola dagoen eta, batez ere, emakumeen egoera zein den azalduko du Hernandezek.

Emakumeen egoera egunetik egunera «okerragoa» dela uste du Hernandezek: «Gobernuak emakumeei eskaintzen dien lan bakarra enpresa multinazional handietan da. Enpresa horiek eskulan merkea lortu nahi dute, eta horretarako, emakumeak kontratatzen dituzte». Giza eskubi-deen urraketa ere salatu du FMLNko kideak. Emakumeen aurkako bortxa ere «arazo larria» dela dio; «baita emakume eta haurren aurkako sexu erasoak ere».

Egoera ekonomikoa ere izango du hizpide Hernandezek. Emakumeen artean «pobrezia» handitu egin omen da. «Askotan oinarrizko beharriak asetzeko ere arazoak ditugu». FMLNko kidearen arabera, Gobernuak orain bi urte martxan jarri zuen «dolarizazioaren ondorioa» da.

Izan ere, El Salvadorko Gobernuak hartu dituen neurri ekonomikoak gogor kritikatu ditu Hernandezek. Bere aburuz, bizitza garestitzeko besterik ez dute balio izan. «Gobernuaren pribatizazio neurriek herritarren protesta ugari eragin dituzte. Oinarrizko zerbitzuak pribatizatu nahi dituzte, eta horrek herritarren haserre eragin du. Osasuna pribatizatzen ere saiatu dira; baina Konstituzioak esaten du osasuna estatuaren ardurua dela». Ondorioz, «bizitza garestitu» eta pobrezia «handitu» dela dio.

2004ko martxoko hauteskundeak

Maiatzean egingo diren hauteskundeak ere aipatu ditu Hernandezek. Orain arte egindako inkestaren arabera, egun gobernuan dagoen ARENA alderdia eta FMLN nahiko berdinduta daude. Gobernuak hartu dituen neurriek «eragin duten krisia» dela eta, gizartea «nazkatuta» dagoela uste du Hernandezek: «Ondorioz, FMLN hauteskundeak irabazi eta presidentziara iritsi daitekeela uste dugu». Shafik Handal da FMLNko lehendakari zarako hautagaia.

Hernandezen hitzetan, FMLNk «lan proiektu berria» du. «Gizarteko hainbat eragilerekin konstitutu du horretarako. Herritarrei aukerak ematea da helburua». Presidentziara iritsiz gero, erabakiak hartzeko herritarrekin «gehiago» kontsultatuko luketela ere esan du.



Shafik Handal, FMLNko hautagaia 2004ko hauteskundeetan. ULISES RODRIGUEZ / EFE

Unibertsitateko irakasle eta Ekologistak Martxan taldeko kidea. **AULESTI.** Alfonso Irigoien, *Bizkaiko bertsoaritzaren eragilea*. Bihar, 19:00etan, Abel Muniategiren eskutik. **AULESTI.** Alfonso Irigoien, *euskaltzale eta filologoa*. Ostegunean, 19:00etan, Adolfo Arejitaren eskutik. **BERGARA.** Jose Antonio Azpiatzuren hitzaldia, *Bergara, historia topagunea* zikloaren barnean. Gaur, 19:30ean, Migel Altuna institutuan. **BILBO.** *Federacion rusa: Justicia denegada*. Gaur, 19:30ean, Yhon jauregian (Pelota kalea, 10). Hizlaria: Boris Pustintsev Citizens' Watch gobernuz kanpoko erakundearen kidea. **BILBO.** *Roma* liburuen aurkezpena, Jesus Mari Lazkano, Kepa Murua eta Jon Kortazarren eskutik. Bihar, 19:30ean, Liburuaren Etxean. **DONOSTIA.** *El Salvadorko egoera eta 2004ko hauteskundeetarako FMLNren aukerak*. Gaur, 19:30ean, Txoko Internazionalistan (Egia). Violeta Hernandez FMLNko kidearen eskutik. **DONOSTIA.** Literatura solasaldia: *La plaza del diamante*, Merce Rodorena. Beatriz Monrealek gidatuta. Bihar, arratsaldeko 18:30ean hasita, Ernest Lluch kultur etxean, Amaran. **DONOSTIA.** *Planificacion hidrologica*. Bihar, 19:30ean, Arantzadi Zientzia elkartearen. Iñaki Antiguedad eta Jose Mari Sanz de Galdeanok aurkeztuta. **ERRETERIA.** Tokiko garapenari buruzko hitzaldi zikloaren barnean, gaur: *Tokiko eremuko giza ekonomia eta enplegu sorkuntza esperientziak. Tulle eta Losadako esperientziak*. Gaur, 11:00etan, Erretereria Hiria kulturunean.

Kultur ugaritasuna, tokiko errealtate berria. Banintz elkarteko Victoria Mendozaren eskutik. Gaur, 19:00etan, Erretereria Hiria kulturunean. Ondoren, solasaldia. **ERRETERIA.** Tokiko garapenari buruzko hitzaldi zikloaren barnean, bihar: *Generoen ikuspegia enpresan. Lan-bizitzaren eta familia bizitzaren bateratzea*. Bihar, 11:00etan, Erretereria Hiria kulturunean. Hizlariak: Txaro Arteaga (Emakunde), Kontxi Gabantzo (Justizia, enplegu eta giza segurantzaren saila), Iñigo Martinez (Kanpolan kontsultora). Ondoren, solasaldia. *Merkataritza alorra eta hiriguneak*. Bihar, 20:00etan, Erretereria Hiria kulturunean. Hizlariak: Manuel Probajo (Leon) eta Eulalia Ribes (Alcoy). Ondoren, solasaldia. **GASTEIZ.** *Nabokov-en Salabardoa*, Harkaitz Canoren eskutik. Gaur, 20:00etan, Hikaatenean. **GETXO.** Hasier Etxeberriak *Eulien bazka* obra izango du hizpide. Bihar, 19:30ean, Algortako Itsasganeak kulturunean. **IRUN.** Literatura mintegia. *Aktore bat: Jean Maria Volonte. Langile jendea paradisura joaten da*. Zuzendaria: Carlos de Agustin. Bihar, 17:30ean hasita, udal liburutegian. **LEGAZPI.** *Proceso de envejecimiento*. Gaur, 15:30ean, kultur etxean. Antolatzailea: Iratzarri Etxekoandre elkarteak. **OIARTZUN.** *Mundu globalizazioaren aurkako mugimendua*. Gaur, 19:00etan, Arragua auzoan. Hizlaria: Jose Iriarte Bikila. **SESTAO.** *Giza eskubi-deen egoera*

Kolonbian. Gaur, 19:30ean, udal liburutegian. Lilian Uribe aurkeztuta.

ikus-entzunezkoak

DONOSTIA. *Karramarro uhartea*. Gaur, 18:00etan, Altza kultur etxean. 5-12 urte bitarteko umeentzako bideo emanaldia. **DONOSTIA.** *Marguerite Yourcenarekin solasean*. 1979an Bernard Pivotek Marguerite Yourcenari egindako elkarrizketa ikusteko aukera. Gaur, 19:30ean, Koldo Mitxelena kulturunean. Frantsesez izango da, gaztelaniazko azpitularrekin.

bestelakoak

DONOSTIA. *Cuentos mundos y lirondos*, ipuinaren ordua. Gaur, 18:00etan, Amarako kultur etxeko liburutegian. **DONOSTIA.** Ipuinaren ordua. Bihar, 17:00etan, Loiolako kultur etxean. 5 eta 10 urte arteko haurrentzat. **DONOSTIA.** *Marguerite Yourcenar: Sinfonia bat ahots desberdinetan*. Irakurketak: poemak, Adrianoren Oroitzapenak, Alexis. Bihar, 19:30ean, Koldo Mitxelena kulturunean. Euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. **DONOSTIA.** Literatura solasaldia. Beatriz Monrealek *La plaza del diamante* obra. Beatriz Monrealek gidatuta. Bihar, 18:30ean, Ernest Lluch Amarako kultur etxean. **EIBAR.** *Zirikadak eta Eztenkadak* liburuen aurkezpena. Gaur, 19:30ean, Portalean. Juan San Martin eta Jesus Egia *Abadiñok* aurkeztuta. **IRUN.** Ipuin kontalariak: Beatriz Egizabal eta Txefo Rodriguez. *Hipi, hipi,*

hurra izeneko emanaldia eskainiko dute, euskaraz. Bihar, udal liburutegian. Orduetia: 4-5 urte bitarteko umeentzat, 17:30ean; 6-8 urte bitartekoentzat, berriz, 18:30ean. **ZALDIBIA.** Gaztelu puzgarriak. Gaur, 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era.

erakusketak

ABADIÑO. El Campurrianoren eskulturak. Urriaren 3tik 10era, kultur etxean. **ANOETA.** AHTren aurkako panel informatiboak. Urriaren 12a arte, herriko plazako arkupetan. **BAIONA.** *Castelnuevoren margo erakusketa, Akuairelak eta tintak*. Urriaren 11a arte, Mattin dendan. **BERA.** *Encuentros* erakusketa. Nafarroako 20 artista gazteren artelanak. Urriaren 18a arte, kultur etxean. Orduetia, asteleheneetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara. **DONOSTIA.** *Marea beltza, marea beltza*. Urriaren 17a arte Donostiako Ontzi Museoan. **DONOSTIA.** David Seymour *Chim*. Irailaren 20tik urriaren 26ra, San Telmo museoan. **DONOSTIA.** *Igartubeiti, XVI. mendeko baserri bat*. Abenduaren 31 arte, Miramongo Zientziaren Kutxagunean. **DONOSTIA.** *Infraganti*, Chema Pradoren argazkiak. Irailaren 17tik urriaren 8ra, DV galerian. **GASTEIZ.** Paz Diaz de Espadaren margolanak. Irailaren 25etik urriaren 11ra, Okendo galerian. **GETXO.** Maria Rosa Pelayoren margoak. Urriaren 14a arte, Erromo erakustaretoan. Astegunetan:

11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara. **TOLOSA.** *Si levantara la cabeza...* Angel Garrazaren Zeramika erakusketa. Irailaren 5etik urriaren 11ra, Aranburu jauregian. **VILLABONA.** *Argizaiolak*. Irailaren 29tik urriaren 12ra, Gurea erakusgelan.

lehiaketak

AZKOITIA. Bizenta Mogel 22. Ipuin lehiaketa; 18 urtetik gorakoei zuzenduta. Euskaraz idatzita egon behar dute. Lanak bidaltzeko epea urriaren 31n amaitzen da. **BILBO.** *Mario Angel Marrodan, VIII*. Olerki Saria, euskaraz eta gaztelaniaz. Lanak urriaren 31 baino lehen bidali behar dira helbide honetara: Ediciones Beta, Ref.: Olerki Saria, Ramon y Cajal etorbidea, 35, 48.014 Bilbo. Argibideak: www.euskalnet.net/edicionesbeta edo 94 4761155. **ERRETERIA.** *Erretereria Hiria* ipuin lehiaketa. Euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzitako lanak onartuko dira; hiru eta zortzi orri artean izango ditu bakoitzak. Urriaren 31 baino lehen bidali behar dira Ereintza elkartera (301 posta kutxa, 20100 Erretereria). **MUTRIKU.** Okelar bertso paper lehiaketa. Bi maila egongo dira, 16 urte arte eta 17 urtetik gorakoena. Gazteek hiru bertso edo sei koplak idatzi behar dituzte gutxienez, eta helduek sei bertso. Lanak azaroaren 5a baino lehen bidali behar dira: Okelar bertso paper lehiaketa. Mutrikuko Bertso Eskola, Luardo etxea (Barrenkale 2/g), 20830, Mutriku. Posta elektronikoa: xuranga@leartik.com.

Agenda Zinema

aretoak

Araba

GASTEIZ

Table listing movies and showtimes for Gasteiz: ABACO LAKUA, Abajo el amor, leepers creepers II, Identidad, La Liga de los hombres..., Dos policías rebeldes II, Italian Job, Dias de futbol, Piratas del Caribe, Veronica Guerin, Papa canguro, El misterio Galindez.

AZUL

Table listing movies and showtimes for Azul: Zaldiaran, Mi tio (IBA), Un hombre sin pasado, Bowling for columbine (IBA).

FLORIDA

Table listing movies and showtimes for Florida: Dias de futbol, Las mujeres de verdad tienen curvas (IBA), Hotel Danubio, El misterio Galindez, Carmen, Noviembre, Veronica Guerin, Together.

GURIDI

Table listing movies and showtimes for Guridi: La pelota vasca/Euskal pelota, El juego de Ripley, El divorcio, Papa canguro, Deathwatch, Interstate 60, Los piratas del Caribe, Circulo de engaños, Italian Job, Dos policías rebeldes II.

MIKELDI MULTIPLEX

Table listing movies and showtimes for Mikeldi Multiplex: Confidencce, Piratas del Caribe, La Liga de los hombres..., Dos policías rebeldes II, Italian Job, Circulo de engaños, Veronica Guerin, Enigma.

YELMO CINEPLEX

Table listing movies and showtimes for Yelmo Cineplex: Dos policías rebeldes II, Carmen, La pelota vasca/Euskal pelota, Tiempos modernos, Italian Job, Dias de futbol, La Liga de los hombres..., Deathwatch, Diablo, Los piratas del Caribe, Identidad, Le divorce, Abajo el amor, Confidencce, leepers Creepers II, American Pie 3, Papa canguro, Simbad, Los rugrats, Doraemon.

AGURAIN

Table listing movies and showtimes for Agurain: HARRESI.

Bizkaia

BILBO

Table listing movies and showtimes for Bilbao: AVENIDA, Tiempos modernos, El misterio Galindez, Abajo el amor, Before the storm, leepers creepers II, El buen ladrón, Noviembre, Deathwatch.

CAPITOL

'Canal hacia la esperanza (Panama)'.
- 07:20: DOCUMENTAL: AFRICA.**
'Tesoros del sur'.
- 08:10: MI DESTINO ERES TU.**
Telesaila.
- 08:50: EMBRUJADA.**
Telesaila.
- 09:30: EL PUNTO.**
Gonbidatua: Jaime Mayor Oreja.
- 10:05: FORUM.**
Gonbidatua: Julieta Serrano.
- 10:35: COSAS DE CASA.**
Telesaila.
- 11:30: LA COCINA DE PEDRO SUBIJANA.**
'Guisado de ternera con alcachofas'.
- 11:40: EL PRINCIPE DE BEL AIR.**
Telesaila.
- 12:35: MATRIMONIO CON HIJOS.**
Telesaila.
- 13:05: EUSKADI ETA**
- NAVARRA DIRECTO.**
- 13:55: DATE EL BOTE.**
Lehiaketa.
- 14:58: TELEBERRI.**
Albistegia.
- 15:45: LO QUE FALTABA.**
Txetxu Ugalde eta Yolanda Alzolak aurkeztutako magazin saioa.
- 17:55: ZINEMA.**
'Cien rifles'.
- Zuz.: Tom Gries.
Akt.: Burt Reynolds, Raquel Welch. 1969.
- 20:00: ESTA ES MI GENTE.**
Telesaila.
- 20:58: TELEBERRI.**
Albistegia.
- 21:55: LA NOCHE DE... 'Shaft'**
Zuz.: John Singleton.
Akt.: Samuel L. Jackson, Vanessa Williams. 2000.
- 00:40: EXCLUSIVAS ETB.**
'Resistir lo maximo'.
- 01:35: PARACHOQUES.**
Telesaila.
- 02:20: ESTA ES MI GENTE.**
- 03:10: LO QUE FALTABA.**
- 04:45: FORUM.**
- 05:15: VIVA LA NATURALEZA.**

gaurko filmak

●●● **TERMINATOR 2: EL JUICIO FINAL**

Antena3 21:30 Zuz.: James Cameron. Akt.: Arnold Schwarzenegger, Linda Hamilton, Edward Furlong. 130 min. AEB. 1992.



Efektu berezien bilduma garesti eta jostagarria. James Cameron-ek fin bete zuen bere lana. Kontua zen munduko zinematokietan kolpe itzela jotzea, eta hala egin zuen. *Terminator 2-n*, *Terminator* originalaren istorioa hartu eta efektu berezien egundoko bilduma egin zuten. Alor teknikoan lau Oscar irabazi zuen filmak, eta ez dugu ukatuko jostagarria gertatzen dela; baina, aldi berean, argi esan behar da komertziala dela oso, komertzialegia aukeran. Lehen zatiak erakutsi zuen alde basatia ezabatuz, eta, efektu berezien kontura, ikuslea txunditzeari ekin zion Cameron-ek. Eta Arnold Schwarzenegger zer? Lehen zatiko makina gupidagabearen rola utzi, eta robot maitagarria bihurtzen da. Kaliforniako gobernadore posturako hautagaiak *Terminator 2*-ko txisteak beretzat gorde zituen: «Sayonara, baby» eta horrelakoak.

gainerakoak

- CAS DE CONSCIENCE** ● M6 13:35
Zuz.: Michael Katleman. Akt.: Patty Duke, Tracy Nelson, G. W. Bailey. 90m. AEB. 1993.
- EN ROUTE VERS SON DESTIN** ● TF1 14:45
Zuz.: Rebecca Cook. Akt.: Teri Hatcher, Andrea Powell, Robert C. Treveiler. 100m. AEB. 2001.
- LA VERITE SI JE MENSIE** ● TF1 20:55
Zuz.: Thomas Gilou. Akt.: Richard Anconina, Jose Garcia, Bruno Solo. 105m. Fran. 2000.
- EL FLORIDO PENSIL** ●● C+(e) 22:00
Zuz.: Juan Jose Porto Rodriguez. Akt.: Daniel Rubio, Emilio Gutierrez Caba. 118m. 2002.
- BLOODY MALLORY** ●● C+(f) 22:35
Zuz.: Julien Magnat. Akt.: Olivia Bonamy, Laurent Spielvogel. 95m. Fran. 2001.
- PIEGE A GRANDE VITESSE** ● F2 22:50
Zuz.: Geoff Murphy. Akt.: Steven Seagal, Eric Bogosian, Everett McGill. 100m. AEB. 1995.
- POUVOIR ABSOLU** ● M6 22:50
Zuz.: David L. Corley. Akt.: Craig Sheffer, John Heard, Joanna Cassidy. 95m. AEB. 1997.
- L'AFRANCE** ●●● C+(f) 00:05
Zuz.: Alain Gomis. Akt.: Djolof Mbengue. 90m. Fran. 2001.

A MÍ... QUE ME REGISTRES

Zuz.: Gene Quintano. Akt.: Christopher Lambert, Christopher Lloyd, Kim Greist, J. T. Walsh. 85 min. AEB. 1989.

●● La2 11:00

Christopher Lambert, erdipuridiko komedia batean. Ohikoa da Christopher Lambert mugatua rol gogorretan ikustea. Gaur emango duten *Why me?* honetan, ordea, oso bestelako pertsonaia jokatzen du. Gene Quintanok, *Police academy* saileko gidoi-gileak, estreinaldia egin zuen komedia apal honetan. *Bizantzioko usa* harribitxia Turkiari eman behar dio, baina hura jaso aurretik Armaneko talde batek lapurtu egingo du.

CIENT RIFLES

Zuz.: Tom Gries. Akt.: Burt Reynolds, Rachel Welch. 110 min. AEB. 1969.

●● ETB2 17:55

Baleko western berantiarra. Burt Reynolds-ek Yaqui Joe indioaren azalean sartu zen western apal honetan, eta Raquel Welch garaiko *sex symbol*-a, Saritaren rolean. Tom Griesek (*Will Penny*), gehienbat telebistarako lan egindako errealizatzaileak, ezuste handirik gabe filmatu zuen *One hundred rifles* hau. Mexikon, 1912an, Arizonako sheriff bat Yaqui Joeren atzetik dabil. Indioak banku bat lapurtu du, diruarekin armak erosteko asmoz.

JUMAJI

Zuz.: Joe Johnston. Akt.: Robin Williams, Jonathan Hyde, Kirsten Dunst. 105 min. AEB. 1994.

●● France2 20:55

Haurrentzako film jostagarria. Robin Williams-ek aski ezaguna duen rola jokatu zuen berriro *Jumanji* gozaga-

ri honetan. Mota guztietako animaliak, ehiztari gupidagabeak eta irudimena, irudimen handia erakusten du film txukun honek. Jumanji joko zaharra jostagarria da, baina arriskutsua, eta partida bat hasten denean ezin da utzi hura bukatu gabe. Jokalariek jokoan aurrera egiten duten arabera, ezusteak bata bestearen atzetik etorririko dira.



Jumanji filma.

SHAFT

Zuz.: John Singleton. Akt.: Samuel L. Jackson, Vanessa Williams, Jeffrey Wright. 98 min. AEB. 2000.

●● ETB2 21:55

Samuel L. Jackson Singletonen gidaritze-pean. John Singletonek 21 urte zituen *Boyz N the hood* interesgarriari esker zuzendari onenaren Oscar sarirako hautagai izan zenean. Geroztik, ez du haren mailako filmik egin. 1971n Gordon Parksek zuzendutako *Shaft*-en *remake*-a egin zuen 2000n, Samuel L. Jackson rol nagusian zela. Esan gabe doa droga trafikoa, mendekua eta polizien ustelkeria nahastentzen lan hau balekoa dela, denbora-pasarako bederen, baina horretan bakarrik geratzen da. John Shaft agentea ikasle beltz bat hil duen gizon baten atzetik dabil. Shaftek, baina, arazoak ditu, Wade hiltzaileak eta beste batzuek ere hil egin nahi baitute.


INCIDENTE EN LONG ISLAND

Zuz.: Joseph Sargent. Akt.: Laurie Metcalf, MacKenzie Astin. 90 min. AEB. 1995.

● La2 02:00

Benetako gertaerak hizpide. Barbara Streisandek ekoitzi zuen gaur ordu txikietan emango duten telefilm aspergarri hau: *The Long Island Incident*. Lantxoaren benetako gertaeratan oinarritzen da: Carolyn McCarthyren bizia goitik behera aldatuko da, Long Islandeko gertaera baten ondorioz. 1993ko abenduaren 7an, Colin Ferguson izeneko gaixo batek tiro egin zion beteta zihoan tren bati, eta McCarthyren senarra hil zen. Seme bat ere zauritu zuen. McCarthy bizitza berri bati ekingo dio.

irratia




EUSKADI IRRATIA. Goizeko 10:00etatik 13:00etara hainbat gai jorratuko dituzte Susana Mujikak aurkeztutako magazinan, *Faktoria*-n. 11:00etan, Itsaso Bilbao boluntarioak Kolonbiako Medellin hirian gobernu kanpoko erakunde batean zer lan egin duen kontatuko du. Eguerdiko albistegiaren eta eguraldiaren iragarpenaren ondoren, Xabier Zelaiak dekorazio aholkuak emango ditu. guraso bakarreko familiek osatzen dute pobrezia poltsaren zatirik handiena, azken ikerketen emaitzek diotenez. Gemma Artola ASPA-MOGI elkartearen hitz egingo dute gai horretaz.

RADIO EUSKADI. Xabier Lapitzek Enrique Villar elkarrizketatuko du gaur 09:30ean *Boulevard abierto* saioan. Jarraian, Nikaraguako hezkuntza sistemaren egoeraz mintzatuko dira, 13 urteko haur baten testigantzatik abiatuta. Eguneko gaia, bestalde, Madril-Lleida abiadura handiko trenaren bidea izango da (hilaren 11n inauguratuko dute). Asteartero bezala, Asier Muniategik idazle batekin hitz egingo du; gaur Toti Martinez de Lezeak *La hija de la luna* eleberria aurkeztuko du. 17:00etan, *La jungla sonora* saioan, pop talde independenteen berri emango dute.

zakilixut

© Olariagak



artoski. nola adlag. (1710) Ipar.
Artaz, arduraz.
Bereondasunak artoski begiratu.

ARDURAZ.

BERE ONDASUNAK?

IKUSIAK IKUSIZ, HONDA-SUNIAK.

HONDAR ALEA

MARATILA 1

Gogoaren erauntsia


24. LAPURTARREN BILTZARRA. Euriak ez zuen zapuztu lapurtarren xedea, eta karrika nagusiak herrietako gertakarien lekuko izan ziren

AITOR RENTERIA - UZTARITZE

Euriak ezin izan zituen zapuztu Lapurtarren asmoak joan den igandean: urriko lehen igandean egin ohi den bezala, ehunka lapurtar bildu ziren Uztaritzen, urteko gertakariak salatu eta geroari buruzko irizpide suharrak plazaratzeko.

Alta, goizean ez zen giro: euria tira ahala. Goizeko haiketetan karrozen desfileak abiatu behar zuen, baina jende gehiena ostatueta edo etxeetako atarietan babesturik zegoen. Eguerdia pasatu orduko, atertu zuen, eta jendeak naturaren zirrikitia erabili zuen ekitaldia hasteko.

Ohi bezala, Lapurdiko armarrria zeraman karroza zegoen ibilaldi buruan. Segidan, bi boxeolari: batek Jacques Chirac Frantziako presidentearen aurpegia zeraman; bertzeak, berriz, Jose Maria Aznar Espainiako presidentearena egiten zuen. Biek elkarri pasatzen zioten defentsarik gabe zegoen euskaldun



HAZPARNEKO KARROZA, Hazketako hondakindegia buruzkoa. CHRISTOPHE DE PRADA

bat. Inguruetan guardia zibilez eta jendarmez jantzitako gazte talde batek inguruetan geldirik zeuden autoak ireki eta kontrolatzen zituzten, eguerdiko ogiak eta jakiak autotatik jalgiaziz.

Sarako karrozak elizara buruz zeukan gogoa, berriki erreden eraikinaren irudia eskainiz.

Larresoroko karrozak jendeari gogoeta sakonagoak eragin zizkion. Izan ere, hilketak bat irudikatu zuen. Erdian, hilketak. Eta barnean, euskara. Larresorok euskararen inkesta soziolinguistikoak argitaratu emaitzak nabarmendu zituen, hautetsien zurikeria salatuz.

Hazparnek Hazketa honda-

kindegia izan zuen hizpide: ekainaz geroztik hiru ontzi erradioaktibo daude bertan eta jendea kezkatutik dago.

Lau Herriko karrozak Miarritzen iragan gay eta lesbien besta ukan zuen hizpide.

Eguerdiko ekitaldia bururaturik, ehunka pertsona bildu ziren Uztaritzeko ikastolak antolatutako herri bazkarian.

GARI BERSALUZE

Hil-oharrak

Tabako erretzaileak aztoratuta dabilta azkenaldian, nonahi ikusteko moduan ezarri dizkieten mezuoen gogortasuna dela-eta. Gu, tabakoa oso noizean behin eta marihuanazko bufandak egiteko soilik erabiltzen dugunez, ez gaitu hainbeste kezkatzen mezuak, mezuaren derrigortasuna legez ezartzeko hainbaten setakeriak baizik. Gainera, egundoko interes ekonomikoen itzalak lortu du mezu horiek hain beltzak izatea. Gainontzean, mezuak egokiak dira. Kontu honetan, bada, beste hainbat lekutan antzeko mezuak legearen aginduz eta derrigor ez jartzea da ozpintzen gaituen bakarra.

Esaterako, zergatik ez da nahitaezkoa elikagai gehienetan mezu ikusgarri bat eranstea, transgenikoak jateak mirribizia sortzen duela eta hil egin zaitzakeela esanez? Zergatik ez ditugu eremu handiko saltokien atean horrelakoak ikusten? Ezkontzerakoan, sinatu behar izaten diren hainbat paperen artean, lehenengo orrialdean zergatik ez da agertzen emakumea bazara psikopata anker eta agian hiltzaile baten biktima izan zaitzakeela? Lan-kontratuak sinatzerakoan, edo kontraturik gabe lanean hasterakoan, zergatik ez dugu inon irakurtzen lan egitea oso arriskutsua dela? Ezustean hil zaitzake lanean, istripuz, edo astiro, luzaro sufrutuz. Agoitzen etxe bat erostean nonbait irakur al dezakezu itota hiltzeko arrisku larria duzula? Etengabe saldu nahi izaten dizkiguten autoak erosterakoan ere, zergatik ez dugu inon irakurtzen autoak hiltzaile errukigabeak direla?

Zerrenda luzea egin daiteke. Izan ere, hiltzeko era ugari dago, eta horietako askotara bideratzen gaituzte behin eta berriro.

guztien eskura jarriko dute teknologia

Hitzeko gizona zen.

FORD FOCUS TDCI eta gasolina gama

AIKIRA GIROTZEKO ETA IRATZI-CD BAT GEARI

Gozatuko pentsaturik irauteko edinak

Mugarri Araba etorbidea, z/g TEL. 943 79 75 64

ARRASATE-MONDRAGON

edo hainbeste deskontuak. Hilarren bileraren arazo estok-ean daudenak. Focus gamaren kontsumo neurria: 5,4-9,1 litro/100 km/ko, eta CO2 isurketak 135-218 g/km-ko. Focus ST modelo ikuskatua.

MODA

TESTUAK: LUCIA ZUGADI / IRAIA AGIRRE

www.berria.info

berria

negu alaia



ILUSTRAZIOA: INHAR OLANO

SIRTA

GAZTEENTZAKO ARROPA

Hondarribi kalea, 19


☎ 943 43 13 55

DONOSTIA

moda ehunak

Neguko beroa

Akoltxatuak, larruak, bernizak eta puntuak toki nabarmena izango dute; gauetan, errasoak, satinak, zetak, lumak...



AKOLTXTATUA Ⓢ Arropei kirol ukitua ematen dion eta pisu gutxi izan arren asko berotzen duen material hau aurtengo udazken-neguetan ere present izango dugu. Akoltxatua kolore distiratsuekin lotuko da, baita napa antzeko bestelako materialekin ere.



PUNTUA Ⓢ Erliebedunaren eta puntu lisoaren arteko konbinazioa. Horrekin batera, artile zarratua eta ehundura arina duten lanak nahastuko dira. Lepoalde altua duten jertseak modaren ispilu.



ERRASOA Ⓢ Batez ere, gaua janzen duten soineko zuri eta luzetan ikusiko da. Estanpatuekin ere konbinazio polita egingo du behin baino gehiagotan.




GASA ETA ZETA Ⓢ Gaua gorritz koloreztatuko dute gasazko nahiz zetazko arropek, baita horiekin batera eramango diren osagarriek ere. Gasa puntuarekin nahastuta azalduko da maiz.



LARRUA Ⓢ Berriz ere, moda-modan izango dugu. Hainbat estilotara moldatuta ikusiko dugu. Tindatutako larruarekin batera, krokodiloa ere jaun eta jabe.



LUMAK Ⓢ Hainbat motatako jantziak hornituko dituzte, baita arropekin batera eraman ohi diren osagarriak ere; poltsak zein zapatak lumaz gainezka datoz.



SATINA Ⓢ 40ko hamarkada gogoratuko diguten *tweed*, puntu edota gizonezko trajeekin batera agertuko zaigu. Satinak gauean eraman ohi diren soinekoei sekulako dotorezia ematen die.



BERNIZA Ⓢ Bernizaren distira produktu sintetikoekin batera dator aurtan. Gehienbat, gazteentzako beroki zein jaketan. Kolore biziak nahiz beltzak dituzten janzkietan nagusituko da.

ALDE ZAHARREKO
MODA DENDAK

48005 BILBO

Loan'ela



Bidebarrieta, 6

Eribea moda

Sombrereria, 10

Aiara moda

Tenderia, 23

moda koloreak

Giroa argitu eta alaitzeko

Beltzaren lagun handia izango da zuria, baina ez bakarria: baita horia, arrosa, berdea ere...



ARROSA da beltzarekin lotu duten koloreetako bat. BERRIA

Badatoz udazkena eta negua, eta horiekin batean giroa ilunduko da, eta eguna laburtu: bidea zabalduko zaio gauaren iluntasunari. Giro hori hausteko asmotan datoz jantzi-tan aurkituko ditugun koloreak:



METALIZATUA erabiltzen jarraituko dute. BERRIA

zuria, gorria, urdina, berdea, morea... Egia esan, klasikoenak direnatzat gris, marroi eta beltzak daude orain ere boladan, baina ez datoz bakarrik.

Beltza zuriarekin batera izango dugu, irudi geometrikoak osatzeko, 60-70eko urteetako *op(tical) art* delako arte mugimenduari jarraiki eta ilusio optikoak sortuz.

Baina ez da zuria beltzaren lagun bakarra izango. Horia, arrosa, berdea, urdina, laranja... kolore bizienekin nahastuz gero, klasizismotik ihes egiteko aukera izango dugu, izugarritzko kontrasteak lortuz.

Gau luzeenetarako zuria izango da nagusi, zeta, satina, gasa, errasoa eta lumak ehun erromantikoekin batean. Gorria ere asko erabiliko da gaez, baita eguncz ere; gehienbat berokietan agertuko da.

Udan ere nagusi izan den tendentzia luzaturik, metalizatuak datoz, ausartenentzako aukera ezin hobea. Betiko urre eta zilar kolorez aparte, berde, urdin edo bioletak ere metalizatu egingo dira.


KONTRASTEAK
Beltza kolore biziekin nahastuz gero, klasizismotik ihes egitea proposatu dute, eta izugarritzko kontrasteak lortu



ESTANPATU mota bat loreduna izango da. BERRIA

Estanpatuak ere protagonista izango dira. Koadro eskoziarrak ohiko koloreetan ikusiko ditugu, urdin eta gorrian, alegia. Afrika aldetik ere badatoz tigre, leopardo eta zebra estanpatuak, jaka labur, soineko eta blusetan, gehienbat. Bestalde, neguetan ohikoa den tweed delakoa ere ikusi ahal izango dugu kaleetan. Marroia, beixa, beltza eta grisa dira tweed edo jaspeatuak hartuko dituen koloreak eta jantzi eta konplementu gehienetara zabalduko da. Udazken-negu honetan ahaztu ezin izango dugun estanpatu mota bat loreduna izango da. Batez ere, kolore biziko edo pastel tonuetako lore handiak izango dira nagusi, soineko, blusa eta zapatak lorategi bihurtuz.

Esanak esan, ezin ahaztu dezakegu modan kaleko jendeak agintzen duela eta askotan pasareletan ikusitako tendentziei muzin eginez, bestelako bideak jarraitzen direla.



BELTZA zuriarekin nahastuta asko ikusiko da. BERRIA

ORHI
OINETAKOAK

Barrenkale, 11
Tel.: 94 625 74 62
48300 GERNIKA (Bizkaia)

FATIMA ANSOLA

Artzai Onaren plaza, 1. DONOSTIA Tel.: 943 43 19 79
San Martzial, 33. DONOSTIA Tel.: 943 42 09 41 / 42 62 37

Spezial

NEURRI HANDIAK GIZONEZKOENTZAT

SAN MARTZIAL, 32-34 • © 943 29 01 64 • 20005 DONOSTIA

moda joerak

Berrituz eguneratu

Udazken-neguetako modak ekarriko dituen aldaketez mintzatu zaigu Maria Jesus Arbelaitz diseinatzailea

Joan den neguan hain preziazatu eta modernoak izan ziren janzki asko zaharkituta gelditu dira aurten. Gauza bera kolorei dagokienez. Iaztik hona, osadarrak bira asko eman ditu eta punta-puntan zeuden hainbat kolorek beren ohorea galdu dute. Maria Jesus Arbelaitz diseinatzailearen esanetan, urte batetik bestera modak aldaketa asko izaten ditu, nahiz eta jende asko gustuko ez izan azkenengo puntan joatea.

2003-2004ko udazken-neguetako modan, ehundurari dagokionez, «elastiko asko» erabiliko dela esan digu Maria Jesus Arbelaitz diseinatzaileak, «bai gizonezkoetan eta bai emakumezkoetan». Horrekin batera, «koadro eta estanpatuek leku garrantzitsua beteko dute aurtengo modan eta zer esanik ez lehoinabarrak», dio Maria Jesus Arbelaitzek. Guztien arteko nahasketa ere ikusiko da.

Parka itxurako berokiak

Iaz poltsikoz betetako kargoko galtzak ziren modaren giltzarrietako bat, safari itxurako prakak alegia. «Oraindik ere ikusten diren arren, arropen artean azkenengoan, estu-estuak diren eta gerrialdea zabala duten galtzak daude», dio Arbelaitzek. «Jaketan gerrialde estu samarrak eta oso sorbalda zabalak ikusiko dira».

Modaz kanpo gelditu den arroparik ere izango da. Beroki klasikoak, adibidez, nahiko atzean gelditu dira: «Orain parka itxurako berokiak nagusitzen dira; informalagoak dira. Nylonezko ehundura izan ohi dute, eta elastikoa ere agertu izan da jantzi horietan».

Gizonezkoen arropetan beltza

MARIA JESUS ARBELAITZ diseinatzailea

«Jaketan gerrialde estu samarrak eta oso sorbalda zabalak ikusiko dira»

«Osagarriak eramateko joera zabaldu da gizonezkoen artean»

«Elastiko asko erabiliko da, bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen artean»



BELTZA nagusituko da gizonezkoen arropetan. Horrekin batera, zuria, marroia eta grisa. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



Zapateria **Dinetakoak**

Kili Kolo

Haurrak - Gazteak

Karlos Gangotti, 2 (San Juan kaletik sarrera) - 94 625 46 12
48300 GERNIKA

Patxi

94.620.37.49

94 620 37 49

TXADALA

ZURE GAZTE ARROPA DENDA

Elkano, 8 • 94 438 25 01
BARAKALDO

MODAK
Barrenkale Barrena, 1
Tel.: 94 625 22 86
GERNIKA-LUMO

Gerbers

OINETAKOAK
Barrenkale Barrena, 1
Tel.: 94 625 51 37
GERNIKA-LUMO



nagusituko da. Edonolako janzkietan kolore ilun horrek presentzia izango du; bai alkandoretan eta bai parka eta galtzetan. Horrekin batera, zuria, marroia eta grisa ere protagonista izango dira. «Orain arteko praka klasikoetatik alde egin eta zerbait modernoagoa dator», azpimarratu du Maria Jesus Arbelaitzek.

Emakumezkoen antzera, «osagarriak eramateko joera zabaldu da gizonezkoen artean», eta boltsak, bufanda luzeak, txanoak eta era guztietako konplementoak gero eta gehiago ikusitiko dira.

Tonu biziak

Gizonezkoen artean, beltza izango da kolore nagusietakoa; emakumezkoetan, berriz, «beltza pixka bat atzeratu da», Maria Jesus Arbelaitzek esan digunez. Nahiz eta oraindik ere kolore horrek modan jarraitu, beltza tonu biziekin nahastuta agertuko da, hala nola laranja eta horiarekin. Kolore marroia ere sartu da, batez ere gorriarekin batera.

Estiloei dagokienez, estiloen arteko konbinazio edota nahasketak nabarmenduko da. Esate baterako, praka poltsikodunak lepoalde altua duten jertseekin eta bufanda luzeekin azalduko zaizkigu, osagarri gisa. Hori guztiarekin batera, oinetako takoidunak eta boltsa oso modernoak.

Edonolako osagarriak ikusiko dira. Beharbada, interesgarria litzateke aipatzea oso bandolera handiak eramango direla eta hainbat materialez egindakoak izango direla; adibidez, metalezkoak eta egurrezkoak. Lehen esan bezala, lechoinabarra jaun eta jabe egongo da boltsetan ere. Era berean, crazytun formako belarritakoak maiz ikusiko ditugu.

Arropa dendetan orain arte ikusi ez ditugun hainbat berritasun egongo dira. Lehenago kirola egiteko baino erabiltzen ez ziren poltsikoz betetako errasozko galtzak orain janzteko ere balio dute; bai kalerako zein festarako arropa bezala. Ehundura honekin nahasturik askotan puntua ere ikusiko dugu.



boutique
Fran's

Espezialitateak: Zeremoniak, ama pontekoen soinekoak eta sport
Santa Maria, 11 Tel.: 94 625 03 94 GERNIKA

AINHOA oinetakoak
Ingo Lopez de Haro, 2 - GERNIKA
94 625 32 03

Baraño
Barrenkale, 15 - GERNIKA-LUMO - Tel./Faxa: 94 625 06 47

PARAPHERNALIA
MODA ETA OSAGARRIAK
Nere Kabia, 1 • Tel.: 946 252 294 • 48300 GERNIKA-LUMO

treni
San Juan, 10
GERNIKA 48300
Tfnoa: 94 625 01 04

Sastrea Inaki
Gizon Moda, Moda Hombre
San Pedro, 4 • Tel.: 946 740 401 • Mungia

SPORTS
SS SILLONIZ
Artekalle, 7 Tel: 946 25 42 54 GERNIKA

LA TIENDITA
• Artisautza • Harriak • Zilarra
• Ekialdeko arropa
Gamarra, 3 • Gamarra, 12 • LEKEITIO
Tel.: 94 684 30 87

Rakel
ILEAPAINDEGIA
Fernando Abaunza, 1-1.C • GERNIKA
Tel.: 94 625 42 98

ator
ILEAPAINDEGIA
Errepublikana, 1
48300 Gernika
Tel.: 94 627 06 62


SERIGRAFIA SASTRO
GERNIKA-SESTAO
SERIGRAFIA - TANPOGRAFIA ERANSTEKOAK
PUBLIZITATE ERAKARGARRIAK: METXEROAK, BOLIGRAFOAK...
PEDRO ABOITIZ, 2 • TEL.: 94 625 72 62
48300 GERNIKA
ANTONIO TRUEBA • TEL.: 94 472 09 84
48910 SESTAO
LOKAL BARRIA !!
"GAZTE MODA"
ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 625 82 07
48300 GERNIKA-LUMO

moda janzkiak



SOINEKOAK

⊕ Belaunerainoko soinekoak nagusi. Mahuka gabe eta papar handiekin. Leggin, galtzerdi eta bota altuekin ikusiko ditugu soinekoak.




ALKANDORAK ⊕ Gerri azpirainoko alkandorak, gehienbat. Farfail, jostura, izurdura eta edonolako horniduraz beteak. Festarako, gasazkoak eta transparentziz jositakoak.



JAKA LABURRAK ⊕ Beroki itxurako arropa klasiko guztiak tamaina txikiagoetan datozkigu. Sorbaldetan bolumena da nagusi, baina gerrialdea estu eramango da. Ehungaiari dagokionez, nylonezkoak, artilezkoak, larruzkoak eta kotoizkoak.

Joera guztiak

Hotzari aurre egiteko garaia izan arren, gorputz guztia arropa azpian ezkutatuta eramateko joeratik ihes egin, eta emakumeek beren xarma erakusteko parada izango dute



BEROKIAK ⊕ Gerrialde estu eta pisu gutxiokoak. Gehienak, gerrikoarekin eramatekoak. Betiko grisarekin eta beltzarekin ez ezik, gorria, morea eta horia kolore biziekin ere jokatuko da.



JAKAK ⊕ Parka antzekoak gehienak. Ohikoez gain, modan egongo dira zeta eta errasozkoak. Luzerari dagokionez, edonolakoak, belaunetik hasi eta orkatilarainokoak.



TRAJE JAKADUNA ⊕ Milaka estilokoak. Orokorrean, nahiko informalak. Praka, leggin eta gona laburrak nagusi, baita jaka labur zein amerikanak.



LEGGINAK ⊕ Ohiko galtzerdiez gain, orkatilarainokoak eta orkatilatik izterrerainokoak diren praka estu eta elastikoak boladan izango dira, edozein altueratako zapata takoidunekin eta botekin.



ESKOIKIZ, 5
94 6882258
BERMEO

GAZTE
GIZON
EMAKUME
MODA

Karlos Gangoiti, 6
94 6254865
4 8 3 0 0
GERNIKA

MUNGIA - ZARAUTZ

ELENA ELENA

Aginaga

URRETXU - ZUMARRAGA



8 de Ezeita, 3
94 625 07 78

48300 GERNIKA
Bizkaia

moda barruko arropa

Barrukoa azaleratzen

Nahiz eta begi bistakoa ez izan, barruko arropa ere une oro egokitzen da modara



KOLORE hainbat daude modan; beltza eta zuria ere bai. BERRIA


Udazkena heldu eta zuhaitzak biluzten hasiak direla, guk ere une batez beroki eta jaka haundi horietatik ihes egiteko parada izango dugu, lentzeriak udazken-neguetarako zer-nolako moda dakarren jakiteko.

Modaz hitz egitean, beroki, alkandora, praka eta jertseez mintzatzen gara maiz, eta zapatak, boltsak eta antzeko osagarriak ere ez ditugu inoiz isilpean uzten. Azken horiek ere modan berbiziko garrantzia dute, eta, nahiz eta begi bistakoa ez izan, barruko arropa ere une oro modara egokituta azaltzen da.

Kolorez gainezka

Sarritan, probokazio eta erakar-garritasunerako bide izan ohi diren bularretako, kulero eta galtzontziloak kolorez gainezka agertzen zaizkigu azkenaldian. Negu honetarako berde nabardura duten arropak eta gorri zein more gamma jarraitzen dutenak nagusituko dira, ohikoak diren beltza eta zuria alde batera utzi gabe. Marra, lauki eta estanpatu gutxi azaltzen dira; gehienak kolore bakarrekoak eta lisu xamarrek izango dira.

Uda amaitzean barruko arropan farfail edo enkaje gehiago sartzeko joera egoten den arren, gaur egun gazteak mikrozuuntzeko eta kotoizko ehundurak aukeratzen dituzte. Nagusiagoren artean oraindik ere farfailak leku garrantzitsua betetzen du. Antzerako zerbait gertatzen da tanga eta kuleroekin. Nahiz eta gero eta gehiago izan tanga era-



BEREZIAK dira diseinu batzuk. ANTONIO LACERDA / EFE

TANGA

Gaur egun, gero eta tanga gehiago erabili arren, oraindik ere askok erabiltzen dute ohiko barruko arropa

EHUNAK

Uda ostean, farfail edo enkaje gehiago sartzeko joera dago, gainean arropa sendoagoa janzten delako

biltzen duten emakumezkoak, asko eta asko dira oraindik tradizioari eusten diotenak eta betiko kulero klasikoak erabili.

Euskal Herrian jendea ez omen da barruko arropa bitxi



MIKROZUNTZ eta kotoizko ehundurak aukeratzen dituzte gazteek batez ere. BERRIA

edo arraroa erostera ausartzen; hala azpimarratu dute, behintzat, Iratxo lentzeria dendan. Hori dela eta, denda gehienetan kolore asko baina arropa ez oso sofistikaturik ikusiko da.

OINETAKOAK

ONA

Abaroa, 2
Tel.: 94 684 08 07
LEKEITIO

Artekale, 16
Tel.: 94 625 48 67
GERNIKA

Gasteiz Moda

Sari Sari

Loteria, 4 - Tel.: 94 479 04 06 - BILBO Alde Zaharra
Iturrioz kalea, 9 - Tel.: 943 79 81 82 - ARRASATE

SARITU

Zure arropa eta oinetakoak

www.sariudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710


moda estiloak



AUSARDIA eta gauza asko nahastuta kontrasteak egitea da 80ko hamarkadako ezaugarri nagusia.



MATRIX estilokoek etorkizunari begirako jantzien itxura izan nahi dute.



OP ART estiloaren barruan beltza eta zuria dituzte, eta 50eko hamarkada dakarte

Iraganeko

Urtaro berriekin joerek aldaketa nabarmena izaten dute

Estiloen aldaketa bat dator janzkien aldaketarekin; horregatik, urtaro-berriarekin batera gure izaera markatzen duten joerek ere aldaketa nabarmena izan ohi dute. Aldatzeak, ordea, ez du beti berritza esan nahi; behin baino gehiagotan, estiloak definitzeko orduan, urte batzuk lehenagoko joerak agertzen baitira. Esate baterako, udazken-neguetarako datorren modak zenbat garai edo sasoi ekarriko dizkigu gogora, hala nola 80ko eta 60ko hamarkadak eta *charleston* delako aroa. Ez

dira, baina, estilo horiek modaren protagonista bakarrak izango: aurrerantzean ikusiko ditugun koadroek, distirek eta abarrek ere leku garrantzitsua beteko baitute aurtengo modan.

Joera geometriko eta kubistatik eratorria izanik, *Op art* estilok 50eko hamarkada dakarkigu gogora. Sentimendu abangoardista emanez, zuribeltzean azaldu ohi den estanpatuak efektu optiko bitxia erakusten digu. Kolore bi horiei bizitasuna eman eta tonu gehiagorekin jolas egi-

moda

nez bestelako lauki edo koadroak ere present izango dira pasabideetan, eskoziar itxurako estanpatuak era guztietako arropetan agertuko dira.

Diseinu asimetrikoak

Horrekin batera, diseinu asimetrikoak kaleetan barrera murgilduko dira, goña, kamiseta nahiz soinekoetan, negu hotzari sentsualtasun ukitu bat emanez. Ezin ahaztu orain arte ikusi ez arren aurtun punta-puntan azalduko zaigun estilo futurista edota matrix estila. Izen biak zilegi dira, ausarta bezain iluna den arropa estila horrentzat. Larru zein latex antzeko mate-

9. Markiegi.

Gizonentzako moda

Olarte kalea, 2 - ☎ 943 79 15 32 - ARRASATE
markiegi@euskalnet.net

IZKO

premama


udazkena automne otoño autumn Herbst

Urbietan 23 Donostia tel. 943 421 605 izko@euskalnet.net


Kipu

Kirol Denda

Don Tello, 32 - Tel.: 94 625 03 09
GERNIKA (Bizkaia)



nahasten gora.




GIZONENTZAKO moduko jantziak ere egin dituzte emakumeentzat.



KOADRO eskoziarrak eta bestelakoak, klasikoak, ugari.



ZILAR eta urre kolorea metaletan; eta berdea, bioleta eta urdina ere.



60KO HAMARKADAKO rock'n'roll bereziari ere egin diote lekua aurtengo neguan.



TUNDRA esaten dieten jantziek larruen arteko nahasketa egiten dute.

berpiztu da

rialak, beltza eta metalizatua era paregabean nahasten dira janzki horietan, baita osagarrietan ere; takoi altua duten botak, betaurreko beltzak eta eskularru luzeak osagarri ederrak dira.

Distirek argiztatuko dituzte erakusleihoak, larru metalizatu, lentejuela, herenile eta satinak ñirñirra sortzearekin batera: sekulako *glamour*-ez jantziko dituzte gauak. Soineko luzeak, satin eta gasa gisako ehundurekin, distiraren erakustoki bilakatu dira.

Mod estiloak (60ko hamarkada) eta 80ko hamarkadako estiloak denboran atzera eramango gaitu, aurretik esan legez. Bate-tik, orain dela berrogei bat urte-

ko janzkiak gogoratzen digun estiloak, garai hartako, estanpatuak dakarzkigu berriz ere. Bestalde urte batzuk gerokoagoa den tendentziak, zerbait ausartagoa erakusten digu. Sorbalda-ko erraldoiak *leggin* itxurako galtzei kontrajartzen zaizkie, eta koloreek elkarren artean nahasketa ugari egin ohi dituzte.

Tundra janzkiak

Udazken-negu hauetan, gainera, armairu gehienetan ezin dute hutsik egin Tundra izenez ezagutzen den estiloko janzkiek. Larruen arteko konbinaketa hau, hotzari aurre egiteko bide-

rik egokienetako bat da. Itxura folkloriko eta etnikoa duen ehundura horrek kolore pintzelada bat ematen die larrua daukaten arropoi.

Denetariko estilo eta joerak, beraz, datorren negurako. Modaz kanpo gelditu ziren hainbat joera jaun eta jabe izango dira berriz ere, eta horrekin batera orain arte ikusi gabeko estilo berriak ere bai. Ezin aipatu gabe utzi emakumezkoen artean gori-gorian izango den estilo maskulino; alkandora marradunarakin, prakekin eta gorbatekin joko ezin hobea eginez eta tonu urriak erabiliz *look* simple bezain informala lortuko da.

TRIBAL AREA
TERRA DE TRIBUS
Pintore kalea, 23 • GASTEIZ
Tel.: 945 28 18 38
**SALMENTA HANDIAK
ETA TXIKIAK**
tribalcaps@tribalarea.com
www.tribalarea.com

Selene
OSAGARRIAK
Artekalea, 12
48300 GERNIKA (Bizkaia)
Tel. 94 625 71 82
Julian Etxeberria, 6
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 200 907

JANTZIGINTZA
TOTORICAGÜENA
Gizon
emakume eta umeentzako
Adolfo Urioste, 3
Tf.: 94 625 11 89
GERNIKA

moda **gizonezkoak**

Beltzezko gizonak



Beltza, grisa eta marroia izango dira nagusi gizonezkoentzat

Gizonezkoentzako moda oso ausart dator negu honetan, baina ez erabiliko diren koloreengatik, ehunengatik baizik. Gizonezkoentzat beltza, grisa eta marroia izango dira kolore nagusiak, baina ez da hau berrikuntza.

Zapiak eramango dituzte gizonek lepoaldetik, ohiko gorbaten ordez. Egia esan hau ausartentzako dela, besteentzako oraindik erabiliko dira gorbatak, alkandoraren kolore berekoak askotan. Badirudi, beraz, aurten gizonen emakumeen utziko dizkietela beraien gorbatak eta emakumeen trukean beraien zapiak utziko dizkietela.

Txalekodun traje asko datoz gizonezkoen tendentzia gisa, eta hauek beltzak, grisak edo marradunak izango dira.

Gerri zabalduen praka estuak asko ikusiko dira, eta baita behe-

kaldea zabalagoa duten prakak ere. Guztiak gerriko zabalekin erabiliko dira.

Denetariko jakak

Jakei dagokionez esan behar da denetarik datorrela negu hotz honetarako: estu eta laburrak, belaunerartekoak, poltsikoak ezkutuan dituztenak, koloreetako forroak dituztenak, eta bereziki *borrego* delako forroak dituztenak.

Kolore nagusiak, aitzinean esan bezala beltza, grisa eta marroia izango da baina bada goberrikuntzarik. Urre kolorea asko erabiliko da eta baita laranja ere. Discinatzailearen batek arrosa bizia ere atera du gizonezkoentzako, gero ikusi beharko da kaleetan ikusiko denentz.

Gehien erabiliko diren chunak larrua, cachemire delako puntua, zeta, lana, algodoia, pana eta metalizatuak izango dira. Ehun naturalak, beraz, azkenaldiko teknologikoen gaineratik.

Osagarri dagokienez hufanda luzeak erabiliko dira, belauna baino beherago zintzilik joango direnak. Boltsa handiak ere erabiliko dituzte gizon gazteenek, agenda, telefono mugikorra edo bestelakoak gorde ahal izateko.

Orohar estilo latino, eroso, erabilkorra eta urbanoa izango da besteen gaineratik ikusiko dena, hori da behintzat diseinatzaileen helburua. Errealitatea, kalean ikusiko dugu.




AUSART jokatu dute diseinatzaileek negu honetarako. MARTIN MEISSNER / AP

LARRUA asko erabiliko da. JEAN-GABRIEL BARTHELE / EPA

JAKAK

Denetarik dator negu hotz honetarako: jaka estu eta laburrak, belaunerainokoak, poltsikoak ezkutuan dituztenak...

LEIOAko Merkatarien Elkarte




Comercios Unidos de LEIOA

"LEIOA, urrunera joan gabe"

Eguneroko erosketak modu eroso eta etseginean egiteko mota guztietako dendak gure herrian bertan.

www.leioaweb.com

GAVRKO



GIZONENTZAKO MODA

48991 algorta
telfetxe, 5
tel. 94 460 70 84

SURF

Denda



Juan Kaltzada, 30
Tel.: 94 625 29 64 • 48300 GERNIKA

**QUIK SILVER
RIP CURL
GOTCHA
RUSTY
ROXY
GLOBE
GALLAZ**

LEHEN MAILAKO KIROL MARKAK


SANTVTXV SPORT, S.L.

Karmelo, 9

© 94 412 37 01

SANTUTXU

moda emakumezkoak



PRAKA estuak erabiliko dira. BERRIA

Lehengo joerak

Liluraren eta erosotasunaren arteko konbinazioak aukera asko emango ditu

+ Datorren udazken-negurako modak, lilura eta erosotasunaren arteko konbinaketa dakar. Bolumenek, materialek eta koloreek joku garrantzitsua beteko dute emakumezkoen modan.

Mota askotako chundurek, negu hotzari erronka egingo dute; besteak beste, lanek, zetazko ehunek, zuntz naturalek eta pisu gutxi izan arren, oso beroak diren materialek. Horrekin batera, Lycra-k arrakastatsu dirau aurreten ere.

Praka estuek, gorputzari egokitutako jake laburrek eta belainerarteko gonek emakume amainariaren aldeko apustua egingo dute. Bolumena argia eta islada daramaten arropen artean beroki eta jakak nagusi.

Larrua

Larruak ere, sekulako bolumena hartuko du eta farfail, luma eta perlekin batera, agertuko zaigu. Kolore beltzak erreinatuko du pasabideetan. trajeek, gerrialdean estuxeagoak diren berokiek eta marradun gona luzeekin ikusiko diren jakeek pinpirin jantziko dute emakumea.

GAUA

Soiltasunarekin hausteko, soinekoetan koloreek aginduko dute, batez ere gorriak eta zuriak



LARRUAK, lumak eta farfailak garrantzi handia hartuko dute. BERRIA

Gauetan, soiltasunarekin hausteko, soinekoetan koloreak aginduko du, gorria eta zuria agertuko dira. Beroki luzeak ere jaun eta jabe izango dira eta oinetakoei dagokienean, tranpa-

rentziaz jositako zapatek gaua jantziko dute. Eguncan zehar, emakumezkoen modan, bota luzeek gain, azken hauei kontrajartzen zaizen sandalia estiloko oinetakoak ikusiko ditugu.

TEL: 94 493 72 14

SUSTRAIAK ARTISAUTZA - GAZTE MODA
 San Bator, 3 - BASAURI
 Tel.: 94 449 82 58
 Tenderia, 29 - BILBO (Alde Zaharra)
 Tel.: 94 416 73 04

Gezper
 Bisuteria,
 opari,
 osagarriak
 eta tapizak
 Ronda, 13 bis
 Alde Zaharra
 48005 - Bilbo
 Tel.: 944152824

**GAZTEEN DENDA
 ETA
 ARTISAUTZA**
 Danok bat 8
 Portugalete 48920
 (Bizkaia) Tel.: 94 493 78 29
 E-mail: itoiz@euskalnet.net

Iñaki Bitxitegia
 Villamonte plaza, 3
 Tel.: 94 430 23 45
 ALGORTA

OMEGA Agencia Oficial SWAROVSKI S.T. Dupont LLADRÓ LONGINES RADO

SUGAAR
 PINTORE XALEA, 62

moda haurrak



Neguko moda nahastuta dator etxeko txikientzat; hainbat joera proposatu dituzte diseinatzaileek


NESKENTZAT
arrosa, berdea eta gorria izango dira kolore nagusiak. BERRIA

Etzeko txikientzako neguko moda oso nahastuta dator. Hainbat joera izateak estilo askoren nahasketa dakar.

Protagonista gisa, estilo militarra izango dugu; batez ere mutikoen artean ikusiko dugu, kaki, oliba eta marroi koloreko kargo estiloko praka zabaletan, denak ere patrika askotakoak. Txikiak jertse txanodunak eta arrantzale tankerako marra anitzeko artilezko jertseak ere jantziko dituzte.

Neskentzako arrosa, berdea eta gorria izango dira kolore nagusiak, itxura alai eta erromantikoa emanez. Kontrasteak lortzeko asmoarekin, beltza eta bestelako kolore ilu-

EROSOTASUNA
eta mugimendua erraztuko duten jantziak nagusituko dira. BERRIA



nak, kamel, zuri eta arrosa txikle delakoarekin konbinatuko dira. Proporzioekin ere, asko jolas-tuko da: oso soineko labur edo oso luzeak datoza, *country* itxurakoak alegia. Horrez gain, gona petodunak, tunika itxurako alkandorak eta mahuka elastikoa duten alkandorak izango dira jaun eta jabe erakusleihatant. Emakumeen modan bezala, lumak eta ehun distiratsuak erabiliko dira, baita jertse flekodunak ere.

Estiloari dagokionez, serigrafia duten eta grafiti itxurako kamisetak, ehun metalizatuak, *jean* prakak, jertse polarrak, *tecno*, *neo folk* eta alpe inguruko estiloak erabiliko dituzte umeek.

Udazken eta negu hauetan, beraz, ikastolan edo kalean erosotasuna eskaini eta mugimendua erraztuko duten jantziak nagusituko dira. Pana eta puntuzko kolore biziko arropa eroso eta dibertigarriak batez ere.

Kolore askotako jolasak



emakume, gizon eta gazte moda

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1, 2, 3 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27
www.lasagabaster.com

Kale Nagusia, 6
Tel. 943 59 12 24
Andoain

kraka
Euskal herria plaza, 1
48340 ZORNOTZA

CLANDESTINE
T A T T O O
P I E R C I N G
PLAZA SAN MARTIN DE LA ASCENSION
SANTUTXU (JUNTO A LA ZONA) BILBAO
TEL.: 656 710 469

Kale Nagusia, 12
© 943 59 18 63
ANDOAIN

moda elkarrizketa

MARIA JESUS ETXEBERRIA ile-apaintzalea

«Ile luzea eramango da»



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Donostian dauka ile-apaindegia Maria Jesus Etxeberriak. Orrazkeren azken joerak izan ditu hizpide: koloreak, moda...

☉ Ileapaindegian lanean dabilela hartu gaitu, eta irribartsu eta atsegin mintzatu zaigu orrazkeren gainean. Ilea natural eramatea izango dela joerarik nagusia azaldu digu.

Zer nolako tendentziak eramango dira datozen udaberri eta negurako? ☉ Marroiak, urre koloreak, oso kolore polit eta naturalak erabiliko dira. Egia esan, niri kolore naturalak gustatzen zaizkit, eta koloreak basarekin egiten ditut, tinteak gehiago mintzen du ilea eta ez zait gustatzen ileari min egitea.

Tamainari dagokionez, zein izango da moda? ☉ Ile luzea eramango da. Euskal Herrian oso ile laburra eraman izan da azken aldiari. Jendea ile luzearekin

kantsatu da eta horregatik orain ile luzeagoa nahi dute. Ile laburrekin gehiagotan etorri behar da jendea ileapaindegira, eta pertsona askorentzako hori ez da eroso. Nire ustez erosotasuna da garrantzitsua.

Eta nolakoak izango dira modako orrazkerak? ☉ Modan Hollywood-eko Rita Hayworth-en garaiko orrazkerak eramango dira. Baina beste gailu batzuekin eginiko orrazkerak,

MODA

«Hollywoodeko Rita Hayworthen garaiko orrazkerak eramango dira»

gehiago landutakoak: Rita Hayworth modernoak. Egia esan, egunero eramateko ez da oso eroso... Agian ezkontzaren batera eramateko, oso polita da. Gainera modak ez dira gelditzen, modak aldatu egiten dira, beraz, ikusiko dugu.

Euskal Herrian punta-puntako tendentziak eramaten al dira? Euskal Herrian, eta ez dut esaten nik hemen lan egiten dudalako, ileapaindegi oso maila altua dago eta hori Madrilan edoartzelona ere badakite. Gainera euskaldunok oso ausartak gara orrazkerari dagokionez.

Azkenaldian rastak eta estensioak asko ikusi izan dira kaleetatik. Horrela jarraituko du modak? ☉ Ileapaindegi

mota ezberdinak eta jende mota ezberdinak daude. Badago jendea rastak erabiltzen dituenak. Niri adibidez ikusteko ez dut esango gustatzen ez zaizkidanik baina ez zait egitea gustatzen. Nire ustez ileari min egitea da. Niri ile polita gustatzen zait, zaindua. Estensioak eta koloreak, denetarik eramango dira.

Eta kolore biziak erabiliko dira? ☉ Kolore asko ikusten dira Euskal Herriko kaleetan, eta kolore itsusi asko. Zer gertatzen den? Gaur eguneko koloreak, berde, urdinak... kalitate txarrekoak direla. Punky garaian guk tinte horiek egiten genituen eta oso kolore politak ziren. Gaur egun, aldiz, kalitate eskaseko koloreak ateratu dituzte. Ileapaindegian, hemendik ateratzen dire-

nean oso polit geratzen dira, baina gero oso arin joaten da kolorea.

Nola datoz orrazkerak mutilentzat? ☉ Mutilen moda emakumezkoenarekin alderatuz gero egonkorragoa da. Azken tendentzietan oso ile laburra eramaten zen. Orain luzeagora joko du tendentziak. Gainera ile motaren arabera ere bada moda, ile mota bakoitzak orrazkerak ezberdin bat eskatzen du. Gehienbat kolorea da mutilezkoetan joko gehien ematen duena. Halere, ileapaintzaileak ongi aholkatu behar du. Kolorea emateak ilea asko zaintzea suposatzen du, ileapaindegira gehiago etortzea. Adibidez, ile zuridun gizonak-eta emakumeak- ilea bere hartan uztea aholkatzen diet askotan. Produktu asko daude ile zuriak zaintzeko, horregatik askotan erosoagoa da naturaltasuna tintea baino.

Asko aldatu da moda gizonetzkoen dagokionez? ☉ Gizonetzkoen moda bai aldatu dela. Nik duela 30 urte zabaldu nuen gizonetzkoen ileapaindegia eta hasieran ez zen ongi ikusten. Lehenago gizonetzkoak ez ziren askorik zaintzen. Gaur egun, aldiz, badakite zer nahi duten, mutil gazteek ez dute arazorik modara joateko.

Orainsu Zinemaldia izan da Donostian. Aktore famatuak nolako orrazkerak eskatzen dituzte? ☉ Famatuenean oso argi daukate nolako orrazkerak nahi dituzten eta hona datozenean ez dute look aldaketarik egiten. Anekdotak bat daukat. Cyrille Sheppard aktorearena. Bere managerrak deitu zigun, ile tinte berezi bat eskatzen, eta zer nolako orrazkera nahi zuen esanez. Egia esan kolore hori oso arrunta zen.

berria
Euskaldunok behar dugun
berria


Sucesoras Julia Learra
EUSKAL JANTZIAK - MOZORROAK
Juan Baulista Zabala, 3 Tel.: 94 460 04 62 48991 ALGORTA

Feima
TELLETXE, 9 (ALGORTA) TEL. 94 4607598

MJE **maría jesús echeverría** **ILEAPAINDEGIA**
Foruak, 1 • ☉ 943 42 81 37 • Faxe 943 42 99 67 • 20005 DONOSTIA
Kolon pasealekua, 2 • ☉ 943 63 87 48 • 20302 IRUN
Atxukarro dk., 7 • ☉ 943 415 88 41 • 48011 BILBO
E-mail: mjecheverria@euskalnet.net

moda osagarriak

IRATXO
LENTZERIA, KORTSETERIA
 Komentu kalea, 15 • Tel.: 94 681 69 73 • 48200 DURANGO

 Emakume, hona hemen zure arropa denda
lamia
 Luis Urrangoetxea, 5
 ZORNOTZA

 **Begoña**
 Ileanpaindegia
 • Estetika • Solariuma • Ile luzagarriak
 Komentu kalea, 12-1. ezk. • Tel.: 94 681 63 75 • 48200 DURANGO (Bizkaia)

 **ADELA GARTEIZ**
 Artekale, 14
 Tel./Faxa: 94 625 08 31
 48300 GERNIKA-LUMO
 Artekale, 4
 Tel./Faxa: 94 625 24 70
 48300 GERNIKA-LUMO

 **NXM**
 Kale Nagusia, 10
 © 943 30 06 40
HELDU ETA GAZTE ARROPA
 ANDOAIN

Pepi Lentzeria
BARRUKO ARROPA AUKERAN
 Eskolak kalea, 6 • 20140 ANDOAIN • Tel.: 943 590 899

 **Relojería y Joyería**
GONZALO MANCISIDOR
 OMEGA SECTOR SPORT WATCHES
 LONGINES
 ZENITH
 Andra Mari, 9 - 48200 DURANGO
 94 681 06 28

BLIS BLOCH

 Arrandegi kalea, 4 eta 12 - DONOSTIA



TXANOAK ☉ Kolore ilun edo neutroetakoak. Estilo eta kolorean, udazkenko jantziak osatuko dituzte. Biseradunak, hegaldunak, feldro edo artilezkoak, gizonetzkoenen itxurakoak. Puntuzko eta larizko txanoek belarriak hotzetik babestuko dituzte eta hirira egokitutako kirol estilokoak izango dira.




BITXIAK ☉ Lepoko handiak erabiliko dira, janzkiaren parte izango balira bezala, eta bularralde osoa apainduko dute. Pultserak eskularrien gainetik jarriko dira. Malla itxurako gerrikoak aldaketara egokituko dira. Bitxiak handiak izango dira oro har, zilar, kristal, perla edo brillantedunak.

Jantzien janzkiak

Hainbat estilo eta denetarik ikusiko dugu udazken-neguetan



GALTZERDIAK ☉ Orkatilarainoak, belaur azpirainoak eta izterrerainoak. Kolore ezberdinak izango dituzte, baina ez dira izango estanpatuak. Berezienak, orkatilaraino heltzen diren puntu lodizkoak, takoi altuko zapatekin konbinatuko direnak.




**ESKULARRU-
AK** ☉ Eskuak berotzeko erabiliko dira, iaz ikusi genituen eskularru zuluak ez bezala, baina apaingari gisa ere balio izango dute. Tamaina, ehun eta kolore askotakoak, estilo guztietara moldatuko dira.

 **KIDE**
 Ileanpaindegia
 Zutikako Solariuma
 Tel.: 943 83 05 61
 Zigordia kalea, 44-46 • ZARAUTZ

Sastrea Pedra zerbitzu
 berri bat, bisitari gure
 web orri eta erantzun
 eskusiboa eta personala
 emango dizugu

 **Sastrea PEDRO**
 Santutxu, 46
 Tel.: 94 433 39 35
 Santutxu, 37
 Tel.: 94 412 87 14
BILBO
<http://www.bilbaoweb.com/Spedro>

 **"MAHUKA"**
 ARROPA DENDA
 Etxebeste, 3 • 20170 USURBIL
 Tel.: 943 36 11 06



OINETAKOAK ☉

Takoi estuko zapatak eta plataformadunak. Botak, hankara egokitutakoak: tamaina guztietakoak izango dira, asko belauetik gorainokoak. Helburua hankak estaltzea izango da, oso minigona laburrak osatzeko.

BETAURREKOAK ☉ Askotan misterioa eta askatasuna adierazteko balio izango dute, beren benetako funtzioaren kaltean. Beira handi eta ilunak; askotan beltzak izango dira eta begiak ezkutatu dituzte. Egitura handikoak, askotan *retro* itxura izango dute, eta emakumezkoari itxura misteriotsua emango diote.

GERRIKOAK ☉



Zabalak eta aldaketara egokituak. Gerria estutzeko funtzioa galduko dute, baina bestelakoak izango dituzte, poltsikoekin. Forma bitxiak izango dituzte eta metalezko apaingarriz jantziko dira.



GORBATAK ☉ Gizonezkoenen itxurako janzkiekin batera erabiliko direnak kolore ilunekoak izango dira, zeta edo belusezkoak. Gazteenentzat, aldiz, hainbat koloretakoak, marradunak edo koadrodunak; kamisetekin erabiliko dira, alkandorarik gabe. Oro har, estutu gabe jantziko dira, lepotik zintzilik.

POLTSAK ☉

Handiak, laukizuzen formakoak eta helduleku bikoitzekoak, eskutik zintzilik eramatekoak. Krokodilo larruzkoak, antezkoak, bernizezkoak eta ilezkoak izango dira estilo nagusiak. Tamaina txikiro diru zorro estilokoak edo gerrikora lotuta eramaten direnetakoak eta modelo informaletako poltsa handiak izango dira boladan.



ARROPA ETA
DEKORAZIO
NAUTIKOA

E N B A T A

Nagusia, 14 • Tel./Faxa: 943 42 47 97 • 20003 DONOSTIA

OLANO

**GIZONEZKOEN
JANTZIAK**

Kale Nagusia, 12 Tel.: 943 42 71 54 DONOSTIA

Balleneros

arropa denda

Baleazaleak 10 - Tel.: 943 47 20 89 - 20011 Donostia

KIROLA **ZUBELDIA** MODA

Isabel II, 1 Tel.: 943 45 91 08 DONOSTIA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

IZAR

LANTEGI PROPIOA

Txalpagillene plaza, 5 (Matia izk.) - Tel.: 943 31 22 10 - 20008 DONOSTIA

IÑAKI SAGARZAZU ILEAPAINDEGIA
INMA LURRINDEGIA - EDERGINTZA

Hernani, 5 - 20004 DONOSTIA - Tel.: 943 42 77 06

Especialistak puntako bakero-marketan

Goienkale, 7 Landako etor., 2
Tel.: 94 681 14 83 (Bus geltokiaren alboan)
DURANGO tel.: 94 620 40 54
DURANGO

UNION recycling

ARROPA BERRIA 2. ESKUKOA

LARRUA / ANTEA
Somera kalea, 18. BILBAO
Tel.: 944 156 718

Zure Gazte arropa denda **PIERCING txokoa**

NAIZ

MADALENA 3 - tel. 943 524 282 - 20100 OREETA

Atsegin Sentsualak

Neska eta mutilentzako berruko arropa
Sexualitate eta masaje liburuak
Literatura erotikoa • Prozerbagailuak • Omgarriak

Zu Zeru

Plaza de la Reina, 6 • Bilbo • Astelehenetik Osteguerainetik 9:00-21:00

urbelaitz

Loiola, 3
Peñaflorida, 5 - ☎ 943 42 70 68
Hernani, 21 - ☎ 943 43 02 10
Hernani, 29 - ☎ 943 42 11 65
Txurruka, 7 - ☎ 943 42 19 44

DONOSTIA

moda neurri handiko jantziak



PERTSONA gizenek, gaur egun, hainbat aukera dituzte arropa erosteko. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Moda handia

Neurri handiko jantzien dendak ugaldu egin dira azken urteotan

Modari buruz hitz egitean burura etortzen zaigun lehenengo gauza, beharbada, desfilean ikusi ohi ditugun modeloak dira, zein baino zein argalago, soinean dituzten jantziak erakutsiz. Haiek ikusita, pentsa daiteke egungo gizartea horrelakoez osatua dagoela, baina errealitatea bestelakoa da. Jende lodi edo potoloa existitzen da, nahiz eta moda aldizkariak behin baino gehiagotan errealitate hori ezkutatu nahi izaten duten.

Neurri handiko jantzien dendak ugaldu egin dira azken urteotan; hori dela eta, gaur egun pertsona lodiek hainbat aukera dituzte arropak erosteko orduan. Boom horren arrazoia Nere Zugastiren dendan argitu digute; haren esanetan, duela urte batzuk emakume gehienek bazekiten josten eta norberak egiten zituen jantziak. Gaur egun, aldiz, emakumearen bizimodua erabat aldatu da, eta arropak egiteko denborarik ez duenez, erosi egin behar izaten ditu. Horregaitik, behar horri erantzuteko hainbat denda bereizi zabaldu dira azkenengo urteetan.

Moda-modan dagoen arropa

Joerei dagokienez, esan beharra dago gainerako modarekin bat datorrela neurri handikoa. Nolabait esatearren, udazkeneguru hauetan nagusituko diren

tendentziak ikusiko dira era honetako dendetan ere. Lodiago egoteak, beraz, ez du zertan modatik kanpo egotea ekarri, jantziak egokituta baitaude, betiere emakumeen eta gizonen xarma hobeto erakusteko.

XARMA

Lodiago egoteak ez du zertan modatik kanpo egotea ekarri, betiere emakumeen eta gizonen xarma hobeto erakusteko

ESTILOAK

Jendeak kontrakoa pentsatu arren, estilo guztietako jantziak egiten dituzte neurri handiko dendetan

Gainera, jendeak kontrakoa pentsatu arren, estilo guztietako jantziak egiten dira neurri handietan; gazteek nahiz nagusiek, festa dotoreenentarako zein kirola egiteko janzkietan aukera zabala aurkitu dezakete, nahiz eta zailtasun handiagoak izan eta prezioek ere igotzeko joera eduki mota honetako arropetan.

skunkfunk

SKFK produktuak salmenta toki hauetan aurki ditzakezu:

Altsasu	Larka	Bilbo	Skunkfunk	Lasarte	Zunbeltz
Arrasate	Totem	Donostia	Dam	Legazpi	Obe Dek
Azkoiti	Arropa-2	Durango	Kotxera	Leitza	Kapritxo
Azpeiti	Heaven	Eibar	Zero	Oiartzun	Baobab
Barañain	Sandalo		No Comment	Ondarru	Zibot
Beasain	Arropa-2	Elgoibar	CO2	Oñati	Zorbas
Bera	Martitzak	Ermua	Heaven	Markina	Byblos
Bergara	Ninfa	Errenteri	Naiz	Plentzia	Pirata Matxin
	Totem	Gazteiz	Sartu	Tolosa	Zunbeltz
Bermio	Bakas Lokas	Gernika	Parafernalia	Urretxu	Xake
Biarritz	Komodo	Iruña	948	Zarautz	Tribux
			Skanner		Vulcano
			Elektra		

2003-04 Negu kolekzioa

www.skunkfunk.com

funk wear